

NAFARROK  
*garaile!*  
iahora!

# HAUTESKUNDE PROGRAMA

Nafarroako Parlamentua 2015



# SARRERA

Hurrengo orrialdeetan topatuko duzuna aldaketarako ezinbesteko tresna da, prozesu luze baten ostean ehunka Nafarrek eta eragilek egindako proposamenen bilduma, Nafarroa etorkizun hobe batera eramateko tresna.

Neurri hauek definitzeko eta sortzeko ehunka bilera egin ditugu, milaka ekarpen jaso ditugu, eta nafarron aldaketa nahia eta gogoia handiak direla erakusten dute. Aldaketa anitza eskatzen dute hiritarrek Nafarroa eta nafarrok garaile suertatzeko; bazterketarik gabeko aldaketa, ustelkeria baztertzen duena, gardentasunean oinarrituta politika egiteko beste era batean sinesten duena.

EH Bildun argi daukagu egoera ekonomiko honen ondorio latzak gainditzeko politikan sakondu behar dugula, baina politika egiteko era desberdin batean. Hiritarrek, herri eragileek egiten duten politika, eguneroko politika, erregimenaren erasoak pairatzen dituztenek eguneroko borrokarekin egiten duten politika, langileon politika, emakumeon politika, gazteon politika, nafar guztion politika. Politika egiteko era desberdin horren adibidea dugu programa hau, nafarron lanez eta ekarpenez osatua.

Eta politika egiteko era desberdin horrek aldaketa ekarriko du Nafarroan, aldaketa anitza eta ezkerrekoa. Nafarroak, nafarrok behar dugun haize freskoa, haize berria, hurrengo orrialdeetatik aterako da. Aldaketarako tresna da EH Bilduren programa, nafarrok egin duguna. Nafarroaren etorkizuna hobetzeko aldaketa beharrezkoa eta posiblea da.

Nafarrok garaile. ¡Ahora!



# AURKIBIDEA

SARRERA .....3

## NAFARROA GORRIA

1. GIZARTE POLITIKA.....7
2. OSASUNGINTZA.....17
3. OGASUNA .....31
4. ENPLEGUA.....41
5. TOKIKO GARAPEN  
SOZIOEKONOMIKOA.....49
6. INDUSTRIA.....59
7. MERKATARITZA.....73
8. TURISMOA.....77

## NAFARROA BERDEA

9. NEKAZARITZA ETA  
ABELTZAINZA .....83
10. BASO POLITIKA .....93
11. LURRALD ANTOLAKETA .....99
12. INGURUMENA.....105

## NAFARROA MOREA

13. POLITIKA FEMINISTA .....109

## KOLOREZKO NAFARROA

14. HIZKUNTZA POLITIKA .....117
15. HEZKUNTZA.....123
16. KULTURA .....133
17. KIROLA.....143
18. GAZTERIA.....151
19. HELDUAK.....159
20. KULTURA ETA  
JATORRI ANIZTASUNA .....163
21. ANIZTASUN SEXUALA .....171
22. LANKIDETZA.....177

## NAFARROA GARDENA

23. PARTE HARTZEA ETA  
GARDENTASUNA.....181
24. HERRITARREN ASKATASUNAK .....187
25. GATAZKAREN KONPONBIDEA.....197
26. TOKIKO ADMINISTRAZIOA .....203



# 1 GIZARTE POLITIKA



# GIZARTE POLITIKA

## IDEIA NAGUSIAK

1. Gizarte zerbitzuen sistema publiko, unibertsal eta doakoa sortzea.
2. Krisi garai honetan pertsonak dira lehentasuna eta, beraz, oinarrizko beharrak duintasunez bete ahal izateko baliabide nahikoak ziurtatu behar zaizkie herritar guzti-guztiei, honako arlo hauetan: hezkuntza, osasuna, etxebizitza, enplegua, elikadura, gutxieneko diru sarrerak... Hau da, bizitza duina bermatu behar zaie pertsona guztiei.
3. Gizarte politikak eraginkortasunez bermatu behar dute pertsona guztiak pobrezia eta gizarte bazterketaren menpe ez bizitzeko duten eskubidea. Halaber, pertsonen duintasuna eta giza garapena sustatu behar dituzte.

## ONARRI IDEOLOGIKOAK

Gizarte politikaren helburua pertsonak gizarteko desoreken eta berdintasunik ezaren ondorioetatik babestea da. Horregatik, gizarte zerbitzuak gizarte politika garatzeko ezinbesteko tresna dira.

Gizarte zerbitzuak gure gizartean dauden desberdintasunak eta desorekak desagerrarazten joateko giltzarrietako bat dira. Ongizate Estatuaren laugarren zutabea osatzen dute.

Gizarte zerbitzuak pertsona guztientzakoak dira, izaera unibertsala dute eta honako arlo hauetan jarduten dute: prebentzioa, laguntza, gizartratzea eta gizarte sustapena.

Gizarte zerbitzuek beren izaera unibertsala gal ez dezaten, haien gaineko eskumena publikoa izan behar da. Estatuak bermatu behar dizkie zerbitzu horiek pertsona guztiei. Hala ere, haien garapenerako ezinbestekoa da gizartearen parte-hartzea eta ongizatea sustatzen duten nahiz desberdintasunak murrizteko lan egiten duten beste sistema batzuekiko koordinazioa (osasuna, hezkuntza, enplegua...). Gizartearen parte-hartzea eta beste sistema batzuekiko koordinazioa prestakuntza prozesuen bidez eta horretarako araudiak garatuz sustatu eta bermatu behar dira.

Gizarte zerbitzuek dagokien lekua bete behar dute bere herritarren ongizatea bermatu nahi duen Estatu batean. Horrenbestez, gizarte zerbitzuak egonkorak izan daitezen eta beren lana era egokian egin dezaten beharrezkoak diren aurrekontu zuzkidurak eta partidak ziurtatu behar dira. Gizarte zerbitzuen arloko gastu ekonomikoa gizarteko desberdintasunek eta desorekek eragiten dituzten kostu ekonomiko eta sozialak gutxitzeko inbertsioa da.

Era berean, pobrezia eta gizarte bazterketaren kontra borrokatzeko estrategia espezifikoak garatu behar dira, batez ere krisi garai honetan. Izan ere, krisiaren ondorioz pobrezia eta babesgabetasuna gero eta handiagoak dira, eta jende askori oso zaila zaie pertsona gisa erabat garatzea eta gizartean parte hartzea. Pobrezia hazkunde etengabea nabarmenki hondatzen ari da gizartearen kohesioa eta garapena.

Gorago esan dugun bezala, gizarte zerbitzuen arloko ardurua publikoa da. Administrazioak erabakitzen du noren esku utzi berak zuzenean eskaini ezin dituen gizarte zerbitzuen kudeaketa, exekuzioa eta garapena.

Gaur egun badaude Administrazioak zuzenean kudeatzen ez dituen gizarte zerbitzu batzuk. Horregatik, kudeaketa



publiko zuzena posible ez den bitartean, benetan irabazi asmorik gabekoak direla frogatzen duten erakundeen esku utzi behar dira. Erakunde horiek baldintza zehatz batzuk bete behar dituzte, hala nola haien helburua pertsonarik ahulenen eskubideen alde lan egitea dela frogatzea, desberdintasunak gainditzeko konpromisoa edukitzea eta gizartegintzan espezializatuta egotea. Erakunde horiek Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektorea osatzen dute eta bokazio merkantilista edo paternalista orotik urrun egon behar dira.

Honako hauek dira Sektorearen helburuetako batzuk: gobernuekiko interlokuzioa, azterketa kritikoa eta parte-hartze aktiboa politika publikoen eraikuntzan eta garapenean. Irabazi asmorik gabeko erakundeen helburu nagusiak pertsonen sustapena eta oinarriko eskubideen defentsa dira. Ezaugarri horiek bat datoz Estatuak gizarte politikaren arloan duen ardurarekin eta, horregatik, funtsezkoa da koordinaziorako, komunikaziorako eta elkarlanerako bideak artikulatzea, Estatuaren eta erakunde horien arteko harreman egokia ziurtatzeko. Halaber, kudeaketa ereduaren artean kontuan hartu behar dira auzokideen komunitateek egiten dituzten jarduerak. Jarduera horiek osagarriak izango dira Administrazioak bete ezin dituen eremuetan.

Bestetik, kontuan hartu behar da haurrak biztanleriaren sektorerik ahulenetako bat direla, batez ere gero eta hedatuago dagoen haurren pobreziaurrean. Horregatik, gizarte zerbitzuek haurrak babesteko sistemak garatuko dituzte, haurren eta nerabeen eskubide indibidualak, kolektiboak eta sozialak bermatuz. Halaber, haurrei, nerabeei eta haien familiei laguntzeko prebentzio politikak bultzatuko dira, gizarteko desberdintasunak gainditzera bideratuak. Izan ere, pobrezia haurren babesgabetasuna eragiten duen faktore nagusia da, eta Nazio Batuen Erakundeko Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan jasotako eskubideak bermatzea eragozten duen arrazoi nagusia. Eskubide horien artean, azpimarratzekoak dira beharrik oinarritzkoenak betetzeko eskubidea eta pobrezia hezkuntzaren, kulturaren, osasunaren, kirolaren edo aisialdiaren arloan eragiten duen gizarte desabantaila gainditzeko eskubidea.

Haur politiken arloan hau izango da gure jarduera gidatuko duen ideia nagusia: arlo horretako baliabide nagusiak proiektu hertsatzaileak eta kontrol neurriak finantzatzera bideratzeari utziko zaio eta gizarte hezkuntzan esku hartzeari emango zaio lehentasuna. Horrekin batera, hezkuntza sistema publikoa eta osasun zerbitzu publikoak indartuko dira, auzokideen komunitateek bideratutako prebentzio proiektuak sustatu eta garatuko dira, eta laguntza ekonomikoaren nahiz hezkuntzarako laguntzaren bidez familien oinarriko beharrak bermatuko dituzten gizarte zerbitzuak bultzatuko dira.

Gizarteko beste sektore ahulenetako bat mendekotasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak osatzen dute. Horren aurrean, funtsezkoa da haien berezitasunak eta beharrak aintzat hartuko dituen politika sozial bat garatzea, ikuspegi integratzaile batetik eta ez asistentzialismo hutsetik.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

1. Gizarte zerbitzuen zerbitzu publiko eta unibertsala.
2. Zerbitzuen unibertsaltasunean eta doakotasunean aurrera egiteko neurriak hartzea.
3. Berrordainketa kentzea. Berrordainketa arian-arian murriztea, minimo salbuetsiak igoaraziz.
4. Gizarte Politiketako Departamentuaren egonkortasun instituzionala eta aurrekontukoa, diru zuzkidura nahikoa emanaz eta egiturako kargu kopurua murriztuz (karguetara merezimendu bidez iritsiko da).
5. Gizarte zerbitzuen, lehen mailako arreta zerbitzuen eta zerbitzu espezializatuen mapa berri bat finkatzea, lurralde maila guztietan hazkunde, hedatze eta hobetze helburuak ezarri eta parte-hartzean eta koordinazioan oinarrituta.

6. Zerbitzuei lehenetsuna ematea, prestazioen gainera. Gaur egungo prestazioak aztertzea eta arian-arian haien orde zerbiztuak ezartzea. Prestazioak ezinbestekoa suertatzen den gutxienera murriztuko dira, zerbitzuak eskaintzea ezinezkoa den egoerarako.
7. Unibertsitate Publikoarekin lankidetzara iraukorreko hitzarmenak egitea, honako helburu hauekin: gizarteko beharrak, arazoak eta fenomenoak aztertzeko eta antzemateko sistema bat ezartzea, zerbitzuen kalitatea ebaluatzea, zerbitzuen segimendua eta ikuskerak egitea, hobekuntzak proposatzea... Gizartegintzan lan egiten duten profesionalak era aktiboan parte hartuko dute zeregin horietan.
8. Gizarte zerbitzuak bermatzea Nafarroan bizi diren pertsona guztiei, inor baztertu gabe.
9. Eredu deszentralizatua, komunitarioa eta gertukoa sustatzea.
10. Sustapen eta prebentzio politikei balioa ematea.
11. Kalitatearen aldeko apustua egitea.
12. Honako lege hauetan aldaketak egitea: Gizarte Zerbitzuen Legea, Kontratazioen Legea, Toki Administrazioaren Finantziario Legea, gizarte zerbitzuen arloko Baimen eta Azpiegituri buruzko Foru Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Finantziario Legea, Haurren eta Nerabeen Sustapenerako, Arretarako eta Babeserako Legea, Boluntariotzaren Legea.
13. Nafarroako Gobernuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak finantzatzea, udalen parte-hartzearekin.
14. Gizarte Zerbitzuen Karteraren izaera asistentziala eta individualizatzailea gaitzea eta gizarteko behar eta errealitateetara egokitzea.
15. Zerbitzuen karteran jasota dauden prestazio guztiak bermatzea.
16. Gizarte Zerbitzuen Karteran programa berriak txertatzea, honako arlo hauei lotuak: prebentzioa, lan komunitarioa, taldekako esku-hartzea eta gizarte nahiz familia laguntza.
17. Oinarrizko gizarte zerbitzuen gizarte lanari protagonismo handiagoa ematea eta haien burokratizazioa ekiditea.
18. Gizarte zerbitzuen arloko aurrekontu murrizketak eragozteko legea.
19. Gizarte zerbitzuen arloko gastuaren ehuneko Europakoarekin parekatzea.
20. BPGan gizarte zerbitzuetarako ehuneko bat ezartzea, urteko aurrekontuetan errespetatu beharrekoa.
21. Finantziario ehunekoak beste era batera banatzea Nafarroako Gobernuaren eta toki erakundearen artean. Finantziarioak lehen mailako arretarako gizarte zerbitzuetako programen, zerbitzuen eta prestazioen planifikazio eta kudeaketa deszentralizatua bermatu behar du.
22. Enplegua sortzen duten zerbitzu eta programa guztiak zabaltzea eta diruz laguntzea.
23. Inor baztertu gabe, gizartearen parte-hartzea indartzea gizarte zerbitzuen politikak eta ekintzak planifikatzeko, garatzeko, ebaluatzeko, kudeatzeko eta erabakitzeko orduan.
24. Gizartearen parte-hartzea artikulatzea maila guztietan, hala lurralde eremuetan nola zentro eta zerbitzuetan,

haien kudeaketan erantzunkidetasuna eta erabakitze autonomoa ahalbidetuko dituzten tresnak eta bitartekoak emanaz.

25. Toki erakundeek gizarte zerbitzuen hobekuntzan parte hartzea.
26. Erabiltzaileen protagonismoa, interlokuzioa eta partaidetza sustatzea gizarte zerbitzuak hobetzeko.
27. Eztabaida teknikorako, kontsultarako eta elkarlanerako guneak sortzea gizarte zerbitzuen garapenean parte hartzen duten eragile guztien artean, Unibertsitate Publikoaren eskutik. Nafarroako Gobernuaren eta oinarrizko zerbitzuen arteko negoziazioa.
28. Lan profesionalaren ikuskeraren sustatzea, zerbitzuen kalitatea hobetzeko tresna gisa.
29. Sektore publikoaren eta hitzartuaren arteko soldata tartea %20tik gorakoa ez izateko irizpideak ezartzea.
30. Profesionalen arteko berdintasuna tituluen, funtzioen eta zereginen arabera.
31. Zentro eta gizarte zerbitzuetako arreta ratioak hobetzeko dekretu bat onartzea.
32. Sare lana eta zerbitzuen arteko koordinazioa sustatzea.
33. Teknologien erabilera sustatzea, lana errazteko.
34. Erabiltzaileen eta profesionalen hizkuntza eskubideak errespetatzea (euskarazko zirkuituak ziurtatzea toki eremuaren eta foru eremuaren artean nahiz zerbitzuen artean).
35. Prestakuntza etengabeko planak onartzea gizarte zerbitzuetan lan egiten duten sektore profesional guztientzat, haien iritzia aintzat hartuz beharrak antzemateko eta prestakuntza programak zehazteko orduan.
36. Nafarroako Gobernuaren inplikazio aktiboa sektorekako lan hitzarmenen sustapenean, batez ere halakorik ez duten gizarte zerbitzuetan, hala nola gizartegintzan eta mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko zerbitzuetan. Era berean, ezgaituentzako zentroetako gaur egungo hitzarmena zabaltzea, buru osasunarekin zerikusia duten zentroak eta zerbitzuak ere barne har ditzan (errehabilitazio psikosozialerako zentroak, hezkuntzako esku-hartzea, tutoretzapeko etxebizitzak...).

## MEDEKOTASUNA DUTEN PERTSONEN AUTONOMIA PERTSONALA ETA BERAIENTZAKO ARRETA HOBETZEA

37. Erabilgarritasun unibertsala.
38. Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentzia birplanteatzea eta arian-arian zaintza unibertsalen Zerbitzu Publikoa sortzea, bizitza zaintzarekin eta iraunaraztearekin zerikusia duen guztiari arlo publikotik erantzuteko.
39. Laguntza teknologikoetarako eskubidea aitortzea.
40. Autonomia sustatzeko plan bat onartzea.
41. Parte-hartze komunitarioa sustatzea, bereziki adinekoena eta ezgaitasunen bat duten pertsonena: hirigintzaren eta hiriko espazioen diseinuan parte hartuz, jarduera sozial eta kulturaletan esku hartzeko aukera ziurtatuz eta autonomiaz funtzionatzeko gaitasuna indartzen duten baliabideak eskuratzea ahalbidetuko dieten ekintzak sustatuz.

42. Gizarte zerbitzuetako profil profesionaletan arreta pertsonalaren figura txertatzea eta arautzea.
43. Zaintza lanak etxe barruko eremura mugaturik ez geratzeko eta gizon eta emakumeen artean berdintasunez banatzeko erraztasunak ematea.
44. Baliabideak erabiltzeko berdintasuna bermatuko duen garraio egokitua.
45. Tutoretzapeko etxebizitzak, etxebizitza komunitarioak edota egoitza alternatiboak.
46. Mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko politika propio bat defendatzea eta sustatzea: mendekotasuna dutenei laguntzeko lege propioa.
47. Prestazio ekonomikoen gaitetik zerbitzuak lehenestea eta ahalbide ekonomikoetara egokitzea. Zerbitzuen arloan dagoen eskaintza urria gaitzea, zaintzak emakumeen gain soilik gera ez daitezela.
48. Eragile ezberdinen parte-hartzea sustatzea, hala instituzioetan nola gizartean eta elkarteetan.
49. Ohiko familia eta gizarte ingurunean kalitatez bizitzen jarraitu ahal izateko aukera bermatzea.
50. Egoitzei dagokienez, bizitzeko egokiak diren eta komunitateari irekita dauden inguruneak sustatzea, kalitatezko arreta eskaintzeaz gain.
51. Zein zerbitzu mota behar diren zehaztea. Egonaldi labur eta ertaineko egoitza soziosanitarioen beharra aztertzea eta gaur egungo egoitzak egokitzea.
52. Mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko zerbitzuak deszentralizatzea eta eremutan banatzea, hurbileko zerbitzuak, egoitzetakoak eta ekimen komunitarioak saretzea eta kasuen tratamendurako erreferentziako pertsona jartzea (informazioa, aholkularitza, orientazioa, dinamizazioa), beharrei eraginkortasun handiagoz erantzuteko.
53. Zaintzaile informalei beren beharrak baloratzeko eskubidea aitortzea, erabiltzailearen beharrak gorabehera, eta horrelako zaintzaileei laguntzeko zerbitzuak garatzea: laguntza psikologikoa eta teknikoa, prestakuntza, atsedeen hartzeko programak...
54. Ohiko familia eta gizarte ingurunean bizitzen jarraitzea ahalbidetzen duten zerbitzu publikoak garatzea. Horretarako, etxez etxeko laguntza zerbitzua indartu behar da (ratioak, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak), Laguntza Zerbitzu Integrala izan dadin, prebentzioa lehenetsiz eta honako arlo hauek handituz: laguntzaren intentsitatea, prestazio eskaintza, figura profesionalak (fisioterapia, arreta pertsonala...) eta ordutegia.
55. Prestazio ekonomikoak aztertzea: tramitazioa arintzea eta ebazteko epeak laburtzea, eguneko zerbitzuekiko bateragarritasuna zabaltzea, kopuruak hobetzea eta zerbitzu eskaintzaren garapenaren eta gehikuntzaren arabera egokitzea.
56. Prestazio ekonomikoen bidez finantzatutako laguntzaren kalitatea ikuskatzeko mekanismoak ezartzea.
57. Adinekoei eta ezgaituei etxean bertan laguntza ematen dieten pertsonen erregularizazioa eta kontratazioa sustatzea eta zerbitzuetan txertatzeko neurriak hartzea.
58. Egoitzak eta eguneko zentroak udalerrri/eskualde mailako baliabide eta zerbitzu sarean txertatzea:
  - baliabide bakoitzak eskaini ditzakeen zerbitzuak hobeto aprobetxatzea. Egoitzei dagokienez, zerbitzuak

honako hauek izan daitezke: ostalaritza, ikuztegia, fisioterapia, animazio soziokulturala...

- egoitzek haien inguruan egiten diren jarduerak aprobetxatu ahal izatea, elkartruke sozial eta komunitarioa sustatuz. Horri dagokionez, gizarte zerbitzuen mankomunitateen arteko koordinazioa nahiz lurralde guztietan txertaturik egon beharko luketen gizarte zerbitzuen zentroak izango dira baliabideen optimizazioa koordinatzeko eta dinamizatzeko guneak.

59. Mendeko pertsonen laguntza jasotzeko duten eskubidea merkantilizaziotik babesteko erabakiak hartzea.

- Egoitzen bidezko laguntzaren partzuergo publiko bat sortzea, titulartasun publikoko egoitza guztiei kudeaketa publikoa egiten laguntzeko, bereziki udal egoitzei. Haien eskumenak honako hauek izango lirateke, besteak beste: beharrak aztertzea; planak eta proiektuak egitea; zerbitzua egin ahal izateko beharrezkoak liratekeen egokitze obrak eta instalazioak zehaztea edota, hala badagokio, gauzatzea.

- Gaur egun pribatizatuta edo hitzartuta dauden zerbitzuen kudeaketa publikoa berreskuratzen joateko plan bat egitea.

- Inbertsio publikoen plan bat egitea. Antzemandako beharrak oinarritzat hartuz, planaren helburu nagusia hau izango litzateke: gaur egungo egoitzak eraldatzea, elkarbizitzarako gune egokiagoak izan daitezen eta bertan bizi diren pertsonen itzaropen eta nahiei hobeto erantzun diezaien.

- Arkitektura elementuetan esku hartzea, erabilgarritasun unibertsaleko irizpideak inplementatzea, banakako gela kopurua handitzea, ingurunearekiko interakzioa eragozten duten oztopoak kentzea, espazio zabalagoak egitea eta adinekoei jardueren eta bizitza sozialaren arloan aukera gehiago emango dizkieten espazio berriak sortzea.

- Egoitzek norberaren bizitza kudeatzeko gaitasunak eta aukerak ahalik eta gehien garatzen lagundu behar diete bertan bizi diren pertsonen, horretarako behar duten laguntza guztia emanez.

60. Eguneko zentroen eskaintza publikoa handitzea.

## POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN AURKAKO BORROKA

61. Egoitzek bete behar dituzten baldintzak arautuko dituen dekretu berri bat onartzea: ratioak, zerbitzuak...

62. Osasungintzarekiko koordinazioa ezartzea osasun laguntza behar duten mendekotasun zerbitzuetarako.

63. Pobreziaren eta gizarte bazterketaren aurka borrokatzeko plan bat egitea eta gauzatzea.

64. Gizartean txertatzen laguntzeko programa marko bat ezartzea Lehen Mailako Arretan (laguntze soziala, gizartean eta lanean txertatzeko akordioa, esku-hartze komunitarioa, parte-hartzea...).

65. Gizartean txertatzen laguntzeko lantalde profesionalak indartzea eta egonkortzea sare publikoan.

66. Enplegu zerbitzuekiko lotura sakontzea eta indartzea: prestakuntza, zailtasunik handienak dituzten sektoreak aktibatzea eta gizartean nahiz lanean txertatzea:

- EDAREN programa abaguneko langabezia dauden pertsonen zuzenduta dago eta Nafarroako Enplegu Zerbitzutik kudeatu eta finantzatu behar da. Orain arte Gizarte Enpleguko diru partidetatik kendu da eta amaiera eman behar zaio horri.

- Gizarte Enplegu Babestua handitzea, tokian tokiko beharren arabera.
- Enplegu komunitarioa edo lan esparruak gizarte bazterketako egoera larrian dauden eta gizartean nahiz lanean txertatzeko inolako aukerarik ez duten pertsonentzat, laguntzaileekin eta gutxienez urtebeteko kontratazio etengabeekin, kotizazioak sortzeko eta langabeziako prestazioak jasotzeko eskubidea lortzeko.

67. Gizarteratze Errentari buruzko gaur egungo legea aldatzea eta urratutako eskubideak berreskuratzea:

- Oinarrizko Errenta 18 urtetik aurrera eta familia-kargak dituzten edo emantzipatuta dauden adingabeentzat.
- Emantzipazio programak garatzea.
- Bizilekua akreditatzeko denbora laburtzea: urte bat une honetan edo iraganean.
- Errenta ematea onartzeko epea laburtzea. Gehienez ere hilabete batekoa izango da.
- Gizarteratze Errentaren zenbatekoa igotzea, lanbide arteko gutxieneko soldatara egokitzea.
- Enplegurik edo baliabide ekonomiko nahikorik ez dagoen bitartean jasoko dela bermatzea. Gabealdia kentzea.

68. Oinarrizko Errenta nahikoa bermatzea, lanbide arteko gutxieneko soldatarekin berdinduz.

69. Pentsiodunen gutxieneko pentsioa Oinarrizko Errentaren baliokidea izango dela bermatzea.

70. Oinarrizko errenta unibertsalari buruzko eztabaida irekitzea.

71. Beste prestazio osagarri batzuk:

- gizarteko beharretara egokitutako etxebizitza duina lortzeko erraztasunak ematea, alokairu soziala sustatuz edo, hori ezinezkoa bada, etxebizitzarako prestazio osagarriak emanez.
- erabiltzaileen ahalmenaren araberako banku abalak lortzeko erraztasunak ematea.
- oinarrizko dotazioetarako, hornidurarako eta bestelako beharretarako laguntza bereziak handitzea.
- etxegabeei laguntzeko sare bat ziurtatzea.

## HAURRAK, NERABEAK ETA FAMILIAK

72. Gizarte bazterketako arriskuan dauden haurrak babesteko plan bat egitea, desberdintasunak eta haurren nahiz nerabeen gizarte desabantaila gainditzera bideratua.

73. Arlo horrekin zerikusia duten politika guztiek kontuan hartuko dute haurrak eta nerabeak eskubide individual eta sozial guztien jabe diren subjektuak eta herritarrak direla. Horrenbestez, ikuspegi paternalistak edo protekzionistegiak gainditzen ahaleginduko dira.

74. Haurrei eta nerabeei laguntzeko tarteko lantaldeak sendotzea gizarte zerbitzuen zentroetan, kudeaketa publikoarekin.

75. Haurrekin eta nerabeekin eraman behar den politikari buruzko eztabaida eta hausnarketa irekitzea eta lehentasunak ezartzea.

76. Haurren arloko baliabide nagusiak proiektu hertsatzaileak eta kontrol neurriak finantzatzera bideratzeari uztea eta prebentzioari nahiz gizarte hezkuntzan esku hartzeari lehentasuna ematea.

- Haur eta nerabeei zuzendutako prebentzio komunitarioa sustatzea eta finantzatzea. Horretarako proiektuak auzo eta herrietan txertatuko dira eta toki erakundeek nahiz kolektibo komunitarioek garatzeko modukoak izango dira.

77. Familia-harrera sustatzea:

- harrera eredu ezberdinak garatzea (urgentziazkoa, behar berezietarako harrera...).

- harrera-familien nahiz familia biologikoen atxikimendua bultzatzea, segimendu, prestakuntza eta laguntza neurriak ezarritik.

- adingabearen goragoko interesa babeste aldera, haurra bere familia ingurunean mantentzeari emango zaio lehentasuna. Tutoretza salbuespenezko kasuetan soilik kenduko da, familia ingurunean haurraren babesa bermatu ezin denean. Kasu horietan, egoera arazotsua gainditzen denean haurra bere familiara itzultzeko konpromisoa hartuko da. Familia-harreraren aurretik, haurra familia zabalean gelditzeko ahaleginak egingo dira.

78. Egoitza-harreraren arloko gaur egungo sistema aztertzea:

- haurrak babesteko sistemaren merkantilizazioa errotik moztea, horrek mota guztietako fundazio eta enpresentzako negozio iturri bihurtu baititu haurrak, bereziki pobreak. Babes sistema hori sektore publikotik indartzeko neurriak hartuko dira. Halaber, familiei laguntzeko neurriak ere hartuko dira, motibazio sozioekonomikoko babesgabetasun egoerak prebenitzeko.

- Gehienezko egonaldia 2/3 urtekoa izateko helburua betetzea, oraingo egoera gaindituz, gaur egun egonaldia adin-nagusitasunera arte luzatzen baita.

- Familia biologikoekin lan egiteko estrategiak garatzea, haurra edo nerabea haiengandik banantzea eragin zuten arazoak gainditzeko. Era berean, haurra bere familia-nukleora itzultzen laguntzeko estrategiak lantzea.

- Egoitza-harreraren arloko eskaintza handitzea, dagoen eskariari erantzungo dioten baliabide berriak sortuz (babes-etxebizitza espezializatuak), batez ere nesKentzat.

79. Emantzipazio programen bidez babes edo zentzatzeko zentroak uzten dituzten gazteei laguntzeko neurriak ezartzea.

80. Baliabide gehiago jartzea saturazioarekin eta itxaron zerrendekin bukatzeko. Besteak beste, plaza kopurua handituko da, horren premia duten haur eta nerabeei babes eskubidea bermatzeko. Halaber, ahalik eta plazarik gehien kudeaketa publikora itzultzeko ahaleginak egingo dira, eskaintzen den zerbitzua eraginkorragoa, haurren nahiz nerabeen eskubideen bermatzaileagoa eta garantistagoa izan dadin.

81. Giza baliabide gehiago jartzea etxeko edo eguneko zentroetako hezkuntza programetan dagoen saturazioaren arazoa konpontzeko.

82. Babes sistematik pasatu diren eta beren familia-ingurunera itzuli ezin izan diren gazteen autonomia eta desinstituzionalizazio prozesuak bideratzea eta sustatzea ahalbidetzen duten programa eta baliabide ekonomikoak gehitzea.

83. Kanpoko peritatze lantaldeak, langile publiko eta espezializatuek osatuak. Halaber, neurri garantistak ezarriko dira haur babesgabeei laguntzeko sistemetan, haur eta nerabeek instituzioen aldetik tratatu txarra jaso ez dezaten. Emaitzak ebaluatzeko mekanismoak ezarriko dira eta esku-hartze guztiak erabat gardenak izango dira. Datu kuantitatiboez gain, sistemaren eraginkortasuna ere ebaluatuko da. Azken batean, haurren eta nerabeen ongizatea bilatuko da beraiei eta beraien familiei kalterik egin gabe.

84. Haurren goragoko interesa era demokratikoan aplikatzeko, haurri eragiten dioten administrazio prozedura guztietan aintzat hartuko da bere iritzia.

85. Ilundaingo adingabeen zentroa kudeaketa publikora itzultzea.

- Gainera, eztabaida bat ireki behar da adingabeen zentroek eta beste neurri hertsatzaile batzuek hezkuntzari dagokionez daukaten eraginkortasunik ezaz eta haur pobretuen kontrol sozialerako jokatzeko duten paperaz.

## GIZARTE EKINTZAREN HIRUGARREN SEKTOREAREKIKO HARREMANA

86. Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektorera egokitutako araudi-marko bat sortzea eta garatzea.

87. Sektorerearen finantziakoa ziurtatzea, gizarteko beharretara egokitutako proiektu iraunkorrak garatzeko erraztasunak emango dituen dirulaguntzen eta kontratuen lege bat eginez.

88. Zerbitzuetarako lehiaketetan klausula sozialak txertatzea. Besteak beste, kalitate teknikoari eta berrikuntzari emango zaie lehentasuna, irizpide ekonomikoen gaintik.

## NAZIOARTEKO LANKIDETZA

89. Epe luzeko lankidetzaren planak egitea eta burutzea, eraginkortasunez gauzatzeko beharrezkoa den aurrekontua esleituz.

90. Lurralde arteko Batzordean parte hartzen jarraitzea. Batzordean egiten den lana guztiz gardena izango da.

91. Nazioarteko Lankidetzaren zerbitzu gisa eratzea Departamentuaren barruan, eta bere lana era egokian egiteko beharrezkoak dituen baliabide tekniko nahiz ekonomikoak eta giza baliabideak jartzea.

92. Legegintzaldian zehar, Nazioarteko Lankidetzari aurrekontuaren %0,7 esleitzeko konpromisoa betetzeko lan egitea. Legegintzaldiko lehen urtean %0,2 esleituko zaio, eta azken urtean %0,5.



2

*OSASUNGINTZA*



# OSASUNGINTZA

## ONARRI IDEOLOGIKOAK

1. Osasuna inbertsioa da, ez gastua. Eskubidea da, ez negoziarako aukera. Hortaz, osasungintza ereduak bermatu behar du pertsonak garelako sistemaren ardatz.
2. Osasungintza sistemak Osasuna izan behar du ardatz, ez gaixotasuna.
3. Osasunaren ikuspegia politika guztietan aintzat hartzea ezinbestekoa da.
4. Osasungintza Sistema Publikoaren aldeko hautu argia egiten dugu, azken urteetako murrizketa sozial eta neoliberaletan auzitan jartzen ari direna.
  - Pairatzen ari garen kontrarreforma bertan behera utzi beharrean gaude: desunibertsalizazioa, pribatizazioa, inbertsio eza eta berdintasun faltaren zabalpena.
  - Osasun arloak pairatzen ari den pribatizazio guztiei ezetz esaten diegu (ospitaletako sukaldeak, garbitasuna...), osasungintza pribatuarekin burutzen diren hitzarmen sistematikoei, zein kudeaketa eredu mistoei, publiko-pribatua uztartzen dituztenak (Alzira ereduak).
5. Beharrei lotutako finantziarioa, pertsona guztientzako kalitatezko zerbitzu publikoa bermatuko duena. Osasungintzan inbertsio eza iraunkorra eman da azken garaioetan, eta egoerari buelta eman beharrean gaude. Arreta nahikorik gabe jarraitzen duten arloetan eskaintza handitu beharrean gaude (aho-hortzetako osasun arloa, osasunaren promozio zein prebentzioa, osasun laborala, etab).
6. Osasunaren kontzeptio eta kudeaketa integralaren aldeko apustua, asistentziala izatea baino eremu zabalagoa hartuko duena. Ildo horretan, baldintzapen sozioekonomikoak hartu behar dira kontuan, bai eta politika publikoek herritarren osasun egoeran daukaten eragina, genero ikuspegia ere aintzat hartuta. Adierazle garbiak daude: pobrezia, ezberdintasun sozialak, elikadura gabeziak, lan baldintza kaxkarrak, etxebizitza duinik eza...
7. Nafarroak erabakitzen du, bai eta osasun arloan ere. Bertatik bertara egiten den osasungintza politika propioaren aldeko apustua, nafar herritarren beharrei erantzuneko diena, kanpo esku-hartzerik gabe.
  - Geure osasungintza arloko politikak erabakitzeko gaitasunean aurrera egin behar dugu, Espainiako Gobernutik datozkigun neurri atzerakoiei aurre eginez.
  - EAEren eta Nafarroako sistema publikoen artean protokolo eta hitzarmenetan aurrera egin behar da, baliabideen koordinazio eta erabilera egokiagoa bermatze aldera (Osakidetza/Osasunbideari dagokionez, eta teknologia punta zein formazio unibertsitarioari dagokionez, esaterako.)
8. Oinarrizko Laguntza osasun sistemaren erdigunea da, berdintasuna, irisgarritasuna, unibertsaltasuna eta kalitatea bermatuko baitu. Gainera, oinarrizko laguntza, MOEren definizioen arabera, eta ez oinarrizko asistentzia izango da ardatz nagusia, osasuna sustatzeko politika integralak abian jartzeko, gaixotasunak saihesteko zein arreta eta errehabilitazioa emateko tresna gisa.
9. Osasun sistema publikoa egoki kudeatu eta antolatzeko, ezinbestekoa dira eragile sozial, profesional eta sindikalen parte hartzea, bai erabakiak hartzeari dagokionez, bai eta planak zein estrategiak abian jartzerakoan ere.

10. Osasungintza ikerketa zein formazio publikoaren aldeko apustua, etorkizuneko sistema publikoaren etorkizunaren berme gisa.

11. Alegia, osasungintza sistemaren ezaugarriak honakoak lirateke:

- Publikoa
- Unibertsala
- Doakoa, erabiltzeko momentua
- Propioa, nafar herritarron beharrei egokitua
- Prebentiboa eta errehabilitatzailea.
- Osasunean oinarritua, eta ez gaixotasunean.
- Oinarrizko Laguntza ardatz duena, Laguntza Espezializatuaren garapen egokiarekin
- Parte hartzailea
- Integrala, osasun arloaren dimentsio osoa eta berau baldintzatzen duten faktoreei dagokionez.
- Arreta sanitarioaren maila ezberdinak integratuko dituena
- Ikerketa zientifikoaren bultzatzailea

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### 1. FINANTZIAZIOA ETA AURREKONTUEN KUDEAKETA

- Osasun baliabide publikoen **finantziazio eta kudeaketa publikoa**. Azken urteotan Osasun arloak izan duen aurrekontu gabezia aztertu eta irauli egin behar da. Horrek esan nahi du, oraingo krisialdi ekonomikoak baldintzaturiko aukeren arabera Osasungintzari egokitutako aurrekontuak progresiboki handitzea hurrengo lau urteetan.

- **Erosketak bateratzea, Zentral bat sortuz**, Nafarroako osasun sistema osorako medikamenduak eta osasun materiala eraginkortasun handiagoz lortzea ahalbidetuko duena.

- **Aurrekontuen fiskalizazio**rako organoen aktibazioa. Auditoria, irregulartasunen, kudeaketa txarra eta xahutzea izan den kasuak antzeman eta salatzeke.

- **Kontabilitate analitikoa ezarri**. Kudeaketa integratua egiteko programen bidez, jarduera bakoitzaren kostua ezarri, kudeaketa hobetu eta gardentasuna bermatze aldera.

- **Enpresa edota erakunde pribatuekin egindako kontratu**, kontzertu eta hitzarmen guztiak berrikusi. Horren baitan, zerbitzu horien kostua merkatzeko bideak eta baliabide propioak erabiltzeko aukerak aztertu eta abian jarri.

### 2. PLANIFIKAZIOA ETA ARAU MARKOA

## 2.1. PLANAK ETA PROGRAMAK

- Osasun Departamentuak diseinatzen dituen plangintzak lehenetsunezko irizpide gisa ezarriko dira kudeaketa arloan.
- **Nafarroako Osasun Plana** osatzea, Parlamentuan onartutako ekarpenak erantsita, herritarren eta profesionalen parte hartzearekin, arlo bakoitzari kudeaketa integratu eta integralerako tresnak eskainiz.

## 2.2. ZONIFIKAZIO SOZIO-SANITARIOA

- Zonifikazio sozio-sanitarioa gaurkotu. Gainera, koordinazioa errazteko, mapa sozialak eta osasungintza arlokoak bateratzea ezinbestekoa da.

## 2.3. OSASUNGINTZA, POLITIKA ETA ARLO OROTAN

- Nafarroako Gobernuan, Osasungintza Idazkaritza sortu, Lehendakaritza mailan eta Osasun Departamentuak zuzenduta. Bere helburua, Nafar Gobernuak abian jartzen dituen politikak eta neurriak osasunaren promozioa eta babesaren ikuspegitik egiten direla bermatzea.
  - Horretarako, politika publiko guztietan eragina daukaten osasun faktoreen inguruan ariko den departamentu-anitzeko gunea sortuko da.
  - Krisi ekonomikoak osasunaren baitan dituen ondorio guztien azterketa sakona egingen da, genero ikuspegia aintzat hartuta. Horretarako Nafar Gobernuak berak edo beste erakunde batzuek argitara emandako eta ahalik eta gaurkotasun gehien duten datuak erabiliz, pobreziaren arloan, bazterkeria sozialean, haurren elikadura gabeziak, pobrezia energetikoa, etab.
  - Beharrezkoa izanen da Nafar Parlamentuan tramitera onartzen diren Lege Proiektu edo Lege Proposamenek osasun arloan nolako eragina izanen duten neurtzeko txostenak egitea eta argitara ematea, jendartean eragin handia izango dutenean gutxienez. Horretarako, lege egokitzapen egokia egingen da, berariazko prozedura eta metodologia ezarri.
- Osasunaren aldeko Hezkuntza sustatuko da.
  - Osasunerako Hezkuntza eskola curriculumean ezarriko da, ebidentzian oinarritutako irizpideei jarraiki.
  - Osasuna Sustatzen duten Eskola Sarea indartuko da, ikastetxeen sarea zabalduz, eta ikasle zein profesionalen topaguneak sortuz, proiektuak eta praktika onak elkarrekin partekatuzeko asmoz.
  - Irakasleek osasun arloari lotutako formazioa jaso dezaten sustatzeko neurriak hartuko dira.

## 3. ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA

### 3.1 ORGANIGRAMA, LANGILERIA

- Osasun Departamentuaren eta Osasunbidearen organigrama xeheki aztertu, kuantitatibo eta kualitatiboki, eta **sistemaren berrantolatze efizientea egiteko Plana abian jarri**. Horrek bide emango du behar ez diren ardura postu eta goi-karguak arrazionalizatzeko.
- **Osasunbidearen langileriaren egoera xeheki aztertu, kuantitatibo eta kualitatiboki, estamentu guztietan dauden beharrak identifikatu eta horiek betetze aldera**. Behin-behinekotasun tasa eta batez besteko adina oso altuak diren neurrian, epe labur eta ertainean izanen diren erretiratzeek utziko dituzten

hutsuneak aurreikusi behar dira. Horregatik, langileria gaztetzeko eta egonkortzeko Plana jarriko da abian, sindikatuekin eta langileen ordezkariekin elkarlanean.

- Erretiratze aurreratuak eta errelebo-kontratuak sustatuko dira.
- Enplegu Eskaintza Publikoa egingo da lehenbailehen, epe labur eta ertainean egonen diren beharretara egokituta.
- Osasun arloko kudeaketaren **profesionalizazioa**, kudeaketa postuak gaitasun eta merituen arabera izendatuz eta ez afiliazioaren edo laguntasunaren arabera.
- **Zerbitzu eta ataletako ardura postuak behin-behinekoak izanen dira, eginbehar eta helburu jakinei lotuta. Horrez gain, barne-promozioa sustatzeko irizpidea ezarriko da.**
- **Bateraezintasunak zehazteko legeen erregulazioa**, osasungintza publikoan kudeaketa postuetan lan egin dutenek, hurrengo bost urteetan gutxienez, arlo pribatuan edo osasunarekin interesa edo negozioak dituzten enpresetan kudeaketa postuetan lan egiteko aukerarik izan ez dezaten.
- **Osasunbidearen euskalduntze progresiborako Plan Estrategikoa.**
  - Euskaldunak/Lanpostuak aztertu, eta herritarren hizkuntza eskubideen egoera.
  - Zirkuitu elebidunak sortu.
  - Lanpostuen esleipena arautzen duen dekretu forala berregin, osasungintza publikorako sarbidean euskara ere aintzat hartua izan dadin. Prozedurak arindu.
  - Nafar guztiek arreta **euskaraz** jasotzeko duten eskubidea modu aktiboan defendatu eta sustatuko da, bizi diren toki edozein izanda ere, arlo administratiboan zein osasun profesionalek eskaintzen duten arretan.

### 3.2 BERDINTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

- **Osasun zerbitzu unibertsala** populazio osoarentzat, pertsona guztientzako eskubide berdinekin eta bereziki modu irregularrean dauden etorkinentzat. 8/2013 Foru Legea, hortaz, hitzez hitz beteko da. Fakturak emititzeari utziko zaio, efektu "disuasorioa" izan baitezake.
- Etorkinei arreta egokia emateko beharrezko neurriak hartu, arlo kultural zein hizkuntza arloari dagokionez, bereziki. Horretarako, komunitate eta kolektibo horiekin elkarlanean, eta profesionalei formazioa sustatuko da eta material bereziak egiten dira.
- **Preso dauden pertsonen arreta egokia bermatuko zaie. Kolektibo honen ahuldadea eta euren egoera zein den ikusita, beren behar sozio-sanitarioak** erakunde propioetatik erantzun behar zaiela uste dugu (Osasunbidea, Gizarte Zerbitzuak...) eta ez Barne Ministerioaren mende dagoen Espetxe Erakundetik.
  - Horregatik, preso dauden pertsonen osasungintza arreta geure gain gera dadin neurriak hartzea proposatzen dugu, eskumen hori erabatekoa izatea. Alegia, lan horietan parte hartzen duten profesionalak Osasunbidean txertatuz.
- Egungo osasun prestazioen azterketa sakona egin, katalogoa berrantolatu, arrazionalizatu, osatu eta gaurkotzeko, gizarte beharrak aintzat hartuta. Helburua, egundaino egin ez den Nafarroako Zerbitzu Kartera

propioa egitea da.

- 2/2013 Foru Legea bete eta Oinarrizko Laguntzako Osasun Etxeetako zein atentzio jarraitua eta larrialdietako arautuko duen funtzionamendu-plana egin, profesionalen, toki-entitateen eta eragile sozialen parte hartzearekin, ahalik eta kontsentsu gehien izatea helburu.

- Landa eremuaren trataera berezitua, Nafarroako 170 Udalek Udal Lege Ekimenean egindako eskaeren ildotik. Helburua, eremu horretan kalitatezko osasun laguntza izateko eskubidea bermatzea, berdintasuna eta irisgarritasunaren aldetik honako neurriak gutxienez ezarri:

- Landa eremu guztietan langileen faltak betetzen direla bermatuko da, populazio datuetatik haratago, kalitatezko arreta bermatze aldera.

- Osasun Etxe guztietan beharrezko ekipamendu guztia bermatuko da.

- Landa eremu guztietan telefono mugikorrek edo bilatzaileak erabilgarri egon daitezen estaldura bermatzea.

- Landa eremuetako biztanleei ezinbestekoak ez diren desplazamenduak saihesteko neurriak hartuko dira.

- Zitazio-zirkuitu bereziak ezarriko dira.

- Laguntza Espezializatuan, ahal den kasuetan, interkontsulta ez-presentzialak egingo dira.

### 3.3 KONTZERTUAK ETA DERIBAZIOAK

- **Osasun zerbitzuen privatizazioaren gelditzea eta dagoeneko privatizatu direnak progresiboki kudeaketa publikora itzuli.** Privatizatutakoa merkeago ez dela agerian geratu da bai eta zerbitzuaren kalitatea nabarmen jaisten dela ere.

- **Osasungintza publikoa eta pribatuaren arteko bereizketa argia eta definitua.** Osasun arloko profesionalen dedikazio eskusiboa eskatuko zaie. Administrazioaren aurrekontuak osasungintza publikora bideratuko dira soilik. Ezinbestekoak diren auzietara mugatuko dira hitzarmenak erakunde pribatuekin.

- Ez da CUNekin hitzarmena luzatuko, bertako langile zein senideen osasun laguntza emateko. Hortaz, gutxi gora-behera 7000 pertsonakoa den kolektibo hau Osasunbidean integratuko da progresiboki.

- Behar diren bitartekoak jarriko dira zentro pribatuetara egiten diren deribazio sistematikoak saihesteko.

- Batetik, osasun azpiegitura publikoak errentabilizatuko dira, kirofanoak, TAC aparatuek, ekografoak edo erresonantzia magnetikoak, kasu, behar diren txandak antolatuz.

- Sare publikoan aparatuen erosketa sustatuko da, mendekotasun teknologikoari aurre egiteko.

### 3.4 FARMAZIA ETA TEKNOLOGIA ZERBITZUA

- **Kudeaketa egokia eta gastu farmazeutikoa baretzeko politika integralak sustatzea:**

- Botika generikoen erabilera bultzatzea, Oinarrizko Laguntzan eta bereziki Laguntza Espezializatuan.

- Botiken erabilera doitu, kontsumoari zein dosiei dagokionez, gaixo kroniko eta pluripatologikoen kasuan bereziki. Horretarako, botikan prestaturiko unidosiak eta blisterrak erabiliko dira.
- **Justua eta progresiboa izanen den estaldura farmazeutikoa** ezartzea, egoera txarrean dauden pertsona edota kolektiboentzat doakotasuna bermatuz.
- Erosketaren kontrola eta botiken hornitzea organo bakarrean zentralizatzea, efikazia eta efizientziaren irizpide objektiboak izango dituen.
- Osasun teknologien ebaluazio eta kontrolerako agentzia sortu. Farmako berriak eta osasun teknologia berriak finantziario publikoan txertatzeko beharraren irizpidea finkatzea.
- Multinazional farmazeutikoekiko dagoen menpekotasunarekin amaitzeko urratsak ematea, botiken eta osasun materialaren hornitzeari dagokionez, zein profesionalak behar duten formazioaren finantziarioari dagokionez.
  - Faktura farmazeutikoaren errebisioa eta baliabide propioen errentagarritasuna sustatzeko neurriak hartu.
  - Industria farmazeutiko publikoaren garapena bultzatzea, botika generikoen patentea izango duten oinarritzko botiketara zuzenduta.
  - **Osasun arloko teknologiaren inguruan dagoen informazioa eta aholkularitza arautzea (elektromedizina, farmakoak...), industriak profesionalakiko duen irismena mugatuz** eta sistema publikoan aholkularitza profesionalen egiturak sustatuz.
- Edozein motatako tratamendua behar duten herritarrei irizpide klinikoa eta ez ekonomikoa ezarriko zaiela bermatu, Hepatitis C pairatzen dutenei, esaterako.

### 3.5 OSASUN ARRETA

- Maila guztietarako antolakuntza sistema homogeneoa ezarriko da, koordinazio mekanismo eraginkorrak abian jarri. Osasun laguntzaren kudeaketa prozesuak antolatuko da, profesionalen inplikazioa izan delarik beren eremuaren zein lanpostuaren kudeaketari dagokionez.
- Gaixo bakoitzak bere osasuna kudeatzen jakitea bultzatuko dugu, osasun zerbitzuak soilik beharra dagoenean erabiliko direlarik, eta **norberaren zaintza** bultzatzeko beharrezkoak diren moldaketa profesionalak burutzea.
- Profesional guztien protagonismoa indartzea, lanaren norabidea prozesu zein gaixoen arretari zuzenduz.
- Arreta Espezializatua Osasun Zentroetara hurbiltzea, bi mailen arteko koordinazio eta komunikazioa hobetuz: lan taldeen osaketa bultzatu, elkarren arteko bilerak sustatu, protokolo komunak garatu, hezkuntza bi mailetan koordinatu eta txertatu...
- **Lehen Arreta eta Arreta Espezializatuaren arteko koordinazioa** garatzea, gaixo bakoitzak bere prozesuetan jarraipena eduki dezan eta uneoro informazio pertsonalizatua eduki ahal izateko, zerbitzuen funtzionamendua kalitatezko informazioa ematera zuzenduz (modu honetan bikoiztasunak ekidinez, frogan bikoizketa, kontsulta ez presentzialekin, informazio eta komunikazio teknologien erabilerekin...)
- Ekipoen diziplinartekotasuna bermatuko da. Arreta sozio-sanitarioaren kasuan alderdi garrantzitsua da, eta bertan gizarte langileen presentzia indartze aldera neurriak hartuko dira.

- Froga diagnostiko eta prozedura terapeutikoetan gehienezko itxaron denborak ezarriko dira.
- Itxaron zerrenden kudeaketaren baitan, kontsulta ez-presentzialak sustatuko dira.

### 3.5.1 OINARRIZKO LAGUNTZA

#### - Lehen Arreta indartzea Sistemaren oinarri gisa.

- Baliabide nahikoz hornitzea giza baliabide eta baliabide teknikoetan.
- Baliabide nahikoa eman Oinarrizko Laguntzatik baliabide guztien koordinazioa egin dadin: zerbitzu sozialak, eskolak eta toki-entitateak.
- Sistemari zehar herritarrek burutu beharreko ibilbidean laguntza eman ahal izateko baliabideak eta ahalmena eskaintzea.
- Medikuen eta erizainen kupoak berrikusi, 1400 TIS helburu izanda, eta 800 Pediatriaren kasuan, jardueraren ardatz prebentzioa eta osasunaren promozioa izanik.
- Lehen Arretaren ahalmen erresolutibo indartzea, diagnosi frogetara sarbidea emanez bai eta horiekiko formazio hobea eskainiz ere.
- Osasun hezkuntzan eta prebentzian eragina duten hainbat espezialitate eta diziplina, nahiz eta ez zehazki sanitarioak izan, txertatzeko bidea urratzea.
- Gaixo kroniko eta pluripatologikoen koordinatzaileak ahalik eta lasterren txertatzeko bitartekoak ezarri.

### 3.5.2 LAGUNTZA ESPEZIALIZATUA

- Ospitaletako Gunean, bateratzearen ondotik Zerbitzu eta Sekzioen bikoiztasunarekin bukatzea.
- **Eskaintza eskari sozialari eta prozedura berrien aplikazioari egokitzea.**
- Egonaldi laburreko unitate bereziak egin, gaixoak egonkortzeko, Oinarrizko Laguntza eta Espezializatuaren arteko zubi gisa.
- Sare publikoan azpiegituren eta beharren azterketa egin, epe ertain eta luzeko egonaldietarako unitateei dagokionez.
- Gaixoari zuzendutako **kalitatezko sistemen akreditazioa** indartu (prozesu/ekimen bakoitzaren beharrak barnebilduz, bere arduradunak, formakuntza, emaitzak zein adostasunak/kexak/erreklamazioak), huts egindakoak hobe aztertu eta hobetzeko programak finkatu ahal izateko.
- **Kirurgia anbulatorioa** indartu, **diagnosi bizkorren zirkuituak** (gaixoa ingresatzera derrigortu gabe, ikerketa bizkorrago egin dadin) eta **norberaren etxean ospitalizatzearen** zabalpena Nafarroa osora.
- Defizit dotazionalaren arazoei konponbidea (teknologia altuko materiala, garapen teknologikoa...).
- Laguntza paliatiboa eta heriotza duina.



- Laguntza paliatiboa eta heriotza duinaren inguruko protokoloak garatu, beti ere, herritarren eskubideak errespetatzeko helburuz.
- Laguntza paliatiboaren programa Nafarroa guztira zabaltzeko bidea egin, eta edozein patologiatako gaixoei zuzenduta.
- Ospitaleetan laguntza psikologikoa hobetzeko neurriak hartu.

### 3.5.3 LARRIALDIAK

- Larrialdietarako garraioa. Egoeraren azterketa. Baliabide gehiago eskaini beharren arabera, eta zerbitzuaren publikazio progresiboan urratsak eman.
- Oinarrizko neurriak Nafarroa osorako:
  - Larrialdi handien kasuan, osasun langileak ahalik eta lasterren heltzeko protokoloak eta baliabideak esleitzea, gehienez 20 minututan, beharrezko ekipamenduz hornituta.
  - Larrialdi kasuetan, erreferentzia-ospitalera gehienez ere ordubetean iristea.
  - Nafarroako eremu guztiak anbulantzia zerbitzuez nahikotasunez hornitzea.

### 3.5.4 ARLO SOZIO-SANITARIOA

- **Arreta soziosanitarioaren sarearen garapena** irizpide deszentralizatzaileetan zein parte hartzean oinarrituta. **Arreta sozialaren eta Osasun Arretaren artean koordinazio eta integrazio handiagoa bilatzea.**
- Ekipoen diziplinartekotasuna sustatu. Gizarte lana Oinarrizko Laguntzan integratua egonen da. Horretarako, Osasun Etxeetan gizarte-langile nahikoa egon dadin neurriak abian jarriko dira.
- Zonifikazioa soziala eta osasungintzakoa izanen da. Koordinazioa errazte aldera, osasungintza arloko mapa eta mapa soziala bateratu egingo dira.

### 3.5.5 OSASUN MENTALA

- **Asistentzia publiko berreskuratu eta indarberritu:** Bere pribatizazioa ekidin eta diziplinartekoa izango den sare publiko egonkorra berregituratu. Honen beharra gero eta nabarmenagoa da herritarren artean buruko gaixotasunen estatistikak gora doazen heinean, egungo krisialdi ekonomikoaren testuinguruak eta populazioaren zahartzeak areagotuta.
  - Osasun Mental publikoaren aldeko apustua. Publikazio prozesuak abian jarri.
  - Osasun Mentaleko Plan Estrategikoa berregin, profesionalen zein elkarten parte hartzeaz baliatuz.
  - Irizpideak eta protokoloak bateratzeko bitartekoak jarri.
- Eguneroko arazoei aurre egiteko desmedikalizazio eta "despsikiatrizazio" neurriak abian jarri.
  - Hezkuntza eta formazioa, eskola eremuan zein lan eta gizarte eremuetan.

- Langileria nahikoa, kualifikatua, gaixoezin modu pertsonalizatuan lan egiteko aukera emango duena, egunerokoari aurre egiteko tresnak errazteko asmoz.
- Oinarrizko Laguntzan EIR (psikiatrian espezialitatea) duten psikologo zein erizainak egon daitezen sustatzea.
- Gaitz Larri eta Kronikoen kasuan, egoeraren azterketa sakona eginen da, eta gaixo hauek behar dituzten baliabideak egungo beharretara eta familien antolakuntza molde berrietarako egokitzeko neurriak hartuko dira. Beharrezkoa da baliabide hauek eskuragarriago egotea, prozesua arinagoa izatea eta eremu publikotik kudeatuak izatea.
- Koordinazioa. Gizarte-arretarekin harremana errazteko neurriak hartuko dira. Desburokratizazioa, kasu bakoitza irizpide kliniko eta sozialen baitan baloratzea, eta epeak murriztu.

### 3.5.6 OSASUN SEXUALA ETA UGALKETA-OSASUNA

- Sexualitatea modu integralean ulertu, eta ez soilik ugalketa bitarteko gisa. Ildo horretan, Emakumeentzako Arreta zentroak gizon eta emakumeentzako **Orientazio Sexualerako Zentro** gisa birmoldatzea. Horretarako guztietan hezkuntza afektibo sexuala, lan komunitarioa eta programa zehatzak txertatuko dira.
- Gazteak.
  - Heziketa sexual eta afektiboa bultzatzea, gazteen arloan, bereziki. Horretarako, ezinbestekoa da nafar gazteen ohiturak aztertzea, lehentasunak identifikatzea eta beharrezko bitartekoak jartzea, sexu-hezitzaileen parte hartze eta inplikazioaz lagunduta.
  - **Gazteentzako Orientazio Sexualerako Zentroak** sortzea, beren beharrak modu espezifikoan lantzeko.
  - Prebentzio lanak egiteko baliabideak egokitu, egun kontsulten laurden bat erabiltzen baita horretarako. Horrez gain, Emakumeen Arreta Zentroetan azken urteotan jarduna gutxitzen ari da eta hori ongi aztertu beharra dago, egungo itxaron zerrendak ikusita. Antolaketa neurriak hartu eta baliabideak esleitu.
- Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean, heziketa sexual eta afektiboari bultzada eman, Gozamen bezalako tailer eta kanpainak sustatuz, eta hezkuntza profesionalei formazio egokia bermatuz.
- Emakume orok bere gorputzaren inguruan duen eskubidea defendatu eta **borondatezko haurdunaldiaren etenaldia** osasun sistema publikoaren barruan bermatzea. Berehalakoan botika bidezko etenaldia abian jarri, eta progresiboki etenaldi mota guztiak.
- Amatasuna babesteko neurriak hartu, nahi duen emakume orok ama izateko daukan eskubidea defendatuz. Hasteko, emakume orok, edozein dela bere aukera sexuala edo egoera zibila, laguntza bidezko ugalketa egin ahal izango du sistema publikoan.
- Erditzea. Ospitaleetan erditzeko dauden emakumeek, arrisku berezirik ez dagoenean, modu naturalean erditzeko eskubidea izanen dute. Hartara, medikalizatu gabeko erditzea eskaini egingo zaie, ahalik eta interbentzio gutxienezkoa, arriskuak saihesteko behar den arreta izango dutela. Edozein kasutan, emakumearen erabakia errespetatu egiten da, informazioa emango da, eta haurdunaldian, erditzean eta erditze ondoko prozesuan nahi duen pertsonak lagunduta egoteko eskubidea.

### 3.5.7 OSASUN PUBLIKOA

- HIESaren programa berpiztu eta abian jarri. Kutsatze kasuak areagotu dira eta arlo honetan lanean ari diren Gobernu Kanpoko Erakundeek murrizketa latza pairatu dute euren aurrekontuetan. Erroka argia da, prebentzio erraza duen gaixotasunari amaiera ematea. Ezinbestekoa, beraz, GKEek eta Osasunbideak egiten duten prebentzio eta laguntza lana. Hortaz, behar diren neurriak hartu behar dira elkarre elkarre lantzen dituzten programek abian jarrai dezaten.
- Drogomendekotasunaren prebentzioa. Ludopatia sartu, eta gazteei zuzenduriko plan espezifikoak egin eta abian jarri.
- HIESaren eta Hepatitis C-ren inguruko prebentzio eta detekzio azkarra sustatzeko berariazko kanpainak abian jartzea. Izan ere, gaixotasun hauen kasuan bereziki, kutsatutako pertsonen portzentaje handi batek ez dauka horren berririk.

### 3.5.8 LAN OSASUNA

- **Lan Osasunerako arreta Osasun Sistema Publikoan (Osasunbidea) barneratzea.** Sustatuko dugun eredua: sistema publikoa, unibertsala, berdintzailea, parte hartzailea, arreta integrala oinarri izango duena, prebentziora bideratuta, eta egungo lan baldintzek osasunaren gainean dituzten ondorioak ikertuko dituena.
  - Langileen osasun egoeran enplegu politikak daukan eraginaren ebaluazioa egin, sindikatuen eta langileen ordezkariekin batera.
- Gaixotasun edo kontingentzia profesionali dagokienez, langile publikoak progresiboki Osasunbidean sartzeko plana egin. Horretarako, mutuekiko hitzarmenak bertan behera geratuko dira.
- Lehen fasean prebentzio zerbitzuen sistema pribatua kontrolatuko da, eta ondoren, desagerrarazteko urratsak eman dira. Horrekin batera, mutuen desagerpena sistema asistentzial gisa eta segurtasun sozialaren sistema propio bat martxan jartzeko urratsak eman, lanaren ondorioz gaixotutako eta ezinduen eskubide sozialak handituko dituena.
- Arreta hobetzea lan ezintasun egoera batzuetan (bajak), zerbitzu publikoak pribatuen aurretik defendatuz eta irizpide sozio-laboralak ere aintzat hartu itxaron zerrenden kudeaketan.

### 3.5.9 ODOL ETA EHUN BANKUA. TRANSPLANTEAK

- Odol eta Ehunen Bankuaren kudeaketa hobetzea. Odol, ehun eta organoen donazioa altruista da eta ondorioz, bere kudeaketa etikan eta gardentasunean oinarriturik egon behar du osasun sistema publikoaren barnean. Europar Batasuneko gainontzeko herrialdeetan bezala, autosufizientzia lortzearen bidean urratsak eman behar dira, eta produktu hauek egoki eta zuhurki erabiliz, segurtasun irizpideak lehenetsiz.
  - Donazio eta transplanteen aktibitateak publikoak izan behar dute.
  - Zuzendaria irizpide teknikoaren arabera izendatu behar da eta Osasungintza Publikoaren profesionala izan behar du.
  - Produktu hemoderibatuak egiteko neurriak ezarri, bertako plasma erabiliz. Zatiketaren ondorengo hemoderibatu plasmaticoak dohainik itzuli behar dira gure ospitaletara.

- Aktibitate honen datu kuantitatibo eta kualitatiboekiko gardentasun handiagoa.
- Produktu guztiak Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuan zentralizatu eta egun Clínica Universitarioan gertatzen den zentralizazioaren desagerpena.
- Sektore publikoaren baitan **transplante arloaren** garapena (eta ez soilik emaien organoak hartzeaz eta erauzteaz arduratuz).

#### 4. PARTE HARTZEA

- Herritarrek erreklamazioak jarri edota informazioa jasotzeko dauden prozedurak hobetzea.
  - Gaixoari Laguntzeko Zerbitzuarekin elkarlan zuzena abian jarri, gaixoei edota senideei jarritako ohartarazpen eta kexak aztertzeko. Kexa hauen inguruko informazioa eta jarraipena egiteko bitartekoak jarri. Horrekin batera, hobekuntza arloak identifikatu eta ekintza zehatzak planteatu. Informazio pertsonalizatua eta Gaixo Elkarteei.
- **Herritarrek parte hartzeko** gaitasuna izan dezaten, sistemaren maila guztietan, betearazle izaera eta ebaluatze gaitasuna izango duten bitartekoak ezartzea. **Herritarren Parte Hartzerako Batzordeak** osatu eta **Osasun Kontseiluak** berreskuratu, bere araudia egokituz botere erreala izan dezaten eta ez orain artean gertatu bezala, kontsultiboak izateko. Osasun arloko kudeaketa demokratizatzea profesionalen eta herritarren parte hartzea sustatuz.
- Ospitaleetako Gobernu Kontseiluak berpiztu eta sustatu, langile zein erabiltzaileen presentzia areagotuz, eta erabakitze gaitasuna handiagoa emanez.
- Profesionalen parte hartzea eta inplikazioa sustatzeko neurriak abian jartzea. Zerbitzuen antolaketak langile guztientzako komunikazio, informazio eta formazio prozesuak barnebidu behar ditu.
- Osasun Kontseiluak sustatu, herri eta eskualde mailako beharrak antzemateko.
  - Egitura horizontalagoa eratu, erabakitze ahalmena handituz.
  - Urtero egin beharreko gutxieneko bilera kopurua ezarri, beraiekin elkarlan estua izate aldera.
  - Eskola jantokien arloan, toki entitateekin berariazko elkarlana bultzatu, haurren elikadura gabeziak antzeman eta horiek betetzeko ekintza bateratuak abian jartzeko.

#### 5. FORMAZIOA ETA IKERKETA

- Langile guztientzako formazio etengabekoa eta iraunkorra bermatuko da, larrialdietako langileei bereziki, lehenasunezkoa izanen delarik ospitale guneetatik urrunen dauden landa eremuetako profesionalen formazioa.
- Osasun teknologiaren enpresekiko independentea den diru partida profesionalen heziketarako. Teknologiaren aurrekontuaren zati bat hezkuntza fondo batetara norabidetzea, osasun publikotik kudeatuko dena.
- Dozentzia sektore publikotik publikora antolatuko da. Edozelan, hitzarmenak egin daitezke erakunde pribatuekin, dozentzia jasotzearen truke sektore publikoari ordainduz gero.
- **Osasungintzan sektore zientifikoa eta ikerketa publikoa indartzea.** Ikerketa Institutu Publiko baten garapena, Osasunbideak, NUPek eta Osasun Departamentuak dituzten baliabideak txertatuz.

- **Medikuntza Fakultate Publiko bat eratze bidean neurriak hartzea**, bai NUPen barruan edota EHUrekin bazkidezeko aukerak aztertuz.



# 3 OGASUNA



## OGASUNA

### IDEIA NAGUSIAK

1. Ekitatea: errenta berdinek berdin ordaindu behar dute.
2. Progresibitatea: ahalmen ekonomiko handiagoa dutenek ekarpen handiagoa egin behar dute.
3. Berdintasuna: pribilegioak ezabatu behar dira. Berdintasun printzipio hori iruzur fiskalaren aurkako borrokan tinko aritzeko oinarria da.
4. Gardentasuna: iruzurraren aurka borrokatzea denon ardura da.
5. Nahikotasuna: zerga bilketaren helburua kalitatezko zerbitzu publikoak edukitzea ahalbidetuko duten baliabideak lortzea izan behar da, eta erreforma fiskala egitea ezinbestekoa da horretarako.
6. Eraginkortasuna: zenbat eta bakunagoa izan, iruzur egiteko aukera gutxiago.
7. Birbanaketa: zerga politika aberastasuna birbanatzeko tresna da.
8. Burujabetza fiskala: gure etorkizuna eraikitze zutabe nagusietako bat da, eta funtsezko elementuetako bat izango da erabakitze eskubidea gauzatzeko orduan.

### ONARRI IDEOLOGIKOAK

Zerga politika funtsezkoa da aberastasuna birbanatzeko. Finantzaketa eredu egoki bat edukitzea erabakigarria da baliabideak nahikotasunez eta eraginkortasunez birbanatzeko aukerak ahal beste aprobetxatu ahal izateko.

Zerga sistema justua, aurrerakoia, ekitatiboa eta solidarioa aldarrikatzen dugu. Zerga sistemak sektore publikoaren bideragarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren diru sarrerak bermatu behar ditu, benetako progresibitatean eta iruzurraren kontra borrokatzeko konpromiso irmoan oinarrituta.

Zerga sistemak aberastasunaren birbanaketa ahalbidetu behar du, elkartasun printzipioa gauzatzuz. Errentaren gaineko zerga berdina izan behar da guztientzat, errentaren jatorria gorabehera.

Ekitatean eta progresibitatean oinarritutako zerga sistema baten bidez lortzen diren diru sarrera publikoek sektore publiko indartsu bat bermatu behar dute. Sektore publikoaren barruan, honako hauek izan behar dira lehenetsiak: hezkuntza, osasungintza, pentsioak eta pertsonentzako zerbitzuak, batez ere haurrei zuzendutako zerbitzuak (haur eskolak, jantoki publikoak...) eta mendekotasuna duten pertsonen eskaintzen zaizkienak (etxez etxeko zerbitzuak, adinekoen zaintza...). Pertsonentzako zerbitzuen arloan izugarri urrun gaude Europa iparraldeko gizarteetatik, eta zerbitzu horiek funtsezkoak dira enplegua sortzeko, zaintza lanak egiten dituzten emakumeek ordaindutako enplegu duina lortzeko aukera izan dezaten.

Zaintzen arloan egiten diren inbertsioak onuragarriak izango dira herritar guztientzat, enplegu duina sortuko dute eta gaur egungo eredu produktibista-kontsumistatik beste eredu batera igarotzen lagunduko digute. Eredu berri horretan, bizitza zaintzea eta denbora produktu prestigiodunak izango dira, gure planetaren etorkizuna hipotekatzen ari den kontsumismo aseezina zokoratuz.



Gaur egun, inbertsio publikoen jomuga bakarra azpiegiturak dira (zenbat eta handiagoak, hobe), eta ikuskera horrekin bukatu beharra dago. Zerbitzu publikoetan inbertitzeak ekonomia suspertzen du, diru sarrera publikoak gehitzen ditu eta gizartea hobeto antolatzen laguntzen du.

Diru sarreren gabezia aurrekontuak murrizteko baliatzen ari da, eta murrizketa horien ondorioz sistema publikoaren kalitatea gero eta txarragoa da (osasungintza, hezkuntza, gizarte zerbitzuak...). Gainera, etengabe murrizten ari dira lan eskubideak, eskubide sozialak, pentsioak, gizarte prestazioak, sektore publikoko soldatak...

Iruzur fiskalaren forma guztien kontra borrokatu behar da. Hain zuzen ere, planteatzen dugun erreforma fiskalaren helburu nagusietako bat iruzur fiskalaren kontra borrokatzea da. Iruzur fiskala soldatari ez dagozkion errentek egiten dute nagusiki, eta zerga sistemaren gaitz larriena da. Horregatik, zergen ordainketa saihesteko bide guztiak moztu eta zerga gutxiago ordaintzeko aukera ematen duten lege mekanismoak desagerrarazi behar dira.

Nagusiki, fortuna eta enpresa handiek erabiltzen dituzte mekanismo horiek, eta azkenean lanaren edozein errentak baino zerga gutxiago ordaintzen dituzte. Hainbat estatutan aritzen diren multinazionalak, esaterako, ahalik eta gutxien ordaintzen dute horretarako aukera duten herrialdeetan.

Zerga politikaren helburu nagusia baliabideak aurkitzea da. Beraz, diru hori biltzeko modua da zerga politikaren gakoa, hau da, dirua zein irizpideren arabera bilduko den erabaki behar da. Bestelako helburuak gastuarekin lotuta daude edo garrantzi apala dute.

## NOLA BILDU BEHAR DEN DIRUA:

- Ekitatea da oinarria: berdin irabazten dutenek berdin ordaindu behar dute, diru sarreren edo errenten jatorria ezberdina izan arren (Ekitatea) (soldata jaso edo interesak kobratu, adibidez; kopurua berdina bada, berdin ordaindu).
- Progresibitatea. Ahalmen ekonomikoa handitzen den neurrian, ekarpena ez da proportzionala izan behar (portzentaje berdina), hau da, handitzen joan behar da, gehien duenak ekarpen handiagoa egin dezan.
- Berdintasuna. Pertsona guztiek tratamendu berdina jaso behar dute Ogasunaren aldetik. Horretarako, ezinbestekoa da pribilegioak desagerraraztea (aitorpen konfidentzialak...). Tratamendua berdina bada, iruzurren aurreko exigentzia handitzen da, ez dago aitzakiarik.

## GASTU POLITIKA:

- Gardentasuna. Herritarrek jakin behar dute zertan eta nola gastatzen den dirua. Hori ezagutzera ematen den neurrian, iruzur egiteko aitzakiak desagertzen dira.
- Nahikotasuna. Gizartearen oinarritzko zerbitzuak bermatzeko baliabide nahikoak bildu behar dira. Sektore publiko indartsu batek jendartea egituratzen du. Horrelako sektore publiko bat eratzeko, erreforma fiskala ezinbestekoa da, baliabide gehiago lortzeko eta, aldi berean, zerbitzu sozial zabalagoak antolatzeko.
- Gastuaren lehentasuna. Urteetan aurrera eraman diren gastu politiken ondorioz, eta egun topatzen ditugun aurrekontuen aurrean, zaila suerta daiteke gastu politikaren lehentasunak definitzea. Edonola ere, EH Bildurentzat, zerbitzu publikoak bermatzea eta gastu soziala lehenestea izango dira gure gastu politikaren oinarriak.

Laburbildurik, etorkizunean egin nahi ditugun urratsek honako helburu hauek dituzte:

- Zerga sistema hobetzea, ekitatearen eta progresibitatearen ikuspuntutik. Gehiago daukanak gehiago ordainduko

duela eta gizarteari ekarpen handiagoa egingo diola bermatzea.

- Inbertsioa eta enplegu sorkuntza bultzatzea, finantza mendekotasuna gutxituz.
- Iruzur fiskalaren kontrako borroka indartzea.
- Zerga sistema sinplifikatzea eta haren segurtasun juridikoa sendotzea.

## ZERGA POLITIKAREN EMAITZA

Aberastasuna baliabideak biltzeko eta gastatzeko moduaren arabera birbanatzen da: gehiago daukanak ekarpen handiagoa egiten du eta itzulkin txikiagoa jasotzen du. Gutxi daukanak, alderantziz. Horrela, zerga politika eta gastu politika ezberdintasun sozialak gutxitzeko tresna garrantzitsuak dira. Horregatik, zerga sisteman egin beharreko erreformak mailakatuak izan behar dira, gizarte orekara bideratuz eta baliabide publikoen nahikotasuna eta gehikuntza bermatuz.

## AURREKONTU POLITIKA

Gaur egungo egoera ekonomikoan diru sarrera publikoak izugarri murriztu dira. Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa da aurrekontu politika zorrotzagoa, eraginkorragoa eta gardenagoa izatea.

Aurrekontu politika administrazioaren gastu arruntaren arrazionalizazioan oinarritu behar da, ekonomiaren antolamendua bultzatuz, zerbitzuak eta eskubide sozialak bermatuz eta baliabideak optimizatuz.

Fiskalitateak eta gastu publikoak bi helburu nagusi izan behar dituzte: batetik, errentaren edo enpresen irabazien birbanaketa positiboa lortzea; bestetik, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzea, justizia sozialean sakonduz.

Gaur egun, instituzio maila desberdinetan zerbitzu berdinak egiten dituzten organismoak eta instituzioak daude. Gainera, zerbitzuak egiteko hainbat organismo sortzen dira horretarako eskumenik izan gabe eta dagokion instituzioak zerbitzu horiek egiten dituen arren. Ezin dugu hori ahaztu, diru publiko asko xahutzen bada horren ondorioz.

Aurrekontu politikaren helburu nagusia, eta garrantzitsuena, zerbitzu sozial guztiak mantentzea izan behar da. Gainerako politika publikoak eraginkortasun eta efikazia irizpideetan oinarritu behar dira, baina betiere gastua estali eta optimizatuko duen plan estrategiko baten arabera.

## FINANTZA POLITIKAK

Gaur egungo krisi ekonomikoak garrantzi handiko finantza osagaia dauka. Horren ondorioz, orain arte ezagutu dugun finantza sistema abiada bizian aldatzen ari da.

Horrekin batera, eta ingurune ekonomikoa oso ezegonkorra izanik, finantza entitateak izugarri murrizten ari dira enpresa eta herritarrentzako kredituak.

Espekulazioari bizkar emanez, nafarren aurrezkiak gure erkidegoan inbertituko dituen finantza politika publiko bat behar dugu, eta horretarako beharrezkoak diren neurri fiskalak eta kontrol neurriak ezarri behar dira.

CAN hondatu eta xahutu dutelarik, finantza entitate publiko eta propio bat behar dugu. Entitate hori sortzeko edo ez sortzeko erabakia Nafarroak behar duen finantza tresnari buruzko eztabaida orokor baten barruan hartu

beharko litzateke.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

- PFEZaren erreforma sakona egin behar da, zerga hori eguneratzeko eta nafarren benetako premia eta egoeretara egokitzeko.
- Zerga-oinarriaren gaur egungo kenkariak sakonki berrikusi eta haietako batzuk zerga-kuotaren kenkari bihurtu behar dira.
- PFEZaren erreformaren helburua lanaren errenten eta kapitalaren errenten tratamenduan dagoen dualtasuna desagerraraztea izango da. Horretarako, hiru mailako eskala progresibo bat aplikatuko zaie kapitalaren errentei. Zergen dualtasun hori ez da inola ere ekitatiboa, zeren eta, errentak berdinak izanik, kapitaletik errenta portzentaje handiagoa lortzen dutenek zerga gutxiago ordaintzen baitituzte.
- **Estimazio objektiboko moduluen erregimena era progresibo batean desagerraraztea.** Izan ere, sistema horrek aukera ematen du berez beharko litzatekeen baino zerga gutxiago ordaintzeko. Gainera, sinplifikazio fiskal hori ez da batere eraginkorra eta iruzur fiskala sortzen du.
- Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak arautuko dituen Foru Lege bat egitea, epe luzeko aurrezkiak sortu ahal izateko eta aurrezki horiek garapen ekonomiko positibo baterantz bideratzeko.
- Pentsio planetarako ekarpenen negatibitate egiten diren beharpenak mugatzea planteatuko da, hala norbanakoen eta enpresen planetarako nola plan bateratuetarako.
- **Tributazio eskala berria, %52ko marjinala berreskuratuz 300.000 eurotik gorako likidazio oinarrietarako.**
- Inbertsio Funtsetan edo inbertsio kolektiboko beste instituzio batzuetan egiten diren berrinbertsioak zergapetu behar dira. Gaur egun, ondare irabazi horien zergapetzea denboran atzeratzea ahalbidetzen duten kateak dira. Gainera, horrelako irabazi batzuk ia salbuetsita geratzen dira.
- Gizarte larrialdiko egoeran gaudenez, gizarte politiken arloko gastuak handiagoak dira eta baliabide asko behar dira gastu horiei aurre egiteko. Horren aurrean, hau proposatzen dugu: **aberatsenen errentaren eta enpresarik handien gaineko errekaratu bat sortzea, horren bidez gizarte zerbitzuak finantzatzeko.** PFEZari dagokionez, kuotaren portzentaje gisa aplikatuko litzaieke 25.000 eurotik gorako errentak dituzten zergadunei. Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, Kuota Efektiboaren gaineko errekaratu gisa aplikatuko litzaieke 600.000 eurotik gorako diru sarrerak dituzten enpresei. Tasa hori finkatzeko, gizarte zerbitzuen sistemak dituen beharren azterketa zehatza egingo da. Errekaratu horrek izaera finalista izango du eta haren bidez biltzen den dirua gizarte zerbitzuen gastuak finantzatzeko soilik erabiliko da. Gehienez ere 4 urteko iraupena izango du.

### SOZIEKATEEN MOZKINEN GAINEKO ZERGA

- Zerga-tasak berrikustea eta irabazien araberako eskala bat ezartzea: %24a 200.000€ arteko irabazietarako eta %28a hortik gorakoetarako.
- Likidazio oinarri negatiboak eta kenkari aplikaezinak konpentsatzeko epeak laburtzea eta preskripzio epeetara

hurbiltzea.

- Enpresa autoktonoen funts propioak indartzen laguntzeko, inbertsio erreserba bat sortzeko aukera emango da. Horretara bideratzen diren baliabideek onura fiskalak izango dituzte. Inbertsiorako eta enpresa guztietarako pizgarri neurtua.
- Enpresetan langileen parte-hartzea sustatzeko pizgarri bat ezartzea.
- Sozietateen gaineko Zergaren bidez biltzen den diru kopuruaren beherapen etengabeari amaiera ematea, zerga horrek askoz ere ekarpen handiagoa egin beharko bailioke sistemari. Horretarako, kenkariak desagerrarazten joan eta gastu kengarria mugatu behar da. Kenkarien murriztapen orokorra.

## ABERASTASUNAREN ETA FORTUNA HANDIEN GAINEKO ZERGA

- Ondarearen gaineko Zergaren ordez Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga sortzea, iruzurra kontrolatzeko eta sistemaren progresibitatea hobetzeko. Aberastasuna eduki ekonomikoko ondasun eta eskubideen titulartasunetik eratorritako ahalmen ekonomikoen indize bat da. Horregatik, aberastasunak haren titularrak diren pertsona fisikoentzat dakarren ahalmen ekonomiko gehigarria zergapetu nahi da zerga berri horren bidez.
- Hala, zerga berriak aberastasunaren erabilera produktiboa sustatuko du eta eduki ekonomikoko ondasun eta eskubideak eraginkortasun handiagoz erabiltzea izango du xede, erabili gabe egon ez daitezen eta haien erabilera espekulatiboa eragozteko. Horrekin batera, izaera progresibo handiagoa emango dio zerga sistema osoari.
- Ezkutu fiskala desagerraraztea. Gaur egun, zergaren kuota osoa eta PFEZaren kuota, batera hartuta, ezin dira izan zerga-oinarri orokorraren eta PFEZeko aurrezkiaren %x-etik gorakoak. Muga horri esaten zaio ezkutu fiskala eta horixe da desagerrarazi behar dena.
- Zergaren arauen arabera 700.000 eurotik gorako ondasunak edo eskubideak dituzten subjektu pasiboek derrigorrez aurkeztu beharko dute errentaren aitortpena.
- Enpresa-partaidetzen zerga salbuespena desagerraraziko da, baina %75eko hobaria ezarriko da.

## KREDITU ENTITATEEN GORDAILUEN GAINEKO ZERGA

- Zerga-tasa 0,30era aldatzea, zerga horri dirua biltzeko gutxieneko ahalmen bat emateko.

## FISKALITATE BERDEA

- Ingurumen zergen helburua karga fiskala birbanatzea da. Horretarako, zuzenean zigortzen dira natur ingurunearentzat kaltegarrienak diren jokabideak eta jarduerak, eta zeharka saritzen dira garapen iraunkorraren arloko jokabide eta formula berrietarantz aurrera egiteko onuragarriak direnak. Horregatik, ingurumen helburuak izango dituen zerga motaren bat ezartzeko aukerak aztertzea proposatzen dugu, gradualtasuna, gardentasuna eta parte-hartzea irizpidetzat harturik.
- Eztabaidarako proposatzen ditugun zerga motak (kanonak, ekotasak...) honako gai hauetarako izango lirateke: turismoa, goi-tentsioko lineak, hondakinen isurketa eta errausketa –instalazio pribatu nahiz publikoetan–, gas

kutsatzaileen igorpena, erabilera bakarrekoko plastikozko poltsak, lurzoruaren erabilera aldaketak urbanizazio berriko jarduketarako...

- Enpresa batzuei pizgarri fiskalak berriz ezartzeko aukera aztertuko litzateke, hala nola energia auditoriek proposatutako neurriak aplikatzen dituztenei, mugikortasun iraunkorrerako planak dituztenei eta garraioak trenez egiten dituztenei.

## Eskumenik ez daukagun zergetarako neurri zehatzak

### BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

- Zerga hori arautzeko ahalmena aldarrikatu behar dugu.
- Ezinbestekoa da zeharkako zergen gaineko ahalmena edukitzea, karga fiskala zerga guztien artean banatu ahal izateko.

### IRUZUR FISKALAREN AURKAKO BORROKA

- Iruzur fiskalaren kontra borrokatzeko baliabide gehiago edukitzea. Haien antolakuntza hobetzea eta esku hartzeko ahalmena areagotzea. Nafarroako Zerga Agentziaren plantilla handitzea.
- Nafarroako Zerga Agentziaren benetako independentzia bermatzeko, hauxe proposatzen dugu: zuzendaria Nafarroako parlamentuak izendatzea, 4 urterako.
- Iruzur fiskalaren kontra borrokatzeko zerga moten funtzionaltasuna edo gaur egungo diseinua ebaluatzea. Salbuespenak eta kenkariak ahal beste gutxitzea. Etorkizunean zerga baten diseinuan edozein arau aldaketa egin ahal izateko iruzurraren kontrako borrokan izango duen eraginari buruzko memoria bat aurkeztu beharko da.
- Zerga erantzukizunaren erregimena aldatzea. Gaur egungo deribazio sistema garantistegia da eta, Zerga Administrazioari ezartzen dizkion froga-exijentzien ondorioz, erantzukizunaren deribazioak ez dira oso eraginkorrak iruzurra eragozteari eta dirua biltzeari dagokionez.
- Kuoten iruzurrak zigortzeko erregimena gogortzea eta zigorrak nahiz ordaindu ez diren kopuruak kobratzeko beharrezkoak diren mekanismoak sortzea.
- Iruzurraren kontra borrokatzeko urte anitzeko plan berri bat egitea, sentsibilizazio kanpaina batekin batera. Kanpaina horretan bi gauza nabarmenduko lirateke: iruzurra zigortu egingo dela eta zergak ordaintzea onuragarria dela. Gizarte osoari zuzendutako kanpaina orokorra izango litzateke.
- Bereziki arriskutsuak diren zergadunei buruzko alarma sistema bat ezartzea, haien segimendu zorrotza egin ahal izateko eta egin litezkeen iruzurrei buruzko informazioa hobetzeko.
- Urtero, Nafarroako Gobernuak -dagokion Sailaren bidez- egiturazko iruzur fiskalaren aurkako borrokan egindako aurrerapenei buruzko txosten bat egingo du. Txosten horrek iruzurraren eta haren bilakaeraren adierazle kuantitatiboak jaso beharko ditu.
- Iruzur fiskalaren aurkako borrokan gainerako Foru Aldundiekiko eta Estatuarekiko koordinazioa/elkarlana

hobetzea. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen da datu-base guztien arteko lotura teknikoa erraztea.

## AURREKONTU POLITIKA

- Parlamentuan aurrekontuen Kontrol Bulego bat sortzea. Bulego horrek Nafarroako Aurrekontu Orokorrak nahiz foru sektore publikoaren aurrekontuak etengabe kontrolatzen lagunduko die Ganberako organoei, talde parlamentarioei eta parlamentariei, aurrekontuak egiteko, exekutatzeko nahiz likidatzeko fasean. Bulego hori Gobernutik guzti independentea izango da.
- Aurrekontuen exekuzio maila kontrolatzeko neurriak indartzea, eraginkortasun adierazleak txertatuz. Egindako jarduketan gardentasuna bermatzeko neurriak ere indartu behar dira.
- Eraginkortasunik gabeko edo gardentasun gutxiko kudeaketak prebenitzeko, kontrolatzeko eta detektatzeko tr esnak ezartzea.
- Nafarroako Gobernuaren eta tokiko erakundeen eskumenak era zentzuzkoago batean banatzea, bikoizterik egon ez dadin eta baliabideak optimizatzeko, gero eta urriagoak baitira. Nafarroako instituzio guztien arteko elkarlana sustatu behar da.
- Aurrekontu baliabideen erabileran emaitzak ebaluatzeko mekanismoak sortzea, aurrezte irizpide zorrotzak aplikatuz, batez ere ondasun nahiz zerbitzuen erosketarako eta dirulaguntzetarako partidei dagokienez.
- Enpresa txiki eta ertainek, kooperatibek eta ekonomia sozialeko enpresek lizitazio publikoetan presentzia handiagoa izateko neurriak hartzea, aurrezpen ekonomikoarekin batera irizpide orokorrak ere kontuan hartuz eta betiere kontratuen arloko legedia betez.
- Administrazioak ez du inolako jarduerarik edo kontrataziorik egingo paradisu fiskaletan kokatutako enpresekin.

## FINANTZA POLITIKAK

- Nafarroako Gobernutik eta Nafarroako Parlamentutik finantza entitateekin batera lan egin behar dugu kredituaren fluxua berriro aktibatuz. Horregatik, arriskuak estaltzeko eta bankuekin nahiz kreditu kooperatibekin aliantzak egiteko politika bat bultzatuko dugu, etorkizuneko inbertsio proiektuak dituzten eta epe luzeko lanpostu kualifikatuak sortzeko gaitasuna duten hemengo enpresei laguntzeko. Besteak beste, mikrokredituak edo enpresentzako abalak sustatzeko hitzarmenak egin daitezke.
- Aurrezki publikoa behar sozialetara eta gure erkidegoko inbertsio produktibora bideratzea ahalbidetuko duen Nafarroako finantza sistema publiko baten sorrera bultzatuko dugu.
- Finantza entitateetan kokatutako ondasun publikoak kontrolatzeko eskubideak ezartzea. Horrela, funts publikoak kudeatu nahi dituzten entitate pribatuak lehiatu egin beharko dira (orain ICO kredituak eta beste programa zehatz batzuk kudeatzeko egiten duten bezala). Lehiaketetako baldintzen artean honako hauek sartuko dira: entitateen ekarpen soziala, gizarte laguntzarako politikak, kredituen gaineko hobariak eta baldintzen kontrola kreditu kontratuak idazteko orduan, besteak beste. Inolako ekarpen sozialik egiten ez dutenak kapital publikoen ekarpenetik kanpo geratuko lirateke.

## HITZARMEN EKONOMIKOA

- Gaur egungo Hitzarmen Ekonomikoaren oinarriak berrikustea.
- ECOFINen presentzia izatea, garatzen dituen politiken kontra gauden arren hor egon beharra dugulako gure herriaren interesak defendatzeko.
- Burujabetza fiskal osoa berreskuratzea, hori bermatu ezinezkoa baita gaur egungo Hitzarmen Ekonomikoarekin, eta Madriren onartzen diren neurri fiskalak imitatzeari eta kopiatzeari uztea.





4

*ENPLEGUA*

>>

## ENPLEGUA

### IDEIA NAGUSIAK

1. Pertsona guztiek dute kalitatezko enplegu duinerako eskubidea, bizi baldintza duin eta autonomia bermatuko duen soldaten bidez. Gaur egun eta geroz eta gehiago, enpleguak ez du bermatzen pobreziatik ateratzea.
2. Jendarte eredu berri bat eraiki nahi dugunontzat aberastasuna banatzea garrantzitsua den bezala, lanaren banaketari ekitea garrantzi handiko ildo behar du izan. Nekez pentsatu daiteke hurrengo urteotan 48.000 enplegu sortzeko gaitasuna izango dugunik, lan banaketaren eztabaidari ekiten ez bazaio bederen.
3. Enpleguaz hitz egiten dugunean, bere zentzu zabalean egin behar da. Lan produktibo zein erreproduktiboaz hitz egin behar da, etxeko lanak eta zaintza lanak ere kontuan hartuko dituen enplegu politika baten alde egin behar dugu.
4. Nafarroari ukatu egiten zaio lan merkatuaren eta babes sozialaren inguruko arautzea oro har eta atal honetan ere, bestelako eredu sozial eta alternatibo bat osatzeko dugun burujabetza ekonomikoaren garrantzia azpimarratu beharra dago.

### OINARRI IDEOLOGIKOAK

- EHBilduren ustez enplegua ezin da luxu bat izan, aitzitik bizi baldintza duin eta autonomo baterako bermatu beharreko eskubidea baizik.
- Burutu diren erreforma laboralengatik eta oro har lan merkatuan dagoen errealtate gordinaren ondorioz, gaur egun, lana izateak ez du bermatzen pobreziatik at gelditzea, horregatik garrantzia dauka kalitatezko enplegua aldarrikatzea.
- Orain arteko ereduak porrot egin du eta aurrerantzean bestelako eredu baterantz errotik aldaketak erakarriko dituzten neurriak behar dira. Horien artean, lan banaketarena, zalantzarik gabe, garrantzitsuetako bat izan behar du.
- Lan banaketak ordea, esparru guztiak kontutan hartu behar ditu, lan produktiboa zein erreproduktiboa eta horretarako zaintza lanak enplegu gisa ezaugarritzea eta horren araberako erabakiak eta neurriak hartzea funtsezkoa da.
- Nafarroak lan merkatua arautzeko eskubidea eta beharra dauka. Lan erreformak inposatzen zaizkigu, herrialde mailan adostutako konbenioak bertan behera uzten dira eta enpresariei botere osoa eskaintzen zaie. Egoera horri buelta emateko aukera bakarra, guk geuk arautzea, Nafarroan erabakitzea, lan eskubideak suntsitzeko baino, lan eskubideak bermatu eta arautu ahal izateko.
- Lan merkatuaren eta lan baldintzen arautzeaz mintzatzen garenean, bere osotasunean aztertu eta arautu ahal izateko, Nafarroak babes sozialerako sistema osoa arautzeko duen beharra eta eskubidea ere azpimarratu nahi dugu, besteak beste gizarte segurantzaren eta pentsioak bezalako tresnak ere gure esku izateko.
- Inposaturiko kontratu partzialak, ETT-ak, behin behineko kontratuak, azpikontraten prozesu amaigabeen ondoriozko soldatak... Guztiak, prekarietatea sortarazten dute. Egundak, bestalde, emakumeak, gazteak eta etorkinak

dira bereziki prekarietate hori gehien pairatzen dutenak eta ezberdintasun sozial hori pairatu behar dutenak. Horregatik, prekarietatearen aurkako borroka lehentasuna behar du EHBildurentzat.

- Enplegu nitxo berriak landu behar dira; menpekotasunaren alorrean, gizarte lanetan, energia berriztagarrietan edo ingurugiroaren jasagarritasunean.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

1. Nafarroan lan erreformak ez aplikatzeko jarrera publiko eta aktiboa izatea, Madriletik inposatutako lan erreformak arbuatuz eta negoziazio kolektiboa bultzatuz eta babestuz.
2. Lan publiko guztietan lurraldeko lan-hitzarmenen baldintzak betetzen direla bermatzea.
3. Nafarroako Gobernuak dituen kontratazio publiko guztien berrikuspen prozedura abiatu eta kontratazio berriak lan baldintzak kontutan hartzen dituzten klausula sozialak barnebilduz egin. Klausula sozialak aplikatzeari lehentasun osoa emango zaio. Aplikatuko dituzte klausula sozialen helburu zehatzak hauek dira: lan-merkatu sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak laguntzea, lan-merkatuan gizonezkoen eta emakumezkoen artean dauden desberdintasunak ezabatzea, kalitatezko enplegua sustatzea, hau da, enpresa horien langileei oinarritzeko lan eskubideak errespetatuko zaizkiela eta lan baldintza duinetan eta segurtasunaz lan egingo dutela bermatzea, Ingurumenarekin lotutako irizpideak betetzea (eraginkortasun energetikoa, ahalik eta hondakin gutxien sortzea, produktu ekologikoak erabiltzea...) eta hizkuntzarekin lotutako irizpideak ere aintzat hartzea.
4. Klausula sozialekin diharduten eta lan erreforma aplikatzen ez duten enpresak lehenetsi eta bultzatuko ditugu.
5. Azpikontratazioaren kateari amaiera emateko bitarteko zehatzak hartzea kontratazio publikoaren alorrean, honek enplegua erakartzen dituen ondorioekin amaitzeko.
6. Lanbide arteko gutxieneko soldata pobrezia-mailatik gora ezartzea; hau da, 1.075 1.075 eurotan "sinbolikoki" aldarrikatzea eta beronen errespetuaren norabidean lan egitea.
7. Aldi baterako enpresak inoiz ez kontratatzea eta horiek kontratatzen dituzten enpresekin harreman edo kontratu ekonomikoak berrikustea.
8. Berriz ere zuzenean eskaini ahal izateko, egun pribatizatuta dauden zerbitzu publiko guztien ikerketa burutzea, ondoren, eta ahal balitz, berehalako publikazio prozesuak martxan jartzea.
9. Bizi dugun gizartean ondasuna banatuko duen politika fiskala behar den bezala, lana banatuko duten enplegu politikak behar dira. Langabeziarekin amaitzeko, besteak beste, lanaren banaketak garrantzia handia hartu behar du eta gai honen inguruan eragile sindikal eta ekonomikoekin eztabaida proposatzea eta irekitzea. Hau dela eta, Funtzio Publikoaren Mahi Orokorra deituko da arlo publikoan lan banaketaren neurriak adosteko.
10. Eztabaidak proposatzeaz gain, eredu izan behar dute instituzioek eta norabide horretan, sektore publikoan lanaldia murrizteko urratsak ematen hasi behar da. Lehen urratsa, nola ez, Nafarroako Gobernuak langile publikoen ordu kopurua igo duen dekretua ez aplikatzea behar du izan eta ondoren administrazioko mahaia konbokatu eta eztabaida horri ekin.
11. Klausula sozialak: instituzioaren aldetik erosketa publiko eta kontratazioetan klausula sozialak txertatzeko konpromisoa hartuko dugu. Klausula horien arabera, dagokion arloko hitzarmenarekiko konpromisoa, ingurugiroaren bermerako neurriak, hizkuntza irizpideen betetzean, berdintasuna bermatzeko urratsak eta ezgaituek lan merkatuan txertatzeko konpromisoetan sakontzea beharrezkoa ikusten da.

12. Soldata mantenduz, lana banatu eta enplegua sortzeko apustua egiten duten enpresak laguntzeko egitasmoak hausnartzea (diru laguntzak, hobariak...) eta martxan jartzea.
13. Bestalde, azken urteetan ukatutako aukera izaki, dauden behar publiko eta sozialei aurre egiteko eta zenbait kasutan azken urteotan adostutako eta konprometitutako lan poltsa publikoak ateratzea eta prozesuak martxan jartzea.
14. Nafarroak lan harreman eta babes sozialerako esparru propioa behar du. Nafar instituzioek gai hau beren agendaren lehen lerroan jarri behar dute, esparru propio hori iraunkorki aldarrikatzeko eta egunerokotasunean urrats praktikoak eman daitezkeen aztertzeko.
15. Babes sozialerako esparruaren baitan atal ugari badaude ere, gizarte segurantzaren eskuduntzak duen garrantzia azpimarratu beharra dago. Norabide horretan ikerketa zehatza egin behar da jada, eskuduntza hau lehen bait lehen gurera ekartzeko pentsioei buruzko zein gizarte segurantzaren aurrezkiekin zer egin eta nola egin nahi dugun erabaki ahal izateko: erretiro adina ez atzeratzea, pentsio sistema propioa ahalbideratzea, aurrezkiak Nafarroan inbertitzea...
16. Gazteen autoenplegua sustatzea. Udal, mankomunitate edo garapen agentzien ekimen eta laguntzen bitartez, kredituak lortzea eta epe baterako tasak eta EOIZ (ICIO) bezalakoak ordaintzeko erraztasunak ematea.
17. Gai ezberdinengatik lan munduan integrazioa lortzeko zaitasunak dituzten sektoreentzat plan espezifikoak burutzea.
18. Birlaneratzeko enpresekin elkarlanean, gizarte-baztertzea arriskuan dauden pertsonen integrazioarako planak burutzea.
19. Nafarroatik kanpo lanera joan diren nafartar gazteen itzulera bultzatzeko egitasmoa.
20. Nafarroako Enplegu Zerbitzuen (N.E.Z) kudeaketaren eta bere ondorioz ateratzen denaren arduradun bakarra Administrazioa izan beharko da. Beraz, oraingo ereduaren aldaketaren konpromezua hartzen dugu. Eredu berri honek izango dituen ezaugarriak hauek izango dira: ardura eta kudeaketa soilik publikoa izango da, norabidea aldatuko zaio Aldi baterako Lan Enpresak (BLE) ahalik eta eragin txikiena izateko eta diru funtsen kudeaketa gardena izango da.
21. Konpromezua hartzen dugu Nafarroako Administrazioak dituen baliabideak erabiliz enpresa ertain eta txikitara zein autonomoei dirua eta likidezia iristeko.
22. Laneko osasunaren babeserako eredu bat sortzea, bere baitan hartuko dituen prebentzioa, prestakuntza, ikuskaritza, eta eredu hori antolatzeke eta finantzatzeko ahalmena.
  - Laneko arriskuen prebentzioaren alorrean prestakuntza askoz ere gehiago eskaintzea, lan-ezbeharrak gerta ez daitezen.
  - Laneko segurtasuna sustatzen duten enpresei laguntzea.
  - Prebentzio-jarduerari lehentasuna ematea.
  - Kontratu publikoetan, prebentziorako araudia ez betetzea zigortu egingo da.
  - Amiantoak eragindako gaitzak eta beste gaixotasun batzuek eragindakoak laneko gaixotasuntzat har daitezzen sustatzea eta konpentsazio-funtsa eratzea.

- Gaur egungo Lan Ikuskaritza-alorra Nafarroaren eskuetan uztea.
- Osasunaren prebentziorako ordezkaria eta osasun-alorreko koordinatzailea sustatzea.
- Sexu-jazarpeneko eta mobbing kasuetarako protokoloak aplikatzea.

23. Nafar Gobernuak egiturazko funtsa sortuko du enplegua eta inbertsio produktiboak sustatzeko. Funtsa horren kudeaketan parte hartuko dute Gobernuak, nahi dituzten erakunde sindikalek eta patronalak. Bere jarduerak gardenak eta neurgarriak izango dira. Honako helburuak beteko ditu: I+G+Bren baliabide publikoak optimizatzea, inbertsio produktiboa sustatzea, energia aurrezteak, lan merkatuan sartzeko zailtasun gehien dituztenen lan formakuntza hobetzea lan merkatutik kanpo ez gelditzeko.

24. Gazte ekintzailetza kolektibo eta sozialaren sustapenerako programak sortzea atal hauek kontutan hartuz:

- Formazioa: ekonomia sozial eta solidarioa zein kooperatibagintzari buruzko formaziorako bitartekoak eskaini.
- Proiektuak sortu eta garatzeko aholkularitza juridiko, estrategiko zein finantzariora.
- Ekonomia sozial eta solidarioan oinarritutako proiektuen saretzea sustatzeko egitasmoak.
- Haztegien sorrerak aipaturiko proiektuen garapenerako gune eta eskaintza gisa.

## ENPLEGU PUBLIKOA

Ukaezina da enplegu publikoak garrantzi handia duela Nafarroako ekonomian, hala ikuspuntu kuantitatibotik nola kualitatibotik, Administrazioak bultzatzen duen enplegu politikaren isla ere badelako. Hala ere, haren portzentajea oso apala da, EBn lortutakoa baino txikiagoa. Edonola ere, funtsezkoena ez da gaur egun dagoen enplegu publikoaren portzentajea baloratzea, baizik eta egiten diren zerbitzu publikoen nolakotasuna, kalitatea eta bolumena.

25. Azken urteotan, Madriletik inposatu diren eta UPNk inolako eragozpenik gabe aplikatu dituen austeritate politiken eta plantilla murrizketen ondorioz, Nafarroako zerbitzu publikoak (hezkuntza, osasungintza, gizarte laguntza...) asko murriztu dira, askotariko bideak erabiliz: pribatizazioak (ospitaleetako sukaldeak eta garbiketa lanak...), lan kargen gehikuntza (hezkuntza, osasuna...), lanpostu hutsen amortizazioak, etab. **Horri dagokionez, datozen lau urteetan 2011ko plantilla maila berreskuratzea litzateke helburua.**

26. Helburu orokor horren barruan, honako hauek izango **lirateke bultzatu beharreko lehentasunak:**

- Foru Ogasuneko Ikuskaritzaren plantilla bikoiztea (gutxienez), iruzur fiskalaren kontra borrokatzeko eta Foruzaingoak xede horretarako dituen zerbitzuak indartzeko.
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuko plantilla nabarmenki handitzea: ikuskaritza, tutoretzak, eskualdeetako zentroak indartzea...
- Pribatizatutako gizarte arloak berreskuratzea (ospitaleetako sukaldeak...)
- 2011ko plantilla mailak eta ratioak berreskuratzea, Osasungintzan, Hezkuntzan eta Gizarte Ongizatean.
- Mendekotasunerako laguntza eta zaintza lana arlo publikotik erabakitazunez bultzatzea, hala aurrekontuei nola langile kopuruari dagokienez.

27. Aurreko puntuan jasotakoa zehazteko, **hiru hilabeteren buruan Mahai berezi bat sortuko da, hiru aldeak osatua** (Administrazioa, sektore publikoko sindikatuak eta kontuan hartuko diren arloetan lan egiten duten elkarte nagusiak –hezkuntza, osasungintza, gizarte arreta, kontsumitzaileen elkarteak...-). Mahai horren helburua Foru Administrazioan Enplegua Sortzeko eta Zerbitzu Publikoak Sustatzeko lau urteko Plana egitea izango da. Planaren behin betiko onartzea Nafarroako parlamentuari dagokio.

28. Ildo berean, legegintzaldi honetan Mahai horrek **epe erdirako plan bat egingo du, Europar Batasunean dagoen enplegu publikoaren batez bestekora, gutxienez, heltzea helburu izango duena**. Ezarritako epeetan Nafarroako herritar guztientzat osasungintza, hezkuntza eta gizarte arreta publikoa, doakoa, unibertsala eta kalitatezkoa lortzea ahalbidetuko duten bitartekoak definituko ditu Plan horrek, aurrekontuari, antolakuntzari nahiz langileriari dagokionez.

29. Plan horiek Administrazioan lan egiten duten gizon eta emakumeen arteko berdintasun osoa sustatzeko hainbat neurri jasoko dituzte, arlo guztietan (funtzio publikorako sarbidea, soldata, prestakuntza, sustapena...). Gizarte osoari begira, berriz, gaur egun emakumeek nagusiki egiten dituzten etxeko lanak eta zaintza lanak arlo publikoaren esku geratzen joatea ahalbidetuko duten zerbitzuak sustatuko dira (0-3 urte, etxeko laguntza, egoitzak...).

30. Administrazioan **asteko 35 orduko lanaldi erreala** ezarriko da. Aparteko orduak salbuespenezko kasuetan soilik egingo dira, eta lan orduen kontura konpentsatuko dira beti. Ordutegiak bizitza pertsonala, familiakoa eta lanakoa bateratu ahal izateko behar bezain malguak izango dira. Sindikatuekin negoziatuko dira borondatezko lanaldi-laburtzeak, urte sabatikoak, etab., eta horrek inoiz ez du ekarriko zereginak beste lanpostu batzuetan metatzea ez lanpostuak murriztea.

31. Nafarroako Gobernuak enpresa publikoaren arloan darabilen politika orokorra berrikusiko da (Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa), batez ere SODENARI dagokionez, inbertsioen eta enpresa-partaidetzaren arloan darabilen politikak ez baitu zerikusi handirik lehen azaldu ditugun irizpideekin. Enpresa publikoen kopurua eta jarduera eremuak berriz dimentsionatu eta arrazionalizatu behar dira, arrazionaltasuna (zuzendaritza organoak, plantillak...) eta interes publiko eta soziala irizpidetzat hartuz.

32. Kontratazio publikoan legedia zorrotz betetzen dela zainduko da (hitzarmenak, lan osasuna...). Batetik, baztertu egingo dira aparteko orduak, ABLEen bidezko kontratazioa eta justifikatu gabeko azpikontratazioak. Bestetik, balioetsi egingo dira klausula sozialak, energia aurrezpenaren eta ingurumen babesaren arloko konpromisoak, hizkuntza normalizazioa, genero berdintasunaren aldeko politikak eta langile ezgaituak txertatzeko politikak.

## ADMINISTRAZIOAREN ERREFORMARAKO NEURRIAK.

33. Administrazioaren erreforma demokratikoa bultzatu beharreko kontua dela onartzen ez bada, oso zaila izango da gizartearen aldaketa sakonak bultzatzea. Izan ere, Administrazioaren egitura eta funtzionamendua aldatu ezean, gaur egungo inertzia burokratikoak, influentzia sareak eta pribilegio iturriak eguneroko galga eta oztopoa izango dira bultzatu nahi den politika berria aurrera eramateko.

34. Ahalegin bereziak egingo dira **funtzio publikoari dagozkion zereginen eta funtzionarioek egin ditzaketen jardura pribatuen arteko bateraezintasun erregimen zorrotz bat ezartzeko**, batez ere karguak eta ardura postuak dituzten pertsonen dagokienez, hala Administrazioan nola enpresa publikoetan. Sailarteko unitate berezi bat arduratuko da horren segimendua egiteaz (Pertsonala, Ogasuna, Foruzaingoa...).

35. Era berean, gizartearen eta Administrazioaren arteko harreman bide zuzenak ezarriko dira, lan planak definitzean eta erabakiak hartzean herritarrek parte hartzeko benetako aukera izan dezaten. Gaur egun zenbait Sail eta Zerbitzutan dauden Parte-hartze Kontseiluen gai zerrendak eta bozketak zeharo baldintzatuta daude, Administrazioak ordezkartzaren gehiengoa duelako. Horren ordez, burokratikoak izango ez diren organo biziak

sortu behar dira, herritarrek parte hartzeko eta erabakitzeko benetako ahalmena izan dezaten.

36. Nafarroako Gobernuaren Administrazioa osatzen duten hiru sektore nagusietan gutxienez (Hezkuntza, Osasungintza eta Administrazioa) Administratuarentzako Arreta Unitate bereziak sortuko dira, erabilera erraz eta ezagunekoak, erabiltzaileek planteatzen dituzten ekarpen, kritika, erreklamazio eta iritziei erantzun egokia eman ahal izateko. Unitate horiek harreman iraunkorra izango dute kontsumitzaile elkarteekin, zerbitzu publikoak hobetze aldera.

37. Neurri handi batean, Foru Administrazioaren gaur egungo egitura organikoak klientelismoan eta prebenda banaketan (boterea, soldata...) oinarritutako politika bati erantzuten dio, eta ez arrazionaltasun eta eraginkortasun irizpideei. **Gaur egungo Buruzagitzak eta Zuzendaritzak berrikusi eta nabarmen murriztu behar dira;** izan ere, unitate organiko askok (Zerbitzuak, Atalak...) ez dute haien existentzia justifikatzen duen oinarri funtzional eta pertsonalik, eta Negoziatu asko Buruzagitza hori duen pertsonaz soilik osatuta daude.

38. **Funtzio publikoaren profesionalizazioa sustatu eta gaur egun dauden adiskidekeria mota guztiak desagerrarazi behar dira. Negoziatu eta Ataletako Buruzagitzak eta lanpostuak merezimendu, esperientzia eta gaitasun irizpideen arabera bete behar dira, kargurako izendapenak izan behar duen iraupen mugatuan inolako salbuespenik onartu gabe.** Zerbitzu zuzendarien izendapenak kargurako gaitasun eta prestakuntza irizpideen arabera justifikatu behar dira, kargu horiek funtzionarioen arteko izendapen librekoak badira ere.

39. **Funtzionario eta kontratudun langile guztiek -Zerbitzuetako zuzendariak eta langileak barne- dagokien hitzarmen sindikala bete beharko dute.** Negoziazio kolektiboaren bidez gaur egungo soldata tartea murriztea eta soldaten osagarri erregimena arrazionalizatzea bilatuko da. Hitzarmen kolektibo bakarra negoziatuko da enpresa publiko guztietarako eta, apurka-apurka, enpresa horietako langileen baldintzak funtzionarioen baldintzekin parekatuko dira.

40. **Zuzendaritza Nagusi eta Zerbitzu guztietan parte-hartzerako marko egonkorak eta iraunkorak ezarriko dira langile guztientzat,** dagozkien arloetako lan programak eta helburuak zuzen ezagutzeko aukera izan dezaten eta haiei buruzko iritzia eman eta ekarpenak egin ahal izateko. Langileen parte-hartzerako marko horien osaera eta funtzionamendua sindikatuekin negoziatuko da.





5  
TOKIKO  
GARAPEN  
SOZIOEKONOMIKOA



# TOKIKO GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA

## GINARRI IDEOLOGIKOAK

### GLOBALIZAZIOAN TOKIKO GARAPENAREN GARRANTZIA INDARTU EGIN DA

Globalizazioak, homogeneizazio eta estandarizazio fenomenoez gain, espezializazio eta diferentziazio prozesu esanguratsuak ere sorrarazten ditu estatu eta erregioen artean. Lehiarako eredu berri eta areagotuko abagune honetan lurraldeak, identitate geografikoaz antolatzen den gizarte gisa ulertuta, balioa berritzen ari dira. Azken hiru hamarkadetan erregioaren kontzeptuak indarra irabazi du, globaltasunaren politika ekonomikoan abantaila lehiakorren iturri garrantzitsutzat jotzen baita. Lurraldearen balio aintzat hartzen dituzten proposamen analitiko ugari eskaini dira, ekonomia erregional, industria ekonomia edota berrikuntzaren ekonomiaren eremuetan. Adibidez, milieux innovateurs, klusterrak, learning regions, berrikuntza sistema erregionalak, smart territories...

Lurraldeak eta espazioak hartu duen esanguraren adierazlea ere bada Nazioarteko Erakundeetan irabazi duten zentraltasuna. Garapenari dagokionez espazioarekiko neutroak ziren gerturatzetik espazioan edo tokian oinarrituriko hurbilpenetarako joera indartzen ari da. Horren erakusle dira esate baterako Europar Batasunako "An Agenda for A Reformed Cohesion Policy: A Placed-Based Approach to Meeting European Union Challenges and Expectations (The Barca (2009) report)" txostena, edota OECD-k argitaraturiko "How regions Grow" (OECD, 2009a) eta "Regions matter" (OECD, 2009b) txostenak ere.

Eskola eta autore ugari bat egiten dute gertutasunaren (fisikoa zein kulturala) eraginean: enpresa eta enpresa-sareentzat abantaila lehiakorren iturri garrantzitsutzat jotzen baitute gertutasuna, kanpoko ekonomiak eta aglomerazio ekonomiak sustatzen laguntzen baitu, baita transakzio kostuak murrizten ere. Zentzu honetan, eta ekonomia globalaren abagunean paradoxa badirudi ere, gertutasuna oinarri bilakatu da jarduera ekonomikoaren berregituraketarako politiken diseinuan. Adibideak ugariak dira: klusterrak, balio-kateak, enpresa-sareak edota sistema ekonomiko integralak kasu.

Globalizazioaren itzalean ingurune lehiakorren eraldaketa sakona gertatu da. Garapen bidean dauden herrialde asko ondasun manufakturatuen ekoizle eta esportatzaile garrantzitsu bihurtu dira; gero eta ondasun gehiagorentzat merkatuak globalizatu egin dira; eskaria dibertsifikatu egin da eta ondasunaren bitzita-zikloak laburtu; berrikuntza erritmoa azeleratu egin da, merkaturatze epeak eta amortizazio epeak murriztuz, eta ondorioz I+G kostuak handitu egin dira, enpresen arteko kooperazioa erakargarria bilakatu; ondasun estandarizatuen serieko ekoizpena krisian murgilduta kalitatean eta bereizte estrategiak produkzioarako antolaketa eredu berriak sortu dira (Ohnismoa edo Toyotismoa kasu); ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean berrikuntza erradikalak ugaltu egin dira (mikroelektronika, bioteknologia, ingeniari genetikoak, material berriak edota antolaketa kontzeptu berriak); teknologiararen konplexutasuna handitu egin da eta espezializazio zaharrekin apurtuz, esparru ezberdinetako ikerketak integratzea beharrezkoa suertatzen da, honek eragile edo herrialde bateko gaitasunak gaitzen dituelarik; informazio eta komunikazio teknologia berrien bitartez kudeaketa zein prozesamendu denbora eta kostuak nabarmen murriztu egin dira, besteak beste.

Ingurune berri honetan posizio lehiakor iraunkorren eusteko enpresa batek erabiltzen dituen gaitasunak abiada handiz eraldatzen dira. Eguneko ingurunean, ohiko faktore produktiboak (baliabide naturalak, lan-esku merkea, finantza-kapitala) ez dituzte abantaila iraunkorren eskaintzen, liberalizazio prozesuek zein garraio eta informazio teknologien aurrerapenek faktore hauek denon eskura jarri dituztelako. Ezein herrialdek ezin du bere garapena

oinarritu aldeko zaizkion kostu edota natura-baliabideen horniduratik eratorritako abantailetan soilik.

Paradigma berriaren arabera, erregioetan txertatuta dagoen ezagutza eta berrikuntza gaitasuna bilakatu omen dira lehiakortasunerako gakoak. Ezagutza eta, batez ere, ikasketa prozesuak ez dira faktore klasikoak bezain mugikorak. Ezagutza erabat kodifikagarria eta esplizitua balitz edozein lekura igorri ahal izango litzateke, baina ezagutzak badu izaera tazituzko osagai garrantzitsua mugikortasuna zailtzen diona. Ezagutza tazitua norbanakoen trebetasun eta antolakundeen errutina eta prozeduretan txertaturik dago, baita ingurunean, enpresak elkar konektatzen dituzten harremanetan eta ingurune instituzional zabalagoan ere. Ondorioz, ezagutza tazituaren transmisioak pertsonen arteko interakzioa eta nolabaiteko bizikidetzeta behar du, baita konfiantza eta ulermena sortzeko lagungarri diren hainbat aldagai: komunikazio-kodea, konbentzio eta arauak... Guzti honek eta giza-kapitalaren mugikortasun apalak, gertutasuna funtsezko bilakatzen dute ezagutza tazituaren sorreran, transmisioan eta partekatzean.

Ezagutza tazituaren faktorearen eraginez, esparru geografiko mugatueta eta partikularki erregioetan berezkoa den gertutasuna aintzat hartzeaz gain, tokiko abantaila lehiakorren eraikuntzan beste dimentsio sozio-ekonomiko batzuek ere indartu egin dira. Ekoizpen-faktore klasikoetan oinarritu diren 'hard' produktibitatez gain, 'soft' produktibitateak azalarazi dira, hala nola, langileriaren kalitatea eta trebetasunak (giza-kapitala), sare sozialen eta marko instituzionalaren hedadura, sakontasuna eta norabidea (kapital sozial/instituzionala), kultur-aktiboen hedadura eta kalitatea (kapital kulturala) eta talde sortzaile eta berritzaile baten presentzia (ezagutza eta kapital sortzailea). Faktore ez ekonomikoak, hala nola, faktore kognitibo, sozial, kultural eta instituzionalak, erabakigarriak bilakatu dira ezagutza sortzeko, ikasketarako eta garapen ekonomikorako. Faktore guzti hauek lurraldearen gaitasun eta berezitasunei erabat lotuta dauden heinean, lurraldea eta erregioa abantaila lehiakorrek eraikitzeke gune indartua bihurtzen dira. Faktore mota hauek iraunkorrako eta zehaztasun gutxiagokoak dira, airean baleude bezala, baina horregatik preseski dira beste erregio batzuegatik imitatu edo kopiatzeko zailago, eta faktore bakunetan bihurtzen dira.

Lehiaren ereduaren eraldaketak eta faktore soziokultural eta instituzionalen garrantzi hartzeak, munduan zehar tokiko garapen estrategiak indar berriak dituzte. Horren isla nabarmena dugu Euskal Herrian, non esperientzia ugari aurki ditzakegun, bai eskualde mailan, bai eskala zabalagoan ere. Eskualde batzuek krisiaren aurrean izan duten erresilientzia handiagoa eta emaitza hobetoak tokiko garapen estrategia hauen eraginkortasunaren erakusle dira.

## GARAPENA KONTZEPTU DIMENTSIO ANITZEKO DA ETA DENBORAN ETA LEKUAREN ARABERA DEFINITZEN DA.

Garapen lokal eta erregionalen definizioak denboran eta esparru geografikoaren arabera aldakorra da. Garapen kontzeptuaren hastapena hemezortzi mendearen amaieran koka daiteke, kapitalismoaren hasierari lotuta. Garai hartan garapena errenta per kapitaren hazkunde iraunkortzat hartzen zen, eta gaur egun definizio hau da erabiliena, keynesianismoak politika ekonomikoaren zentroan ezarritako enplegu osoaren helburuarekin batera.

1940tik industrializazio prozesuei hertsiki lotuta garatu zen desarrollismoaren ikuspegia zalantzan jartzen hasi zen 1960ko hamarkadatik aurrera. Alde batetik, garapenaren ikuspegi erabat ekonomikoarekiko deserosotasuna hedatzen joan zen, eta garapenaren kontzeptua aldagai berrietara zabaldu zitzaion, eta neurgailu berriak eraikitzen hasi ziren finantza-baliabideetatik haratago zihoan konplexutasuna jaso asmoz, Nazio Batuetako Garapenerako Programa-PNUDe Giza-Garapenaren Indizea kasu. Amartya Sen ekonomialariak proposaturiko Giza-Garapenaren kontzeptuak, baliabideetan oinarritu baino, pertsonen eta komunitatearen gaitasunen gauzatzean ezartzen du interes guinea. Era honetan, dimentsio ekonomikoez gain beste hainbat dimentsio sozial barneratzen dira garapenaren kontzeptua, hala nola, ikasketa eta osasun maila, bizitza esperantza, genero berdintasuna, askatasun politiko eta zibilak...

XXI. Mendearen hasierarako garapenaren kontzeptua zabalagoa bihurtzen ari da, iraunkortasuna zein gizarte,

ekonomia edota ingurumenarekiko kezka barneratuak dituen heinean. Beste ekarpen garrantzitsu batzuk tokiko komunitateen eta eragileen boteretze prozesuak eta beraien protagonismoari emandako garrantzia, zein instituzioen gobernantzaren inguruko azterketa eta proposamenak dira. Ildo honetan, proposamen post-desarrollistek garapen prozesuetan gizarte zibilak duen ahalmena azpimarratu dute, beraien xehe sozial, behar eta ahalmenen ulermen ezin hobea duen eta herri zein eskualdetan txertatzen den entitate autonomo gisa.

Laburbilduz, hainbat ondorio azpimarra genitzake: batetik, garapenari buruzko esanahiak denboran zehar aldakorak dira. Bigarrenik, garapenaren definizioak geografikoki aldatzen dira. Hirugarrenik, dimentsio ekonomikoa gaintua izan da kezka sozial, ekologiko, politiko eta kulturalen bidez. Azkenik, gero eta garapenaren kontzepzio gehiagok herri eta eskualde mailako alderdi ezberdinak kontuan hartzen dituzte. Horrela estatuko fokua eta estatuaz gaintuko fokua eboluzionatu egin dira lokala eta erregionala barneratzera iritsi arte. Garapenaren tokia garrantzitsua bilakatu da eta garapenarekiko ardura Estatuaren lepoan soilik ez datzala onartu da. Udalerrri, auzo eta eskualdeetan garapen dinamikak eta estrategiak, integralagoak edo partzialagoak eraman daitezkeela erakusten du esperientzia anitz eta oparoen multzoak.

## GARAPEN POLITIKA TRADIZIONALAK BEHETIK GORA GAUZATZEN DIREN POLITIKA SISTEMIKOENGATIK ORDEZKATUAK IZATEN ARI DIRA.

Hamarkada luzeetan Estatuetatik goitik beherako politika tradizionalak orokorrean patroia berbera erabili du. Eskaintzaren aldetik zentratutako politikak dira eta gehienetan bi ardatzetan egituratzen dira: garapen ekonomikorako azpiegiturak lortzea eta atzerriko inbertsio zuzena zein industria erakartzea. Oinarrian dagoen logikaren arabera ehun industrial dinamikoa artikulatu dezaketen enpresen gabezia da konpondu beharrekoa. Horrela, azpiegituren bitartez irismena hobetzea soluzioa litzateke eskualde atzeratuentzat, edota enpresa handiak txertatuz, tokiko sare industrial ahula dinamizatu daiteke transferentzia teknologikoen eta harreman komertzialen bitartez. Hauxe da, gaur egun ere, herri eta eskualde ugarietan lehenesten den garapen ikuspegia.

Azpiegituren hornikuntzaren ardatzari begiratuta, garapen eta enplegu politikak errepide, akueduktu, telefono eta internet sare, trenbide eta beste azpiegituren eraikuntzan artikulatu ziren. Emaitzak ordea ez daude argi. Hainbat ikerketek zalantza jarri dute azpiegitura-inbertsioen eraginkortasuna garapen estrategia iraunkor gisa. Antzekoa gertatzen da bigarren ardatzari dagokionez. Sarritan estatuak edo gobernu autonomikoek pizgarriak eskaini dizkiete enpresei eskualde atzeratueta birkokatzeke. Baina sarritan laguntza horiek ez zuten lortu enpresa handi horien inguruan tokiko hornitzaileen sarerik sortzea, tokiko egitura ekonomiko eta instituzional desegokiengatik beste arrazoen artean. Ondorioz, enpresa inportatu hauen hornitzaileak bultzatu nahi den eskualdetik kanpo daude eta ingurune lokalarekin harreman ahulak baino ez dira gertatzen. Pizgarri garesti hauek amaituta, galerak zituzten enpresak itxi egiten dira edo atzera jatorrira deslokatu.

Garapen lokal eta erregionalerako politika tradizional hauen porrotaren atzean arrazoi ugari eta anitzak daude. Eskualdeko ezaugarrien desegokitasunean zentratzen da arrazoi multzo bat, hala nola, populazioaren hezkuntza eta gaitasun maila ahulak edo defizienteak, tokiko egitura ekonomikoen ahuldadea, ingurune sozial eta instituzional desegokiak. Baina beste arrazoi multzo bat garapen politiken diseinu eta gauzatzearekin lotuta dago. Azken hauen artean bi arrazoi dira nagusi: batetik, politika gehien oinarrian zegoen logika garapenerako oztopo edo botila-lepo nagusian kontzentratzea izan da; bestetik, baldintza ekonomiko, sozial, politiko eta instituzional ezberdinetan politika estandarizatuak birproduzitu egin izana.

Garapenaren oztopo nagusietan kontzentratzeko logikak pentsatzen zuen behin oztopo hori konponduta garapena gertatuko zela. Adibidez, irisgarritasun ahula edo zoru industrialen eza jotzen baldin bazen eskualde bateko oztopo nagusi, garraio, komunikazio edota poligono industrialetan inbertsio potoloak egiten ziren azpiegitura horiek hornitzeko, behin oztopo hori gaintuta kanpoko enpresak edo inbertsioak etorriko zirenean aurreiritziz. Modu analogoan, tokiko ehun industrialen ahuldadeak gaintzeko nahikotzat jotzen zen enpresa handiak erakartzea, era horretan enplegu zuzen eta zeharkakoak sortzeaz gain, transferentzia teknologikoak eta mozkinak sortu eta ekintzasuna bultzatuko zelakoan. Baina politika hauen emaitzak dezepzionagarriak

izan dira maiz, berezko izaera desorekatuagatik. Azpiegituretan inbertsio sendoak ahaztu edo gutxietsi egin izan ditu beste faktore garrantzitsu, hala nola, tokiko enpresak laguntzea, tokiko giza-baliabideen hobekuntza edota teknologiaren difusio eta asimilazioa. Gainera, irisgarritasunaren hobekuntzak kontrako efektuak sorrarazi ditu kanpoko enpresa lehiakorragoak tokiko enpresak merkatutik bidali egin dituelako. Bestalde, kanpoko enpresa handien kokatzeak, ingurunea dinamizatu eta efektu biderkatzaileak sortu ordez, kanpoko hornitzaile eta aktore ekonomikoekiko menpekotasun handiagoa erraztu du.

Bigarren diseinu-arrazoari dagokionez, zenbait kasutan arrakastatsuek izan ziren politikak aldaketarik gabe ezarriak izan dira ingurune nazional, erregional edo lokal ezberdinetan. Estatuetak plangintza eta garapenerako bulegoak, maiz akademiako munduak lagunduta, top down eredu eta praktika hauek unibertsalak bilakatzearen errudunak dira. Ez da kontuan izan tokiko ingurune ezberdinen baldintza ekonomiko, sozial eta instituzionalen dibertsitateak garapen-politiken eraginkortasuna baldintzatzen duela, eta kasu ugarian porrota eragin du. Gainera, inportaturiko top down politikekiko konfiantzak tokiko gizartearen desmotibazioa eragin du, sarritan ez duelako bere lurraldearen etorkizuneko ikuspegi ekonomikoaren definizioan ere parte hartzen

Goitik beherako politika tradizional hauen porrotak eta globalizazioak ekarritako erronkek, garapen lokal eta erregionalaren birplanteamendu osoa erakarri dute. Ondorioz, 1990. hamarkadan behetik gorako edo bottom up politika berritzaileak sortu dira. Behetik gorako garapen estrategia lokal eta erregional hauek lau ezaugarri nabarmen partekatzen dituzte: parte-hartze eta elkarrizketa soziala behar dute; lurraldean oinarrituta daude; tokiko baliabide eta lehiarako abantailen mobilizazioa eragiten dute; eta lokalki sortuak eta zuzenduak dira.

Bi politika moten arteko alderaketa egiterakoan, nabarmentzekoa da politika tradizionalak estatuko ministerioetatik edo gobernu-agentzia autonomikoetatik diseinatu, gidatu eta ezarri izan direla. Aldiz, behetik gorako estrategia berriek tokiko aktoreen inplikazioa eskatzen dute, bai diseinuan, bai gauzatzean, eta ondorioz, inplikaturiko aktore guztien arteko koordinazio bertikal eta horizontal maila handiagoa eskatzen du. Koordinazio bertikalak eskualde edo herriko instituzio eta erregio, estatu eta estatuz gaindiko edo nazioarteko erakundearen artean sinkronizatzea eskatzen du, eskala anitzeko gobernantza prozesu batean. Koordinazio horizontalak garapenarekin erlacionaturiko tokiko aktore publiko eta pribatuaren artean ematen dira. Koordinazio mota ezberdin hauek maila anitzeko eta eragile anitzeko gobernu zein gobernantzako arkitektura konplexu baten ezinbesteko osagaiak dira.

Bestalde, politika tradizionalak sektore industrial zehatz batzuen sustapenean zentratzen dira, dinamismo ekonomikoa sorraraz dezaten helburuaz. Aldiz, politika berrien ikuspegia lurraldean zentratzen da, eta lurralde bakoitzeko baldintza ekonomiko, sozial eta instituzionalen diagnostikoan eta tokiko potentzialtasun ekonomikoaren identifikazioan oinarritzen da.

Gainera, politika tradizionalak egitasmo industrial handiak lehenesten dira, jarduera ekonomiko gehigarria sustatu eta sare eta balio-kateak ernaraziko duten esperantzaz. Aldiz, lehenago aipaturiko arrazoiengatik, ikuspegi berriek eskualde bakoitzeko garapen ekonomiko potentziala identifikatzen eta erabiltzen jo dute, eta baita tokiko sistema sozio-ekonomikoa baldintza ekonomiko aldagarrietara progresiboki egokitzen ere.

Azkenik, bi ikuspegiak jarduera ekonomikoa erakartzeko moduan ere ezberdintzen dira. Ikuspegi tradizionalak finantza-babesa, pizgarriak eta diru-laguntzak lehenesten dituzten bitartean, eskaintzaren aldeko oinarritzko baldintzen hobekuntzan kontzentratzen dira estrategia berriak.

Orokorrean bottom up ikuspegiko estrategiek abantaila ugariak aurkezten dituzte top down ikuspegikoen aurrean. Bai abantaila sozialak, bai ekonomikoak. Abantaila sozialen artean bi azpimarra ditzakegu: batetik, garapen lokal eta erregionaleko estrategia hauek tokiko gizartei boterea ematen diete eta tokiko elkarrizketa suspertzen dute, eta norbanakoek autonomia maila handiagoa, jarrera pro-aktiboagoa eta garapen iraunkorrekiko eta gertuko ezaugarri ekonomiko, sozial eta politikoei argiagoa eskuratu ohi dute. Bestetik, instituzio lokal eta erregionalak irekiago, gardenago eta era arduratsuagoa izaten laguntzen dute.

Esparru ekonomikoan hiru abantaila hauek nabarmentzen dira. Batetik, behetik gorako estrategiek, lurralde bateko jarduera ekonomikoa trinkotzeko saiakeran jarduera hauek lurralde horretako baldintza ekonomiko espezifikoen eta abantaila konparatiboen menpeko bilakatzen diren heinean, hazkunde ekonomiko iraunkorragoa eta ingurune aldaketak jasateko gaitasun handiagoa duten enpresetan enplegua sortzen dute. Bigarrenik, tokiko interes taldeen inplikazioagatik, tartean lurraldean sustraituriko enpresa eta enpresariak ere, enpleguen kalitatearen hobekuntza orokorrari laguntzen diote. Azkenik, tokiko eragileen inplikazioak, lehen aipaturiko abantaila sozialez gain, jarrera aktiboagoa eta arrisku handiagoak gainean hartzera laguntzen du, orokorrean tokiko populazioaren artean, eta bereziki tokiko aktore ekonomikoen artean.

Dena den, behetik gorako estrategia hauek hainbat desabantaila eta arrisku ere barneratzen dituzte. Esate baterako, estrategia hau denboraren aldagaiari dagokionez kostu handikoa izan daiteke, tokiko koalizioak, interes taldeen koordinazio lanak eta eragileen inplikazio orokorrak antolaketa izerdi ugari eskatzen dute eta denbora zein baliabide esanguratsuak kontsumitzen ditu baita garapen prozesua hasi aurretik ere. Are gehiago, arrakasta ez dago bermatuta, ez epe motzean ez luzean ere, beti ez delako gai izaten garapen estrategia egokiena zehazteko, diseinatzeko edota gauzatzeko. Zentzu honetan, tokiko eragileen inplikazioa ez da bermea estrategia egokiak eta teknikoki eraginkorrak hautatzeko. Zenbaitetan, interes taldeek, 'mirari sendagarri' edota emaitza azkarren nahiak, usu politiko populisten eskutik, epe motzeko politika arras ikusgarriak lehenestera eramaten dute, epe luzerako estrategia orekatuagoen ordez.

## TOKIKO GARAPENERAKO ESTRATEGIA ERAGINKOR ETA ADIMENTSUAK EZAUGARRITZE ENDOGENO ETA SISTEMIKOETAN OINARRITZEN DIRA.

Azken urteotan, lehiakortasun eta berrikuntza politikak garatu egin dira testuingurua kontuan hartzen duen ikuspegi sistemiko baterantz. Horregatik, politika horiek ad hoc diseinatu eta ezarri behar dira, lurraldearen berezko ezaugarrietara egokituta. Aski nabarmena da hura: behetik gorako politikak (bottom-up) eta lurraldean oinarrituak (placed-based) onartuenak dira gaur egun.

Ikuspegi sistemikoari dagokionez, tokiko eta eskualdeko garapen politiketan izan den aldaketa, hein handi batean, berrikuntza prozesua ulertzeko era aldatzeari lotuta dago. Berrikuntzarena, ikerkuntza, ustiatzea eta zabaltzea xede duen norabide bakarreko prozesu lineala izatetik prozesu interaktibo edo sistemikoa izatera heldu da. Han parte hartzen dute enpresaren alor guztiek (learning by doing), eta, era berean, bezero, hornitzaile eta beste enpresa eta erakunde batzuekiko interakzioan gertatzen da (learning by using and learning by interacting).

Toki eta eskualde garapenerako politiken ikuspegi sistemikoak lau sektore edo mailatan eragiten dio tokiko gizartearen interakzioari. Horietako hiru ohikoak dira (eredu porterianoetan, adibidez). Lehenik eta behin, makro maila dugu, egonkortasunaren baldintza orokorrak bermatzea eta honako gai hauetan araudia egokitzea xede duena: moneta, zergak, aurrekontuak, lehiakortasuna, merkataritza, zuzenbidea, finantza eta ingurumena. Jarraian, mikro maila dugu, teknologian eta kudeaketan berrikuntza bultzatzea lantzen duena, eta, bukatzeko, erdiko maila, enpresak garatzeko ingurumen berritzailea sortzen duena, enpresen arteko lankidetzaren sareen bidez eta kooperazio publiko-pribatua. Ikuspegi sistemikoak hiru horiek lantzen ditu, nahiz eta ederki dakien tokiko esparrutik maniobra egiteko aukera hutsaren hurrengo delako makro mailan, osagarria mikro mailan eta erabilgarritasun handikoa maila ertainekoan. Baina ikuspegi sistemikoak gehitzen duen osagarria meta maila da, estrategikoki bizkortzeko, pizteko eta ados jartzeko tokiko eragileek duten gaitasuna bultzatzea xede duena.

Meta maila horiasoziazionismoan eta herritarren parte-hartzean gauzatzen da, ekintzaileen kultura bultzatzean, indar endogenoak identifikatzean eta baliozkotzean, eta tokiko administrazio publikoen modernizazioan. Bat eginda, lau maila horiek aukera ematen dute lurraldean lehiakortasun abantaila dinamikoak eraikitzeko, eta, horretarako, enpresen eta erakundearen arteko harreman egokia behar da. Bestela esanda, erakundetze arkitektura funtzionala eta horren gobernatze inklusibo funtsezko alderdiak dira lurralde bakoitzaren faktore berezien eta imitazinen gainean aritzeko, besteak beste: giza kapitala; gizarte sareen eta esparru instituzionalaren kalitatea, zabalpena, sakontasuna eta orientazioa; eta kapital sortzailea, ekintzailea eta berritzailea egotea.

Garapen endogenoak garapen-indar guztiengan era konbinatuan eragitea bilatzen du, beraien artean efektu sinergikoak sortu eta hobetzeko eta lurralde bateko garapen iraunkorra suspertzeko. Horretarako, tokiko baliaideak (ez bakarrik) erabiltzen ditu bertako aktoreek diseinatutako, kudeatutako eta kontrolatutako egitasmoetan. Garapen-indar endogenoen artean honakoak koka ditzakegu: komunitatearen parte-hartzea eta inplikazioa; harreman-dentsitatea; lurralde-identitatea; ekintzailetasun ahalmena eta sormena; ezagutza eta berrikuntza; instituzioen kalitatea; gizarte-kapitala... Garapen endogenoaren paradigmatik lau endogeneitate dimentsio barneratzen ditu: i) herriak zein eskualdeak bere garapen estrategia propioa erabaki eta gauzatzeko ahalmena; ii) sare produktiboaren berrikuntza teknologikoa suspertu eta bultzatzeko ahalmena; iii) lurraldearen ahalmena aurrezteko eta mozkinak tokian berrinbertitzeko dinamika; iv) lurralde-identitate kultura sendotzeko ahalmena, aktibo ukiezinak (konfiantza, elkarrekikotasuna, lidergoa, elkarlana, konpromisoa) kitzikatuz tokiko ekonomia eta enpresen lehiakortasuna indartzeko balio duena.

Plan Estrategikoetako jarduketa ildoak eta ekintzak ezartzerakoan, nahitaez hainbat tresna eta arkitektura eraginkor bat sortu behar dira han parte hartzen duten eragileak bultzatu, sartu, batu eta lerrotzeko. Eskualdeko plan bat garatzea prozesu malgua eta irekia da, bideratzea xede duena, izan ere, parte hartzen duten eragileen konpromisoa (egungoak eta etorkizunekoak) erabat boluntarioa da, proiektu zehatzetan gauzatzeko modukoa. Ezaugarri horiek direla eta, enpresaren ohiko estrategietatik urrunduta dago, estrategia horietan enpresaren atal eta eragileen konpromisoa hasieratik lerrotatuta daudelako. Gainera, testuingurua eta jarduketa alorrak konplexuagoak dira, eta eragileen tipologiaren dispersioa handiagoa da.

Eskualdeko garatze prozesuen berezko ezaugarri horiek direla eta, antolakuntzarako oinarri sendoa finkatu behar da, kontuan hartutako jarduketak dinamizatzeko eta gauzatzeko. Zalantzarik gabe, antolakuntzarako oinarri hori da plan baten arrakastaren edo porrotaren gakoa, ahaztu gabe erabilitako giza eta finantza baliaideak eta eskualdeko eragileen parte-hartze eraginkorra.

Beraz, helburua da izaera sistemikoa izanen duen antolakuntzarako arkitektura bat eraikitzea gobernatzeko, hau da: administrazio publikoek, enpresek, sindikatuak, hezkuntza eta gizarte entitateek eta gizarte guztiak funtzionatu, dinamizatu eta parte hartzeko; tresnak sortzeko eta baliaideak erakartzeko, kontuan hartutako jarduketak gauzatu ahal izatekoak; horiek etengabe ebaluatzeko; guztion artean gogoeta estrategikoa bultzatzeko eta bideratzeko; lankidetzak, konfiantza, elkarrekikotasuna (gizarte kapitala), hitzarmenak, harremanen dentsitatea (kapital interaktiboa), sortzailetasuna, ekiteko ahalmena, berrikuntza eta indar endogenoak pizteko eta indartzeko; eta sareen bidezko gizarte ikaskuntza bultzatzeko, jarduketak eta aplikazio prozesuak hobetzeko (policy learning).

Halaber, eraginkortasuna lortzeko, eskualdeko entitateek eta eragileek eratu behar dute arkitektura horren muin motorra, baina, era berean, muin horrek irekita egon behar du beste esparru batzuetako entitate eta eragileekin konpromisoak hartzeko eta parte hartzeko, gobernatzea xede duen maila anitzeko eskema ireki bati jarraikiz.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### ESKUALDEETAN GARATU BEHARREKOAK

1. Nafarroako eskualdeetan tokiko garapen estrategiak abian ezartzea bultzatuko dugu. Horretarako dinamika sozial, ekonomiko eta instituzionalak bultzatuko ditugu, estrategia horien beharra zabaltzeko eta helburuak, tresnak eta ekimenak adostasun zabalez definitzeko. Dagoeneko garapen estrategiak abian dauden lekuetan hauek bultzatzeko eta hobetzeko gure ekarpenak egingo ditugu eta gizartearen inplikazioa sustatuko dugu.

2. Eskualdeetan Plan Estrategikoen lanketa egingo dugu. Plan Estrategikoak egiteko metodologiak tokiko eragileen parte-hartzea eta gardentasuna bermatuko du. Plan Estrategikoek eskualdearen diagnostikoa jasoko dute eta garapenaren ikuspegi integral batetik, eskualdeko lehentasunei erantzuna diseinatuko dute. Plan Estrategikoaren dinamizazioarako tokiko pertsonen hautaketa lehenetsiko da, formazio espezifikoak jasotzeko aukera izango dutenak.
3. Existitzen ez diren eskualdeetan Garapen Agentzia edo antzeko erakundeen sorrera bultzatuko dugu. Garapen Agentzia hauen funtzioa eskualde horretan garapena sustatzea, plan estrategikoaren ekimenak aurrera ateratzea, eragile sozioekonomikoen artean konfiantzazko eta elkarlanerako eremuak indartzea, ekintzaitasuna bultzatzea, aholkularitza edota formakuntza zerbitzuak eskaintzea, enpresen posizionatze estrategikoa sendotzea, sare produktiboa dibertsifikatzea... izango da. Garapen Agentziek udaletxeen eta Nafar Gobernuen oinarritzko finantzaketa izango dute. Garapen Agentziak eskualdeko lehentasunen arabera osatuko da. Garapen Agentziak, garapenaren ikuspegi integrala lantzerako orduan, esparru sozialetan diharduten erakunde eta batzordeekin (gizarte zerbitzuak, enplegu zerbitzuak, migrazio zerbitzuak...) elkarlanean arituko dira.
4. Garapen Agentziek lan egiteko molde proaktiboa izango dute, eragileen arteko saretzeak eta ekintzaitasuna bere modalitate guztietan bultzatuz. Lana egiteko orduan, betiere ezarritako helburu eta lan ildoen barruan eta kontrol publikoari lotuta, lana modu eraginkorrean egiteko autonomia nahikoa izango dute. Garapen Agentziak udaletxetako langileekin elkarlanean arituko dira, eta horretarako tokiko garapenari buruzko formazioa Udaletxeko zinegotzi eta langileen artean hedatuko da.
5. Garapen estrategia eraginkortasunez abian jartzeko, eskualdeko eragileen arteko informazio trukaketa eta elkarlana ziurtatuko duen gobernantza eredu adostuko da. Gobernantza eredu horretan, aldiroko hausnarketaz eta Plan Estrategikoaren gauzatzearen ebaluazioaz arduratuko den Behatoki Sozioekonomikoa sortuko da, non eskualdeko eragileek (instituzioak, enpresariak, sindikatuak, hezkuntza mundua, osasungintza, zerbitzu sozialak, merkatariek, gizarte eragileak...) parte hartuko duten.
6. Garapen estrategian ahalik eta eragile gehien integratzea bilatuko da, besteak beste, hezkuntza ikastetxeak (Lanbide Heziketako zentroak bereziki), sindikatuak, enpresarien eta merkatarien elkarteak, Nafarroako Enplegu Zerbitzua, garapenera zuzenduriko elkarteak...
7. Enplegua sortzeko eta eskualde bateko ehun produktiboa dibertsifikatzeko ekintzaitasuna indartuko da, enpresa eta egitasmo berrien sorrera errazteko tresnak, formazioa, aholkularitza eta akonpainamendua eskainiz. Ekintzaitasuna sustatzeko tresnak sortuko edota sendotuko dira: enpresen haztegiak (zerbitzuetan, lehen sektorean edo industrian), co-working espazioak, ekintzaileei finantzaketa errazteko banku eta kutxekin hitzarmenak... Ekintzaitasuna bere modalitate guztietan bultzatuko da, norbanakoa, kooperatiboa edo komunitarioa, publikoa, inter-enpresariala edo intra-enpresariala alegia. Hala ere, taldean egitasmo berria ekiteko eta motibazioa lantzeko dinamikak emaitza onak erakusten dutenez Garapen Agentziatik aktiboki bultzatuko dira.
8. Ekonomia soziala eta solidarioko egitasmoak eta hauen arteko elkarguneak bultzatuko dira.
9. Enpresen posizionatze estrategikoa hobetzearren jarduera espezifikoak bultzatuko dira berrikuntza gaitasuna, ikasketa prozesuak, merkaturatzearen hedapena, bezeroen dibertsifikazioa, produkzio antolaketaren eraginkortasuna, lan harremanen modernizazioa eta langileen parte-hartzea, eta epe erdi eta luzerako prospekzioa sendotzeko.
10. Enpresen arteko elkarlana eta saretze formulak bultzatuko dira, are gehiago mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainen artean. Saretze formula hauen bitartez, konfiantza eta elkarlana sustatu nahi da merkataritza, esportazioa, I+G+berrikuntza, inter-ekintzaitasuna, artikulazio komertziala, ikasketa prozesuak, transakzio kostuak eta antzeko esparruetan.



11. Berrikuntza gaitasuna aktibo estrategikoa den heinean, Garapen Agentziatik jarduera ildo espezifikoak bideratzeko ditu gaitasun hau indartzeko bai enpresen artean, bai gizartean orokorrean. Horien artean, eskualdeko ehun produktiboari egokitutako teknologien prospekzio zerbitzua edo Behatoki Teknologikoa; erronka teknologikoei aurre egiteko enpresen arteko aliantza edo elkarlana dinamikak (aldi baterakoak edo egonkorak); enpresa txiki eta ertainei zuzenduriko programa bereziak; eskualdeko ezagutza tazitza berreskuratzeko eta profitatzen diren ekimenak (ondare ez materialaren jasotzea, antzinako lanbideak...); enpresetan produkzio fase guztietako langileak berrikuntzaren funtzioa bere gain hartzeko eredu modernoan borondatezko ezarpena; zentro teknologiko, unibertsitate, laborategi, nazioarteko berrikuntza programekin harremanak sustatzea...

12. Bertako enpresen hedapen beharregatik edota kanpotik inbertsioak datozelako, zoru industrialeko eskaintza kalitatezkoa eskainiko da. Zoru industrialaren eskaintza eskari potentzialari ahalik eta hobekien doitu da. Poligono industrial berriak eriki aurretik, eskualdeko poligonoen egoera eta erabilera maila ebaluatuko dira, eta erabili gabekoak birgaikuntza bultzatuko dira. Zoru industrialaren eskaintzari dagokionez, biztanleriaren osasuna eta bizitza kalitatea, ingurumena, paisaiari inpaktuak eta beste faktore batzuk kontuan hartuko dira.

13. Eskualdeko jarduera produktiboaren arteko oreka bilatuko da, epe luzerako ikuspegiz dibertsifikazioa bultzatuz eta mendekotasun maila handiak ekidinez. Zentzu honetan, lehen sektoreko hedapena enplegu eta dibertsifikazio iturri garrantzitsua da, eta kalitatezko eta berrikuntzako balio kate berrien abiapuntu izan daiteke, esate baterako, elikadura burujabetza, agroekologia eta bio-produkzioak, nekazaritza/abeltzaintza/artisautza/industria/merkataritza/turismo sinergiak eta zirkulu birtuosoen eraikuntzaren ildotik. Bestalde, zerbitzuak dibertsifikazio iturri (turismoa adibidez) eta pertsonen ongizatean (osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, sektore erreproduktiboari lotutako zaintzak eta abar) euskarri ezinbestekoa izateaz gain, enpresen posizionatze estrategikoan lagundu dezaketen zerbitzuen eskaintza ezinbestekoa da (aholkularitza, ingeniariaritza, marketing, hizkuntza, software...).

14. Eskualdeko garapen estrategiak ezin dira zentzu itxi eta autosufizientean ulertu. Eskualdeak gainetik eskala eta administrazioekin eskala anitzeko gobernantza ereduak eraiki behar du, elkarlana sustatzeko, aholkularitza eta babes zerbitzuak jasotzeko, finantza iturriak eskuratzeko, sinergiak eta osagarritasunak identifikatzeko, azpiegitura eta enpresa inbertsioak eskualdera bideratzeko...

## NAFARROA MAILAN GARATU BEHARREKOAK

15. Toki entitateen inguruko legedian Udaletxei eta beraiengandik eratorritako erakundeei (mankomunitateak, partzuergoak...) tokiko ekonomia eta gizarte garapeneraren sustapena bideratzeko eskuduntzak onartu eta zerbitzu honi dagokion finantzaketa nahikoa eskaini.

16. Eskualde naturalak tokiko garapenerako subjektu aktiboak bilakatu daitezkeen legezko aitortza ematea bultzatuko da. Nafarroako Merindadeen barnean errealtate oso ezberdinak daudenez, historikoki borondate askeaz erazten joan diren eskualde identitateak aitortzea behar dute. Eskualde identitate horien existentzia aktibo garrantzitsua da garapenerako tokiko estrategiak bideratzeko orduan, garapenerako unitate administratibo gisa definitzea ahalbidetzen duelako, erakunde publiko, elkarte, enpresari, sindikatu eta gizartearen arteko elkarlana errazten duten edukiontzia konformatzen dituztelako eta kohesio eta legitimazio iturri direlako.

17. Eskualde naturaletan, bertatik beharra eta nahia plazaratzen bada, eskualdeko garapen estrategiak bideratzeko tresnen sorrera (garapen agentziak, garapen partzuergoak edo fundazioak...) bultzatu egingo da, bai plan estrategikoen prestaketa lagunduz, bai erakunde hauen gutxieneko giza baliabideak finantzatuz.

18. Mendialdean ezaguturiko eremuan, gaur egun Cederna-Garalur-ek kudeatzen duena, eskualdeek bere borondatez eta bertako udalerrri nahikoek bultzatuta, Tokiko Ekintzarako Taldeak osatzeko aukera irekiko da.

19. Cederna-Garalur-en esperientzian oinarrituta Nafarroako garapen agentzia guztiak (EDER, Consorcio de Desarrollo de la Zona Media, TEDER, Sakanako Garapen Agentzia eta sor daitezkeen guztiak) koordinatuko

dituen Lurralde Garapenerako entitate berria sortuko da, Lurralde Behatokia alegia. Entitate berri honen funtzioak honakoak lirateke: eskualdeetako garapen erakunde hauen koordinazioa, sinergien sustapena, aholkularitza, esperientzien eta jakintza trukaketa, lurralde garapenerako programen prestaketa, Nafarroako gainerako politiketan (industria, turismoa, lehen sektorea, azpiegiturak, lurralde antolaketa, gizarte-politikak...) proposamenak egitea...

20. Tokiko garapen estrategiak aurrera ateratzeko Nafar Gobernuak programa anitzak bideratuko ditu, eskualde bakoitzeko errealitatera egokitzeko aukera eta malgutasun nahikoa eskainiko duena. Bi urtero programa hauen ebaluazioa eta egokitzapenak egingo dira eskualde guztietako esperientziak kontuan hartuz.

21. Tokiko garapen estrategiak eta Nafarroa mailan bideratuko diren politika sektorialen (industria, berrikuntza, energia, turismoa, lurralde antolaketa, gizarte-azpiegiturak...) arteko koherentzia eta sinergiak bilatuko dira.

6

*INDUSTRIA*



## INDUSTRIA

### ONARRI IDEOLOGIKOAK

Industriaren arloan jarduteko filosofiak gure pentsamoldean funtsezkoak diren hiru puntu izango ditu oinarri:

- Ekonomia pertsonen zerbitzura. EH Bildun, pertsonen ongizaterako eta haien bizi maila eta bizi kalitatea hobetzeko tresna gisa ulertzen dugu jarduera ekonomikoa. Gure ikuspegitik, inor ez da gizartetik baztertuta geratu behar. Horrenbestez, Nafarroako bigarren sektorerako egiten dugun proposamenak zorrotz beteko du Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna.

- Sozialismoa. Ikuspegi sozialista batetik, instituzioek era aktiboan esku hartu behar dute gaur egungo eredu ekonomikoren akatsak konpontzeko, eta sozialki justuagoa izango den eredu ekonomiko berri bat garatzen lagundu behar dute. Instituzioen eta gobernuaren ardura da itotzen gaituen krisi ekonomiko honekin bukatzea.

- Orokorrean pentsatu eta tokian jardun.

- Ikuspegi horretatik, honako hauek dira gure oinarri ideologikoak:

- Nafarroako ekonomiarentzat funtsezkoa da industria sektore indartsua, eraberritua, anitza eta eskualde ezberdinetan kokatua edukitzea.

- Ekonomia espekulatiboaren eskuetan gelditzen ari den egungo industria eredia irauli eta sektore publikoak, eragileen parte-hartzearen laguntzaz, industriaren aldeko bultzada eta plan integral bat garatu behar du.

- Bultzatu nahi dugun industria sektorearen ezaugarri nagusiak honakoak lirateke:

- Dibertsifikazioa, bai eskualdeei dagokienez eta bai garatu nahi diren jardueren ikuspuntutik.

- Eskualde bakoitzeko errealitatearekin eta bertako baliabideekin uztartua egotea.

- Maila teknologiko handiagoa edukitzea eta I+G+Bn inbertsio egonkorra egitea.

- Ingurumena eta baliabide naturalak erabat errespetatzea (kutsadura gutxiago) eta industria berdearen aldeko inbertsioak bultzatzea (energia berriztagarriak, hondakinen tratamendua, material biologikoen tratamendua...).

- Kudeaketan edota agintean langileen parte-hartzea ahalbidetzea.

- Nazioarteko merkatuan harreman komertzial arduratsuak garatzeko gaitasuna edukitzea; natura eta langileen eskubideak errespetatzen dituzten herrialde edo enpresekiko harremanak garatzea.

### HONETAZ ARI GARA:

Ekonomiaren dibertsifikazioa: EH Bilduk ekonomia dibertsifikatu baten aldeko apustua egiten duen neurrian, garrantzitsutzat jotzen du Euskal Herrian ematen ari den desindustrializazio prozesu larriarekin amaitzea eta berrindustrializazio prozesu indartsu bati ekitea.

Dibertsifikazioa eskualdeetan: Industriak ekonomian pisu garrantzitsua izan dezan apustu egiten dugu eta pisu hori eskualdeka ere orekatua izan behar da.

Dibertsifikazioa jardueretan: Garrantzitsutzat jotzen dugu industria sektorearen baitan esparru anitzen aldeko apustua egitea.

Eskualde ezberdinetan ezarritako industriak, eskualdeko errealitate sozial eta ekonomikoan txertatuak eta bertako baliabideekin uztartuak: tokiko garapen prozesuekin uztartuak, enpresen arteko saretzea bultzatuz, ikastetxeekiko edo prestakuntza zentroekiko elkarlana bideratuz eta, oro har, eskualdeko behar sozialekin arduratsu jokatzu.

Izaera soziala oinarri duten industria jardueren aldeko hautua egiten dugu, langileek hartutako erabakien protagonista izango direnak eta lurraldearekiko zein ingurumenarekiko atxikimenduz jokatuko dutenak, izan enpresa txiki edo ertain, izan kooperatiba eredu.

Sektore publikoak pisu garrantzitsua izan behar du industrian: Enpleguarentzat funtsezkoak diren sektoreetan trantsizio gisa inbertituz eta enpresak ixten utzi gabe, traktoreak izan daitezkeen jardueren alde eginez eta sektore berrietan zuzenean edo partaidetza mistoko inbertsioak eginez (bioteknologia, nanoteknologia....).

Datuek diotenez, gure industriak oro har, maila teknologiko ertain edo ertain-baxua du eta ondorioz I+G+Bren aldeko apustu sendoa egin beharra dago: enpresek lan kostuetan oinarritutako eredu produktiboaren ordez balio erantsian, berrikuntzan oinarritutako lehiakortasuna bultzatze aldera, maila teknologikoa igotzeko I+G+Bren aldeko apustu sendo eta iraunkorra bermatu behar dute eta instituzioek ere bide honetan badute zer esana, I+G+Bn zuzenean inbertituz edota beren politika fiskalarekin I+G+B-ren aldeko apustua sarituz.

Energia kontsumoan intentsiboak diren edota kutsatzen duten enpresetan ere I+G+B-ren aldeko apustua ere egin beharra dago naturarekin errespetu osoa bermatzeko eta posibleak ingurumenaren kontura egiten ez direla bermatzeko.

Era berean, ingurumenaren defentsak ekonomia berdearen aldeko apustua egitera eraman behar gaitu, hain zuzen industria berdearen aldeko apustua bultzatuz: energia berriztagarriak, hondakinen tratamendua, material biologikoen ekoizpena...

Industriako enpresetan, besteetan bezalaxe, langileen parte hartzea ezinbestekotzat hartzen dugu. Langileen parte hartzea kudeaketaren alorrean eta baita jabetzan ere (kooperatiba izan ala ez) garrantzitsua da industria beraren garapenerako eta apustu bateratuak egiteko.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### 1. SOZIOEKONOMIA

Sozioekonomiaren arloa: giza alderdiekin zerikusia duten lan ildo guztiak jasoko lituzke. Oinarri ideologikoetan zehaztutako ikuspegitik honako jarduera ildo hauek sortzen dira:

1.1.- Industriaren aldeko apustua egitea, etorkizunean gure ekonomiaren funtsezko elementua izan dadin. Betidanik, industria oso garrantzitsua izan da Nafarroako herritarren bizi baldintzak hobetzeko. Gainera, garrantzi handiko papera jokatu du gure ekonomiaren motor gisa, eta berak sortu du kalitaterik onenekoen enpleguaren parte handi bat. Horri dagokionez, funtsezkoa da gure ekonomian industriako enplegu mailari eustea.

- Gure helburua hauxe da: krisia hasi aurretik Nafarroako bigarren sektorean zegoen enplegu maila erlatiboa berreskuratzea (bigarren sektoreko enpleguaren ehunekoa lana daukaten pertsonen guztizko kopuruarekin alderatuta). Horretarako, gure industria intentsiboagoa izan behar da enpleguaren arloan (eta ikerkuntzak pisu handiagoa izan behar du), eta energia nahiz baliabide gutxiago kontsumitu behar ditu. Era berean, eraikuntzak enpleguaren arloan utzi duen hutsunea bete behar da, garapen endogenoa bultzatuz eta lehenetsiz.

- Funtsekoa da herritarrek gure industria suspertzen laguntzea. Herritarrek eta eragile sozial eta sindikalek beren ekarpenak egin behar dituzte Nafarroak behar duen industria eredu berria definitzeko.

1.2.- Lanaren banaketa justuaren aldeko apustua egin behar da, eta pertsona guztiek baliabide ekonomiko nahikoak izango dituztela bermatu, inor gizartetik baztertuta gera ez dadin. Gure inguruan, Nafarroak duenaren antzeko hazkunde ekonomikoa duten Europako herrialde askok krisiaren urte hauetan enplegu mailari eusteko modua aurkitu dute. Abiapuntu egoera gurearen antzekoa zen, baina gaur egun herrialde horietako langabezi tasa %5 eta %12 bitartekoa da, eta gurea %15 ingurukoa, Nafarroako eta Estatuko gobernuen politiken ondorioz.

1.2.1.- Enplegu Erregulazioko Espedienteak (EEE) beste era batera arautu behar dira. EEEak funtsezko tresna izan dira goi-mailako enpresaburuentzat, Nafarroako Gobernuaren onespenerekin. Erregulazio espedienteak baliatuz, enpresaburuak irabaziak maximizatu dira, baina, horretarako, langileen lan eta soldata baldintzak kaskartu dira eta milaka lanpostu galdu dira Nafarroan. Neurri handi batean, azken urteotan bigarren sektorean gertatu den enplegu galera izugarri eta neurrigabea horren ondorioa izan da. Gainera, gure gizarte ehuna suntsitu egin da.

- Gaur egungo lan legediari aurre egin behar zaio eta langileen eskubideen nahiz diru-kutxa publikoen gainean izan dituen ondorioz kaltegarrienak konpontzeko lan egin behar da, batez ere erregulazio espedienterik abusuzkoenei dagokienez.

- Justifikatu gabeko erregulazio espedienteen kontrako klausulak txertatu behar dira Sozietateen gaineko Zergan.

1.2.2.- Lan harremanetarako esparru berri bat lortzeko lan egingo dugu. Esparru berri horrek langileen askatasun sindikala errespetatuko du eta lana lortzeko aukera bermatuko die pertsona guztiei, diskriminazio ideologiko edo sindikalik gabe. Azken urteotan, eta Nafarroako Gobernuak sustaturik, kontrol zorrotza eta mota askotako gehiegikeriak pariatu ditugu enpresaburu-elkarteen eta erregimenaren aldeko sindikatu batzuen aldetik. Horren ondorioz, jokabide benetan sektarioak eta benetako diskriminazio ideologikoa pairatu ditugu Nafarroako industria enpresa askoren kontratazio eta kaleratze politikan. Horren aurrean, ezinbestekoa da lan harremanen eredu aldetzea, lana daukaten nahiz langabezia dauden pertsonen interesak eta askatasun ideologikoa hobeto babesteko.

- Eskubide Sindikalen Errelatorearen figura sortuko da. Haren eginkizunak honako hauek izango dira: enpresetan langileen askatasun sindikala babestea eta gehiegikeriak jasotzea, dokumentatzea eta salatzea.

- Langileen eskubide sindikalak urratzen dituzten edo langileen askatasun sindikalaren kontrako jokabide sektarioak edo diskriminazionalak dituzten enpresak, enpresaburu-elkartek nahiz sindikatuak zigortzeko neurriak hartuko dira (kontratazioak, kaleratzea, barne sustapenak...).

- Enplegurako prestakuntza sistema publiko bat sortuko da, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari atxikia eta ekonomiaren arloko sail guztiekin harremana izango duena. Prestakuntza lanetarako, batez ere prestakuntza praktikoari dagokionez, 60 urtetik gorako pertsonen kontratazioa lehenetsiko da.

1.2.3.- Industriaren sektorean emakumeen enplegua sustatzeko neurriak hartuko dira. Emakumeen enpleguari dagokionez, arazo espezifikoak antzematen ditugu bigarren sektorean.

- Garrantzi handia eman behar zaie berdintasun politikei, amatasun nahiz aitatasun eskubideei eta haurtzaindegiei.

1.2.4.- Bigarren sektorean gazteentzako enplegua sortzearen aldeko apustua egingo dugu, gazteak oso era larrian pairatzen ari baitira krisi ekonomikoaren ondorioak.

- Gazteen autoenplegua sustatuko da, udal ekimenen bidez eta kredituak lortzeko nahiz tasak eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ordaintzeko gizarte laguntzak emanez.

1.2.5.- Bigarren sektorean pertsonarik behartsuenentzako enplegua sortzearen aldeko apustua egingo dugu, bazterketa egoerak saihesteko.

- Horretarako egokiak diren jardueretan industria publikoak nahiz pribatuak sustatuko dira, pertsona horiei birgizarteratzen laguntzeko.
- Gizarte bazterketako arriskuan dauden pertsonak lan munduan txertatzea helburu duten enpresekiko elkarlana sustatuko da.
- Oso egoera ekonomiko zailean dauden 40 urtetik gorako pertsonen enplegua sustatzeko programa espezifikoak egingo dira.

1.2.6.- Bigarren sektorean elbarrientzako enplegua sortzearen aldeko apustua egingo dugu. Beren lan profesionala erabateko integrazioarekin egin dezaketen sektoreetan kokatuko ditugu.

1.2.7.- Pertsoneri benetako garrantzia ematen dieten, lurraldearen ahalmenak garatzen dituzten, zintotasunez jokatzeko balio espekulatiboen gainetik balio produktiboak sustatzen dituzten enpresen alde jokatu dugu.

- Beharrezkoa den eta eskaria duen ekoizpena sortzen duten industria-kooperatiben garapena sustatuko dugu. Horrela, langileen parte-hartzean oinarritutako autogestioa bultzatuko dugu, enpresa abian jartzeko beharrezkoa den kapitala lortzeko erraztasunak emanez.
- Garrantzitsua da ekonomia sozial eta solidarioaren eremuan aritzen diren enpresa eta erakundeak laguntzea.

1.2.8.- Lanaldi mota berriak sustatuko ditugu, bi helburu nagusirekin: batetik, lana eta familia benetan uztartu ahal izatea (seme-alabak nahiz adineko senideak zaintzeko); bestetik, lana eta pertsonen beste behar eta lehentasun batzuk hobeto uztartzea (prestakuntza osagarria, ikasketak, boluntarioratza jarduerak, kolektiboetan parte hartzea...).

1.2.9.- Lan ikuskapenak sustatuko ditugu, haien edukia eta maiztasuna hobetuz. Arreta berezia eskainiko zaie langileen segurtasun baldintzei, lan baldintzei eta lanaldiak errespetatzeari, hiru arlo horietan egiten diren arau hausteak gogorrago zigortuz. Arreta berezia eskainiko zaio aparteko orduen erabilerari ere.

1.3.- Legegintzaren arloko neurriak. Erregulazioa eta kontrola zorrotzko dira eta gure erkidegoan daukagun ekonomiaren arloko legedia hobetuko da. Gure bigarren sektorearen egoera dela eta, garrantzi handiko lege erreformak egin behar dira hainbat arlotan.

1.3.1.- Deslokalisasi prozesuak ekiditearen aldeko apustua egingo dugu. Neurriak hartu behar dira deslokalisasiok gure lurraldean aurrera egin ez dezan. Hain zuzen ere, eskrupulurik gabeko enpresaburu askoren estrategia hori dago azken urteotan Nafarroan enpleguaren arloan egin diren bidegabekeriarik handienetako askoren atzean. Gainera, ekonomiari buruzko datu estatistikorik xumeenek erakusten duten bezala, eta Europa mendebaldeko beste lurralde batzuekin alderatuta, industriak gure ekonomian presentzia handiagoa edukitzea oso onuragarria da guretzat. Izan ere, industria gure ekonomiaren motorra da, bere inguruan beste jarduera osagarri batzuk sortzen laguntzen baitu.

- Orokorrean, Nafarroako instituzioek eskura dituzten bitarteko guztiak erabiliko dituzte deslokalisasi prozesuak eragozteko. Horretarako, aukera juridikoak aztertu eta kasu guztiak aurreikusitako behar dira.
- Deslokalizazioen kontrako klausulak txertatu behar dira Sozietateen gaineko Zerga.
- Dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten enpresek gure lurraldean gelditzeko konpromisoa hartu behar dute. Hala egiten ez badute, jasotako dirulaguntzak itzuli beharko dituzte.

1.3.2.- Ekonomia sozial eta solidarioa erakartzeko eta tokiko gizarte garapena indartzeko duen industria eredu bat sortzeko, enpresa txiki eta ertainak eta kooperatibak dira gure ardatzak. Kooperatiben aldeko apustua egiten dugu, zeren eta, enpresa antolatzeko era guztien artean, langileen erakunde mota hori baita hemen sustraituena dagoena eta gure lurraldearentzat nahiz bertako biztanleriarentzat onurarik handienak ekartzen dituena. Kooperatibak oso garrantzitsuak dira gizarte ekitatiboago, kohesionatuago eta integratzaileago bat eraikitzeko. Ikusten ari garenez, gaur egun Nafarroan dauden kooperatibek portaera hobea dute enpleguaren arloan (arazoak dituzten arren), deslokalisasi arrisku txikiagoa dute, eta beste enpresa batzuk baino hobeto funtzionatzen ari dira, ordaindu beharreko akziodunik ez daukatenez betekizun apalagoak dituztelako irabaziei dagokienez.

- Industria eredu horri laguntzeko legeak eta proiektuak bultzatuko ditugu.

1.3.3.- Sektore publikoaren eta ondare publikoaren defentsa. Etorkizunari begira, neurriak hartu behar dira Nafarroako eta estatuko eskuinaren praxi ekonomiko txarra eragozteko. Izan ere, eskuinak ondarearen kontura koadratzen ditu aurrekontuak, ondasun publikoak horretarako erabiliz, batez ere lehengo industria sektore publikoaren pribatizazioaren bidez. Ondare hori likidatu eta oso prezio onean eman zieten beren sokako sektoreei, epe laburrean itxurazko oparoaldia sortzeko eta aberatsenen zergak kopuru izugarri txikitzen mantentzeko. Nafarroan, EHNren kasua da adibideetako bat (gehiago ere badaude). 1989an sortu zen eta, nazioartean lidergo posizioetan kokatzea lortu ondoren eta hedapen betean zegoenean, gaizki saldu zen eta, gainera, sortutako plusbalioen kudeaketa ezin txarragoa egin zen hortik aurrera (Iberdrolaren eta beste enpresa batzuen akzioak erosi ziren eta akzio haien balioak beherakada izugarria izan zuen). Etorkizunean hori berriz geratzea eragotzi behar da. Ondare publikoaren kudeaketa txarraren adibide guztiz gaitzesgarria da, eta oso argi erakusten du Nafarroako eta estatuko eskuinak nola parasitatzen duen ondare komuna, onena beretzat gordez oso prezio onean.

- Ondasun publikoak babesteko klausulak txertatu behar dira gaur egungo nahiz etorkizuneko araudietan. Era berean, ondasun publiko industrialen nahiz bestelako enpresa pribatizazioa arautu behar da.

1.3.4.- Politika fiskala goitik behera aldatu behar da. Arrazoi ekonomiko ugari eta oso sendoak daude fiskalitatearen arloan aldaketak egiteko. Bigarren sektoreari dagokionez ere horretarako arrazoi asko daude.

- Politika fiskal berriak aintzat hartu behar du enpresen arteko desberdintasuna: enpresa batzuk espekulatiboak dira, ez dute enplegua sortzen eta oso gutxi inbertitzen dute I+G+Bn; beste batzuk,



aldiz, ekonomia produktiboago batera bideratzen dira, enplegu gehiago sortzen dute, langileek parte-hartze handiagoa dute, ardura handiagoz jokatzeko ingurumena babesteari dagokionez eta intentsiboak dira ikerkuntzan eta ezagutzan.

- Orokorrean, justifikatutako laguntzetan oinarrituriko politika bat sustatuko da, zerga salbuespenetan oinarritutako politika alboratuz. Horrek gardentasun handiagoa ematen dio sistemari, politika fiskalaren ekitatea hobetzen du eta laguntzak kontrolatzen laguntzen du. Gainera, salbuespen politikaren bidez, sarri askotan laguntzak garaiz kanpo iristen dira, eta horrek arazoak sortzen dizkie industria enpresei. Justifikatutako zerga salbuespenak gizarte laguntza bihurtuko dira, eta zergak ez ordaintzeko tresna gisa erabiltzen diren justifikatu gabeko salbuespenak desagertu egingo dira.

1.3.5.- Hobeto kontrolatuko da enpresei ematen zaizkien laguntza publikoen helburuak betetzen direla eta hobeto definituko dira laguntza horiek emateko irizpideak.

- Enpresei ematen zaizkien laguntza guztietan klausula eta irizpide sozialak txertatzeko plangintza bat egin eta gauzatu behar da. Besteak beste, klausula eta irizpide horietan honako konpromiso hauek ezarriko dira: enpleguari eta lan baldintzei eustea, berdintasuna eta lanaren banaketa justua bermatzea, enpresa ez deslokalizatzea, lan erreformaren atalik gogorrenak ez aplikatzea eta negoziazio kolektiboa sustatzea.

- Aldiro ikuskapenak egiteko sistema bat ezarriko da, laguntza publikoen helburuak eta enpresei ematen zaizkien dirulaguntza publikoetan aipatutako adierazleak betetzen direla bermatzeko.

- Laguntza publikoak behar bezala erabiltzen ez dituztenak zigortzeko mekanismoak inplementatuko dira.

1.3.6.- Enpresek administrazioarekin dituzten harremanetan tramiteak eta burokratizazioa gutxitu eta arindu behar dira (baimenak, laguntzak, informazioa...). Enpresei burokrasia ahalegin handiegia eginarazteak kalte egiten dio haien lehiakortasunari, batez ere enpresa txiki eta ertainen eta kooperatiben kasuan. Araudiak hobetzeak eta erregulazio ekonomikoa zorrotzek ez du tramite burokratiko gehiago ekarri behar. Alderantziz.

- Tramite burokratikoak gutxitzeko eta arintzeko eta enpresa txiki eta ertainek eta kooperatibek administrazioarekin dituzten harremanak sinplifikatzeko plan bat egingo da.

- Sozietateekin harremanetan jartzeko datu base bat sortuko da (helbideak, telefono zenbakiak eta harreman digitaletarako datuak), Administrazio osoarentzat bateratua eta Ogasun Sailak eguneratua. Horretarako baimena duten Industria Saileko langileak datu basean sartu ahalko dira.

1.4.- Eskumen murrizketa desegokien ondorioz, gaur egun ezinezkoa da gure bigarren sektoreak hobeto funtziona dezan beharrezkoak liratekeen lege erreforma guztiak egitea (hala nola Gizarte Segurantzari eta haren fiskalitateari buruzkoak). Horrek ere argi eta garbi erakusten du gure herriak burujabetza ekonomiko eta politikoa behar duela.

1.5.- Instituzioen esku-hartzea ez da ekonomia arautzera mugatu behar. Aitzitik, gure gobernua eragile ekonomiko aktiboa izan behar da: gure bigarren sektoreak etorkizunean izango duen bilakaera orokorra gidatu behar du (dibertsifikazio handiagoa, nazioartekotze handiagoa, enpresa txiki eta ertainen eta kooperatiben pisu handiagoa, lurralde banaketa hobea, teknologia gehiago eta ahalegin handiagoa I+G+Bn...); sektore estrategikoetan jardun behar du, haien funtzionamendu egokia ziurtatuz; eta gure gizartearentzat onurak sortzeko gai izan behar da. Gainera, sektore publiko indartsu batek edo ondare publiko baliotsu batek sendotasun ekonomiko gehigarria ematen dio egitura instituzionalari, kanpoko erreskatea eskatu behar duten

eskualde eta estatuen ahultasunaren aurrean. 90eko hamarkadaren erdialdetik, estatuko eta Nafarroako eskuinak sektore publikoa eta beste ondare baliotsu batzuk likidatzeko politikak aplikatu ditu, eta Estatua orain ari da ordaintzen horrek ekarri dion egoera ekonomiko ezin ahulagoaren ondorioak. Horregatik, aldagai askok oso argi erakusten dute behar-beharrezkoa dela Nafarroak sektore publiko indartsu bat edukitzea, ekonomikoki aktiboa, eraginkorra eta errentagarria.

1.5.1.- Gure bigarren sektorea dibertsifikatzeko lan egin behar da, I+G+B ahalegin handiagoa eskatzen duten eta balio erantsi handiagoa sortzen duten jarduera teknologikoki aurreratuak bultzatuz. Epe laburrean, eraikuntzak gure enpleguan utzi duen hutsune handia bete behar da, sektore horretan lan egiten zuten milaka pertsona langabeziara joan baitira. Epe luzera, berriz, gure ekonomiak automozioaren sektorearekiko duen mendekotasuna gutxitu egin behar da. Horri dagokionez, Sodena adibide egokia izan daiteke (hasierakoa, azken urteotan bere jatorrizko izaera galdu baitu), interes komuneko proiektu zehatzetan ekimen pribatuarekin batera lan egiteko eredu gisa.

- Gure industriak ere eboluzionatu behar duenez, jarduera azpisektore berriak bilatu eta bultzatu beharko liriteke, sektore estrategikoetan egiten den lanaren osagarri. Ildo horretan, lehentasuna emango zaie balio erantsi handiagoa duten, errentagarriagoak diren eta ingurumena gehiago errespetatzen duten azpisektoreei (berez, hiru ezaugarri horiek ez dira elkarren kontrakoak).

- Nitxo izaerako enpresak eta kooperatibak sortuko dira hainbat eskualdetan, eskualde bakoitzeko baliabideak eta aukerak kontuan hartuz, gure industria sektore berrietara zabaltzeko.

- CEINek ideien eta oinarri teknologikoko enpresen sorguneak bultzatuko ditu. Horretarako, gero eta lotura handiagoa izango du UPNArekin eta han egiten diren ikerlanen emaitzekin (doktorego tesiak, karrera amaierako proiektuak...). Sodenaren bidezko finantziazioa sustatuko litzateke.

1.5.2.- Gure enpresen nazioartekotzea bultzatuko da, oso beharrezkoa baita gaur egun. Gure lurraldeko enpresa handiak erraz mugitzen dira nazioarteko eremuetan. Enpresa txiki eta ertainek, ordea, zailtasun handiagoak dituzte arlo horretan eta, beraz, bezero berriak aurkitzen laguntzeko neurriak hartu behar dira. Maila teknologiko oso handia duten puntako sektoreetan ez ezik, gure industria sektoreak aukera onak ditu hain maila teknologiko handia behar ez duten sektoreetan ere. Aukera horietako bat goraka ari diren herrialdeentzako ekipoak eta instalazioak egitea da.

- Gure industria eta gure marka propioak atzerrian sustatzeko laguntzak emango dira.

- Instituzioek informazioa, babesa eta laguntza ekonomikoa emango diete Nafarroako enpresei, atzerriko azokak ezagutu ditzaten eta haietara joan daitezen.

- Hizkuntzen ikaskuntza sustatu behar da gure hezkuntza ereduko maila guztietan.

- Landa eremuan zailagoa izaten da hizkuntzen arloko hezkuntza aurreratua jasotzea. Beraz, hizkuntza eskolen sarea herri gehiagotara zabaltzeko ahaleginak egingo dira, goraka ari diren potentzia ekonomikoetako hizkuntzei ere arreta eskainiz. Gainera, presentzia fisikorik edo joan-etorriak eskatzen ez duten bitartekoen bidezko prestakuntza ere eskainiko da.

- Kontuan izanik energia berriztagarrien arloko araudi gehienak estatutik datozela eta elektrizitate konpainia handien interesen eraginez egoera gero eta okerragoa dela, atzerriko merkatu berriak bilatu beharko liriteke sektore horretako enpresentzat.

- Nazioartekotze programa espezifikoak sortu behar dira nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresentzat, sektore horrek ahalmen handia baitu atzerrian saltzeko, batez ere merkatu berrietan

(Txina edo Brasil, esaterako).

- Instituzio eta agenteen egitura berri bat sortu behar da, lurralde osoko kooperatiben eta enpresa txikien nazioartekotzea bultzatzeko eta honako helburu zehatz hauekin:

- gaur egun banaka egiten duten lana koordinatzea/biderkatzea.
- aholkularitzaren eta informazioaren arloan laguntzea. Orokorrean, enpresen nazioartekotzeari dagokionez, lehentasunezko zeregina da nazioartekotzeari ekin nahi dioten enpresei aholkularitza eskaintzea eta atzerriko merkatuei buruzko informazioa lortzen laguntzea. Ekimen arrakastatsuak egon dira arlo horretan. Egin behar den inbertsioa txikia da ekar ditzakeen onurekin alderatuta.
- kanpo merkataritza bultzatzea. Horretarako, atzerrian saltzeko aukera gehiago eman behar zaizkie hemengo kooperatiba eta enpresei.
- nazioartekotzeak beste herrialde batzuetako merkatuetan jardutea eskatzen duenez, harreman justu eta solidarioetan oinarritu behar da.
- kanpo merkataritzaren arloan, langileen eta herrien eskubideak errespetatzen dituzten herrialde eta herriekiko harremanak sustatuko dira.

1.5.3.- Beteazpenaren arloko jardunbidea kooperatibei eta enpresa txiki eta ertainei dagokienez. Gure bigarren sektoreko enpresa txiki eta ertainen eta kooperatiben biziraupenaren, garapenaren eta modernizazioaren aldeko neurriak hartuko dira, baita erakunde berriak sortzeko neurriak ere.

- Langileek kudeaketan eta jabetzan parte-hartzea helburu duten proiektuei babesa emango zaie eta, oro har, kooperatibismoaren balioak ezagutarazteko programak bultzatuko dira.

- Gaur egun abian diren ekimen xumeak abiapuntutzat hartuz, doako bulego publiko berri bat sortzea proposatzen dugu, honako helburu hauekin: zailtasun ekonomiko handiak dituzten industriaren arloko kooperatibei, enpresa txiki eta ertainei eta mikroenpresei aholkularitza ematea eta bizirik irauteko nahiz suspertzeko laguntza eskaintzea, eta ekonomia sozial eta eraldatzaileko enpresa berriak sortzeko aholkularitza eta laguntza ematea. Mankomunitateekiko eta Tokiko Garapen Agentziekiko lankidetzaren bidez, bulegoaren jardura lurralde osora hedatuko da.

- Ordainketaren bat ez egiteagatik kooperatibak, enpresa txiki eta ertainak eta, batez ere, mikroenpresak itxi ez daitezen, kasu zehatz horietarako diru laguntzen sistema bat sortuko da eta egin ez duten ordainketa kudeatzen lagunduko zaie. Laguntza espezifiko hori aurreko puntuan aipatutako bulegoak kudeatuko du.

- Bulego berri horren, UPNaren eta Nafarroako UNEDen arteko lankidetzaren hitzarmen bat ezarriko da, ikasleek zuzenean jakin dezaten nolako zailtasunak izan ditzaketen enpresa txiki eta ertainek nahiz mikroenpresek eta zein tresna erabil daitezkeen zailtasun horiek gainditzeko.

- Industria kooperatiba berriak eratzen laguntzeko neurriak hartuko dira, batez ere ixten diren eta bideragarriak izan daitezkeen enpresentzat.

- Diru eta finantza laguntzak emango zaizkie zaharkituta geratzen ari diren industria sektoreetan aritzen diren eta errentagarritasun arazoak dituzten industria kooperatibei, beren jardura eremua modernoagoak eta errentagarriagoak diren sektore berrietara zabal dezaten eta irizpide sozial nahiz ekologikoen araberako trantsizioa egin dezaten.

- Beste puntu batean esan dugu ahalegin handiagoa egin behar dela I+G+Bn, gure industriaren maila teknologikoa hobetzeko, eta gure industria sektorearen berrikuntza teknologikoa bultzatzeko plan orokor bat egitea proposatu dugu. Bada, plan horrek oso aurrerapen garrantzitsuak ekar ditzake industriako enpresa txiki eta ertain eta kooperatiba askoren etorkizuna hobetzeko.
- Zaintza –eta adimen- teknologikoko zerbitzu publiko bat sortuko da, Tokiko Garapen Agentziekin eta Mankomunitateekin elkarlanean, kooperatibei eta enpresa txikiei laguntza teknologikoa emateko.
- Askotariko erakunderen parte-hartzearekin, plan zehatz bat egingo da enpresentzako zerbitzu aurreratuak bultzatzeko: ingeniariak, hainbat arlotako auditoriak (ekonomia, marketina, ingurumena) edo aholkularitzak. Plan hori oso onuragarria izan daiteke industriako enpresa txiki eta ertainentzat eta kooperatibentzat.
- Industriako enpresa txiki eta ertainetan eta kooperatibetan energia auditoriak egiteko plan bat prestatuko da, energia kontsumoa gutxitzeko asmoz.
- Kooperatibetan eta enpresa txiki eta ertainetan informazioa lanabes estrategiko gisa erabiltzea bultzatuko da, diagnostikoak eginez, Informazio Estrategikoko Sistemak ezarriz eta gure enpresa ehunaren berritzea nahiz aurrea hartzeko gaitasuna bultzatuz.

1.5.4.- Gure industriaren banaketa geografikoan oreka handiagoa bilatzearen aldeko apustua egingo dugu. Eremu bakoitzean dauden beharrak era egokian ebaluatzeko, guretzat hauek izango liriteke daturik adierazgarrienak: langabeziaren banaketa gure lurraldeko eskualde eta udalerrietan, biztanleria aktiboa eta okupazioa.

- Eremu geografiko bakoitzean behar den enplegu industrialia ebaluatzeko plan bat egingo da.
- Industriaren garapena eskualdeetan eta tokian tokiko baldintzetan oinarrituko da, eredu piramidal edo zentralistak baztertuz. Horretarako, Nafarroako Gobernuak “benetako” dirulaguntza ildoak sortu beharko ditu, Tokiko Garapen Agentzien eta Mankomunitateen plan estrategikoei eta proiektuei zuzenduak.
- Industrien arteko “sare” harremanak bultzatuko dira, fluxu produktiboen koherentzia handituz eta materialak eraginkortasun handiagoz kudeatuz.
- Parke teknologiko berriak sortuko dira zentro teknologiko berrien inguruetan edo oraingo zentroetako instalazioetatik hurbil, banaketa geografiko orekatuagoa bilatuz. Gaur egun, Nafarroako Berrikuntza Parkea osatzen duten lau parkeak Iruñean, Eguesen eta Noain-Elortzibarren daude, hau da, azken urteotan UPNri oso lotuta egon diren Iruñerriko hiru udaletan.

1.5.5.- Sektore estrategikoen aldeko apustu sendoa egingo dugu. Bigarren sektoreari dagokionez, guretzat hiru hauek dira garrantzi estrategikoa duten sektoreak.

1.5.5.1.- Finantza sektorea. Gaur egun, finantzazioa da Nafarroako enpresa eta kooperatibek daukaten arazorik larrienetako bat. Nafarroako Kutxaren desagerpenak ondorio larriak izan ditu arlo horretan eta oraindik pairatzen ari dira. Industria sektorea ez bada ere, finantza sektoreak funtsezko garrantzia du gure industriarentzat. Gure bigarren sektorea hobeto garatzeko, funtsezkoa eta urgentea da finantza erakunde publiko berri bat edukitzea, are gehiago Nafarroako Kutxaren desagerpena eragin duen kudeaketa penagarriaren ondoren. Horri dagokionez, kontuan izan behar dugu hor daudela Caja Rural de Navarra eta Laboral Kutxa-Ipar Kutxa: ondo posizionatuta daude merkatuan eta kooperatiba profila duten hemengo entitate bakarrak dira.

- Nafarroa osorako Kutxa/Banku publiko bat sortu/berreskuratu egin behar da. Sektore publikoak tresna nagusi horren bidez lagunduko luke enpresa berriak sortzen, industria sektore estrategikoetan inbertitzen, kooperatibak finantzatzeko eta, oro har, industria sustatzen.
- Gure industria azkarrago susper dadin, eta eredu sozialago eta ekologikoago bateranzko trantsizioa egiten laguntzea helburu, gure enpresa txikiei eta kooperatibei finantziario lerroak lortzen laguntzeko urratsak egingo dira, Europako Inbertsio Bankuaren edo horrelako beste entitate batzuen bidez eta Europako instituzioekiko harreman zuzenaren bitartez.
- Enpresa asko ixten edo saltzen ari diren garai honetan, inbertsio funts bat sortu behar da Euskal Herriko gainerako instituzioekin batera, plan integral baten bidez industriarako inbertsio publikoa bermatzeko. Plan horren xede nagusia enplegu industrialia sortzea izango litzateke, eta honako helburu hauek ere izango litzuzke:
  - Industria politika zehazterakoan, eragile sozial, sindikal eta ekonomikoen parte-hartzea bultzatzea, instituzioen parte-hartzeaz gain.
  - Tokiko Garapen Agentzien eta Mankomunitateen plan estrategikoak eta proiektuak kontuan hartzea eta inbertsio publikoaren bidez eskualde guztien industrializazioa sustatzea.
  - Trantsizio fase honetan, eskualde edo sektore jakin batean inpaktu handia duten eta arriskuan egon litezkeen enpresentzako talka-planak abiarazi behar dira, honako elementu hauek kontuan hartuz: langile kopuru handia, fakturazioa, eskualdearen edo sektorearen motor ekonomikoa izatea... Planen helburua enpresa horiek salbatzea izango da, porrot egin edo gaizki saldu aurretik.
  - Etorkizunean garrantzitsuak izan daitezkeen sektoreei dagokienez (nanoteknologia, bioteknologia, arrisku handian dauden ingeniariak sektoreak, nekazaritzako industria, hondakinen birziklapena, ekonomia berdea...), inbertsio publiko-pribatua izan dezaketen proiektuak eta enpresak sortzera joko da. Kasu orotan, inbertsio publikoaren segimendu zorrotza egin behar da, herritarren diruarekin egiten diren inbertsioak direlako. Herrialde batzuetan, kapital publikoaren eta kapital pribatuaren kopurua %50 eta %50 duten sozietate batzuk emaitza onak lortzen ari dira hala ekonomiaren ikuspuntutik nola interes publikoa eta inbertsio publikoak defendatzeari dagokionez.
  - Energia kontsumoa gutxitzen duten, ingurumena errespetatzen duten eta enplegu berdea sortzen duten industria proiektuak sustatzea.
  - Nafarroaren aktibazio ekonomikoa bultzatzea eta langileen protagonismo sozialean oinarritutako industria jarduera ereduak sustatzea.
  - Oro har, industria ehun zabal, anitz, moderno eta ekologiko bat bultzatzea.

1.5.5.2.- Energia sektorea. Era berean, eta etorkizuneko industria sektore publikoaren funtsezko pieza gisa, ekonomia jarduera publikoa oso beharrezkoa da energiaren sektorean. Jarduera publiko horrek garrantzi handia eman behar dio ikerkuntzari, teknologia garbi eta errentagarriak garatu ahal izateko. Azkenaldi honetan, atzerakada larriagotu egin da, PPren gobernuak estatuko Industria, Energia eta Turismo ministeriotik bultzatu dituen erreformen ondorioz. Estatuan egin den azken erreformak harri eta zur utzi ditu politikari eta gobernu guztiak, hala ezkerrekoak nola eskuinekoak, gure inguruko herrialde guztietan.

- Autokontsumoa indarrez sustatuko duen energia eredu burujabe berri bat bilatu behar da. Orain dela gutxi, Nafarroa aitzindaria izan da energia lortzeko era garbien garapenean, baina

azken urteotan, eta beste herrialde aurreratu batzuetan egiten ari denaren kontrako norabidean, bertan behera utzi dira politika publiko horiek, neurri handi batean elektrizitate konpainia handien presioaren eraginez.

- Gure ikuspegitik, oso garrantzitsua izango da autokontsumoa sustatzea eta energia ekoizteko kooperatiba txikiak sortzea kontsumo guneetatik hurbil. Garraioan gertatzen diren energia galerak murrizten lagunduko luke horrek.

- Arlo publikoari dagokionez, izaera publikoko udalarteko energia kooperatiba lokalak sortzearen aldeko apustua egingo dugu, energia burujabetza eta autokontsumoa indartzeko. Tokian tokiko energia baliabide naturalen ustiapena zentzuzkoa eta iraunkorra izan behar da, ingurumena errespetatu behar du eta ezin da defizitarioa izan.

- Ekipo eta instalazio txikien diseinua, ekoizpena, optimizazioa eta abiaraztea oso eremu interesgarria da gure industriarentzat eta gure enpleguarentzat. Hurrengo hamarkadetan eremu horrek garapen handia izan dezake mundu zabalean.

- Energia lortzeko era berrien ustiapen errentagarria erraztuko duten teknologia berrien ikerketa eta garapena bultzatu behar da. Esan beharrik ez dago energia lortzeko era berri horiek gehiago errespetatuko dutela ingurumena.

- Energia burujabetzan eta energia berriztagarrien garapenean aurrera egiteko helburuarekin, enpresa publiko bat sortu behar da energiaren sektorean. Enpresa horrek beharrezkoa den ikerkuntza egingo du eta energia kontsumitzailearengana heldu arteko jarduera guztietan esku hartuko du. Neurri batean, esportazioa ere izango du helburu. Jarduerarik errentagarrietan esku hartzea oso lagungarria izan daiteke ikerkuntza finantzatzeko, ez bailitzateke beharrezkoa izango pisu guztia presio fiskalaren gain uztea. Gainera, energia iturririk kutsatzaileenak ez lirateke ustiatuko, industria pribatu gehienak egiten duen bezala.

- Gure instituzioek energiaren arloan egiten dituzten ahalegin guztiak koordinatu egin behar dira. Horri dagokionez, CENERekin eta beste erakunde batzuekin partekatzen diren ekimenen kasuan, erabakiak ezin ditu Nafarroako Gobernuak bakarrik hartu, beste erakunde edo instituzio batzuen adostasuna behar baita horretarako. Horregatik, enpresa publiko berriak ekimen partekatuetan Nafarroari dagokion jabetza frakzioaren kudeatzaile gisa jardungo luke, hala maila ekonomikoan nola maila teknologikoan (ekimen partekatu horien helburu teknologikoen planteamenduan parte hartzea, haien jardueraren plangintzan parte hartzea, proiektuen bikoiztasuna saihestea...).

1.5.5.3.- Lehen sektorearekin lotutako industria azpisektoreak (okela, esnea, edariak, fruta eta barazkien prestaketa eta kontserbazioa, larrua...). Gure ikuspegitik, bigarren sektorea lehen sektorearen bultzatzaile ekonomikoa izan daiteke, eta jarduera publikoak sektoreko hornitzaileen eta industriaren arteko merkataritza harreman justuagoak lortzen lagun dezake. Bi sektoreen artean integrazio handiagoa lortzen lagun dezaketen eskemak ere bilatu ahal dira. Gure iritziz, eta bigarren sektoreari begira, hori funtsezkoa da ekonomia eredu endogeno iraunkor bat garatzeko.

- Kalitatezko ekoizpen ekologikoa aintzat hartuko duen plan bat garatuko da. Horretarako, balio erantsirik handiena izan dezaketen produktuak definitu behar dira; ekoizpen ereduak zehaztu behar da, gaur egun dauden azpiegiturak eta makinak optimizatuz; nekazaritzako elikagaien industria sektorea bultzatu eta merkaturatze bideak sendotu behar dira, sektorearen beraren eskuetan daudenei lehentasuna emanez.

- Gure industrian (multinazionalak barne) lehen sektoreko produktuen transformazioa bultzatzeko ekimenak abiatuko dira. Nekazaritzako elikagaien industria toki bakoitzean ekoiztitzako lehengaietan eta bertako merkatuan oinarrituta garatuko da. Horrekin batera, ekoizleen lan baldintzak errespetatzeko konpromisoa hartuko du eta informazio zabal eta gardena emango die herritarrei.

- Lehen sektorearen eta bigarren sektorearen arteko zubiak ezartzeko formulak sortuko dira, lehen sektoreko langileen errentak osatu ahal izateko. Lehen sektoreko langileei etekinaren frakzio handiago bat helarazteko estrategiak ezarri behar dira; horrela, gure nekazaritza ustiategiarentzat errazagoa izango da errentagarritasun egokia eta duina lortzea. Ildo berean, nekazaritza eta industriako kooperatiba mistoak sortzen lagunduko da: bazkide langileek beren nekazaritza ustiategian lan egiteko erabili ahalko dute eguneko edota urteko lanaldiaren parte bat, eta gainerako lanaldia kooperatibaren transformazio jarduera industrialean emango dute. Horrek lehen sektoreko langileen errenta osatzen lagunduko du eta transformazio jarduera industrialak sortzen dituen etekinek haien lansaria bermatuko dute.

- Gure erkidegoaren egoera demografikoa dela eta, nekazaritza eta abelazkuntzako ustiategi askoren iraupena arriskuan dago. Izan ere, nekazari asko adinekoak dira eta kasu askotan ez da batere erraza belaunaldi gazteek haien lekua hartzea. Horri dagokionez, ustiategiaren egonkortasuna ona da lehen sektorearekin lotutako industria proiektuentzat. Industriari lotutako ikuspegi batetik, komenigarria litzateke administrazioak esku hartzea ustiategietan belaunaldi erreleboa errazteko. Horretarako, erretiroa hartzen duten jabeak haien ondorengoak izan litezkeen jabe berriekin harremanetan jarri eta alokairurako erraztasunak eman behar dira, etxebizitza babestuen alokairurako egiten den bezala. Halaber, gutxieneko errentagarritasun bat lortzen lagundu behar zaie ustiategia beren gain hartuko duten langile berriei, errentagarriak izan daitezkeen ustiapen unitateak alokairuan jarriz, hala behar izanez gero eta jabetzan eraginik izan gabe.

- I+G+B arloa bultzatu behar da, makinak, lanabesak eta instalazioak hobetzeko eta, horrela, nekazarien, abeltzainen eta baso langileen lan baldintzak hobetzeko.

- Bertako produktuei dagokionez, garai batean izan genituen eta orain galtzen ari garen jatorri-deiturak sustatu edota berreskuratu behar dira (Nafarroako Ardoa, Nafarroako Zainzuria, Tuterako Kukulua, Pikillo Piperra...). Bere garaian orain baino askoz ere proiektio handiagoa izan zuten.

- Era berean, autohornikuntzarako ortu txikien kultura sustatu behar da, familia askoren ekonomia hobetzen lagundu ahal baitute.

1.5.6.- Ahalegin handiagoa egin behar da Ikerkuntzan, Garapenean eta Berrikuntzan, gure bigarren sektorearen gaur egungo egoera hobetzeko, maila teknologiko apalekoa baita. I+G+B funtsezkoa da hala sektore estrategikoetan lan trinkoagoa egiteko nola dibertsifikazioa bultzatzeko. Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratutako datuen arabera, Nafarroako bigarren sektorean egiten den I+G+B inbertsioa %18,65 jaitsi da 2004tik 2012ra bitarteko aldirian, pisu erlatibo handia galdu du guztizko inbertsioan (2004an guztizko inbertsioaren %84,31 izan zen, eta 2012an %48,21 besterik ez) eta inbertsio hori hirugarren sektorera joan da (hor sartzen dira CIMA eta azken urteotan Nafarroako Gobernuak Opus Deiri finantzazio publikoa emateko asmatu duen egitura guztia; eskuina gure ondare publikoa nola parasitatzen ari den oso argi erakusten duen beste adibide bat). Azpimarratu beharra dago 2015ean oraindik ez direla argitaratu 2013ko datuak. Berriz ere, egungo gobernuaren politikak agerian uzten dituzten datu estatistikoak ezkututzen ari dira. Bestetik, gure gazteen prestakuntza maila oso handia da, baina, UPNren eta PSOEren gobernuen kudeaketa txarraren ondorioz, goi-mailako prestakuntza duten gazte horietako asko kanpora joan behar izan dira edo joaten ari dira, hemen inolako aukerarik ez dutelako. Berreskuratu egin behar dugu gobernu ezberdinen utzikeriaren ondorioz galdu dugun giza kapital guztia. Azkenik, I+G+B arloan hauxe izango litzateke helburua: ikerkuntza egiten den ahaleginak

haren autofinantziak ahalbidetuko duten emaitzak eta etekinak lortzea.

- Gure industria sektorearen berrikuntza teknologikoa sustatzeko plan integral bat egin eta garatuko da, teknologikoki zaharkituen geratzen ari den azpisektoreei arreta berezia eskainiz.
- I+G+B arloan gaur egun dagoen nahaspila gaindituz, ematen diren dirulaguntzen kontrola, koordinazioa eta planifikazioa ziurtatuko da.



7

*MERKATARITZA*

>>

# MERKATARITZA

## IDEIA NAGUSIAK

1. Azalera handiko merkatalguneen irekierak, enpleguaren suntsipena ekarri izan dute, komertzio txiki askoren itxiera eragin dutelako; horregatik, EH Bildun merkatalgune horien irekieraren kontrako jarrera daukagu.
2. Tokiko merkataritza bultzatzea eta babestea beharrezkoa da, erlazio pertsonalak sustatzen dituzten eta ezarrita dagoen tokiei bizia ematen dizkien ondorio onuragarria dituelako.
3. Udaletxeek eta Tokiko Entitateek, Merkatarien Elkarrekin batera, eskura dituzten tresnekin, merkataritza eredu ekologikoagoa, bertako produktuak bultzatzen dituena, kalitatezkoa, berria, parte hartzailea eta dinamiko baterantz lan egin behar dute.
4. Administrazio publikoetatik, kontsumitzaileen babeserako politika aktiboan bultzatzea eta hobekuntza beharrezkoa ikusten dugu, horien eskubideen defentsa sustatuz.
5. EH Bildun beharrezkoa ikusten dugu, sektore honetako langileen eskubideen babesa sustatzen dituzten politiken aplikazioa; sindikatu, merkataritza eta patronalaren arteko hitzarmenen negoziazio kolektiboa bultzatuz.

## ONARRI IDEOLOGIKOAK

Merkataritza sektoreak, BPGren egindako ekarpenagatik, sortzen duen enpleguagatik eta egunean egiten diren transakzio kopuruarengatik, paper garrantzitsua dauka gure jendartearen. Hurbileko herri komertzioak duen papera bereziki garrantzitsua da, gure hiri eta herriak dinamizatu eta egituratzen dituelako; bizi sozioekonomikoaren traktorea delako eta merkatalgune periferikoaren ereduarekin alderatuz, gure errealitate kulturalarekin bat datorren hiri ereduaren eraketan laguntzen duelako.

Hala ere, merkatalgune handien ugaritzearen, ordutegiaren handitzearen, kontsumitzaileen ohituren aldaketaren eta merkataritza elektronikoaren lehia handitzearen ondorioz, merkataritza sektoreak bere bizirautea eta bideragarritasuna ziurtatzeko erronka handiei aurre egin behar die.

Zorionez, merkataritza eta hostalari elkarteak sortzen joan dira, zeintzuk, administrazioarekin erlazio zuzenean, jarduera horiek bultzatu, gure auzoen eta herrien kaleei bizia eman eta pertsonen arteko erlazioak sustatu egiten dituzte.

Administrazioetatik bultzatu behar dira ekimen horiek, eta bide batez, gure eredu sozial eta ekonomikoarekin bat datozen urratsak eman behar dira. Lan egin behar dugu jendartearen tokiko kontsumoaren garrantziaz sensibilizatzeko eta daukagun merkataritza baloratzeko; hurbila delako, pertsonala, profesionala eta gainera ekologikoa, globalizazio ekonomikoaren produktuarentzat pentsatua ez dagoelako eta garraio gutxiago erabiltzen duelako, gehienetan herriko bertako produktuak aukeratzen dituztelako. Bestalde, bertako jai, kirol eta ekimen kulturalak laguntza ematen die.

Tokiko merkatu eta feriez ezin gara ahaztu, normalean nekazaritza, abeltzaintza edo artisautzatik eratorritako produktuak zuzenduta dagoena. Merkatu eta feria hauek, zalantzarik gabe, salmentaren kalitatea ziurtatzerakoan eskaintza garrantzitsua osatzen dute. Merkataritza eredu hori berritzeko eta azken urteotan jasan izan duen utzikieriaz indarberritzeko, ekimen zehatzak behar dira.

Gizartean eman diren aldaketek merkatu eta zerbitzuen globalizazioa eta gizarteak dituen behar berriak zein kontsumitzeko forma berriek, teknologi berriekin erlazionatuak gehien bat, merkatu tradizionala aldatu egin dute. Guzti horrek, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsan eragina duten alde ugarien erregulazio marko baten beharra erakarri du.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

- Herritarrei eta gure errealitateari hurbilagokoak diren herri saltoki txiki eta ertainak ezartzea eta finkatzea erraztuko duten neurri ekonomikoak bultzatzea.
- Tokiko merkataritza tradizionalan, merkataritza elektronikoak ekarri dituen negozio aukerei etekinak atera ahal izateko, kudeaketa eta salmentarako teknologia berrien aplikazioa bultzatzea; hori guztia, formazioa, profesionalizazioa eta inbertsioaren bidez egin beharko dugu. Herrietako, auzoetako edo eskualdeetako saltoki txikietan, merkataritza elektronikoaren erabilpena bultzatzen dituzten proiektuen garapenerako, hitzarmenak bultzatuko ditugu udaletxe guztiekin, merkatarien elkarrekin lankidetzan.
- Antolakuntzara, produktuetara eta prozesuetara bideratutako berrikuntza gaitasunak bultzatzea, enpresen tamaina kontuan hartu gabe. Horretarako, merkataritzara zuzendutako eraberritze proiektua diseinatuko dugu.
- Enpresa handiei aurre egin ahal izateko, merkataritza elkarrekin sortzea bultzatuko dugu, sektorearen interes orokorrak defendatuz eta bide batez, egitura komertzialak eraberritzea eta eskaintza hobetzea ahalbidetuz.
- Tokiko Entitateen eta Merkataritza Elkarrekin arteko lankidetzaz, eraberritze planak martxan jarri eta hiriguneetan komertzioaren garapena sustatuko dugu, hiritarrentzat erakargarri izango diren hiriguneetako merkataritza eremuak sendotzea helburua izanik. Alde zaharretan eta eremu degradatuetan arreta berezia jarriko dugu, kaleak oinezkoentzat bihurtzea diren hirigintza jarduerak kontuan hartzeaz gain, zama lanak erraztuz saltoki kontzentrazio handiko guneetan.
- Banatze bide motzak edo ekoizlearen eta kontsumitzailearen salmenta zuzena bultzatu eta erraztuko dugu; lehen sektorean, lankidetzara berezia bultzatuz.
- Jasangarritasun irizpideengatik, hiri inguruko establezimendu komertzialen ezartzearen ordez, herri saltoki txikiak bultzatuko ditugu, lur kontsumitzaile handiak direlako, joan etorriak eta bidesarien ondorioz ingurugirorako kaltegarriak direlako eta hirien desertizazioa dakartzatelako.
- Kontziliazioa errazten dituzten ordutegien defentsa eta asia-kontsumoarekin derrigorrez erlazionatua egon behar ez duen jendarte ereduaren alde lan egingo dugu.
- "Jai egunak, bizi egunak". Jaiegun eta igandeetan irekiera 0 izatea eta irekiera ordutegien murrizketa. EH Bildun merkataritza langile guztientzako eskubide eta lan baldintza duinak defendatuko ditugu, eskualdeetako hitzarmenak babestuz eta bultzatuz.
- Beharrezkoa ikusten dugu sektore berriak bultzatzea eta bidezko merkataritzaren sareen zabalpena, beren produktuen komertzializazioa sustatuz.
- Irekiera baimenak eman ahal izateko, merkatu ikerketak egitea beharrezko baldintza izatearen beharra ikusten dugu, zonaldearen benetako beharrak neurtzeko, eskaria eta ingurumenaren gaineko eragina eta eragin soziala ezagutu ahal izateko.
- Erakunde publikoek (Merkataritza eta Industria Ganbara...) baliatuz, tokiko merkataritza bultzatzea eta garatzea.

- Sindikatu, merkataria eta patronalaren arteko lankidetzaren bilatzea, guztiendako onuragarriak diren akordioak lortzeko eta langilearen eskubideen babes publikorako.

## KONTSUMOA

- Garatu beharreko ekimenak planifikatzeko eta prebentzio neurriak errazteko, eragile sozialen, eta bereziki kontsumitzaileen elkarrekin parte hartzerako eta lankidetzarako bideak ezartzea.
- Kontsumo jasagarria bultzatzeko estrategiak sustatuko ditugu kontsumo arduragabea ekiditeko. "Gehiago kontsumitu"-ren aurrean, "hobe kontsumitzea" defendituko dugu, horretarako erosketaren arduratsuen alde egitea proposatzen dugu; garapen jasagarria, osasuna, elikadura subirautea, ekitate soziala, aniztasun kulturala eta komunitateen indartzeari laguntzeko.
- Kontsumitzaileak bereganatzeko, formazio kanpainak bultzatzea, modu horretan, informazio eta komunikazio gizariek erakartzen dituen erronkei aurre egiteko behar diren gaitasunak lortu ahal izatea.
- Eskoletako jantokien araudia aldatu, horien autogestioa eta kudeaketa integrala ahalbidetzeko eta elikadura subiranotasunean oinarritutako kontsumo arduratsuen kultura sustatzeko.
- Kontsumitzaileen elkarrekin batera artekaritza zerbitzuak martxan jarriko ditugu, gatazkak konpontzeko tresna bilakatzeko.
- Produktu eta zerbitzuen segurtasuna bermatzeko ikuskaritza zerbitzu espezializatua sortuko dugu.
- Organismo publikoen zein kontsumitzaileen elkarrekin bidez, interes orokorrak edo kolektiboak defenditzeko, herritarrei doako laguntza juridiko zerbitzu eskaintza bultzatzea proposatzen dugu.
- Kontsumitzaileen elkarrekin, haiengan eragina dituzten kontuak erabakitzen diren foroetan, ordezkariak nahikoa ziurtatzea.
- Kontsumitzaileei hezkuntza eta formazio kanpainak programatzea bultzatzea.
- Kontsumo Arbitraje sistema bultzatzea, ahalik eta enpresa kopuru handiagoaren atxikimendua bilatuz.
- Kontsumitzailearentzat Informazio Udal Bulegoen sarea zabaltzea eta beren jarduerak garatzeko beharrezkoak diren baliabide nahikoz hornitu, beti ere horrekin bat datorren finantziario publikoa bermatuz.

# 8 *TURISMOA*



## TURISMOA

### IDEIA NAGUSIAK

1. EH Bilduk turismoaren aldeko apustua egiten du gure ekonomiaren atal garrantzitsu gisa. Hala ere, bultzatu nahi dugun turismoa ohiko turismo eskaintzatik kanpo kokatzen da: bestelakoa izango da eta parametro berrietan oinarrituko da.

2. **EH Bilduk bultzatu nahi duen turismoak honako parametro hauek ditu oinarri:**

- gure herri izaera eta gure kultura ezagutarazteko baliogarria izatea.
- gure historia eta ondare historikoa modernitatearekin uztartzea.
- gure gastronomia sustatzea, gure ondarearen parte gisa.
- gure natur eta landa baliabideak errespetatzea.
- masifikazioa helburu duten proiektuak baztertzea.
- tokian tokiko garapen endogenoa, gizarte errealtatea eta ingurumena kontuan izatea eta haien zerbitzura jartzea (eta ez alderantziz).
- errentagarritasun sozial eta ekonomikoa bilatzea.

3. **Gure helburu orokorra hauxe da: ingurumena, gizartea eta gure herriaren sustraiak errespetatuko dituen turismo iraunkor bat bultzatzea.**

### GARAPENA

- EH Bilduk bultzatuko duen turismoak Nafarroa ezagutaraziko die hala nafarrei nola mundu osoari eta gure turismo errealtatearen eta gainerakoen arteko esperientzia trukea sustatuko du.

- Ereduez merkantilista baztertuz, pertsonetan eta gure herrian oinarritutako turismo iraunkorra eta soziala proposatzen dugu.

- Pirinioetatik Erriberaraino, turismoa gure kultura ezagutzera emateko tresna izan behar da. Era berean, landa turismoa naturan, ondare historikoan eta gure produktu autoktonoetan oinarritu behar da. Gure ekonomia bultzatzeko tresna izateaz gain, turismoak aukera bikaina eskaintzen digu gure euskalduntasuna ezagutarazteko eta beste herri batzuekiko elkarguneak sortzeko.

- Turismoaren sektorea deslokalizatu ezin diren bakanetako bat da. Gure eskaintza ezin da beste leku batera aldatu. Horregatik, argi eduki behar dugu gure baliabideak ezin ditugula edonola ustiatu. Badakigu gure ahalmena zein den eta, horregatik, denboran iraungo duen garapen ordenatu baten aldeko apustua egiten dugu. Turismoa oraingo eta etorkizuneko apustua da beren ingurunean lan egin nahi duten pertsonentzat.

- Gure turismo eskaintza ezin da leku ezagunenetan soilik oinarritu. Nafarroa osoa ezagutarazi nahi dugu, lekurik enblematikoenei garrantzia emanez baina esperientzia eta eskaintza berriak ere garatuz.

- Jakin badakigu landa turismoak garrantzi handia duela Nafarroan, eta uste dugu oraindik lan handia egin behar dugula turismo mota hori garatzen jarraitzeko, gure herri eta haranetako ekonomiaren motorra izan dadin.
- Nafarroako dibertsitate geografiko, sozial eta kulturala aintzat hartuz, turismoaren garapenak aukera handiak ematen dizkigu Nafarroako errealitatea garatzeko eta gure mugetatik harago sendotzeko.
- Bisitatzen gaituzten pertsonak, diru sarrerak ekartzeaz gain, Nafarroako eta, beraz, Euskal Herriko errealitatearen bozeramaileak izango dira, eta haien testigantza bidez gure aberastasun soziokulturala ezagutarazteko aukera ezin hobea eskaintzen digu horrek.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

1. Gaur egungo datuak kontuan hartuz, turismoak Nafarroan daukan benetako garrantziari buruzko azterketa sakona egingo dugu: sortzen dituen lanpostuak, BPGan dagokion ehunekoa, ekonomia jarduera zuzena nahiz zeharkakoa, azken urteotako garapena, merkatu potentzialak... Bestetik, turismoaren behatokia sortuko dugu eta datu propioak bilduko ditugu, etorkizuneko estrategiak datu horietan oinarrituta diseinatzeko. Estrategiak urtero berraztertuko dira.
2. Datu horien azterketak gure plan estrategikoa egiteko balioko digu. Bere ahalmenaren arabera, turismoa eskala txikiko ekonomiaren sustatzailea izan daiteke eta gure herri, haran eta hirien garapena bultzatzen lagun dezake.
3. Nafarroan turismoa antolatzeke era aldatuko dugu, turismo zonak eta Nafarroa osoa kontuan hartuz baina maila lokaletik hasiz. Erabakiak behetik gora hartuko dira eta Gobernuaren aholkulari eta laguntzaile izango da.
4. Datuak eta turismo agenteekiko harremanak aztertu ondoren, merkatu potentzialetan egingo ditugun jarduketak planifikatuko ditugu, jarraitutasunik ez duten noizbehinkako merkatuetako jarduketa zehatzetatik harago. Gure merkatu potentzialak aurkitu ondoren, gure turismo produktuak ezagutarazteko kanpainak eta ekimenak zehaztuko ditugu.
5. Turismoaren mahai sektoriala sortuko dugu, turismo agenteekiko harreman iraunkorra eta zuzena indartzeko eta haien proposamenak eta iritziak jasotzeko. Zeharka turismoarekin zerikusia duten beste eragile batzuk ere mahai horretara gonbidatuta egongo dira (merkatariak, eskulangileak, abeltzainak, nekazariak...). Mahai horrek oraingo Turismo Kontseilua ordezkatzeko du eta zabalagoa, parte-hartzaileagoa eta erabakitzaileagoa izango da. Eskualdeetako turismo mahaiak ere sortuko ditugu. Bi mahai horietan erabakitzen dena derrigorrezko erreferentzia izango da Nafarroako Gobernuarentzat turismoaren arloan.
6. Entitate publiko-privatuen eta turismo elkarten lana bultzatuko dugu, oso garrantzitsutzat jotzen dugulako. Horretarako, elkarlanean arituko gara eta behar duten laguntza ekonomikoa emango diegu, legegintzaldi osorako adostutako plan ekonomiko baten bidez.
7. Turismoarekin zerikusia duten beste eragile batzuekiko harremanak indartuko ditugu, haien lana ere beharrezkotzat jotzen dugulako. Elkarlanerako gonbidapena luzatuko diegu nekazariei, merkatariari, eskulangilei, abeltzainei eta sektorearekin zeharkako lotura duten beste profesional batzuei.
8. Partzuergoekin, garapen agentziekin eta mota guztietako turismo elkarteekin elkarlanean, turismo gune nagusiak nahiz potentzialak identifikatuko ditugu eta gune horiek mantentzeko eta indartzeko neurriak eta estrategiak aktibatuko ditugu.

9. Turismo elkarteen modernizazioa babestuko dugu, entitate indartsuak eta profesionalizatuak izan daitezen, turismoa bultzatzen eta beren produktuak merkaturatzeko gaitasuna izan dezaten.
10. Turismoaren arloko ekimenak toki bakoitzera egokitu beharko dira (herria, harana, eskualdea), proiektu handinahiak baztertzuz eta tokian tokiko baliabide endogenoak kontuan hartuz. Horretarako, eremu bakoitzaren jasate-ahalmena aztertu eta, horren arabera, plangintza ordenatua egingo dugu.
11. Azken urteotan onartu diren arauak aztertuko ditugu, hobetzeko asmoz, eta araudi berriak sortuko ditugu araututa ez dauden arloetan (ondare eta natur gidariak eta naturako jardueren arduradunak, besteak beste). Araudiek aintzat hartuko dituzte honako elementu hauek: tituluen eta prestakuntzaren beharra, ingurumena, garapen iraunkorra eta energia aurrezteko neurriak.
12. Ekonomia sozialaren arloko ekimenak babesten dituzten turismo enpresa eta zerbitzuak sortzea bultzatuko dugu. Horrelako enpresek laguntza ekonomiko berezia eta turismoaren arloko aholkularitza teknikoak jasoko dute, etorkizuneko turismoa iraunkorra izan dadin ingurumenari, ekonomiari nahiz gizarteari dagokionez.
13. Turismo zerbitzuen kalitatea hobetzeko asmoz, azterlan bat egingo dugu prestakuntzaren arloko beharrak zein diren jakiteko. Horretan oinarrituta, etengabeko prestakuntzarako programa bat eskainiko dugu. Programa hori turismo agenteekin adostutako prestakuntza plan batean gauzatuko da.
14. Sailarteko koordinatzailearen figura sortuko dugu, turismoarekin zerikusia duten gaietan sailen arteko zubi lana egin dezan.
15. Eskualdeko turismo dinamizatzailearen figura berrartuko dugu. Haren zeregina eskualde bakoitzeko turismo proiektuak ezagutzea eta babestea izango da eta zubi lana egingo du tokian tokiko interesen eta Gobernuaren artean.
16. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta haien autonomia sozioekonomikoa bultzatzeko neurriak hartuko ditugu, turismo jarduerak hori indartzeko baliabidetzat hartuz eta autoenplegua sustatuz.
17. Kantitatezko turismoaren ordez kalitatezko turismoa bultzatuko dugu, iraunkortasuna oinarritzat hartuz eta turismo tradizionalaren ordezko neurri alternatiboak proposatuz.
18. Gure sukaldaritzan, gure gastronomian eta hemengo produktuetan oinarritutako gastronomia turismo autoktonoa bultzatuko dugu. Gure turismo politikan garrantzi handia eta babes osoa emango diegu establezimendu tipikoenei (erretegiak, pintxo tabernak, upategiak, etxeko janaria ematen duten jatetxeak eta izen handiko jatetxeak).
19. Batik bat, herrietako jai gastronomikoak, azokak eta produktu tipikoen lehiaketak bultzatuko ditugu. Jarduera horiek gure babes ekonomikoa jasoko dute eta indar bereziz sustatuko ditugu, hemengo produktuen hornitzaile elkarteekiko hitzarmenen bidez.
20. Turismo iraunkorra aldeztzen duten beste erakunde batzuekin esperientziak, ideiak eta prestakuntza trukitzea bultzatuko dugu, antzeko esperientzietan elkarlanean aritzeko asmoz. Batez ere, gainerako euskal lurraldeekiko lotura bilatuko dugu.
21. Etorkizunean Euskal Herria turismo-marka sortzea proposatzen dugu. Marka horrek gainerako euskal lurraldeekin batera produktu integral bat eskaintzeko aukera emango digu, eta horrek berebiziko bultzada emango lioke gure turismoari. Ildo horretan, Udalbiltzarekiko turismo ekimen bateratuak babestuko ditugu.
22. Tokian tokiko biztanleriari zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egingo ditugu, honako helburu honekin:



gure ekonomiarentzat funtsezkoa izango litzatekeen eta gure kultura eta ondarea zainduko litzuzkeen turismo iraunkor bat bultzatzeak daukan garrantziaz jabeaztea.

23. Pirinioak marka bultzatuko dugu, mugaren bi aldeetako komunitateekiko ekintza bateratuen bidez. Halaber, hainbat produktu beste lurralde batzuekin batera sustatzeko moduak bilatuko ditugu: Errioxako Ardoa, Irati, Bide Berdeak, Herri Kirolak...

24. Bideak eta ibilbide historikoak bultzatuko ditugu (Done Jakue bidea, Abeldideak, bide berdeak, bidezidorrak...). Horretarako, etengabe mantendu eta sustatuko ditugu ibilbide horiek.

25. Eskualde arteko bidezidor sareak sortuko ditugu eta mantentzen eta sustatzen laguntzeko konpromisoa hartzen dugu. Sare horiek zerbitzu global bat eskainiko dute (bidezidorrak, ostatuak, jatetxeak, jarduerak...) eta turismo baliabide nagusiak nabarmenduko dituzte. Sare horiek mantentzeak aberastasun ekonomikoa ekarriko die eskualdeei.

26. Nafarroarako turismo plataforma birtual bat sortzea proposatzen dugu. Plataforma horren bidez gure datu baseak, web orriak eta on line erreserba-zentralak konektatuko genituzke.

27. Laguntza ekonomikoen plan bat jarriko dugu abian, legegintzaldi osorako eta urtero aplikatzekoa. Laguntzak urte hasieran deituko eta ebatziko dira, jarduerak planifikatzeko denbora nahikoa egon dadin.

28. Gobernuak aholkularitza integral eta etengabea eskainiko die turismoaren arloko enpresa eta agenteei.

29. Azterlan bat egingo dugu prestakuntzaren arloko beharrak zein diren jakiteko. Horretan oinarrituta, prestakuntza plan bat proposatuko dugu, sektorearekin adostua eta legegintzaldi osorako.

30. Merkatu ikerketa bat egingo dugu turismo bezeroen joerak zein diren jakiteko. Datu horiek oso garrantzitsuak izango dira turismoa sustatzeko estrategiaren oinarri gisa.

31. Nafarroa turismo-produktua sortzeko liburu zuria egingo dugu. Gure ustez Nafarroak merkaturatu behar dituen turismo produktu eta azpiproduktuen ezaugarri orokorrak jasoko dira liburu horretan. Produktu horiek denboran iraunkorrak izan beharko dira eta etengabe sustatuko dira, propaganda hutsa gaudituko duten benetako jarduketan bidez.

32. Turismo azoketan dugun parte-hartzea birplanteatuko dugu. Tuntu handiz aukeratuko dugu nora joan, hurbileko azokak eta zuzeneko salmentakoak lehenetsiz. Azoken egutegia sektorearekin adostuko da.

33. Salmenta turistikorako zerbitzu publiko bat sortuko dugu. Zuzeneko salmentarako eta pakete turistikoak sortzeko eta saltzeko legezko gaitasuna izango du eta elkarlanean arituko da sektore pribatuak edo beste entitate batzuek sortzen dituzten tankera horretako ekimenekin.

34. Turismoa sare sozialetan sustatzeaz arduratuko den lantalde bat sortuko dugu eta garrantzi handia emango diogu haren lanari.

35. Sustapen kanpainak denboran iraunkorrak izango dira, eragina izan dezaten. Urtero haien eraginkortasuna baloratuko da, datu objektiboekin.

36. Sektoreko enpresa eta agenteei turismoaren arloko aholkularitza integrala emango dien lantalde bat sortuko dugu. Nagusiki, honako arlo hauei buruzko aholkularitza emango du: ekonomia eta finantzak, teknika eta araudiak, merkataritza eta marketina, eta ingurumena.

37. Laguntza ekonomikoak irizpide teknikoetan oinarrituko dira beti, eta ez irizpide politikoetan. Txosten teknikoetan oinarrituta justifikatuko dira eta inbertsioetara nahiz sustapenera zuzenduta egongo dira.
38. Inbertsiorako laguntzen arlo nagusiak honako hauek izango dira: energia aurrezpena, material ekologikoen erabilera, bideragarritasun ekonomikoa, ingurumenarekiko errespetua, gazteentzako eta emakumeentzako enplegu sorkuntza, ekonomia sozialeko enpresak eta enpresa lokalak.
39. Sustapenerako laguntzek honako arlo hauek lehenetsiko dituzte: iraupen ertain edo luzeko jarduerak eta ekimenak, tokian tokiko produktuen eta gure ohituren ingurukoak, kontsumo nahiz jardunbide ekologikoak sustatzen dituztenak, eta sare sozialen eta teknologia berrien erabilera.
40. Laguntzak emateko, baremo objektiboak erabiliko dira eta puntuaziorik onena lortzen duten proiektuak lehenetsiko dira. Laguntza proiekturako erabili dela eta proiektua oso-osorik gauzatu dela egiaztatzeko kontrol sistema bat aplikatuko da.
41. Dirulaguntzak emateaz gain, abantailazko kredituen linea bat ere irekiko dugu, batez ere banku etikoekin.
42. Nafarroako Gobernuaren ardurapeko turismo seinaleak elebidunak izango dira Nafarroa osoan. Seinaleztapenerako eskuliburu berri bat sortuko dugu, Nafarroa osoko herri eta eskualde guztietan derrigorrez bete beharrekoa.
43. Gehiegizko burokrazia saihestu eta turismo administrazioarekiko prozedurak eta epeak arinduko ditugu. Plantilla xumeak sortuko ditugu eta bide telematikoak eta internet sustatuko ditugu tramite guztietarako. Tramitazio guztiei buruzko aholkularitza etengabea eskainiko dugu.
44. Turismo enpresek teknologia berriak erabiltzea sustatuko dugu, batez ere landa eremuan, laguntzen bidez eta mendialdeetan elkarrengandik hurbil dauden turismo enpresak konektatuko dituzten web eremuak sortuz.
45. Tokiko erakundeekiko koordinazio etengabea bultzatuko dugu, batez ere Iruñeko Udalarekin, ekintza bateratuak egiteko eta, besteak beste Sanferminek mundu zabalean duten ospea baliatuz, turistak Nafarroako beste inguru batzuk ezagutzeko asmoz gure lurraldean geratzea lortzeko.

9

NEKAZARITZA ETA  
ABELTZAINITZA



# NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA

## IDEIA NAGUSIAK

1. Elikadura oinarrizko beharra izanik, Nafarroak bermatuta eduki behar du elikadura osasungarria, herri gisa etorkizuna izan dezan.
2. Gaur egungo elikadura sistema neoliberallean, salgai hutsak balira bezala erabiltzen dira elikagaiak. Hara eta hona garraiatzen dira korporazio handien irabazietan oinarritutako espekulazio merkatuan.
3. Tokian tokiko elikadura sistema iraunkorrak, justuak eta osasungarriak eraiki behar dira, elikadura burujabetzaren bidean aurrera egiteko eta kontsumoaren planifikazioan fisikoki eta ekonomikoki eskuragarriak diren elikagaiak edukitzeko.
4. Nekazaritza iraunkorra eta herrikoia sustatu behar da, agroekologiaren bidean, baserritarrei lan baldintza duinak bermatzeko eta herritarrenganako hurbiltasunean eta konfiantzan oinarritutako ereduak eraikitzeko.

## ONARRI IDEOLOGIKOAK

### ONARRIZKO PRINTZIBIOAK

EH Bilduren ikuspegitik, behar-beharrezkoa da **elikadura burujabetzaranzko trantsizioari ekitea, nekazaritza eredu autonomoagoak eta iraunkorrak bilatuz**. Jendearentzako elikagaiak ekoitzi behar dira. Elikagai onak, justuak eta garbiak. Elikagai onak osasunaren, organoleptiaren nahiz emozioen aldetik. Egindako lana ordaintzen duten eta herritarrentzat eskuragarriak diren elikagai justuak. Eta, nola ez, elikagai garbiak, hondakin kimikorik eta genetikoki eraldatutako organismoak gabeak, egungo baliabide naturalak neurrian erabiltzen dituen eta etorkizuneko nekazari eta abeltzaintzat agortzen ez dituen nekazaritza eta abeltzaintza eredu baten bidez ekoitziak.

Egoera horren aurrean, eta nekazaritzako elikagaien arloko politika ikuspegi aurrerakoi batetik bideratzeko, inoiz baino premiazkoagoa da **bi printzipio nagusi** hauek hartzea oinarritzat: elikadura burujabetza eta agroekologia.

- **Elikadura burujabetza.** "Herri guztiek eskubidea dute nekazaritzako elikagaien arloan beren sistema propioak definitzeko eta elikagai osasungarriak edukitzeko, herri bakoitzaren kulturara egokituak eta haien iraunkortasuna bermatzen duten metodoen bidez ekoitziak." Horrela definitzen da elikadura burujabetza Nyeleniko adierazpenean. Elikadura burujabetza ez da autarkia. Baldintza duinetan eta nekazaritzako elikagaien ekoizpenak gizartearen beharrei erantzungo diela bermatuz egiten den trukea da.

- **Agroekologia,** berriz, zientzia bat da eta lurralde bakoitzeko jarduera espezifikoak barnebiltzen ditu. Honako helburu hauek ditu: mantengutokiak eta energia birziklatzea, kanpo-inputak minimizatuz; baliabide genetikoen biodibertsitatea sustatzea; eta nekazaritza sistema osoaren produktibitatea optimizatzea, ez soilik banakako ekoizle batzuenak.

### HELBURU ESTRATEGIKOAK

- **Elikagaiak ekoiztea** vs Commodity-ak ekoiztea

- Ondasun pribatuak eta ondasun publikoak ekoiztea: **multifuntzionalitatea**
- Epe luzerako lehia: **sistema autonomoak** vs sistema kalteberak
- Monolaborantzaren aurrean, **biodibertsifikazioa**
- **Genero ikuspegia**
- **Enplegua** sortzea. Nekazaritzako biztanleria aktiboa mantentzea edo handitzea. Langile asko erabiltzen dituzten sistemak lehenestea.
- **Gazteak** erakartzea
- **Nekazaritza soziala**, etorkizuneko nekazaritza
- Produktuen **kalitate** berezitua: jatorri izenak eta AGBak (Adierazpen Geografiko Babestuak)
- Osasunari eta sistemen iraunkortasunari lotutako kalitatea. **Nekazaritza ekologikoa** sustatzea eta genetikoki eraldatutako organismoak dituzten labore edo lehengaien erabilera baztertzea.
- Konfiantzan oinarritutako kalitatea: **banaketa kanal laburrak** sustatzea
- **Mantenugaiak birziklatzen** dituzten sistemak
- **Energetikoki eraginkorrak** diren eta **berotegi efektuko gas gutxi** isurtzen dituzten sistemak.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### 1. EKOIZPENA: PERTSONENTZAT ETA PLANETA ERRESPETATUZ

#### -EKOIZPENA

- **Elikagaiak ekoiztea** vs Commodity-ak ekoiztea. Commodity-ak edo nazioarteko merkatuetan lehiatuko diren lehengaiak ekoizteak ondorio zehatzak ditu nekazaritzako elikagaien sistemetan: merkatu horien gorabeheren menpe geratzen dira, inbertsio funtsak sartzen dira, espekulazioa agertzen da, elikagaiak milaka kilometrora garraiatu behar dira, elikagaien identifikazioa galtzen da, homogeneizazioa nagusitzen da espezifikotasunaren kaltean, injerentzia eta lehia desleiala dirulaguntza gutxiago jasotzen dituzten ekoizpen ehunak dituzten herrialdeetan... Laburbildurik, gero eta anonimoagoa eta espekulatiboagoa den merkatu baten eskuetan uzten da pertsonen elikadura.

Horren aurrean, elikagaiak pertsonentzat ekoizti behar dira, **merkaturatze kanalak laburtuz**. Horrela soilik lor daiteke prezioak ekoizleentzat nahiz kontsumitzaileentzat justuak izatea, produktuen kalitatea konfiantzan oinarrituta egotea eta zakarrontzira joaten diren elikagaien kopuru ikaragarria murriztea. Azken batean, horrela soilik berma daitezke elikagaien segurtasunaren bi arloak: elikadura bermea (food security) eta elikagaien osasungarritasuna (food safety).

- Ondasun pribatuak eta ondasun publikoak ekoiztea: **multifuntzionalitatea**

Nekazaritza sektorean, ustiategi komertzialetan ekoizten diren elikagaiak merkatura eramaten dira, bertan saltzeko. Landa eremuan, ordea, gizarteak baliotsutzat jotzen dituen baina ordainduko dituen merkaturik ez daukaten beste ondasun batzuk ekoizten dira. Horra hor **bertoko landare barietateak eta abere arraza**

**autoktonoak.** Horra hor nekazaritzari lotutako erabilerak eta tradizioak, **jakintza eta zapoerak**, zaindu eta babestu beharrekoak guztiak. Eta zer esan genezake **karbono bahiketaz, paisaiak** sortzeaz edo suteak prebenitzeaz? Lanean hasi beharra dago Europako Nekazaritza Politika Bateratuko dirulaguntzen bidez ekoizpen eredu zehatz batzuek sortzen dituzten **ingurumen zerbitzuak** sustatzeko, eta ez irabazi etengabeak saritzeko.

- **Epe luzerako lehia:** sistema autonomoak vs sistema kalteberak

Lehiaz edo konkurrentziaz hitz egiten denean, dimentsioarekin, produktibitatearekin, kostuekin eta horrelako kontzeptuekin lotu ohi da. Hala ere, hori guztia lortzearen balio erantsi urria duten eta merkatuen gorabeheren menpeko kanpo-input ugari dituzten sistemak sortzen badira, sekula lehiakorrak izango ez diren sistema kalteberak sortuko dira, batez ere ezin izango dutelako luze iraun. Gaur egungo krisiak oso argi utzi du ekonomia globalizatuaren interdependentzia handia, eta pertsonen elikadura ezin da egon merkatuen gorabeheren menpe. Nekazaritza politikak **ekoizpen sistema autonomoagoak sortu behar dituzte, kanpo-inputekiko hain menpekotasun handia izango ez duten sistemak.** Izan ere, sistema horiek, **iraunkortasun ekonomiko handiagoa ez ezik, gizarte eta ingurumen iraunkortasun handiagoa ere ekarriko dute.**

- Monolaborantzaren aurrean, **biodibertsifikazioa**

Landare mota bakarreko nekazaritzaren edo abere mota bakarreko abeltzaintzaren aurrean, **dibertsifikazioa** bultzatu behar da, ekonomiaren nahiz ingurumenaren arloko arrazoiengatik.

Inolako zalantzarik gabe, kanpo-inputak saihesteko eta iraunkortasun ekonomiko handiagoa bermatzeko erarik onena dauzkagun baliabideak erabiltzea da. Baina, horrez gain, ekoizpena dibertsifikatzen bada, meteorologiari edo izurriei lotutako arriskuak gutxitu eta merkatuen gorabeherak ekiditen dira.

Agian, gaur egungo kooperatiba sare garrantzitsuak atxikimendu handiegia die statu quo-ari eta betiko laboreei. Horren aurrean, **merkatu nitxoak identifikatuko dituzten zerbitzu tekniko-komertzialak sortu beharko dira, eta ekoizleak hurbileko kontsumitzaileekin harremanetan jartzeko ekoizpen teknikak eskaini.**

- **PERTSONAK**

- **Enplegua sortzea.** Gizarte aurreratuak nekazaritzako biztanleria aktiboaren ehunekoa txikia izatearekin identifikatu ohi dira. Hala ere, hori ondorioa izaten da, eta ezin da helburua izan. Nekazaritzari lotutako pertsonen eta ekoizpen unitateen kopurua zenbat eta handiagoa izan, sektore hori indartsuagoa izango da eta funts espekulatiboen eskuetan erortzeko arriskua gutxituko da. Horregatik, nekazaritzako biztanleria aktiboa mantentzea edo handitzea bilatu behar da, **langile asko erabiltzen dituzten sistemak lehenetsiz.**

- **Gazteak erakartzea.** Inolako zalantzarik gabe, funtsezkoa da gazteak nekazaritza sektorerako erakartzea. Sektore zahartua den arren, agian ez dago estatistikek adierazten duten bezain zahartuta. Izan ere, nekazari erretiratuek titulartasun estatistiketan agertzen jarraitzen dute, erretiroa hartu ondoren ere nekazaritzan aritzen baitira, dela oso pentsio urria jasotzen dutelako, dela jarduera hori gogoko dutelako. Lurra, jarduera lizentziak edo abeltzaintzako eraikinetarako baimenak lortzeko zailtasunak direla eta, beste faktore batzuen artean, ia ezinezkoa da "sektoretik" kanpoko gazteak nekazaritzara erakartzea. Hala ere, ordezkorik ez duten nekazarien kopurua oso handia dela kontuan izanik, garrantzitsua izango litzateke sektore horretan lan egin nahi duten gazteei lekua egitea. Horretarako, landa garapenerako programetan aurreikusitako laguntzez gain, **laguntza tekniko eta juridikoaren arloko zerbitzuak sortu beharko lirateke. Zerbitzu horiek zubi lana egingo lukete, erretiroa hartzen duten nekazariak gazteen esku utz ditzaten beren instalazioak eta jakintza.**

- **Genero ikuspegia.** Nafarroako biztanleriari buruzko estatistikek datu harrigarriak eskaintzen dituzte. Generoak orekatuta daude biztanleria orokorrari dagokionez, baina landa eremuko udalerrri gehienetan emakumeen kopurua gizonena baino txikiagoa da. Badirudi nekazaritza "gizonen" kontua dela oraindik ere, eta egoera horretan landa eremuak ez du etorkizunik. **Emakumeen presentzia** bultzatu behar da landa eremuan. Nekazaritzako produktuak ustiatzean bertan eraldatzeak eta saltzeak horretan lagun dezake.
- **Nekazaritza soziala,** baserriko nekazaritza, etorkizuneko nekazaritza.
  - Ikerlan ugari frogatzen dutenez, nekazaritza mota hori ezin konta ahala elikagai sortzeko gai da eta, gainera, merkataritza sozietatei lotutako nekazaritzaren bidez nekez lor litezkeen iraunkortasun eta erresilientzia mailak ekar ditzake.
  - **Produktuen kalitate berezitua: jatorri izenak eta AGBak (Adierazpen Geografiko Babestuak).** "Diferentziaren indarrak" nekazaritza sistemai iraunkortasun maila handiagoa eskaini ahal dioten merkatu nitxo berriak sortzen lagun dezake. Izan ere, horrek bezeroak fidelizatzen ditu, kanpoko lehiaren eragina mugatzen du eta balio erantsi handiagoa sortzea ahalbidetzen du.
  - Osasunari eta sistemen iraunkortasunari lotutako kalitatea. **Nekazaritza ekologikoa** sustatzea eta genetikoki eraldatutako organismoak dituzten labore edo lehengaien erabilera baztertzea.

Atal honetan, elikagaien osasungarritasunari eragiten dioten bi ereduren arteko taldak gertatzen da, eta ez elikagaien segurtasunari dagokionez soilik. Atal honetan talkan daude hazietarako sarbide libre batetik eta patenteak nahiz material genetikoen gaineko kontrola bestetik; milaka urte dituzten elikagai ekologikoen eskaintzen duten bermea batetik eta 20 urteko historia duten organismoek osasunarentzat eta ingurumenarentzat dakartzaten arriskuak bestetik; input gutxiago nekazaritza eta nekazaritza transgeniko-kimikoa. Hala ere, eta Nafarroako kontsumitzaileen iritzia kontrako, gero eta arto transgeniko gehiago hazten da, arto ekologikoen ekoizpena erabat eragotziz.

- Konfiantza oinarritutako kalitatea: **banaketa kanal laburrak** sustatzea.
  - Tokian tokikoa balioesten ari da berriro ere. Duela gutxi egindako azterlan baten arabera, Erresuma Batuko kontsumitzaileen %70ek tokian tokiko elikagaiak erosi nahi dituzte. Sistemak tokian tokiko elikagaiz hornitzea irtenbide ona da nekazaritzako ekoizleentzat eta, gainera, lehen ekoizpenaren ondoko jarduerak bultzatzen ditu eta eragin biderkatzailea du tokiko komunitatean. Orain dela gutxi plazaratutako ikerlan baten arabera, **banaketa sistema horiek pertsonen arteko harreman sozialak indartzen dituzte; komunitate, konfiantza eta lankidetzaren sentimendua sortzen dute, enpresen artean batetik eta ekoizleen eta kontsumitzaileen artean bestetik. Halaber, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremanei esker, kontsumitzaileek hobetu ezagutu eta ulertu ahal dituzte elikagaiak, eta hori oso onuragarria da nekazaritzako jarduerentzat nahiz ingurumenarentzat.**

Bestetik, hainbat ikerlanek frogatu dutenez, banaketa mota horrek on egiten dio ingurumenari eta elikagai hondakin gutxiago sortzen laguntzen du.

## PLANETA

- **Mantenugaiak birziklatzen** dituzten sistemak. Ezin da epe luzera sinetsi kanpoko mantenugaien erabateko premia duen nekazaritza sistema batean. Zikloak ixten joan beharra dago, sistemak beren kabuz erregulatu behar dira, lurrik ahalik eta biodibertsitate handiena emanaz: landaredia, fauna osagarria, mikroorganismoak, materia organikoa...

- **Energetikoki eraginkorrak diren sistemak.** Petrolioaren menpeko nekazaritzak ez du etorkizun handirik, baliabide hori gero eta urriagoa delako. Banaketa kanal laburrek arazo hori konpontzen lagundu ahal dute.

- **Berotegi efektuko gas gutxi isurtzen dituzten nekazaritza sistemak.** Klima aldaketa gizadiaren erronka nagusietako bat da, eta nekazaritzari ere eragiten dio. Hala ere, nekazaritza sistemek kliman duten eragina aztertzeke egiten diren txostenetako asko interesatuak eta erreduktionistak dira. Lurrari eta banaketa kanal laburrei lotutako sistemek berotegi efektuko gas gutxiago isurtzen dituzten nekazaritza ereduak sustatzeko lanabesak eskaintzen dituzte.

- **Biodibertsitatea.** Gauza jakina da biodibertsitatea abiada bizian galtzen ari dela nekazaritzan. Labore motak eta haien barietateak gero eta bakanagoak dira, transnazional gutxi batzuek soilik eskaintzen dituzte eta gero eta hektarea gehiago hartzen dituzte. Nekazaritzako biodibertsitatea da muturreko fenomeno klimatikoak, izurriak eta bestelako hondamenak jasateko ahalmena bermatzen duen bakarra.

Laburbilduz, ekoizpen prozesuetan esku hartzeko orduan haien osotasun eta konplexutasun guztia hartu behar da kontuan. Gauza asko egin behar dira: kontsumo ohiturak aldatu (dietak); zaramara botatzen den janariaren ehunekoa gutxitu; aziendak gobernatzeko era, nekazaritzako errendimendua eta lurzorua kudeaketa hobetu... Horrela, giza osasuna nahiz abereen ongizatea hobetu, klima aldaketari aurrea hartu eta biodibertsitatearen galera geldiarazi ahal da.

## 2.- SEKTOREKAKO NEURRIAK

**Epe luzera helburu estrategikoez markatu behar dute nekazaritza politiken norabidea; epe motzera, berriz, helburu nagusia nekazaritza ehuna eta kalitatezko elikagaien ekoizpena bermatzea izan behar da. Zehazki, honako hauek dira planteatu daitezkeen neurrietako batzuk:**

- **Zerealak, oleaginosak eta proteaginosak (ZOP):**

- INTIA bezalako enpresa publikoen bidez ustiatzei eskaintzen zaizkien aholkularitza zerbitzuek gehiago koordinatu beharko lukete nekazaritza eta abeltzaintza atala. **Bereziki, egituratuta ez dauden eta etorkizunari begira interes handikoak diren merkatuetan dinamizatu beharko lukete koordinazio hori.**

- **Balio erantsia sortzea.** Zerealetatik deribatutako elikagaiak eta edariak eskala txikian ekoizteko ekimen arrakastatsuek garatzen ari dira, eta horrek balio erantsia sortzen du. Dena dela, prozesu horietan beharrezkoak diren etapetako batzuk irtenbiderik gabe daude oraindik, hala nola zerealen edo beste bihi batzuen barietate egokiagoen ekoizpena, prozesamendurako tarteko teknologiak, produktuak merkaturatzeko laguntzak... Horregatik, horrelako ekimenei begira funtsezkoa da I+G+B ahalegin handiagoa egitea. Bestetik, ZOP ekoizpenak nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen zuzeneko salmenta arautzen duen dekretu berrian (107/2014) sartu behar dira.

- **Europako Nekazaritza Politika Bateratuaren azken erreforman gehitu den "greening" edo ordainketa berdearen** helburu nagusia bi arazo konpontzea da: batetik, sistema hauetako dibertsitate falta; bestetik, jardunbide konbentzionalek berezkoak dituzten lurzorua emankortasun galera eta kanpo-inputetik menpekotasuna. Horretarako, bi baldintza bete behar dira zuzeneko primaren %30 kobratzeko: laboreak dibertsifikatzea (gutxienez 3 labore ezberdin 30 hektareatik gorako ustiatzeetan) eta interes ekologikoko eremuak ezartzea (lugorriak eta lekadunak). Aholkularitza zerbitzuen laguntzarekin eta koordinazioarekin, betekizun hori aukera bihurtu behar da, hau da, **nekazaritza ustiatzearen kostuak eta sojarekiko menpekotasuna gutxitzen dituzten elikagai proteikoaren bolumena handitzeko** balio behar du.

- **Frutak, barazkiak eta mahastiak**



- Fruta eta barazkien hurbileko merkatua garapen handiko eta ahalmen are handiagoko merkatua da. Hala ere, laguntzarik gutxien jasotzen dituen azpisektoreetako bat da: lehen zutabeko laguntzak Fruta eta Barazkien Ekoizleen Erakundeei ematen zaizkienez, zuzeneko laguntzetatik kanpo geratzen dira. Ekoizpen mota horrek zentzu guztietan daukan garrantzia balioetsi behar da (premia biziko produktuak, osasungarria, intentsiboa). Asteroko azoka ekoizleentzat.

- "Oraindik desagertu ez diren" eta kontsumo nitxo interesgarriak aurkitu ahal dituzten **tokian tokiko fruta eta barazki barietateekin** esperimentatzea eta horretarako aholkularitza ematea. Slow food. Nafarroako ardoak sendotzea, lurraldearen, ardo motaren eta tokian tokiko mahats barietateen araberrako desberdintasuna indargune gisa erabiliz.

- Tokian tokiko eskariari erantzuteko eta merkatu nitxo espezifikoak hornitzeko gai diren artisau upategiei eta kontserba-fabrikeri laguntzea.

- Hain arrakasta handia lortu duen ardo ekologikoaren azoka baliatzea, oso indargune garrantzitsua baita.

#### - Esnetarako behi aziendak

- Esne kuotak desagertu direnetik, esnearen prezioak oso aldakorrek dira eta, gainera, inputen prezioek ere gorabehera handiak izan dituzte. Horrek bideragarritasun arazoak sor ditzake azpisektore honetako ustiategietan. Marjinen araberrako aseguruak garatzen lagundu behar da.

- Ekoizpen eremu tradizionaletan (larreak) ekoizpen mota hori mantendu ahal izateko neurriak hartzea.

- Ekoizteaz gain behi-esnea eraldatu eta saldu egiten duten proiektuak gehiago ikusaraztea, batez ere ekoizpen ekologikoa egiten dutenak. Horrelako proiektuek bizirik irauten lagundu ahal diete ustiategi txikiak eta mendikoei.

#### - Okelatarako behi, ardi eta zaldi aziendak

- Behi, ardi eta zaldi okela ekoizten duten sistema estentsiboek produktuari balioa emateko zailtasun handiak dituzte, Adierazpen Geografiko Babestuak existitzen diren arren. Gainera, inputen prezioak direla eta, bideragarritasuna ezinezkoa da dirulaguntzarik gabe. Azienza mota horiekin lan egiten duten ustiategiek indargune handiak dituzte, hala nola bestela ezertarako ere erabiliko ez liratekeen bazka baliabideak aprobetxatzeko gaitasuna eta horrelako sistemei lotutako multifuntzionalitatea.

- Horregatik, mendiko larreak aprobetxatzeko erraztasun gehiago eman behar dira. Basoko artzaintza garatzeko akordioak bilatu behar dira basogintzaren eta ingurumenaren arloko eragileekin.

- Nekazaritzako ekoizpenak hobeto koordinatu eta araupetu behar dira, batez ere zerealen arlokoak, uztondoak eta eskortak aprobetxatuz, artzaintzak bere betiko eginkizuna betetzen jarrai dezan eta bestela alferrik galduko liratekeen baliabideak kalitate bikaineko okela bihurtzeko.

- Abere talde horiek egiten dituzten ingurumen zerbitzuak eta ekoizpen publikoak balioetsi behar dira: mendiak garbitzen dituzte, suteak eragotziz; arraza autoktonoak mantentzen dituzte; bestela ezertarako erabiliko ez liratekeen baliabideak aprobetxatzen dituzte; mendian eta eremu behartsuetan daude... Hori guztia landa garapenerako laguntzen Europako 1305/2013 Araudian jasota dago.

- Arraza autoktono eta galzorikoak babestea.

#### - Esnetarako ardi aziendak

- Ekoizpena, eraldaketa eta merkaturatzea kanal laburretan uztartzen badira, ustategi bideragarriak eta iraunkorrak garatu ahal dira, arraza autoktonoekin eta tokian tokiko baliabideekin lan eginez. Azpisektore honek hori erakutsi du azken urteotan.
- Horregatik, tokian tokiko arrazei eta baliabideei lotutako ereduak eta jatorri izenak babestu behar dira, multifuntzionalitate handia sortzen dutelako.
- Aldi berean ekoizle eta eraldatzaile diren pertsonen eredia sustatzea, epe luzera bideragarriak eta iraunkorrak diren ustategiak eskainiz baliabideei balioa ematea ahalbidetzen duelako.
- Eredu horiei eta garatu nahi dituzten gazteei laguntza tekniko-komertziala ematea.

#### - Monogastrikoak

- Arrautzatarako hegazti hazkuntza ekologikoaren arloan abian jarri diren proiektuei esker, aldez aurretik nekazaritza egitura urria zuten edo inolako egiturarik ez zuten gazteek oso proiektu interesgarriak garatu ahal izan dituzte. Horrelako ekimenek laguntza tekniko nahiz komertzial handiagoa jaso beharko lukete.
- Okelatarako hegazti hazkuntzaren eta hegazti hazkuntza alternatiboaren arloko ekimenak sustatzea.
- Txerri ekoizpena Nafarroatik kanpoko enpresa gutxi batzuetan biltzen ari da. Horren aurrean, kudeaketa ahalmena eta jarduera horri lotutako irabaziak Nafarroan mantenduko dituzten ekoizpen ereduak sustatu behar dira.

#### - Erlezaintza

- Erlezaintzan eragina duten pestizidak zaintzea eta kontrolatzea.
- Erlezainei laguntza teknikoa ematen dieten elkarrekin babestea, nekazarietako lankidetzak sustatzea eta erlezaintzan zuzenean aplikatu ahal diren ikerketa proiektuekin elkarlanean aritzea.

#### - Nekazaritza-abeltzaintza sistema mistoak

- Ingurunera egokitutako sistema misto horiei balioa emateko bideak bilatzea.

### 3.- LAN ARLOAK ETA INDARGUNEAK TRANTSIZIO HONETAN

#### - I+G+B

Nafarroako **Unibertsitate Publikoak** garrantzi handiko Agronomia fakultatea dauka. Gainera, **INTIA** enpresa publikoa nekazaritzaren eta elikaduraren arloko aholkularitzan espezializatuta dago, langileak oso ondo prestatuta daude, eta harreman estua du sektorearekin.

Sarri askotan, bi erakunde horien arteko koordinazioa ez da egokiena eta ez dago Nafarroako herritarren beharretara bideratuta.

Horren aurrean, **hala ikerkuntzan nola esperimentazioan eta aholkularitzan**, baztertu egin behar dira herritarrek eskatzen ez dituzten eta ekoizpen eredu ekologikoen aurrerapena eragozten duten ildoetara bideratutako ahaleginak eta baliabideak (genetikoki eraldatutako organismoak). Horren ordez, **orain arte garatu ez diren eta, herritarren aldetik eskaria izateaz gain, gizarteari alternatiba autonomoagoak, askotarikoak, tokian tokikoak eta ingurunera egokituak eskaintzen dizkieten lan ildoak** lehenetsi behar

dira.

Hazi Sarea bultzatzea. Ekoizleen eta kontsumitzaileen helburuak lehen aipatutako zentroekin koordinatzea, hazi eta landare autoktonoei eta merkatu nitxo interesgarriak izan ditzaketen baina ekoizpen eta banaketa egituraren ondorioz garatzen ez diren laboreei lotutako lan ildoak lehenesteko.

#### - EKOIZPENA, ERALDAKETA ETA MERKATURATZEA

Eraldaketarako eta ekoizpenerako laguntzetan nekazari eta abeltzainei lehentasuna ematea. Era berean, laguntza bereziak ematea ingurumena eta habitata zaintzen dituzten, larreak eta mendiak garbitzen dituzten eta horrela suteei aurre egiten dieten abeltzain eta nekazariei.

Muga natural argiak dituzten eremuen aldeko diskriminazioa (mendia).

Produktu ekologikoak eta landare nahiz abere barietate autoktonoak lantzen dituzten nekazari eta abeltzainei laguntzea. Tokian tokiko barietateen ekoizleak eraldaketa eta banaketa industriarekin koordinatzea.

Nafarroako kooperatibek ekoizpenaren arlo gehienak hartzen dituzte eta oso lan garrantzitsua egin dute. Hala ere, espezializazioan, dimentsioan, produktibitatean eta esportazioan oinarritutako nekazaritza ereduak betikotzera jotzen dute. Bestetik, kalitate handiko elikagaiak (ekologikoak) eta hurbileko kontsumitzaileak helburu dituzten **ekimen txikiak** sortzen ari dira **hala eraldaketaren arloan** (esnekiak, okela eta beste produktu batzuk eraldatzeko kooperatibak) nola **merkaturatzearen arloan** (kontsumo taldeak eta kooperatibak). Gainera, ekimen horietako batzuk negozio alternatiba zailak dituzten mendialdeetan daude. Laguntza handiagoa eman beharko litzaieke ekimen horiei.

Beste eredu batzuek (esnetarako eta gaztatarako ardi aziendak, esaterako), eraldaketari eta zuzeneko salmentaren bidezko banaketari esker, balioa ematen diete tokian tokiko baliabideei (abere arrazak, mendiko larreak, tokian tokiko jakintza) eta oso eredu iraunkorrak sortzen dituzte. Interesgarria litzateke **eredu horiek nekazaritzako beste ekoizpen batzuetara hedatzea**.

Zuzeneko salmenta eta merkaturatze kanal laburrak kontuan hartu beharreko alternatiba gisa aipatzen dira Europako Nekazaritza Politika Bateratuko araudi berrietan. Nafarroan orain dela gutxi onartu da **merkaturatze mota hori arautzen duen dekretua (107/2014 Foru Dekretua)**, baina atakatik irteteko egindako dekretua dirudi, eta ez benetako asmo adierazpena. Errolda ez ezik, dekretu horrek **laguntza finantzarioa, teknikoa eta komertziala** ere izan beharko luke.

Orain dela gutxi, Europar Batasunak nekazaritzako elikagaiak etiketatzeko araudia aldatu du. Zehaztasun eta argitasun handiagoa exijitzen du elikagaien osagaien dagokienez, baina ez ditu aintzat hartzen herritar askorentzat garrantzitsuak izango liratekeen hainbat gauza, hala nola genetikoki eraldatutako organismoen erabilera, balio kateko prezioak eta beste. **“Etiketa garden”** bat sortzeko aukera aztertu beharko litzateke. Etiketa horrek, osagaiak edo BEZa ez ezik, elikagaiak edo haren osagai nagusiak kate osoan zehar egin dituen urrats guztiak ere jasoko lituzke.

Landa garapenerako elkarrekin eta udalekin elkarlanean, **tokian tokiko azokak** mantentzeko eta suspertzeko proiektuak garatuko dira.

**Eraldaketa zentroen sare bat** antolatuko da lurralde osoan, ekoizpenaren eraldaketa eta merkaturatzea errazteko eta, horrela, nekazariak autonomia irabaz dezaten. Sareak askotariko eraldaketak egiteko zerbitzu bat eskainiko du (barazkiak, esnekiak, fruta, okela...). Tokian tokiko ekintza taldeek kudeatuko dute.

#### - PRESTAKUNTZA, INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Prestakuntzan garrantzi handia eman behar zaie **nekazaritzarekin eta ingurumenarekin** zerikusia duten gaiiei. Horrela, titularrak etorkizuneko nekazaritzarako prestatuko dira.

**Emakumeentzako eta nekazaritzako produktuen eraldaketa eta merkaturatze proiektuetarako** ikastaro bereziak antolatuko dira.

Hutsune handiegia dago nekazaritza munduaren eta kontsumitzaileen artean. Laguntzak eskuratzeko moduari buruzko **prestakuntza** ikastaroak eskaini behar zaizkie nekazariari. Kontsumitzaileentzako prestakuntza ere eman beharko litzateke (komunikabideak).

Lurralde eta kultura bakoitzeko **gizarte ekinbide kolektiboak dinamizatu** behar dira, komunitateen eta tokian tokiko ingurumenaren arteko loturak indartzeko. Horrela, gainera, beste logika baten arabera berreraikiko lirateke tokian tokiko ekonomiak, bizitza ekologikoa nahiz gizakiena babestuz

**Hazi eta produktu transgenikoen** erabilerari dagokionez, moratoria bat ezartzea proposatuko dugu, zuhurtasun printzipioa argudiatuz. Era berean, genetikoki eraldatutako organismoak dituzten produktu guztiak etiketatzea exijituko dugu, merkaturatu ahal izateko baldintza gisa. "Transgenikorik gabeko" eremuak sustatu eta babestuko ditugu.

#### - TRANTSIZIO HONETAN EZIN AHAZTUZKOAK...

- Europako Nekazaritza Politika Bateratua tresna bikaina da trantsizio hau gidatzeko. Oraindik ere, tresna horrek hektarea kopuruaren eta nekazaritzako statu quo-aren arabera saritzen ditu nekazaritza ereduak. Funts gehienak lehen zutabearen daude eta haren kudeaketa ez dagokio Nafarroako Foru Erkidegoari, baina, hala ere, funtsak banatzeko beste era batzuei buruz eztabaidatzen hasteko unea da, pertsonari garrantzi handiagoa emanez.

- Nafarroako Foru Erkidegoaren autonomia fiskala oso mugatua da zeharkako zergei dagokienez. Hala ere, ingurumen fiskalitatearekin lotutako kontzeptuak lantzen hasi beharra dago. Ildo horretan, zeharkako zergak murriztu behar zaizkie ingurumenarentzat eta pertsonen osasunarentzat onuragarriak diren eredu eta proiektuei, eta zerga gehiago ezarri behar zaizkie ingurunea zikindu eta pertsonak gaixotzen dituztenei.

10  
BASO  
POLITIKA



## BASO POLITIKA

### IDEIA NAGUSIAK

Basoa zura baino askoz gehiago da. Horregatik, baso politikek lurralde bakoitzeko ahalmen guztiak aztertu behar dituzte eta baliabide naturalen ustiapen iraunkorrari lotutako jarduera ekonomikoen dibertsifikazioa ekarri behar dute, honako helburu hauekin: biodibertsitatea kontserbatzea eta hobetzea, berotegi efektuko gasen isurpenak gutxitzea, atmosferako CO<sub>2</sub>-a finkatzea (klima aldaketa arintzea), aberastasuna eta enplegua sortzea eta pertsonen ongizatea hobetzea. Gainera, baso masa gutxitzeak eragina izango luke plubiometrian (uraren zikloak).

Hori izango litzateke helburu nagusia, baina beste helburu batzuk ere baditugu:

- giza jarduerak basoetan, ibaietan eta mendietan dituen inpaktuak aztertzeko proiektu eta ikerlanetan nazioarteko eta instituzioen arteko elkarlana sustatzea.
- artzaintzak, mendiko abeltzaintzak eta basogintzak ingurumenean duten eragina zehazteko azterlan sakonak egitea, epe ertain eta luzera begira jarduera horiek iraunkorrak izatea lortzeko.
- larrerik onenak kontserbatzea, hobekuntza lan gehienak bertan eginez. Horrekin batera, beren kabuz berritzen utziko zaie marjinalak edo lantzeko desegokiak diren eta bazter utzita dauden larre zaharrei.
- zur nobleko zuhaitz espezieek (haritza, lizarra, gaztainondoa, makala, intxaurrendoa) hartzen duten baso azalera %10 eta %20 bitartekoa izatea, basoen ustiapenaren bidez etorkizunean lor daitezkeen diru sarrerak handitzeko.
- biodibertsitate galera geldiaraztea (habitat naturalak, basa flora eta faunako espezieak, funtsezko prozesu ekologikoak), bereziki jabetza publikoko baso eta ibai ekosisterei dagokienez.
- flora eta fauna espezie mehatxatuen eta babestuen populazioak leheneratzea, batez ere galzoriko espezie gisa katalogatuta daudenenak.
- lursail publikoetan eukaliptoak eta ingurumenarentzat arriskutsuak diren espezie exotikoak landatzea debekatzeko aukera aztertea.
- basoak ustiatu ahal izateko egin behar diren tramiteak (markazioetatik hasita) eta basogintzako inbertsioetarako laguntzak emateko eta likidatzeko burokrazia arintzea eta sinplifikatzea. Markazioetarako, balorazioetarako, kontserbaziorako eta gainerako lanetarako giza baliabideak eta baliabide materialak bermatzea.
- ekonomiaren, ekologiaren nahiz gizartearen ikuspegitik lehiakorra eta iraunkorra izango den mendiko abeltzaintza baten aldeko politikak sustatzea.
- tokian tokiko biomasaren erabilera sustatzea edo, beste era batera esanda, zirkuitu laburrak bultzatzea, haranetan enplegua eta aberastasuna sortzeko. Horretarako, energiaren arloko autonomia handiagoa ematea, berotegi efektuko gasen isurpenak nabarmenki gutxitzea eta habitat nahiz espezieen kontserbazio egoera ona bermatzea.

- erregulazio mikologikorako formulak bilatzea, inplikaturako pertsona guztiek onartuak eta landa garapenerako proiektuak aktibatzeneko lagungarriak.
- mendiei lotutako baliabide natural eta kulturalen balioa nabarmentzea, Nafarroan kalitatezko ekoturismoa sustatzeko eta gure lurraldea horretan erreferentea izan dadin.
- herrien arteko antzinako komunikazio sareak berreskuratzea. Izan ere, ibiltzea osasungarria da, baliabide gutxi eskatzen ditu eta ez du kutsatzen.
- Nafarroako mendietako biodibertsitatea mantentzea, ehizako espezieak babesten laguntzeko, batez ere espezie babestuak.

## ONARRI IDEOLOGIKOAK

Azken hamarkada hauetan aldaketa handiak gertatzen ari dira landa ingurunean. Jarduera tradizionalak ez dira desagertu, baina krisian daude. Garai berri honetan, indarra hartzen ari dira lehengo osagarri diren beste jarduera batzuk, eta baliteke dibertsifikazioa, espezializazioa eta balio erantsia izatea bestelako landa ekonomia bat bultzatuko dutenak, prozesu naturalak kontu handiz zainduko dituen landa ekonomia bizi eta lehiakor bat.

Orain dela zenbait hamarkadatar arte, Nafarroako herri-basoetako zuraren eta bestelako baliabideen ustiapenak diru sarrera handiak ekarri zizkien jabeek. Diru iturri nagusiak zuraren ustiapena, ehiza eta larreen aprobetxamendua ziren.

Halaber, jarduera horiek enplegu eta aberastasun iturri nagusia ziren haran askotan. Industrializazioa iritsi zenean, ordea, landa inguruneako pertsona asko hirietara joan ziren; beste batzuk haranetan geratu ziren, baina industria sektorean lanean.

Mendi eremuetako abeltzaintza apurka-apurka desagertu izanak hainbat ondorio ekarri ditu. Besteak beste, paisaia izugarri aldatu da, zuhaitzez estalitako azalera %20 baino gehiago handitu baita azken bost hamarkadetan.

Basogintza tradizionalari dagokionez, toki-erakundeek basoko produktuen salmentaren bidez jasotzen duten diru kopurua lehengoaren erdia baino gutxiago da orain, eta dagoeneko diru sarrera horiek ez dira hain garrantzitsuak udalentsat.

Era berean, Nafarroako toki-erakundeek ia %100ek mendian hobekuntzak egiteko inbertitzen dituzte basogintzako diru sarreraren %30 baino gehiago (batzuek %80-100). Jarduera horiek oso etekin urriak ematen dituztela kontuan izanik, basogintzaren sektorerako laguntzak funtsezkoak dira mendiak kontserbatzeko eta jarduera tradizional horrek landa ingurunean aberastasuna eta enplegua sortzen jarrai dezan.

Bestetik, sarri askotan, basoak kudeatzeko eredu publiko nahiz pribatua produktibitatea soilik bilatzen duten politika intentsiboetan oinarritu da, biodibertsitatearen kontserbazioa alboratuz. Horrela, basa flora eta faunako populazio egonkorak eta osasuntsuak gordetzeko gai diren baso heldu eta konplexuak landatzea eragotzi da, eta horrek guztiak habitat naturalen eta espezie populazioen jaitsiera, sinplifikazioa, isolamendua eta fragmentazio ekologikoa eragin du.

Bestetik, baso suteak prebenitzeko eta biodibertsitatea mantentzeko, gaur egun erregai ereduaren arriskuak murriztuko dituzten baso tratamenduak egin behar dira, batez ere klima mediterraneoko eremuetan. Isurialde atlantikoari dagokionez, berriz, iratzedien aprobetxamendua sustatu behar da. Halaber, FSC zigilua garatu beharko litzateke, gizarte eta ingurumen erakundeek abala baitauka.

Baso azalera ordenatu eta ziurtatuari dagokionez (PFEC zigilua), gaur egun Nafarroa erreferentea da estatu osoan.

Hala ere, toki-erakunde askok esan dute planifikazio dokumentu horiek basoen kudeaketan soilik oinarritzen direla eta ez dutela ahalbidetzen mendiaren ahalmen guztiak aztertzea. Hala egingo balitz, biodibertsitatea kontserbatzeko kudeaketa integralagoa egin ahalko litzateke.

Zuraz bestelako ustiapenei dagokienez, esperientzia onak daude hainbat arlotan: erregulazio eta aprobetxamendu mikologiko iraunkorra (Ultzamako Parke Mikologikoa), ekoturismoa (Irati, Orgiko Aisialdirako Eremu Naturala...), erlezaintza, basoko produktuen ustiapena, sendabelarrak, garai bateko komunikazio bideen berreskurapena (Basaburuko, Odieta eta Lizarraldeko bide naturalak...), eta eraikin etnografiko-historikoak (bordak, karobiak, burdinolak...). Horrelako jarduerak goraka ari diren erabilerak garatzeko ahalmena duten lurraldeetara hedatu beharko lirateke.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### 1.- LURRALDE PLANGINTZA

1.1.- Eskualdeko Plan Estrategikoak egitea. Plan horiek kontuan izango dute gaur egungo egoera sozioekonomikoa eta, beste gauza batzuen artean, baliabide naturalek natur ingurunea zainduko duen ekonomia iraunkor bat sortzeko daukaten ahalmena aztertuko dute. Horretarako, behar-beharrezkoa da eragile sozioekonomiko guztien eta instituzioen inplikazioa. Halaber, planak hainbat erakunderen artean finantza daitezke (toki-erakundeak, administrazioa, landa garapenarekin lotutako eta konprometitutako elkarte pribatuak).

1.2.- Mugikortasuna hobetzea. Neurri handi batean, landa eremuetan eta hiri inguruetan mugikortasuna errepideko garraio pribatuaren menpe dago. Begirada karbonorik gabeko etorkizun batean jarrita, garraio formula berriak sustatuko dituzten Eskualdeko Mugikortasun Planak egin beharko lirateke.

### 2.- BASO PLANGINTZA ETA KUDEAKETA

2.1.- Baliabide naturalak antolatzeko proiektuak lantzea, haien irismena eta helburuak aldeztuz.

Proiektu horiek aprobetxamendu eta hobekuntzetarako plan bereziak izan daitezke, edo baliabide naturalak antolatzeko proiektu integralak. Azken horietan sakonki aztertu behar dira basogintzaren, abeltzaintzaren, ekologiaren eta turismoaren arloko baliabideak. Halaber, baso masei esker xurgatzen den CO2 kopurua kuantifikatu beharko litzateke.

2.2.- Baso-lanetarako laguntzak mantentzea, bi helburu nagusirekin: baso-lanei lotutako enpresa ehuna modernizatzea eta bultzatzea, eta basoari bere osotasunean on egitea.

2.3.- Mikologiaren arloko erregulazio bat abian jartzeko aukera aztertzea, perretxiko bilketa jarduera onartua eta iraunkorra izan dadin.

2.4.- Biomazaren erabilerarako eskualdeko eta tokiko planak egitea, bi helburu nagusi hauekin: gaur egungo nahiz etorkizuneko eskaintza eta eskaria aztertzea, eta mendietatik ateratzen den biomazaren parte bat 0 kilometrora kontsumitzea. Edonola ere, baso osoak moztea eragotzi behar da, batez ere baso primarioak.

2.5.- Balio erantsi handiko zura daukaten espezie enblematikoek (haritza eta gaztainondoa, besteak beste) lehen hartzen zuten azalera berreskuratzeko planak egitea. Nafarroan oso ugariak dira horretan interesatuta dauden toki-erakundeak.



2.6.- Basoberritze politika argiak egitea, irizpide ekologikoak, sozialak eta baso ekonomiakoak oinarritzat hartuz. Politika horien bidez espezie jakin batzuen erabilera bultzatuko litzateke, eta beste batzuenaz baztertu. Kontuan izan behar dugu Nafarroan egin diren basoberritzeen ia %50ek porrot egin dutela eta egoera jasanezin hori konpondu beharra dagoela. Horretarako, funtsezkoa izango da Nafarroan Basoberritzeen Erregistro bat egitea.

2.7.- Berme Markak sortzea, PEFC edo FSC zigiluaren osagarri gisa. Zurezko produktuek daramaten bereizgarri horrek bermatu egiten du haien jatorria mendi eta basoen kudeaketa iraunkorra dela. Kalitatearen erreferente bat da, zura buruan daukatenen itxaropenak gainditzea bilatzen duena.

2.8.- Baso Ustiapenen Erregistroa sortzea, haren bidez erreklamazioak edo kontsultak egin ahal izateko (eskaera data, aurreikusitako markazio eta lizentzia data, lotearen adjudikazioa...). Azken helburua itxaronaldiak laburtzea eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea izango da.

2.9.- Tokian tokiko materialak erabiliz (zura, lastoa, buztina...) egiten den bioeraikuntza babestea, zuzeneko edo zeharkako laguntzen bidez (zerga kenkariak).

Jarduera horrek eskualde guztietan enpresa espezializatu berriak sortzeko aukera eman dezake. Gainera, eraikitze kostuak murriztu eta berotegi efektuko gasen isurpenak gutxituko lirateke.

2.10.- Haran guztietan basa bizitzarako Baso (eta ibai) Erreserba babestuak sortzea eta haien segimendua egitea. Erreserba horiek berezko eboluzioa izango lukete, naturala, gizakiaren esku-hartzerik gabe. Nafarroako basa bizitzaren gordailuak izango lirateke.

2.11.- Banku genetikoak eta mintegiak sortzeko aukera aztertzea, galzorian dauden edo egon daitezkeen zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak berreskuratzeko eta mantentzeko.

### 3.- ABELTZAINZA PLANGINTZA

3.1.- Tokian tokiko abeltzaintza azpiegiturarako laguntzak berreskuratzea.

3.2.- Ekoizpen ekologikoa eta zuzeneko salmenta bultzatzea, legedian beharrezkoak diren aldaketak eginez.

3.3.- Eskualdeko hiltegiak berreskuratzea.

3.4.- Mendi eremuetako ustiatzearen modernizazioan inbertsioak egiteko laguntzak.

3.5.- Arraza autoktonoak mantentzeko laguntzak (behi piriniotarra, betizua...).

3.6.- Herri-basoetan kudeaketa ekologikoko mendi-larreak ezartzeko laguntzak.

### 4.- AKTIBO NATURALEI LOTUTAKO TURISMO PLANGINTZA

4.1.- Garai bateko komunikazio bideak berreskuratzeko eta Nafarroako Bide Naturalen Sarea sortzeko laguntzak. Horretarako, mendi-ibilien arloan oso tradizio luzea duten herrialdeetako esperientzia hartu beharko litzateke oinarritzat (Suitza, esaterako).

4.2.- Gure mendietako, haranetako eta eremu babestuetako aktibo natural eta kulturaletan oinarritutako produktu turistikoak sortzea (zuhaitz espezieak, basogintza, erabilera tradizionalak nahiz indarra hartzen ari direnak...). Horrela, eskaintza dibertsifikatuko da eta interesgarriagoa izango da.

4.3.- Mikoturismoa sustatzea, ibilaldi mikologikoen eta gastronomiaren bidez.

4.4.- Dibulgazioa eta ingurumen hezkuntza: Nafarroan baso-eskola bat sortzea. Baso-eskolaren helburua Aire Zabaleko Haur Hezkuntza eredia sustatzea eta ezagutaraztea da. Oso eredu berritzailea da, ikasgela natura bera baita. Jarduera guztiak basoan edo mendian egiten dira. Haurrek aire freskoa amasten dute, lasterka ibiltzen dira, zuhaitzetara igotzen dira, jolasak asmatzen dituzte, ikasten dute, elkarrekin egoten dira eta aire librean hazten dira.

## 5.- BASOAK ETA KLIMA ALDAKETA

5.1.- Nafarroako ahalik eta toki-erakunde gehien Alkateen Itunari atxikitzea.

5.2.- Berotegi efektuko gasen inbentarioak egiten dituzten, beren isurpenak gutxitzen dituzten eta Nafarroako baso hustulekueetan konpentsatzen dituzten Enpresen Nafarroako Erregistroa sortzea, sustatzea eta ezagutaraztea. Ekimen horren bidez enpresa garbien garapena sustatuko litzateke eta enpresa garbiek babestutako baso jarduera asko finantzatu ahalko lirateke.

Neurri hori Estatuko Klima Aldaketa Bulegoak abian jarri duenaren osagarria izango litzateke.

## 6.- TEKNOLOGIA BERRIAK

6.1.- Telekomunikazio sareetarako sarbidea bermatzea. Gaur egun, telekomunikazio sareak erabiltzea (bereziki Internet) gizarte osoaren beharra da, eta aurrerapen bektorea aldi berean. Hala ere, landa eremu gehienetan ez dago kalitatezko sarbide egonkorrik eta, arazo hori konpontzeko, landa eremuetako biztanleentzat oso garestiak diren ekipoak eta kudeaketa elementuak instalatu ohi dira.

6.2.- Software librearen garapena eta erabilera sustatzea baliabide naturalak inbentariatzeko, kudeatzeko eta ezagutarazteko. Horri esker, geoteknologien ezarpen eta kudeaketa kostuak gutxitu ahalko dituzte eskualdeko eta tokiko erakundeek, enpresek eta administrazioak.

## 7.- UR BALIABIDEAK

Ur baliabideei arreta berezia eskaintzea. Iturriak, ubideak eta errekek leheneratzeko eta egoera ezin hobean kontserbatzeko plan integralak egitea.

11

LURRALDE  
ANTOLAKETA



## LURRALDE ANTOLAKETA

### OINARRI IDEOLOGIKOAK

Garapen iraunkorrak Europako Lurralde Estrategiak ezarritako helburuak bete behar ditu (kohesio sozioekonomikoa, baliabide naturalen eta kultur ondarearen kontserbazio hobea, eta lehiakortasun orekatuagoa). Hori lortzeko, ingurumenaren kudeaketa eta baliabideen erabilera eraginkorra ezinbestekoak dira eta, beraz, gaur egungo legedia betetzeko eta ingurumen helburu egokiak definitzeko eta erdiesteko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira. Ingurumen helburuak honako hauek izan behar dira: lurraldea ondo antolatzea, ingurumena babestea eta Nafarroako herritarren bizitza nahiz jarduera produktiboak garatzea.

Gaur egun, Nafarroako lurralde antolamenduak bi oinarri ditu: makroproiektuak egitea eta pertsonak nahiz jarduera produktiboak Iruñerrian metatzea, Nafarroako gainerako eskualdeen kaltean. Hori baztertu eta Nafarroako herri eta eskualde guztien garapen orekatuan oinarritutako eredu batera pasatu behar da.

Eredu berria tokiko garapen sozioekonomikoan oinarritu behar da, Nafarroako lurralde osoan proiektu txikiak bultzatuz. Proiektu horiek eremu bakoitzeko ahalmen eta beharretan oinarrituko dira eta ingurumena zaindu eta babestuko dute. Gainera, tokian tokiko erakundeen, eragile sozial eta sindikalen eta biztanleen parte-hartzea ezinbestekoa izango da.

Energia ereduak honako oinarri hauek izan behar ditu: kontsumoa gutxitzea; energia berriztagarriak bultzatzea; ekoizpena, banaketa eta kontsumoa deszentralizatzea; eskala txikiko proiektu autogestionatuak sustatzea; eta norbanakoek nahiz gizarteak proiektuetan parte hartzea.

Halaber, energiari dagokionez ezinbestekoa da eraginkortasunaren aldeko apustu sendoa egitea, honako arrazoi hauengatik: erregai fosilekiko menpekotasuna oso handia da (beraz, gutxitu egin behar da), datozen urteetan energiaren kostuak igoko dira, eta energia eraginkortasunari buruzko araudia lantzen hasia da. Bestetik, energia berriztagarriek eta eraginkortasun energetikoak oso onarpen zabala dute gizartearen eta enpresen aldetik, eta eraikinen kalifikazio energetikoa beharrezkoa da. Europar Batasuneko Egitura Funtsak tresna egokia izan daitezke eraginkortasun energetikoa hobetzeko.

Garraioa funtsezko jarduera da gure gizartearen. Nafarroako Foru Erkidegoko administrazioak, bere politiken bidez, pertsonen nahiz salgaien garraiorako sistema eraginkor eta iraunkor bat mantendu eta garatu behar du. Nafarroa kohesionatu ahal izateko, mugikortasun behartua alboratuko duen garraio politika publiko argia eta ausarta behar dugu. Bidaiarien garraio publikoa lurraldea egituratzen duten elementuetako bat da, eta hala ulertu behar da.

Nafarroak ez dauka errepideko garraioa arautzen duen legedi integraturik, ezta mugikortasun iraunkorrari buruzko legerik ere. Aurreko legegintzaldian gobernuak lege hori aurkeztu zuen, baina azkenean erretiratu egin zen.

Hiriarteko garraioa arautu beharko lukeen plana (PITNA, Nafarroako Foru Erkidegoko Hiriarteko Bidaiari Garraiorako Plan Integrala) garatu gabe dago eta haren aplikazioa behin eta berriro atzeratzen da, Nafarroako gobernuak inoiz ez duelako horretarako borondate politikorik izan.

Nafarroan, hiriarteko garraiorako kontzesioak iraungita daude, Europako kontzesio araudia urratuz (1370/2007 Araudia). Bestetik, erregai fosilekiko menpekotasuna gainditzera jo behar da (Nafarroako energia kontsumoaren %35 gaur egun). Horretarako, kalitatezko garraio publikoa eskaini behar da, benetako beharretara egokitua,

integrala, lurraldearen kohesionatzailea eta ibilgailu partikularra baino erakargarriagoa eta erosoagoa. Azkenik, CO2 isurpenak gutxitu behar dira, nazioarteko araudiak ezarritako helburua betetzeko.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

- **Nafarroaren garapen sozioekonomikoa herri eta eskualdeen garapenean oinarritu behar da.** Horretarako, lurralde garapenaren behatokia sortuko da, Nafarroako eremu guztien garapena bultzatzeko. Haren eginkizunak honako hauek izango dira: garapen agentzia guztiak koordinatzea (Cederna Garalur, Sakanako Garapen Agentzia, TEDER, Erdialdeko Garapen Partzuergoa, EDER eta sor daitezkeen guztiak), sinergiak sustatzea, aholkularitza teknikoa ematea, esperientziak eta ezagutzak trukatzeko, garapen planak egitea eta Nafarroako gobernuko beste arlo batzuei ideiak eta proiektuak proposatzea.
- **Landa garapenerako plana.** 2014-2020rako Landa Garapenerako Planari ematen zaizkion Europako dirulaguntzak banatzeko irizpideak berrantolatzea. Ingurumena gehiago errespetatuko duten eta ekoizpen, banaketa eta salmenta zikloetan parte hartzen lagunduko duten laguntzak diseinatzea.
- **Parke naturalak eta Kontserbazio Bereziko Eremuak.** Legea betetzea eta parke naturalak garatzea.
- **Bardeetako tiro poligonoa** desegitea.
- **Lurralde antolamendurako planak.** Funtsak beste era batera banatzea eta lurralde antolamendurako planak berrantolatzea. Nafarroako Pirinioaren egoerari dagokienez, garapen eta enplegu estrategia iraunkor bat diseinatu da. Horretarako, lurralde antolamendurako planak iraunkorrak izango dira, Pirinioaren autogestioa ahalbidetuko dute eta ingurumen fiskalitate espezifiko ezarriko dute.
- **Agroekologia sustatzea.** Produktu ekologikoen bankua sortzea. Transgenikorik ez.
  - **Produktu ekologikoak.** Produktu ekologikoen ekoizpenerako eta zuzeneko salmentarako laguntzak.
- **Obra eta azpiegitura handien kudeaketa.**
  - **Itoiz, Nafarroako ubidea.** Lehen fasearen bukaerarako eta handitzerako moratoria.
  - **Jurramendiko ura ateratzeko PSIS proiektua.** Etetea edo bertan behera uztea.
  - **AHT.** Nafarroan obrak berehala gelditzea.
  - **Autobideak.** Nafarroako autobideen eta autobien ustiapen eta mantentze kostuak berraztertzea eta horri buruzko informazioa ematea. Itzalpeko ordainsarien auditoria.
  - **Los Arcosko zirkuitua.** Gastuen auditoria egitea eta beste kudeaketa eredu bat proposatzea.
  - **Nafarroa Arena.** Egon diren gastuen auditoria egitea eta etorkizuneko bideragarritasuna aztertzea.
  - **Autobide elektrikoa.** Proiektua atzera botatzea.

### ENERGIA

- **Energia eredu berria.** Energia eredu berri bat sustatzea oinarri hauen gainean: eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarriak, ekoizpen eta banaketa dibertsifikatua, oligopoliorik ez.

- **Energia plana.** 2020rako Nafarroako Energia Plana aldatzea, haren helburuak egokituz eredu berrira igarotzen laguntzeko tresna izan dadin.
- **Energia kudeatzeko sistemak.** UNE-EN ISO 50001 araua betez Energia Kudeatzeko Sistemak ezartzea, honako helburu hauekin: enpresen, industrien, saltokien, nekazaritzaren, zerbitzuen eta administrazioen energia eraginkortasuna sustatzea eta, horren bidez, dirua eta energia aurrezte eta ingurumena hobetzea.
- **Energia auditoriak.** Administrazioarekin kontratuak egiteko betekizun gisa aplikatzea eta batez ere eraikin publikoetan egitea. Energia auditoriak egiteko dirulaguntzak.
- **Energia kooperatibak.** Mota guztietako kooperatibak sortzea eta garatzen laguntzea.
- **Politika fiskala.** Energia aurrezpena, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera sustatuko duen politika fiskal bat garatzea, jardunbide horiek sektore guztietan bultzatuz.
- **Fracking.** Fracking-ari ez!
- **Konpromisoak.** Gure konpromisoak honako hauek dira:
  - eraginkortasun energetikoaren aldeko konpromisoa.
  - energia burujabetzaren aldeko konpromisoa.
  - tokian tokiko merkataritza eta ostalaritza bultzatzeko konpromisoa.
  - energia berriztagarrien aldeko konpromisoa.
  - energia eredu berri bat garatzea helburu duten proiektuen aldeko konpromisoa.
  - Tokiko Garapenaren aldeko konpromisoa.
  - kontzientziazioaren aldeko konpromisoa.
  - erakundeen arteko akordiorako eta lankidetzarako konpromisoa.
- **Ikerkuntza, Garapena eta Berrikuntza (I+G+B).** Europako ikerkuntza, garapen eta berrikuntza teknologikorako programak sustatzea eta haietan parte hartzea.
- **Informazioa, parte-hartzea eta kontrol soziala.** Parte-hartzea eta kontrol soziala sustatzea eta ziurtatzea energiarekin zerikusia duten gaietan. Energiak aztarna ekologikoan duen eragina baloratzea. Parte-hartze prozesu baten bidez Energia Trantsizio eta Burujabetzarako Plan bat diseinatzea, Klima Aldaketaren aurkako Ekintza Plana eta Peak Everything (energia baliabideen ekoizpen erpina) erreferentziatzat hartuz.
- **Energia faktorea.** Hirigintzan eta lurralde antolamenduan energia faktorea txertatzea (murrizketa, eraginkortasuna eta iturri berriztagarriak), horretarako beharrezkoak diren baldintzak ezarriz.

## MUGIKORTASUNA

- **Mugikortasun iraunkorrerako plana.** Nafarroako Foru Erkidegoko Hiriarteko Bidaiari Garraiorako Plan Integrala egitea, Nafarroa egituratzeko eta kohesionatzeko helburuarekin.

- **Txartel bakarra.** Nafarroako garraiobide guztietan txartel bakarra ezartzea, pertsona bakoitzaren errenten araberako tarifa sozialekin (Gizarteratze Errenta) eta, besteak beste, gazteei eta langabeei tratamendu berezia emanez.
- **Metrobusa.** "Metrobusa" sortzeko aukera aztertzea.
- **Kanpoaldeko aparkalekuak.** Kanpoaldeko aparkaleku publikoak egiteko aukera aztertzea.
- **Bidegorriak.** Garraio iraunkorrerako azpiegitura berriak egitea, batez ere bidegorri sare handi bat eta oinezkoen pasabideak.

## ETXEBIZITZA

- Pobrezia energetikoari aurre egiteko berehalako neurriak hartzea.
  - Etxebizitza hutsen errolda sortzea.
  - Nafarroako Gobernuaren alokairurako etxebizitzaren parke publikoa kudeatzeaz arduratuko den sozietate publiko bat sortzea.
  - Nafarroako Gobernuaren alokairurako etxebizitzaren parkea handitzea.
  - Etxebizitzak adjudikatzeko baremazio berri bat abian jartzea. Lehentasunezko faktoreak familia unitate bakoitzeko kide kopurua eta diru sarrerak izango dira. Alokairua inoiz ez da izango familia unitatearen diru sarreraren %30etik gorakoa. Alokairu soziala %15etik beherakoa izango da beti.
  - Diru publikoarekin eraikitzen diren etxebizitza guztiak alokairu sozialekoak izango dira, diru publikoaren pribatizazioa erabat baztertuz.
  - Etxebizitzari buruzko lege propio bat egitea, etxebizitza oinarritzko eskubidetzat hartuz. Horri dagokionez, ez da lege berririk behar: Espainiako Konstituzioak horixe bera dio, baina ez da betetzen.
  - Etxebizitza hutsen gaineko zerga berriak sortzea, kanon bat, alokairua sustatzeko helburuarekin.
  - Bankuen etxebizitza hutsak desjabetzeko edo alokairu sozialean jartzera behartzeko neurri juridikoak ezartzea.
  - Eraikitzaileei baldintza zorrotzak jartzea, prezioak kontrolatzeko helburuarekin.
  - Alokairua sustatzeko neurri fiskal espezifikoak ezartzea, erosketarako neurriak gutxituz. Gobernuak etxebizitzaren jabeen ziurtatu beharko lieke alokairuak kobratuko dituztela eta etxebizitzak egoera onean itzuliko zaizkiela.
  - Etxebizitza kooperatibekin elkarlanean etxebizitza mota berriak aztertzea.
  - Okupazioa despenalizatzeko eta erregulatzeko prozesu bat abiatuko da gai horretaz arduratzen diren eragileekin batera.
  - Etxe kaleratzeak ekiditeko hartu ahal diren neurri guztiak hartzea, finantza erakundeekiko harremanak sakonduz eta egoera bakoitzerako irtenbideak bilatuz.

- Nafarroako Gobernuak ez du etxe kaleratzerik egingo bere eskumenekoak diren etxebizitzetan maizterren arazo ekonomikoen ondorioz.
- Herri autogestionatuak garatzeko laguntzak.



12

INGURUMENA



## INGURUMENA

### ONARRI IDEOLOGIKOAK

Nafarroako ingurumenaren egoera oso kezagarria da, eta hiru dira horren arrazoi nagusiak: substantzien, materialen, energiaren eta uraren erabilera gehiegizkoa eta zentzugabea, kutsadura, eta sortzen diren hondakinen kopuru gero eta handiagoa. Horren aurrean, premiazkoa da ingurumenaren arloan lehenbailehen esku hartzea.

Gainera, UPNren garapen politikek egoera larriagotu dute, lehengaiak erazten dituzten eta Nafarroako ingurumena suntsitzen duten proiektu ugari gauzatu dituztelako inolako justifikaziorik gabe.

Egoera horren aurrean, ezinbestekoa da ingurumen politikan tresna arautzaileak eta ekonomikoak txertatzea, ingurumen babeserako, hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako aurrekontu partiden bidez eta ingurumena behar bezala kudeatzeko eta babesteko beharrezkoak diren baliabideak eta aurrekontuak bermatuz.

Klima Aldaketaren kontrako Ekintza Plan bat diseinatzen hasi behar da, parte-hartze prozesu baten bidez eta emisioen arloan Kyotoko Protokoloa betetzeko helburuarekin.

Hondakinen kudeaketari dagokionez, ahalik eta hondakin gutxien sortzera bideratutako politikak inplementatu behar dira, honako atal hauek uztartuz: kontzientziazioa, kontsumo arduratsua, diseinua, berrerabilpena eta tratamendu prozesuak.

### 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

#### INGURUMENAREN KUDEAKETA

- **Herritarren ingurumen hezkuntza eta kontzientziazioa sustatzea;** herritarrak sentsibilizatzeko programak eta jarduerak sustatzea eta burutzea.
- Administrazioetik ingurumenari buruzko informazio egiaztagarria, egiazkoa eta zientifikoki frogatua bermatzea.
- **Nafarroako Ingurumen Kontseilua** erreformatzea eta biziberritzea: osaera irekiagoa eta demokratikoagoa, eta eragile sozial eta ekologistekin adostutako funtzionamendua.
- **Ingurumenaren** arloko politikak (basoen kudeaketa, biodibertsitatea, ehiza eta arrantza, basogintza, nekazaritza eta abeltzaintza, ingurumen inpaktua...) beste arlo batzuekin **koordinatzea (lurralde antolamendua,** energia, nekazaritza, abeltzaintza, ekonomia...).
- Energia eta ura kudeatzeko enpresa publiko bat sortzea. Energiaren eta uraren agentzia, CRANA fundazioa haren barnean sartuz.
- Europako ingurumen proiektuetan parte hartzea.
- Ingurumen inpaktuaren azterketak. Inpaktu azterketak egitea eta proiektu nahiz enpresei legedia betearaztea.

## BIODIBERTSITATEA

- Espezieak eta habitatak. Europar Batasunaren intereseko espezieen eta habitaten egoera eguneratzea.
- Espezie mehatxatuak. Espezie mehatxatuen katalogoak eguneratzea, espezie horiek kudeatzen eta kontserbatzen laguntzeko.
- Araudiak. Arlokako araudiak eta kudeaketa araudiak eguneratzea.
- Izurriak. Izurriak eta espezie inbaditzaileak kudeatzea.
- Transgenikoak. Hazi eta produktu transgenikoen erabilerari dagokionez, moratoria bat ezartzea proposatuko dugu, zuhertasun printzipioa argudiatuz. Era berean, genetikoki eraldatutako organismoak dituzten produktu guztiak etiketatzea exijituko dugu, merkaturatu ahal izateko baldintza gisa. "Transgenikorik gabeko" eremuak sustatu eta babestuko ditugu.

## URA

- **Ura kudeatzeko politika berri bat ezartzea, Uraren Direktiba Markoaren printzipioetan oinarritua.**
- **Pribatizazioaren kontrako konpromisoa hartzea eta uraren kudeaketa publikoa defendatzea, gardena eta partaidetza publikokoa.**
- **Ibai eta akuiferoen kudeaketa.** Ibaiak eta akuiferoak hobetzea eta kudeatzea. Egatik ateratzen den ura zorrotzago kontrolatzea. Fracking-a eragozteko, akuiferoetan dituen ondorioengatik.
- **Hondakin urak tratatzeko plantak eta instalazioak.** Arazuriko araztegiaren kontrol zorrotzagoa.
- Ureztapena eta Nafarroako ubidea. Nafarroako ubidearen bidezko ureztapenaren mantentze eta ustiapen gastuak aztertzea eta gizarteari beharrezkoak diren azalpenak ematea. Itoizko urtegiaren eta Nafarroako ubidearen auditoriak egitea.
- Esako urtegia handitzeko lanak geldiaraztea.

## HONDAKINEN KUDEAKETA

- Hondakinen tratamendu ziklo osoaren kudeaketa publikoa, horretarako beharko liratekeen lanpostu berriak sortuz.
- Europak sustatzen duen "0 Hondakin" filosofian oinarritutako PIGRN berri bat egitea (Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integrala).
- Errausketa. Portlandek Olaztin daukan zementu fabrika hondakinak eta hondakinetatik deribatutako erregaiak erretzeko baimenak baliogabetzea.
- Gaikako bilketa. Gaikako bilketa bultzatzea eta sustatzea, Europak ezarritako berrerabilpen tasetara iristeko helburuarekin.
- Materia organikoaren tratamendua hura sortzen den lekutik hurbil egitea, lurralde osoan banatutako planta txikietan. Tokiko eta eskualdeko planta horiek beharren tamainakoak eta iraunkorrak izango dira.

- Sortzen den hondakin kopuruaren arabera ordaintzeko sistemak ezartzea, hondakin gutxiago sortzeko helburuarekin.
- Hondakinak gutxitzeak, berrerabiltzeak eta banatzeak daukan garrantziaz kontzientziatzeko kanpainak. Banakako jardunbide egokiak sustatzea.
- Ontzi eta bilgarrien hondakinak. Fabrika, enpresa eta dendeekin batera, ontziak, bilgarriak eta haien hondakinak gutxitzeko neurriak bultzatzea. Gainera, berrerabilgarriak eta birziklagarriak izatea sustatuko da.

## KUTSADURA

- Elektromagnetikoa. Kontrol eta informazio neurriak hartzea.
- Zarata. Kontrol eta informazio neurriak hartzea.
- Kimikoa, nitratoak... Legedia betearazteko neurri fiskalak eta araudi positiboak eta negatiboak aplikatzea.
- Berotegi efektuko gasen inbentarioak egiten dituzten eta beren isurpenak gutxitzen dituzten Enpresen Nafarroako Erregistroa sortzea, sustatzea eta ezagutaraztea. Ekimen horren bidez enpresa garbien garapena eta enpresa horiek babestutako eta finantzatutako baso dinamikak sustatuko lirateke.

13  
*POLITIKA  
FEMINISTA*



## POLITIKA FEMINISTA

### IDEIA NAGUSIAK

- Aukera berdintasunaren arloko foru legedia eguneratu edo birdiseinatu behar da. Horretarako, emakumeek hainbat arlotan bizi duten egoeran benetako eragina izango duen foru lege bat egin behar da, haien eskubideak bermatzea oinarritzat hartuz.
- Berdintasunaren arloko erreferentziazko organismo publikoa egitura instituzionalaren erdigunean jarri behar da.
- Jardunbide feministen transbertsalitatea bermatu behar da Foru Erkidegoko Administrazioi sail guztietan.
- Politika publikoak erabakitzeaz eta gauzatzeaz arduratzen diren organoetan herritarren parte-hartzea sustatu behar da, batez ere emakume elkarteena eta mugimendu feministarena.
- Administrazio autonomikoaren eta tokiko administrazioen arteko koordinazioa hobetu behar da, landa eremuan emakumeek desberdintasun handiagoak jasan ez ditzaten.
- Pertsona guztiei zaintzak jasotzeko eskubidea bermatzeko aurrerapausoak eman behar dira, emakumeentzako gainkarga izan gabe.
- Erabakitasunez borrokatu behar da emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko eta biktimak ahalduentzako. Indarkeria sexistaren behatokia sortu behar da.
- Emakumeen sexu eta ugalketa eskubideen arloko legedia betearazi behar da. Abortu libre eta doakoa bermatu eta laguntza bidezko ugalketari buruzko foru lege bat egin behar da.

### OINARRI IDEOLOGIKOAK

Bizi dugun krisi orokor eta sistemikoak zapalkuntza eredu patriarkal eta kapitalistari eragiten dio, eta emakumeok larriki pairatzen ari gara botere politikoak eta elite ekonomikoek egindako murrizketen ondorio sozialak.

Azken ikerlanen arabera, desberdintasun mailak gero eta handiagoak dira, hala soldatetan nola lan ordaindua lortzeko eta pentsioak edo "laguntzak" jasotzeko aukerari dagokionez. Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren amildegia gero eta zabalagoa da, baina emakumeen artekoa ere handitzen ari da, eta hori are larriagoa da.

Gainera, eta hori oso garrantzitsua da guretzat, emakumeek beren planteamendu propioak dituzte, beren eskubideak, itxaropenak, nahiak, errealitateak, egoerak..., botere publiko gehienek sustatzen dituzten politikekin inolako zerikusirik ez dutenak.

Abortatzeko eskubidearen aldeko azkenaldiko eta egungo borrokek honelako kontsigna feministak plazaratu dituzte: "Nire gorputza nirea da", "Nik erabakitzen dut", "Amatasuna, edo ez, askea eta nahita". Borroka horiek argi erakutsi dute emakumeok matxinatu egin garela Espainiako eskuin ultrakatolikoaren eraso eta mehatxuen aurrean. Gainera, Nafarroako emakumeok bereziki pairatzen dugu eskuin horren boterea.

Bestetik, gogor salatzen ari gara zaintza eta ugalketa lanak emakumeon gain uzten direla etengabe. Horri dagokionez, "derrigorrezko familia zerbitzuari" eta gizona ere lan horien ardura beren gain erabat ez hartzeari intsumisioa egitea planteatzen dugu. Gainera, feminismoaren ikuspegitik funtsezkoa den beste aldarrikapen bat egiten ari gara: Administrazio Publikoek antolatu eta eman behar dituzte gizarte laguntza unibertsalaren arloko zerbitzuak. Beste aldarrikapen garrantzitsu bat zaintza lanei dagokie: pertsona guztien artean banatu behar dira, eta lana direla onartu, horrek dakarren guztiarekin.

Botere publikoek gizarte arazo larri hori konpontzeko esku hartu ahal dute eta esku hartu behar dute. Gure ardura da, eta gure zeregin nagusia izango da, planteamendu horiek ordezkari instituzioetara eramatea. Emakumeek historian zehar pairatu dituzten eta gaur egun ere pairatzen dituzten injustiziak ikusarazteko sentsibilizazio eta sustapen lana egin behar dute. Ugalketa eta zaintza lanei dagokienez, neurri zehatzak hartu behar dituzte emakumeek eremu pribatuan jasaten duten gainkarga desagerraraziko duten zerbitzuak sortzeko eta mantentzeko. Eta, azkenik, emakumeen kontrako indarkeria mota oro ezabatzeko estrategia egokiak bideratu behar dituzte.

Horri dagokionez, hauxe da gure helburu nagusia: politika publikoak jarrera feminista batetik eraldatzea, emakume guztientzako baldintza sozial eta ekonomiko duinak bermatzeko.

Hainbat neurri proposatzen ditugu horretarako, espezifikoak nahiz transbertsalak. Mota askotako diskriminazio faktore soziokulturalen eraginez gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna iraunkorra dela eta emakumeen arteko arrakala gero eta handiagoa dela ikusirik, guztiz beharrezkoa iruditzen zaigu neurri horiek hartzea.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### POLITIKA PUBLIKOAK ALDATU

POLITIKA PUBLIKOETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO ETA POLITIKA FEMINISTA BAT GARATZEKO BALDINTZAK SORTZEA.

- Berdintasunaren arloko erreferentziazko organismo publikoa Foru Erkidegoko administrazioaren egituraren erdigunean kokatzea eta behar beste baliabide ekonomiko nahiz giza baliabide ematea. Transbertsalitatea bermatuko duten egiturak eta bitartekoak sortzea eta behar beste autonomia eta baliabide ematea.
- Berdintasunaren arloko erreferentziazko organismoak politika feminista osoa gidatuko du.
- Berdintasun unitateak sail guztietan, transbertsalitatea bermatzeko.
- Koordinazio guneak sail guztietan. Sailen arteko koordinazio guneak (teknikoak nahiz politikoak).
- Proiektu estrategikoak eta aurrekontuak lantzeko eta diseinatzeko orduan, genero inpaktua aztertuko dugu, eta gauza bera egingo dugu haiek garatu ondoren ere, benetako inpaktua zein den jakiteko.
- Gutxieneko batzuk definituko ditugu berdintasun politiketarako, politika publikoetan jauzi kualitatibo bat egiteko asmoz.
- Emakumeen errealitatea eraldatuko duen Berdintasun Lege bat egingo dugu, haien eskubideetan oinarritua.
- Berdintasun Legearen baitan, berdintasun planak egingo ditugu hala behar den guztietan. UDALERRIENTZAKO LAGUNTZA, SARE LANA ETA UDALEKIKO ELKARLANA ETA KONTRASTEAK.

- Udaletan eta mankomunitateetan berdintasun zerbitzuak unibertsalizatzea eta behar beste baliabide tekniko eta ekonomikoz hornitzea. Behar izanez gero, zerbitzuak sortzea.
- Laguntza teknikoa eta ekonomikoa udalerrientzat, berdintasun politika propioak garatzeko aukera izan dezaten.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eskumenak eta baliabideak ematea berdintasun tekniken arloko sare lana bultzatzeko eta udalen funtzioak gainditzen dituzten proiektuak erkatzeko eta adosteko.
- Tokiko administrazioak, mugimendu feministak edo emakume elkarteek gidatuta udalerrietan garatzen diren proiektu estrategikoak bultzatzea eta babestea.

#### KONTRATAZIO PUBLIKOETAN ETA DIRULAGUNTZETAN BERDINTASUN KLAUSULAK TXERTATZEA.

- Kontratazio publikoetan eta dirulaguntzetan berdintasun klausulak txertatzea, derrigorrez bete beharrekoak. Klausula edo irizpide horien bidez honako hau bermatuko da: lan baldintza duinak emakumeentzat, emakumeek enpresan parte hartzea, sexu diskriminaziorik ez egotea, kontziliazio neurriak...
- Dirulaguntzetan genero ikuspegia txertatzea. Emakumea diskriminatzen duten jarduerak ez dute dirulaguntzarik jasoko, emakumeen parte-hartzea sustatzeko neurri zehatzak aurreikusi beharko dira, etab.

#### ENPLEGU PUBLIKOAREN KALITATEA SUSTATZEA, ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETZEKO.

- Administrazio publikoan lana eta bitzita pertsonala uztartzeko neurri zehatzak ezartzea, hala nola ordutegi malguak, hurbiltasuneko zerbitzuak...
- Gizonei zuzendutako ekintza plan bat diseinatzea, beraiek ere beren gain har dezaten zaintza lanen ardura.
- Langile publikoen amatasun eta aitatasun baimenak parekatzea.

#### POLITIKA PUBLIKOAK DISEINATZEKO, ERABAKITZEKO ETA HAIEN SEGIMENDUA EGITEKO ORDUAN MUGIMENDU FEMINISTAREN ETA EMAKUME ELKARTEEN PARTE-HARTZEA BULTZATZEA.

- Mugimendu feministaren eta emakume elkartearen arteko elkarlana sustatzea eta erabakiguneetan parte hartzeko formulak zehaztea, leku bakoitzerako formularik egokiena ezarriz (berdintasun kontseiluak, interlokuzio zuzena...).
- Mugimendu feministari eta emakume elkartei babes ekonomikoa eta instituzionala ematea. GITE-IPESen finantziazioa bermatzea.

#### KOMUNIKAZIO EREDU EZ SEXISTA ETA INKLUSIBOA ERABILTZEA.

- Komunikabideetan eduki sexistak identifikatzea eta desagerraraztea.
- Hizkera eta irudi ez sexistak eta inklusiboak erabiltzea. Horretarako irizpideak zehaztuko ditugu eta haien betetze mailaren segimendua egingo dugu.
  - Instituzioaren barneko inprimaki eta agirietan.



- Foru Erkidegoko administrazioaren kanpo komunikazioan: aldizkariak, prentsa oharrak ...
- Kanpo harremanetan edo jendaurreko agerraldietan: ordezkari itzazkoak, parekideak, pluralak...

## POLITIKA PUBLIKOAK ALDATU

### PARTE-HARTZE EREDU OSASUNGARRIA, OREKATUA, IRAUNKORRA ETA ERALDATZAILEA SUSTATZEA.

- Politikaren maila guztietan emakumeen parte-hartze espezifikoak sustatzeko ekintza positiboak.
- Eremu pribatuan rola hausteko neurri eraginkorrak, hezkuntza sistema publikoari garrantzi berezia emanez.
- Rola hausteko prestakuntza.

### EMAKUMEAK AHALDUNTZEKO PROIEKTUAK SORTZEA ETA BULTZATZEA, EDO DAUDENAK SENDOTZEA.

- Emakumeentzako lokalak, ahalduntze eskolak eta horrelakoak sendotzen edo sortzen laguntzea.
- Berdintasun kontseiluak sendotzen edo sortzen laguntzea.

### FEMINISMOAN OINARRITUTAKO PARTE-HARTZEA SUSTATZEA.

- Feminismoan oinarritutako parte-hartze eredu iraunkor eta osasungarri bat sortzeko "dekalogo" edo "protokolo" bat egitea. (Berdintasunean oinarritutako parte-hartzeak zer baldintza bete behar dituen laburbiltzeko erabil liteke protokolo hori).
- Parte-hartze soziopolitikoan sakontzeko foro bat sortzea eragileekin nahiz partikularrekin, jardunbide egokiak eta esperientzia eraldatzaileak ezagutzeko eta ezagutarazteko.

## ZAINTZA DUIN ETA UNIBERTSALAK

Pertsona guztiei zaintzak jasotzeko eskubidea bermatzeko aurrerapausoak ematea, Ugalketa lanari eta zaintzari balioa ematea eta bizitzaren sostengarritasuna jarduera instituzionalaren erdian jarri, gizarte nahiz ekonomia mailan.

- Zaintzen arloko behar guztiak biltzen dituzten zerbitzuak sare publikora itzultzeko prozesuan aurrera egitea.
- Zaintzaileei laguntzeko baliabideak bultzatzea. Besteak beste, autozainketarako eta familiaren baitako negoziatorako tresnak eskainiko zaizkie.
- Zaintzailentzako atsedenaldirnasaldi programak.
- Profesionalak ez diren zaintzaileen lan baldintzak hobetzea eta duintzea, familiako zaintzaileen ongizatea bultzatuz, haien eskaerak aintzat hartuz eta familiako nahiz etxeko kideen artean zaintza lanen banaketa justuago bat sustatuz.
- Nafarroako Berdintasun Kontseiluko ordezkariak Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentziako Gobernu Kontseiluan parte hartzea (edo sor litekeen erakunde berrian).

- Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentziako arduradun tekniko eta politikoei prestakuntza feminista egokia bermatzea.

#### ZAINZTAILE PROFESIONALEN GARRANTZIA AITORTZEA ETA HAIEN LAN BALDINTZAK HOBETZEA.

- Lan eskubideak araupetzea eta ezkutuko ekonomien kontra borrokatzea.
- Zaintza profesionalen sektoreko lan baldintzak duintzea, immigranteei arreta berezia eskainiz.
- Kontratazio publikoetan berdintasun irizpideak txertatzea, besteak beste zaintzen sektoreko langileen lan baldintza duinak bermatzeko. Ikus "politika publikoak aldatu" eragin-eremua.

#### EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA

##### AUTONOMIA EKONOMIKO NAHIKOA EZ DUTEN EMAKUMEEN EGOERA HOBETZEA.

- Prestakuntza eta enplegu planak garatzea, batez ere autonomia ekonomiko nahikoa ez duten emakumeei eta bikotekiderik gabeko amei zuzenduak.

##### FEMINIZATUTAKO LAN SEKTORE AUTONOMOETAKO LAN BALDINTZAK EZAGUTZEA ETA HOBETZEA.

- Emakumeen kooperatibak sortzeko aholkularitza eta laguntza zerbitzuak sortzea, feminizatutako sektoreei arreta berezia eskainiz.
- Emakumeentzako prestakuntza jarduerak garatzea, kooperatibismoari eta hainbat eremutan dituzten aukera eta alternatibei buruzkoak (nekazaritza, zerbitzuak, nekazaritzako elikagaiak, zaintzak...).

##### INSTITUZIOETAN LAN BALDINTZA DUINAK BERMATZEA (INSTITUZIOEK ERREFERENTE GISA JOKATU BEHAR DUTE LAN MERKATUAREN AURREAN).

- Behin-behinekotasuna eta lanaldi partzialak gutxitzera bideratutako kontratazio politika bat diseinatzea.
- Kontratazioetan eta dirulaguntzetan langileen lan baldintzak arautzeko klausulak txertatzea.

##### PREKARIETATEAREN KONTRAKO URGENTZIAZKO NEURRIAK AKTIBATZEA.

- Pertsonarik ahulenez arduratzen diren gizarte ekimenak babestea.
- Esplotazio egoerak eragiten dituzten zaintza informalen sareak araupetzea.
- Lan ordaindua behar duten pertsonen eta langileak behar dituzten pertsonen arteko bitartekotza irregularra egiten den eremuetan esku hartzea. Hala, esaterako, kasu batzuetan edozein lan baldintzatan lan egitea aholkatzen zaie emakume immigranteei, egoera jasanezinetara behartuz.

## INDARKERIA MATXISTA

INDARREAN DAGOEN ARAUDIA BETETZEA. EMAKUMEEI LAGUNTZA INTEGRALA EMATEKO EGITURAK SORTZEA, BEHAR BESTE BALIABIDEZ HORNITUAK. INDARKERIA MATXISTA IKUSARAZTEA ETA HERRITARRAK SENTSIBILIZATZEA. INDARKERIAK PREBENITZEA. BALIABIDEAK, NEURRIAK ETA PRESTAZIOAK.

- Emakumeei Laguntza Integrala emateko Zentroak ezartzea, diziplinarteko lantaldeekin.
- Nafarroako lurralde osoan Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntza Integrala emateko Lantaldeak sortzea.
- Indarkeria matxistaren kontrako Behatoki bat sortzea: erreala, operatiboa, eraginkorra.
- Indarkeria matxistaren kontra jarduteko plan integral bat egitea.
- Ordezkarri politikoen mahaia funtzionaraztea.
- Laguntza zuzena eta kalitatezkoa emateko zerbitzua landa eremuan.
- Indarkeria sexistaren kontrako sentsibilizazio kanpainak bultzatzea.
- Herritar guztiek eta bereziki emakumeek dauden zerbitzu guztiei buruzko informazioa edukitzeko baliabideak sortzea.
- Indarkeria sexistari buruzko informazio protokolo orokor bat egitea, komunikabideek tratamendu egokia emango diotela bermatzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko eta eduki sexistak desagerrarazteko, besteak beste.
- Emakumeen kontrako indarkeria kasuen prebentzioan eta kudeaketan lan egiten duten profesionalentzako prestakuntza (polizia, epaileak, fiskalak, gizarte zerbitzuak, osasungintza, enplegua, hezkuntza...).
- Prebentzio jarduerak hezkuntza komunitatean (irakasleak, ikasleak eta familiak).
- Baterako hezkuntza oinarriko prebentzio neurri gisa (hezkuntza).
- Jardun medikorako protokolo bateratu bat abian jartzea.
- Tokian tokiko jarduera protokoloak abian jartzea, honako sektore hauetako ordezkariak zuzenduak: hezkuntza sistema, osasun sistema, gizarte zerbitzuak, udalak, elkarteak, eta polizia (egotekotan).
- Biktimek adierazten ez dituzten tratu txarrak detektatzeko adierazleak sortzea. Osasun zentroetako eta ikastetxeetako profesionalak genero indarkeria detektatzeko erabil daitezkeen lanabes metodologikoak ezagutzen laguntzea (adibidez, Spouse Abuse Risk Assessment izenekoak).
- Emakumeen kontrako indarkeriarekin zerikusia duten zerbitzu eta baliabide guztiak publikoak eta doakoak izango dira (baliabide administratibo eta judizial guztietarako sarbidea bermatzea).
- Babes neurriak landa eremuan.
- Indarkeria sexistaren biktime diren emakumeen babesa hobetzea (tresnak eta estrategiak).

- Baliabide guztiak koordinatzea (protokoloa).
- Larrialdietarako prestazio ekonomikoak (autonomia sustatuz), enplegu programetarako sarbidea, etxebizitzak ...
- Emakumeentzako eta haien seme-alabentzako laguntza psikologiko espezializatua ziurtatzea eta prozesu osoan zehar bermatzea.

## SEXU ETA UGALKETA ESKUBIDEA

EMAKUMEEI BEREN GORPUTZA NAHI DUTEN ERAN, ASKATASUN OSOZ ETA INOREN INJERENTZIARIK GABE ERABILTZEKO AUKERA BERMATZEA. ABORTATZEKO ESKUBIDEA. EMAKUMEEI BEREN BIZITZAZ ETA AMATASUNAZ ERABAKITZEKO ESKUBIDEA BERMATZEA.

- Abortu libre eta doakoa Osasunbideko zentro publikoetan, eskaera egiten duten emakume guztientzat.
- Kalitatezko sexu osasunerako laguntza zerbitzuak pertsona guztientzat. Familien Orientaziorako eta Sexu Hezkuntzarako Zentroak berreskuratzea, behar beste baliabiderekkin.
- Emakumeak ahalduntzeko gai izango den eta heteroaraua zalantzan jarriko duen heziketa afektibo-sexuala garatzea, emakumeek beren sexualitatearen eta gorputzaren gaineko kontrol handiagoa izan dezaten.
- Emakume guztientzako politika antikonzeptiboak, bereziki sektorerik prekarizatuenei zuzenduak, hau da, emakume immigrante eta gazteei.
- Neurri antikonzeptibo seguruenei eta izan ditzaketen albo-ondorioei buruzko informazioa. Haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko informazioa.
- Genero ikuspegia aintzat hartuko duen prestakuntza osasunaren arloko profesionalentzat.
- Osasun sistema publikoan laguntza bidezko ugalketarako eskubidea bermatzea emakume guztiei.

# 14 HIZKUNTZA POLITIKA



## HIZKUNTZA POLITIKA

### IDEIA NAGUSIAK

Euskara dugu berezko hizkuntza, normalizatu beharrekoa. Gure kultura eta nortasunaren funtsezko osagarri.

- Hizkuntza politika berria behar dugu, burujabea, kanpo esku hartzerik gabea.
- Euskarak badu balio erantsia, denok irabazten dugu beraren normalizazioarekin.
- Gure hizkuntza politika organikoa, ez asistentziala, zeharkakoa, eta eragile zein herritarrekin elkarlanean osatua izango da.
- Euskaldun izate kontzientzia, eta euskaraz bizitzeko nahia, herri gogoa beraz, elikatuko ditugu.

### OINARRI IDEOLOGIKOAK

- Euskarak euskaldun egiten gaitu. Euskara nafar hizkuntza eta ondarea da, baita munduari eskaintzen diogun ondarea ere. Kohesiorako eta integraziorako tresna izateaz gain, gure kulturaren funtsezko osagarria da. Bertako hizkuntza izanik, denok ezagutu eta erabiltzeko eskubidea dugu.

- Orain indarrean dagoen hizkuntza politikak ez ditu nafar guztiak berdin tratatzen, euskal hiztunen eskubideak ez baitaude bermatuta. Gainera, indarrean dagoen legediarekin, lurraldea hirutan zatitzen duenez, nafarrok eskubide desberdinak ditugu bizi garen tokiaren arabera.

- EH Bildu hizkuntza politika berria egitera dator, euskara nafarrentzat hizkuntza normalizatua izan dadin.

- Euskararen normalizazioaz honako hau ulertzen dugu: herritar guztiontzat eguneroko arlo denetan euskara ohikoa izatea. Gure kasuan, euskararentzat lortzea, Nafarroa osoan eta eremu guztietan, espainierak duen estatusa eta parekotasunezko egoera. Euskararen normalizazio osoa ezagutzaren orokortzearekin batera etorriko da, herritar guztiek jakinen dutenean euskalduna hizkuntzaz aldatzera ez behartzeko adina euskara.

- Hizkuntza politika berri batek eskaini beharko luke:

1.- Euskarari estatus juridiko berri bat - hau da, lege berri bat-, non euskara ofiziala izango den lurralde osoan.

2.- Nafar guztiok berdintasun egoera batean tratatuak izatea, hau da, denok eskubide berdinak izatea. Horretarako, hizkuntza politika berriak euskararen ezagutza eta erabilera ziurtatu beharko lituzke, hainbat esparrutan neurriak hartuz:

- Irakaskuntza euskaraz eskainiz.
- Helduen euskalduntzea sustatuz, lagunduz eta bermatuz.
- Administrazioa euskaldunduz.

- Lan mundua euskalduntzeko laguntza eraginkorrek emanaz.
- Komunikabide euskaldunak sustatuz, lagunduz eta bermatuz.
- Euskararen erabilera sustatuz.
- Euskal kultura sustatuz, lagunduz eta bermatuz.
- Euskara berezko hizkuntza duten gainerako lurraldeekin elkarlana garatuz.
- Euskararen alde lanean ari diren eragileekin elkarlanean arituz

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### IRAKASKUNTZAN

- 1.- Nafarroa osoan derrigorrezko eta ondorengo irakaskuntza publikoan, baita Lanbide Heziketan ere, euskaraz ikasteko aukera eskaintzea. Hezkuntza sistemak bermatu beharko du ikasketak bukatzeko garaian ikasle guztiek euskararen gutxieneko ezagutza izanen dutela.
- 2.- Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarazko ikasketen eskaintza zabalteza, eta horretarako plan berri bat egitea.
- 3.- Ikastolekin hitzarmen berri bat egitea.
- 4.- Nafarroako herri eta auzo guztietako haur eskoletan irakaskuntza euskaraz egiteko eskaintza zabalduko da.
- 5.- D ereduaren aldeko sentsibilizazio kanpaina sakon eta eraginkorrek egitea.

### HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEAN

- 6.- Helduen euskalduntze-alfabetatzea sektore estrategiko izendatzea, babes instituzionala eta legala eskainiz. Euskaltegiak saretzeko, finantzaketa egonkortzeko, lana planifikatzeko eta funtzionamendu egokia izateko hitzarmen bat sinatuko da, epe luzeko plangintza orokor baten baitan, gutxienez neurri hauek ziurtatuz:
- 7.- Euskaltegi guztiak nahikotasunez diruz lagunduko dira eta ikasleentzako laguntzak izanen dira, doakotasunaren bidean urratsak emateko.
- 8.- Nafarroa osoan euskaltegien sarea sendotu eta zabalduko da, herri ekimenaren eta bitarteko instituzionalen arteko osagarritasuna oinarri hartuta.
- 9.- Euskalduntzearen aldeko sentsibilizazio kanpaina on eta eraginkorrek eginen dira.

### ADMINISTRAZIOAN

10.- Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza sortuko da, Lehendakaritza mailan. Beraren eskumenak oraingo Euskarabidearenak izanen dira, eta, horiez gain, baita hizkuntza politika berri bat diseinatzea, martxan jartzea eta eremu guztietan betetzen dela ziurtatzea ere. Bestalde, Nafarroako Gobernuaren departamentu guztiek euskara atala izanen dute, dagokien arduradun eta planarekin.

11.- Euskararen Kontseilua berrituko da. Bertan administrazioa eta euskalgintzako eragileak ordezkaturik egonen dira, eta aholku batzorde izatetik erabakiak hartzeko eskumena izatera pasako da.

12.- Euskararen lege berria onartzea. Indar politikoei, euskalgintzak eta herritarrek osatutako lantalde batek landuko du lege berrirako proposamena, eta, legebiltzarrak bi urteko epean hura onartu ondoren, lege hori izanen da nafar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko tresna. Lege berriak emanen dio euskarri juridiko egokia nafar guztion ondarea den euskara normalizatzeko eta sustatzeko egin beharreko hizkuntza politikari.

13.- Euskararen egoeraren diagnostiko osoa eta eguneratua egingen da. Diagnostiko horretan oinarrituta, Euskararen Kontseiluak euskara normalizatzeko plan estrategiko errealista, gauzagarria eta eraginkorra diseinatuko du, eta hori izanen da Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren oinarria.

14.- Nafar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko, administrazioaren jardunean euskara txertatzeko neurriak hartuko dira:

- Administrazioari langileen hizkuntza profilaren diagnostikoa.
- Lanpostu publikoen hizkuntza profilaren definizioa: jendaurreko lanpostu berriek euskararen hizkuntza eskakizuna izanen dute. Gainerakoetan, lege berriak arautuko du lanpostu berriak eskuratzeko noiz izanen den euskara jakitea derrigorrezko eta noiz merezimendu.
- Administrazioari langileen euskalduntzea planifikatuko da eta horretarako baliabideak jarriko dira.
- Administrazioan zirkuitu elebidunak sortuko dira euskarazko zerbitzua bermatzeko eta euskara lan-hizkuntza ere izan dadin urratsak ematen hasteko.

15.- Nafarroako Gobernuaren administrazioaren irudi korporatiboaren aldaketa: errotulazioa, komunikazio eta argitalpen politika, hizkuntza paisaia eta abar. Komunikabideetan egiten den publizitatean euskararen presentzia ziurtatuko da.

16.- Protokoloetako harreretan euskararen presentzia ziurtatzea.

17.- Euskararen arnasguneek euskararen normalizazioan duten funtzio estrategikoa aztertu eta kontuan izanen da. Gune horietan politika berezituak ezarriko dira bertan lanean ari diren erakundeekin eta eragileekin elkarlanean.

18.- Herri euskaldunetako (%70etik gora euskalduna) lanpostu publikoetan langileak euskaldunak izanen dira: osasun zerbitzuetarako langileak, liburutegietako langileak, basozainak, kultur etxeetako langileak, eta abar.

19.- Euskara nabarmen baztertzeko asmoz azken urteotan argitaratu eta indarrean jarri diren zenbait dekretu, ebazpen eta foru agindu baliogabetzea.

20.- Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen (udal eta mankomunitate) arteko lankidetzak hitzarmena berreskuratuko da, erakunde publiko guztien hizkuntza politika koordinatzeko, baliabideak partekatze eta elkarlana sustatzeko. Udal euskara zerbitzuei bultzada emanen zaie eta Nafarroako lurralde osoan zabaldu.



21.- Euskara berezko hizkuntza duten gainerako lurraldeekin elkarlana garatzeko pausoak ematen hasi.

## HEDABIDEETAN

22.- Euskarazko telebistak —orokorrak nahiz tokikoak— lurralde osoan euskaraz ikusteko aukera bermatuko da.

23.- Euskarazko irratiak —orokorrak nahiz tokikoak— lurralde osoan entzuteko aukera bermatuko da.

24.- Hedabideen sektorea, sektore estrategikoa izendatu; horren aitortza egin eta, hitzarmenen bidez, euskarazko hedabideentzako azpiegiturak eta laguntzak finkatu.

25.- Euskarazko hedabideetan publizitate instituzionala egin.

26.- Administrazioaren ardurapeko hedabideek eta diru publikoz lagundutako hedabideek produkzioaren ehuneko jakin bat euskaraz emango dute.

## SOZIOEKONOMIAN

27.- Euskara plana duten enpresentzako diru-laguntza deialdia.

28.- Administrazioak lehentasuna ezarriko die euskara bermatzen duten enpresei, betiere zerbitzu publikoa emateko xedez kontratazioak eta esleipenak egiteko tenorean.

29.- Administrazioak euskaldunon hizkuntz-eskubideak bermatu eta babestuko ditu. Herritarrok bezero garen heinean eta eskubide horien jabe izaki, gure aldarrikapenak babesteko ekimenak sustatuko ditu administrazioak berak.

## EUSKAL KULTURAN

30.- Nafarroako Gobernuak sortzen edo sustatzen dituen kultur ekoizpenetan eta jardueretan euskararen erabilera bermatuko da, nahikotasunez.

31.- Euskarazko kultura sustatzen duten eragileen aitortza egin eta, hitzarmenen bidez, sektore honentzako azpiegiturak eta laguntzak finkatu.

32.- Kultur arloko egitasmoetarako laguntzetan —haien izaera edozein dela ere— euskararen erabilera balioetsiko da.

## AISIA ETA KIROLA

33.- Nafarroako Gobernuak sortzen edo sustatzen dituen aisia eta kirol arloko ekoizpenetan eta jardueretan euskararen erabilera bermatuko da, nahikotasunez.

34.- Aisia eta kirol jarduerak euskaraz eskaintzen dituzten elkarte eta entitateentzako dirulaguntza deialdiak.

35.- Aisiaren arloko nahiz kirolaren arloko egitasmoetarako laguntzetan —haien izaera edozein dela ere— euskararen erabilera balioetsiko da.

36.- Aisiaren eta kirolaren arloko euskarazko jardunetarako baliabide teknikoak eta materialak eskainiko dira, jardun horietan euskaraz ari direnei laguntzeko: aisiaren eta kirolaren arloko hiztegiak, idatzi-ereduak, itzulpen eta zuzenketa zerbitzuak...

# 15 HEZKUNTZA



## HEZKUNTZA

### IDEIA NAGUSIAK

- Hezkuntza eraldaketa sozialerako oinarritzko zutabe da. Herrien zein norbanakoen garapen integralerako ezinbesteko tresna da hezkuntza.
- Hezkuntza herritar ororen ardura eta erantzukizuna da; eskola komunitateko sektore guztiena zein herritar ororena.
- Ikaslea, pertsona gisa, hezkuntza prozesuan subjektu aktibo eta protagonista dela aitortzen dugu.
- Hezkuntza inbertsioa da, ez gastua.
- Gure helburua Hezkuntza Sistema Propioa da. Horretarako, beharrezkoa izanen da Hezkuntza Lege berri bat egitea, Nafarroako errealitatea eta beharrak aintzat hartuko dituen.

### ONARRI IDEOLOGIKOAK

- Hezkuntza eraldaketa sozialerako oinarritzko zutabea da, herrien zein norbanakoen garapen integralerako ezinbesteko tresna, beraz **hezkuntza sistema eredu propioa** (behar dugu **gure herriaren nortasunetik, hizkuntzatik, kulturatik, ingurunetik abiatuz**, eskolatik haratago doana jendartearen kohesioa bultzatzen duena. Hezkuntza herritar guztion eskubide bezala ulertzen dugu, beraz, **zerbitzu publiko eta unibertsaltzat** jotzen dugu.
  - **Ekitatea eta inklusioaren printzipioak** bermatu behar ditu, ikasleari egokia den hezkuntza erantzuna eskaintzeko bere garapen pertsonalerako eta aldi berean kohesio soziala lortzeko.
  - **Euskaldun eleanitza**, Euskara Nafarroako hizkuntza izanik herritar orok euskalduntzeko eskubidea du, edozein izanik bere jatorria eta adina. Hizkuntza bizikidetzarako, kohesiorako tresna funtsezkoa izanik euskararen gutxieneko ezagutza bermatu behar da guztiontzat aukera eta eskubidea baita. Elebitasunetik abiatuta eta murgiltze ereduaren baldintzak bermaturik eleanitzasuna sortzeko proiektu ebaluagarriak sortuko ditugu profesionalekin elkarlanean.
  - Hezkuntza formalaren **antolakuntza** malguagoa eta horizontalagoa bultzatuko dugu, pertsonak libre eta kritikoak hezteko oinarri izango duena eta ez ikasgaien transmisio soila. **Ikasle guztien garapen osoa** ziurtatuko duen eskola bultzatuko dugu, denon garapena ahalbidetuko dituzten laguntzak eta baliabide anitzak eskura jarritz.
  - **Laikoa**, gure hezkuntza sistemak laikoa izan behar du. Erljioa gizabanakoaren eta familien eremu pribatukoan gelditu behar da.
  - **Hezkidetzak bultzatuko duena**, berdintasunerako hezkuntzak duen garrantziaz kontzienteak izanik feminismitik kultura patriarkalak ezarritako estereotipo eta lan banaketarekin bukatzeko.
  - Azken hamarkada hauetan gizartean gertatutako aldaketak oso sakonak izaten ari dira, hezkuntzan garrantzia handia du gizarte molde tradiziozaleen hausturak: gizarte egiturak, baloreak, identitatea,

harremanak ... **Pertsona libre eta kritikoak** hezi nahi ditugu eta ez bakarrik eduki hartzaileak. Era berean munduan ematen diren **menpekotasun harreman injustuak** (herrien artekoak, zein pertsonen artekoak) ezagutzeko gai diren ikasleak nahi ditugu, helburua da kontzientzia har dezaten aberastasuna eta boterea banatzean munduan gertatzen diren desberdintasunen eta horien arrazoen eta ondorioen aurrean. Izan ere, mundu bidezkoago baten aldeko elkartasuneko jarrerak eta gizarte konpromisoa bultzatzea du helburua. Elkartasun eskolak nahi ditugu gureak, gauzatutako esperientziak erraz biltzea eta partekatzea, ikasleok, irakasleok, hezkuntza komunitatea oro aberasteko garapenerako hezkuntza barneratuta izanik.

- **Hezkuntza proiektuak- curriculum proiektuak**, bizikidetzeta eta parte hartze demokratikoaren espazioa bilakatu behar da, testuinguru sozialekiko loturak eraiki behar ditu eskolak.
- Irakaste-ikaste prozesuen **etengabeko hobekuntza** ardatz, praktika onak babestuz eta ikastetxeen arteko sare lana bultzatuz. Ikastetxeen egiazko autonomia sustatu egin behar da ebaluazio kultura baliatuz, aholkularitza eta laguntza zerbitzuak zabalduz, zentsura eta kontrol praktikekin bukatuz. Kalitatea ez dagokio bakarrik kudeaketa sistemari baizik eta herri hezkuntza proiektua garatzeko adina baliabide izateari.
- **Zuzendaritza**, administrazioak eskaini behar die irakasleei, eskolaren kudeaketarako eta zuzendaritzarako prestakuntza, motibazio eta babes nahikorik ikastetxeko proiektua aurrera eraman ahal izateko.
- **Inbertsioa da hezkuntza**, lehenetsun soziala izan behar du eta beharrezkoak diren baliabideak eta inbertsioak jaso behar ditu. Krisia ezin da arrazoa izan hezkuntzan murrizketak onartzeko.
- **Landa eskolen berezko izatea** onartu behar da, funtsezkoak dira herriak bizirik mantentzeko zerbitzu publikotzat ulertuta edozein irizpide ekonomikoaren gainetik.
- **Formazioa**, hasierako formazioa eraldatu, etengabekoa bermatu IKT arloa eta atzerriko hizkuntzen gain, berrikuntza pedagogikoa bultzatu.
- **0-3 urteko zikloaren hezkuntza izaera** aitortzen dugu, kalitatezko zerbitzua gauzatu ahal izatea funtsezkoa da haurren garapenerako.
- **Eskola mapa**, Aniztasun geografiko eta demografikoari erantzun egokia eman behar diogu, aukera berdintasuna bermatuz bizitokia edozein dela ere. Beste alde batetik, distritu bakarrak eragindako banaketa artifizialarekin bukatuko dugu, auzoz auzoko errealtatea islatzen duenaren alde eginez.
- **Helduentzako hezkuntza**, ez da nahiko hezkuntza bizi osoan ematen den prozesu bat dela erratearekin, aipatzeaz gain apustu egin nahi badugu ez bakarrik derrigorrezko hezkuntzarekin, kontuan hartu behar dira etapa horrekin konprometitutako irakasleek egindako hausnarketa-prozesutik ateratako ondorio eta kezka nagusiak. Etapa honen berezitasunari egokitutako araudia behar da.
- **Lanbide Heziketa**, jendartearen beharrei erantzunen dion eskaintza egokitu eta zabaldu tokiko garapen agentziekin elkarlanean. Lan praktiketan baldintza duinak bermatu behar dira, ez dadila izan lan-esku merkea.
- **Unibertsitatea**, egungo murrizketa eta goi mailako ikasketa eta ikerketaren merkantilizazioaren aurrean unibertsitate izaera publikoa defendatzen dugu. 2015eko erreforma norabide txarrean pentsatua dago: pribatizazioa, Espainiari begira, lehiakortasun basatia, tasen igoera, euskararen marginalizazioa, ikasleen parte hartzearen bazterketa... errotik aldatu beharreko eredia da hau, alternatiba oso eta integral bati begira hasi behar dugu lanean. Gure herriaren garapen kultural, ekonomiko, sozial, teknologiko zein pedagogikorako partaidetza demokratikoan oinarritutako unibertsitate publiko herritar eta euskalduna da aldarrikatzen duguna.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### HEZKUNTZA SISTEMA PROPIOA

Gure hezkuntza sistema propioa eraiki eta gauzatzeko bideak aztertuko ditugu hezkuntza komunitatearekin batera, horretarako sektorearen eragileekin harreman iraunkorra sustatuko dugu plangintza bateragarriak osatuz. Ikastetxeek beraien hezkuntza proiektua aurrera eramateko baliabideak eskura izanen dute, ikastetxeen autonomia errespetatuz baina aldi berean sare lana bultzatuz. Ildo horretatik LOMCEri aurre egiteko bidea bultzatuko dugu babes juridiko, politiko, administratibo eta soziala bermatuz.

#### **Hezkuntza, oinarrizko zerbitzu publiko eta unibertsala. Herriarena, herriarentzat, denontzat.**

Ildo horretan, sare publikoa bultzatuko dugu, kalitatezko zerbitzu publiko eta unibertsala bermatzeko orain arte Gobernuak ezarritako desinbertsio politikarekin bukatuz.

Bestetik, hezkuntza sistema propioa eraikitzeko prozesuan, ikastolek zeresana badute. Izan ere, ikastetxe publikoak ez diren guztiak ez dira berdinak. Desberdintasun faktore horiek kontuan hartu behar dira ikastetxeen itunak negoziatzerakoan, eta modu horretan gaudituko dugu gaur egungo hezkuntza sareen egoera. Horretarako ikastolen bokazio publikoa, egin duten eta egiten duten euskalduntze lana, eta herritarrekin batera egin izana errekonozitu egin behar da.

**Inklusiboa:** eskolak dituen helburuen artean hasierako desorekak txikitzea oinarritzat hartuta aniztasunaren trataera egokia eskainiko dugu. Ikasgeletan sortzen diren aniztasun sozial, kultural, etniko, sentsozial, motora, afektibo-sexualetara egokituko da irakaskuntza/ikaskuntza prozesua. Berdintasun aukera bermatu behar da bai eskolaratzean baita prozesuan zehar ere ghetizazioa ez baita ona inorentzat. Kohesio soziala bilatuko dugu, ildo horretan eskolaratze prozesuan saihestuko dugu behar berezien metaketa, gaur egun ematen diren desorekak.

**Euskaldun eleanitza:** edozein etapan, hezkuntza formalean zein ez formalean pertsona guztien eskubidea euskara ezagutzeko. Zonifikazioaz gain, legea bertan behera uzten den bitartean, sistema publikoan euskaraz ikasteko eskubidea aitortuz, NFK osoan euskaraz ikasteko aukera eskainiko dugu. Baliabide nahiko jarri behar dira hizkuntza murgiltze ereduaren baldintzak ziurtatzeko. Gaur egungo ebaluatu gabeko programak, kontsensu eta baliabide nahikorik gabe ezarri direnak geldiarazi. Diagnostiko eta ikerketa egin ondoren programa eleanitzak martxan jarri, bi hizkuntza propioetatik abiatuz eta kontuan harturik ikastetxearen iritzia eta tokiz tokiko errealitatea; Euskararen Kontseiluak egindako proposamena kontuan izanik.

**Laikoa:** Espainiako Gobernuari Vatikanorekin duen 1979. urteko tratatua salatzea. Ikastetxe publikoetan erlijiorik ez emateko bideak aztertuko ditugu eskatzea.

**Hezkidetzeta:** sexuaren araberako banaketa egiten duten ikastetxeak ez ituntzea. Hezkidetzan hezteko, bi generoen dikotomia apurtzeko, botere harremanak ezabatzeko eta identitate sexual askeak sortzeko, jendartean eta eskolan nagusitzen den eredu androzentristaren kontra kontzienteki jo behar dugu. Egiatzko berdintasunerako plana eragile guztiekin prestatuko dugu eta era berean etapa guztietan zeharkako lerro bezala aurrera eramaten dugu.

**Etengabeko hobekuntza** bilatu behar dugulakoan gaude, praktika onak babestuz eta ikastetxeen arteko sare lana bultzatuz. Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza proiektua egokitu behar du bere ikasleen ezaugarrietara eta testuingurura. Kalitatea kudeaketaz eta emaitza akademikoetaz haratago doa, Departamentutik baliabideak, formazioa, kanpo eta barne ebaluazioak eskatzen ditu, beti ere ebaluazioa lehiakortasunetik kanpo utziaz, aukerak eta hobekuntzak bilatzeko beharrezko prozesu bezala ulertuta.

**Parte hartzailea:** parte hartzea sustatu behar da, hezkuntza sektore guztiena da, Eskola Kontseiluaren funtzionamendua horretarako funtsezkoa da eta ezin dugu onartu LOMCEK aholkularitza funtzioetara murriztea; gaur duten baino zer esan handiagoa eskainiko diegu guene horiei, benetako barne bizitza demokratikoa bermatzeko neurriak hartuz. Eztabaida, elkarrizketa, elkarlana eta adostasunaren kulturaren sakonduko dugu, jarrera inposatzaileetatik ihes eginez eta parte hartzeko espazioak ahalbideratuz, izan ere hezkuntza prozesuak arrakastatsua izateko aukera handiagoa dauka hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea bermatzen bada.

**Hezkuntza proiektuak-curriculum proiektuak** bultzatuko ditugu, eskolak herrira eta herria eskoletara zabalduz, hezkuntza proiektu integralak osatuz. Hezkuntza ez da soilik eskolen hornimen artean ematen dena askoz ere prozesu konplexuagoa da eta beste eragile guztiak beharrezkoak dira. Horretarako arlo desberdinetako eragilean lankidetzat bultzatuko dugu: zerbitzu sozialak, osasungintza, kultura, kirola, lan mundua... Beste alde batetik, eskola bizikidetzat eta sozializazio eta parte hartze demokratikoaren espazioa bilakatu behar da, horretarako sozializazio testuinguruak sortzeko gaitasuna izango duen antolaketa ereduak bultzatuko da. Elkarlana eta erantzukizuna, familia eta komunitate lokalaren inplikazioa ahalbideratuko duena, hezkuntza formala eta ez formalaren arteko loturak esperientziak zein proiektu kurrikular propioak edo alternatiboak martxan jarriko dira.

Hezkuntza proiektuan barne musika eskolek egiten duten lana azpimarratuko dugu, musika eskolak baitira biderik egokiena musikara hurbiltzeko. Ildo horretan musika eskolen maparen diseinua funtsezkoa da zerbitzu hori bermatu ahal izateko, langileen egoera erregularizatzea ezinbestekotzat jotzen dugu, arlo honetako profesionalen lan baldintzak berdintzeko urratsak ematen ditugu.

**Zuzendaritza:** ikastetxeen zuzendaritza taldeetan parte hartuko duten irakasleen prestakuntza eta aholkularitza, zentroaren kudeaketa parte hartzailea, lan taldeen koordinazioa zein irakaste-ikaste prozesuaren hobekuntzari zuzendutako lidergoa sustatzera bideratuko ditugu. Behar ditugun zuzendaritza taldeek ikasgeletako eguneroko errealitatearekin harreman zuzena izan behar dute kudeatzaile hutsa izateko profiletik aldenduz. Izendapen anitz zuzenean Departamentuak egiten dituzten zuzendaritza taldeetan egoteko boluntario falta nabarmenagatik, ildo horretan motibazio areagotzeko estrategiak eta babes neurriak martxan jartzea ezinbestekoa da.

## BALIABIDEAK

Hezkuntzak duen izaera eta biltzen dituen funtzio guztiak aintzat harturik lehentasunezko eremu gisa kokatzen dugu. Krisi sistemikoa pairatzen ari garen garai hauetan (ekonomikoa, kulturala, politikoa) are eta gehiago indartu beharrezko arloak dugu. Krisiaren izenean ezarritako eskuineko politikak bereziki sare publikoa desegiten saiatu dira; heldu da garaia murrizketak alboratu, eta hezkuntzaren bidez krisiaren aurrean bestelako jendarte eredu beterrantz bidea egiteko, aurreko egoera ontzat eman gabe. Mentalitatea aldatzea derrigorrezkoa deritzogu, hezkuntza inbertsioa da eta ez gastua.

- Aurrezte ekonomikoaren aitzakiapean aplikaturiko **ratio eta ikastordu** kopurua kendu behar lirateke behar den baliabideen esleipena eginez, ratio eta ikastordu kopuru egokiak adostuz eta modu progresiboan ezarriz.
- Ikastetxe bakoitzak duen hezkuntza proiektua gauzatu ahal izateko plantilen **egonkortasuna** handitu behar da eta irakasleriaren gaztetzea bermatu. Egonkortasuna bilatzeaz gain ezinbestekotzat jotzen dugu gaur egungo prekaritatearekin bukatzea, interinoren lanari duen garrantzia emanez. Beste alde batetik, ikasle bakoitzak dituen beharrei modu eraginkorrean erantzun ahal izateko gaixotasun baxak eta bestelakoak estaltzeko denborak ahalik eta txikiena izan behar du.
- **Aniztasunari** eraginkor erantzuteak materialetan, metodologian eta antolakuntzan moldaketak eskatzen ditu, profesionalen elkarlana baita gurasoen parte hartzea ere. Norberaren beharrei egokitutako neurri horiek gaitasun pertsonalak ahalik eta gehien garatzeko eta oinarrizko kompetentziak lortzeko beharrezkoak dira. Horretarako antolakuntza modu desberdinak izan daitezke eta horrekin batera, denbora eta espazio erabilera malgutasuna ere bai.

- Talde guztiak desberdinak eta anitzak izan arren ikastetxean aniztasunarekiko jokoera koherentea izan behar da hezkuntza prozesua baldintza egokietan garatzeko. Koordinazioa beharrezkoa da, bai etapen artekoa, zein etapa, maila eta talde barnekoak eta horretarako behar diren guneak eta orduak ezarriko dira.
- Beste funtsezko gako bat ikasketa prozesuen optimizatzeko irakasleen eta familien arteko lankidetzak da. Familiekin hartu-erama ezinbestekoa da, denon inplikazioa lortzea, familia eta eskola elkarrekin aritzeak emaitzak eta hezkuntza prozesua bera ere hobetzen baititu.
- Hezkuntza **zaintzaileen** lanaren hezkuntza izaera aitortzen dugu, Hezkuntza Departamentuaren menpe egon behar dira beraz eta arlo honetako lan baldintzak dagozkie.
- Musika eta arte hezkuntzaren bestelakotasuna aintzat hartuz, gaur dagoen eskaintza zabalduko dugu.
- Aipatutako herri hezkuntza proiektuak aurrera eramane ahal izateko nahitaezko **elkarlanerako denbora eta guneak** sortu behar dira.
- Testu liburuen doakotasun sistema ezarriko dugu derrigorrezko hezkuntza osoan.
- **Parte hartzea bultzatzeko laguntzak** ezarriko ditugu bai guraso bai ikasleen elkarrekin.
- **Azpiegiturak eta instalazioak:**
  - **Hezkuntza espazioaren** kontzeptuan aurrerapausoak eman behar ditugu, hezkuntza espazioa gelatik haratago doa eta, hezkuntza lanerako **espazio malguak** behar ditugu, funtzio anitzetarako egokitzeko aukera ematen diguna.
    - Jantokiak garrantzi handiko gune gisa etabazteko tresna gisa. Sukalde propioak sustatuko dira elikaduraren burujabetzaren bidean urratsak emateko aukera ematen baitute.
    - **Ekintza plan bat** egin behar da, sindikatuek eta Guraso Elkarteek hezkuntza azpiegituren gabeziak harira egindako azterketa lana aintzat hartuko duena.
    - Ezinbestekoa da espazio beharrei makrozentruetatik ihes eginik erantzuna ematea, larrietatik hasita, Sarriguren, Buztintxuri edo Biurdanako kasuak hortxe ditugularik. Lehentasunezko beste neurrien artean, Erronkarin ikastetxe berri bat egitea egonien litzateke.
    - Instalazioen mantentze plan bat diseinatu eta burutu. Departamentuaren utzikeriaren adibide nabarmenak ditugu, Castejonon zein beste herri batzuetan, erantzun azkarra behar dutenak.
  - Ikasle kritikoak eta justuagoak nahi ditugula erran dugu eta horretarako dudarik gabe gure erosketa politika koherentea izan behar litzateke, edozein kontsumitzaile kontsumo kritikoago eta arduratsuago bat erraztea, **produktu ekologiko eta komertzio justuen bidez gauzatuko dugu ahal den neurrian**, irizpide ekonomikoez gain balore etiko eta ekologikoak kontuan hartzen dituztenak ingurugiro nahiz gizarte arloak barneratuz.

## LANDA ESKOLA

1. Landa eremuko eskolen bestelakotasuna: eskola horiek beren bereizgarrien arabera onartzea eta tratatzea administrazioaren barruan, eta gune berriak sortzea eskola horien ezaugarriak kontuan hartuta.



2. Eskola-irekitzeak eta berrirekitzeak: gutxieneko kopuru bat ezarri behar da, eta kopuru hori gaindituz gero eskola ireki beharko litzateke, herriak hala eskatuz gero.
3. Ikuspegi ez ekonomizista, zerbitzu publikoa: herriak bizirik mantentze aldera, zerbitzu publiko gisa hartu behar da hezkuntza, etekin ekonomikoen gainetik dago eta behar diren inbertsioak egin behar dira bertan.
4. Diskriminazio positiborako neurriak: berezitasunak berezitasun, laguntza berezia eskaini behar zaio, beharrezkoak diren proiektu bereziak egin ahal izateko.
5. Hizkuntza-aniztasunarekiko errespetua. Indarreko zonifikazio-murrizketez gain, herriko eskolan eskolatzeko aukera edukitzea.
6. Kultur ondarea: Europako gainontzeko herrialdeetan landa eremuko eskolei ematen ari zaien tratamenduaren eta joeraren arabera neurriak hartzea.
7. Landa eremuko irakasleen lanbide-karrerari eta lan baldintzei laguntzea: eremu horietako irakasleei erraztasunak eta pizgarriak ematea, modu horretan lanpostuak erakargarriagoak izanzen baitira eta egonkortasuna ziurtatuko baita. Plantilak taxutzen direnean ez da ikasle-kopurua zenbatzera mugatu behar, landa eremuko eskolen berezitasunak kontuan hartu gabe.
8. Prestakuntza: berariazko prestakuntza unibertsitatean. Landa eremuko eskoletan jarduten diren irakasleei eremu bakoitzeko ILZn prestakuntza ematea.
9. Landa eremuko eskolen bulegoa: ezinbestekoa da eskola horien beharrianak eta berezitasunak artatuko dituen organo eraginkor bat egotea.
10. Aipatutako beharrianak aseko dituen Eskola Mapa bat: egungo zonifikazio burugabea amaiaraztea eta herrien beharrianen arabera bat egitea.

## ESKOLA MAPA

Ekitatearen eta inklusioaren printzipioak bermatu behar ditugu, ikasleari egokia zaion hezkuntza erantzuna eskaintzeko bere garapen pertsonalerako eta aldi berean kohesio soziala lortzeko. Eskola txikien garrantzia azpimarratu behar da. Ikastetxeen sarea berrantolatu eta planifikatzeko irizpideak ezarriko dira, ezin da gaur egungo sare publikoari oztupoak jartzeko politikarekin segi, zonalde bakoitzeko beharrak zehaztuko dira, beti ere hezkuntza komunitatearekin egiten da prozesu hori.

Oinarrizko hezkuntza unibertsala bermatu behar da baina horretaz gain, derrigorrezko ondoko eskaintzan aurrera pausoak eman behar ditugu Nafarroako errealitate orografikoa, geografikoa eta demografikoa kontuan hartuz. Bizitokia edozein izainik ere aukera berdintasuna bermatu beharrean gaude.

## FORMAZIOA

- IKT gaien garrantzia aitortuta ere ezin dugu pentsatu berrikuntza euskarriak aldatzetik etorriko dela, ez da aski betiko arbelatik digitalera pasatzea, ezta ohiko testu liburuetatik tableetara pasatzea ere. Berrikuntza metodologikoa askoz haratago doa, oinarrizko kompetentziak lantzeko beste modu bat, ebaluatzeko beste modu bat eskatzen dizkigu. Hasierako formaziotik hasita gelan, ikastetxeetan, dauden norbanako beharrei erantzuteko tresnak izan behar ditu irakasleak. Ikasleak rol aktiboagoa garatu behar du eta horretarako ere irakasleak igorle izatetik gidari eta kudeatzaile izatera pasa behar du. Metodologia eta pedagogia eredu hobea lantzeko, egungo eskola XXI. mendeko errealitateari hurbiltzeko bideratuko dugu formazioa.

- Etengabeko formazioa bultzatuko dugu ILZen bidez. Jakin badakigu, ILZtetan egin behar den lana ez dela soilik arloetako irakasleei laguntza ematea, baizik eta ikastetxeei beraien formazio prozesuan aholkatzea, beharrak aztertzea eta irtenbideak bilatzea, sare lanetan laguntzea eta koordinazio lanetan aritzea. Beraz ILZen egitura indartu eta pertsonal eta material baliabideez behar bezala hornituko ditugu.
- Hizkuntza freskatze ikastaroen eskaintza zabalduko diegu, irakasleek hizkuntza ezagutza eguneratu ahal izateko erreferenteak izan daitezen.
- Berebiziko garrantzia emanen diogu berdintasunerako eta hezkidetzarako formazioari. Gatazken trataera positiboa eta hezkuntza emozional arloetako formazioa ere funtsezkoak jotzen ditugu gelako klima modu positiboan kudeatu ahal izateko.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ikasgeletan sortzen den ikasleen aniztasun sozial, kultural eta etnikoetara egokitu behar da, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen inklusioak sortzen zituen behar berrietara egokitzea ere.
- Esperientzia berritzaileak bultzatu behar dira, ikastetxeen arteko sareak indartu eta praktika onak ezagutarazteko bideak sendotu.
- Gurasoen kezka, zalantza, nahiak edota esperientziak partekatze guneak sustatu behar dira, sortzen diren formazio beharrei erantzun egokia emanaz, arrakastatsuak izan diren guraso eskolak kontuan hartuz.

## 0-3 URTEKO ZIKLOA

- Haur hezkuntza jaiotzetik hezkuntza eskubide bat dela defendatzen dugu. Bere izaera hezitzailea ukaezina izanik Hezkuntza Departamentutik kudeatzearen alde egiten dugu sare bakarrerako bidean. Asmo horrekin proposatuko dugu beste eragileekin batera landutako lege bat 0 eta 3 urte arteko haurrak eskolatuta dauden gisa guztietako zerbitzu orok (haur eskolak, haurtzaindegia, jolas-haurtzaindegia, etxe lagunak, akademiak, familia espazioak...), salbuespenik gabe, nahitaez baldintza duin batzuk bete ditzan: langileen titulazio egokiak; Europar Batzordeko Haurren Arretarako sareak Haur Zerbitzuen Kalitate Helburuen bitartez ezarritako gomendioen arabeko ratioak; ordezte planak, ratio horiek beti segurtatzeko; espazio baldintzak (gelen egurastea, komun baldintzak, haien kokapen bisuala, kanpoko patioen eta patio estalien erabilera, haur bakoitzeko metro koadroen kopurua eta abar).
- Administrazioak hizkuntza eskubideak bermatze aldera euskarazko eskaintza zabaltzeko neurriak hartuko ditu. Hizkuntzen trataera hezkuntza proiektuan zehaztuko da hizkuntza eskubideak bermatuak ikus daitezen. Doakotasuna eta sare bakarra helburu izanik, hezkuntza eragileekin batera, faseka egin ahal izateko plangintza diseinatuko dugu.
- Gaur egun nahasmen handia dago arlo honetan eta ziklo honetako hezkuntza araudi zehatzen gabeziak, zenbait kasutan, haurren garapena baino batzuen negozio bilakatzea dakar. Hori ekiditeko eta adostutako legea indarrean sartu bitartean 0 eta 3 urte arteko haurrak hartzen dituzten erakunde guztien zerrenda bat sortuko dugu, haur horiek nolako eskolatzeko baldintzatan dauden egiaztatze: langileen titulazioak, ratioak, ordezte planak, espazio- baldintzak (gelen egurastea, komun baldintzak, kanpoko patioen eta patio estalien kokalekua eta erabilera, haur bakoitzeko metro koadroen kopurua eta abar) oinarritzko baldintza duinak betetzea ziurtatzeko.

## HELDUENTZAKO HEZKUNTZA

- Jakinik bizitza osoko prozesu bat dela hezkuntza eta eskualde guztietan herritarrek egindako eskariari erantzuteko bideak prestatu behar direla azpimarratzen dugu.

- Helduentzako Hezkuntzaren Liburu Zuria diseinatuko dugu, etapa horren berezitasunak kontuan hartuko dituena eta eskura dauden baliabide eta beharrian guztiak jasoko dituena.
- Helduen Hezkuntza arautzen duen 19/2002 Legea garatu eta egokituko dugu; hartara, ikastetxeen adinako eremu-egitura bat eta helduen hezkuntzako departamentu arteko batzordea sortuko dugu.
- Helduen oinarriko hezkuntzako ikastetxe publikoek ematen dituzten ikasketa guztiei buruz ziurtagiriak egin ahal izan ditzaten aukera emanen dugu .
- Helduen hezkuntzari, bereziki Orientazioaren eta Pedagogia Terapeutikoaren arloetan, baliabideak emanen diogu, ikasleen behar bereziei erantzun ahal izateko.
- 19/2002 Legeko 3. artikulua betetzeko, prestakuntza-ekintzak bideratuko ditugu helduen hezkuntzan esku hartzen duten eragileei zuzendurik eta esparru horretako curriculum, metodologia, teknologia eta didaktika berrikuntzei buruzko proiektuen lanketa sustatuko dugu.
- Euskarazko eskaintza oso urria da, adibidez Batxilergo ikasketa ez presentzialetan ez dago euskaraz ikasteko eskaintzarik, beraz euskarazko eskaintza zabaldu egin behar da.
- Emakumeen parte hartzea bultzatzeko plan bereziak egin behar dira.

## LANBIDE HEZIKETA

- Jendartearen beharrei erantzunen dion LH bultzatuko dugu, tokiko garapen agentziekin eta inguruko enpresekin lankidetzat bultzatuz.
- Irakasleentzako prestakuntza plan bat egin eta martxan jarri ahalik eta metodologia berrienak erabili ditzaten.
- Zaharkituta geratu diren lanbide eskolen diagnostikoa, bai azpiegiturei bai baliabide materialei dagokionez.
- Elizondoko ikastetxea izango litzateke lehentasunezko kasuetako bat. Bertan, gainera, ezinbestekoa da hezkuntza eskaintza gaurkotzea eta zabaltea, eskualdeko errealitatera eta beharretara egokituz. Horrek, derrigorrez, eskualde osorako erreferentzia zentru integratu berri bat eraikitzea eskatzen du.
- Lurralde antolaketaren oreka abiapuntu izanda, eskualdeko beharrak aztertuta, ingurura egokitzen diren zentro integratuei bultzada emanen diegu behar diren inbertsioak aztertuz eta progresiboki garatuz, horietan lanerako trebatze ikastaroak eta ziurtagiriak lortzeko bideak erraztuz eta etengabeko formakuntzari erantzuna eman ahal izateko.
- Hasierako Lanbide Prestakuntzarako programak hobetuz, DBHko eta LHko irakasleen arteko elkarlana bultzatuko dugu, beti ere nahi duten ikasleek hezkuntza sisteman jarraitzeko bideak ziurtatuz. Programa hauek funtzionatzeko baliabide nahikoz hornitu behar dira eta irakasleei formazio berezia eskaini behar zaie.
- Lanbide Heziketa euskalduntzeko plan estrategikoa diseinatu eta martxan jarriko dugu.
- Lankidetzat ezartzea Unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren artean ikerketa eta aplikazioaren eremuetan.
- Arautu gabeko heziketa erregularizatzeko jardueran lan egitea, gaitasunak gaurkotu eta egiaztatzeko mekanismo normalizatu bat ezarri, horretarako ezinbestekoa da Enplegu eta Hezkuntza departamentuen arteko koordinazioa.

- Lan praktiketan baldintza duinak bermatu behar dira, lan esku merkea ez dadila izan.

## UNIBERTSITATEA

- Madrildik proposatzen diren aldaketekin (3+2) lehen eta bigarren mailako unibertsitateak sortuko dira, banaketa ekonomikoaren arabera, honekin batera masterrak ordaindu ahalko dituzten ikasle gutxi batzuk, ordea, elite bilakatuko dira eta besteok lan prekariora kondenatutako kualifikazio baxukoak bihurtuko dira. Merkantilizazioaren saiakeren aurrean publikotasunaren defentsa egiten dugu, parte hartzaileagoa eta jendarteari irekiagoa den eredu bat bultzatuz.
- Unibertsitate eta beste eragileen arteko sareak indartuko ditugu gizartearen interes orokorrak defendatuz.
- Gaur egungo lan baldintzen prekarizazioa eta ezberdintasunekin bukatzeko neurriak artikulatuko ditugu.
- Urte anitzetako finantziario hitzarmena martxan jarri lan egitekorakoan egonkortasuna ziurtatzeko oraingo segurtasun eza baztertuz.
- Beken sistema berri eta sozialago bat ezarriko dugu.
- Beste Unibertsitateekin elkarlana bultzatuko dugu, Euskal Herriko Unibertsitateekin bereziki.
- Titulazio berrien eskaintza bi hizkuntza propioetan aztertu.
- Euskararen plan estrategikoa berregitea bultzatu eta bete egin behar da.

# 16 *KULTURA*



## KULTURA

### 1.-NAFARROAKO KULTURA AZTERTU ETA ARRAZIONALIZATU

Kultura Nazio Batuen Erakundeak onartutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako eskubidea da.

“Kultur eskubideak artearekin eta kulturarekin zerikusia duten eskubideak dira, oso dimentsio zabalean ulertuta. Kultur eskubideen xedea pertsoneri eta komunitateei kulturarako sarbidea eta beraiek hautatutako kulturaren parte hartzeko aukera bermatzea da. Funtsean, giza eskubide horien bidez ziurtatu nahi da pertsona guztiek kulturaz eta haren osagaiez gozatu ahalko dutela, berdintasunez, giza duintasunez eta inolako diskriminaziorik gabe. Kultur eskubideek hau guztia barnebiltzen dute: hizkuntza; kultura eta arte ekoizpena; kulturaren parte hartzea; kultur ondarea; egile eskubideak; gutxiengoak eta kulturarako sarbidea, besteak beste.

Pertsona orok du eskubidea komunitatearen kultur bizitzan askatasunez parte hartzeko, arteaz gozatzeko eta zientziaren aurrerapenean nahiz hortik datozen ondasunetan esku hartzeko.”

(NBEKO GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALA)

Nafarroako Gobernuak, instituzio publiko guztiek bezala, bere gain hartu behar du eskubide hori bermatzeko ardura eta betebeharra, hau da, kulturarako eskubidea bermatu behar die herritar guztiei.

UPNren gobernu guztietan kulturaren protagonismoa urritzen joan da, eta gaur egun hutsaren hurrena da. UPNren gobernuak Kultura Sailari esleitzen dion aurrekontua ezin urriagoa da: %0,60 besterik ez. Horretarako borondaterik ez badago, nekez berma daiteke edozein eskubide. Kulturari dagokionez, UPNk bere erantzukizuna saihesten du eta esku pribatuetan uzten du kulturarako eskubidea bermatzeko betebeharra, Kultura Mezenasgoaren Lege penagarriaren bidez.

Eskubide hori bermatzeko lehen urratsa Kultura Sailari aurrekontu nahikoa ematea izan behar da. Horrela, baldintza duinetan garatu ahal izango ditu egoeraren diagnostiko zehatza egin ondoren beharrezkotzat jotzen diren kultur ekintzak.

#### NAFARROAKO KULTURAREN DIAGNOSTIKOA

Nafarroako kulturaren diagnostiko sakona egin behar da, gaur egungo egoeraren argazki erreala eta eguneratua edukitzeko. Diagnostiko horretan oinarrituta, bukaera eman behar zaio Nafarroa errearen eta ofizialaren arteko kultur amildegiari.

-Kontuan hartu beharreko arloak

-Gutxienez, diagnostiko horrek kontuan izan behar ditu Nafarroako kulturaren eremu guztiak, aktoreak (sortzaileak, industria...), prozesu kulturalak, kultur produktuak eta azpiegiturak.

-Nafarroako kultur kolektiboen, sortzaileen eta industrien errolda bat egin eta etengabe eguneratu behar da.

-Kultur azpiegituren errolda/mapa bat egin –espazio hutsak ere kontuan hartuz-, eta haien erabilera aztertu

behar da, erabilera urriegia dutenak detektatzeko eta nola erabil daitezkeen hausnartzeko.

-Nafarroak kulturaren arloan dituen gabezia nagusiak detektatu behar dira, maila guztietan (herritarra, profesionala, instituzionala, estrukturala, teorikoa...), eta kultur sortzaile eta langileen lan egoera aztertu behar da, datozen urteetarako ildo estrategikoak finkatzeko.

-Arkitektura eta arte ondare publikoaren errolda/mapa zehatza egin eta kontserbazio egoera aztertu behar da.

## NAFARROAKO KULTURAREN LURRALDE OREKA ETA ARRAZIONALIZAZIOA:

Nafarroan, sarri askotan, kultura higiezinaren arloko espekulazioaren inguruan mugitu da. Beharrezkoak ez diren eta mantentzea oso garestia edo ezinezkoa den azpiegitura faraonikoak egin dira. Azpiegitura gehiegi eraiki dira, beharrak, ahalmenak, erabilera edo lankidetzaren kontuan hartu gabe. Era berean, kulturarako azpiegiturak eta aurrekontuak Iruñean zentralizatu dira. Baluarte bi jokabide horien adibide lotsagarria dugu. Beraz, ezinbestekoa da aurrekontuak, baliabideak eta azpiegiturak deszentralizatzea eta arrazionalizatzea.

-Hartu beharreko neurriak

-Nafarroako kultur politikak Nafarroa osoa izan behar du kontuan, ez hiriburua soilik. Beraz, premiazkoa da aurrekontuak, baliabideak eta azpiegiturak arrazionalizatzea eta modu orekatuan banatzea.

-Kultur azpiegituren eta baliabideen erabilera urriegia saihesteko estrategia bateratuak inplementatuko dira. Era berean, erabilera eskasa duten lokal publikoak kultur ekimenen esku utziko dira edo beharrezkoa den arloetan kultur zentroak sortzeko baliatuko dira (herri kultura, dantzak, memoria historikoa, medialab...).

-Iruñeko gotorlekua. Europako oso hiri gutxiak daukate horrelako kultur eremu bat hiriaren erdialdean bertan. Hala ere, Iruñekoak oso ordutegi mugatua du eta bertan antolatzen diren arte eta kultur jarduerak ezin urriagoak dira.

Gotorlekuan dauden eraikinak ezin egokiagoak dira erakusketak, kontzertuak, ikuskizunak, sorkuntza tailerrak eta bestelako kultur ekimenak antolatzeko asteko egun guztietan, ordutegi zabal batekin eta herritar guztiei irekiak. Gaur egun, ordea, egunean bi orduz soilik irekitzen da.

-Arte eta kultur erakundeekiko hitzarmenen egoera aztertuko da, berritzeko, zabaltzeko eta hitzarmen berriak sinatzeko. Beharrezkotzat jotzen den kasuetan, hitzarmen horiek hainbat urtetarako finantziario plana izango dute.

-Nafarroako Kultura eta Turismo Saileko "goi kargudunentzako ordainsariak" aztertu eta murriztuko dira.

## 2.-KULTURA, LEHENTASUN SOZIALA

### -KULTURA LEHENTASUN GISA; KULTURA INBERTSIO GISA ETA GARAPEN SOZIOEKONOMIKOAREN MOTOR GISA

Kultura Nafarroako politikagintzaren lehentasun nagusietako bat izan behar da. Kultur politika ezinbesteko inbertsioa da gizarteari begira: Nafarroaren eta nafarren nortasuna garatu eta aberasteaz gain, etekinak sortzen ditu kultur industrietan nahiz haietatik kanpo.

Gaur egungo agintariek esaten dute ez dagoela kulturarako dirurik eta baliabideak murriztu behar direla arlo

horretan, kultura ez delako ezinbestekoa ez gizartearen ez ekonomiaren ikuspegitik. Ideia hori baztertu egin behar da. Izan ere, Finlandiak, Holandak eta Europako beste zenbait herrialdek kulturara bideratzen dute beren aurrekontuen parte handi bat eta, hain zuzen ere, herrialde horiek hobeto jasan dute krisi ekonomikoa.

Kulturara bideratzen den ehunekoa aztertu behar da, aurrekontuak izan dezakeen inpaktu positiboa edo negatiboa ikusteko. Bestetik, aurrekontuak sakonki berrikusi behar dira, kulturak jaso behar dituen baliabideak zehazteko inbertsio eta ustiapen plan baten arabera. Kultura ekonomikoki sustatzea ez da dirua xahutzea, epe ertain eta luzera inbertitzea baizik.

-Hartu beharreko neurriak

-Kultura pairatzen ari den murrizketa geometrikoa gelditu behar da. Kulturarako aurrekontuaren murrizketak geldiarazi eta horra bideratzen diren baliabideak aztertu eta arrazionalizatu behar dira.

-Prestakuntzaren, parte-hartzearen nahiz erabileraren arloan kulturarako sarbidea bermatu behar zaie sektorerik behartsuenei, hala nola langabeei, gazteei eta erretiratuei, besteak beste. Ikuskizunetarako nahiz mota guztietako prestakuntzarako prezio egokiak jarri behar zaizkie.

-Administrazio guztiek babes osoa eman behar diote kultura orokorrari, eta bereziki Nafarroako kulturari. Horretarako, kulturari eta haren balioari buruzko kanpainak antolatuko dituzte, herritar guztiei zuzenduak eta gazteei arreta berezia eskainiz.

## KULTUR INDUSTRIEI LAGUNTZEKO POLITIKA

Nafarroako kultur industriei laguntzeko politika bat inplementatu behar da, kontuan izanik horrelako industriek ondasun immaterialak nahiz materialak sortzen dituztela.

Politika hori irizpide profesional eta independenteetan soilik oinarritu behar da eta, merkatuan nekez gara daitezkeen kultur proiektuak babesteaz gain, arreta eskaini behar die enpresen ustiapen planei eta aurkezten dituzten proiektuei ere. Hala, gaur egungo bazterketekin, faborismoekin eta monopolioekin bukatu behar du (adibideak oso ugariak dira, baina Elizarena soilik aipatuko dugu hemen, larrietasunak bat baita: Elizak milioi asko jasotzen ditu bere ondasun pribatuak –edo pribatizatzen ari direnak– kudeatzeko, inolako kontrolik edo ustiapen planik gabe).

-Hartu beharreko neurriak

-Nafarroako kultur industria eta ekimen guztiei zuzendutako laguntza iraunkorrak sortu behar dira, industria horiek "enplegu hobi" estrategikoa izan baitaitezke Nafarroarentzat. Laguntza horiek irizpide profesional eta independenteen arabera emango dira, helburu sozial egiaztagarriak eta lan jokabide justuak dituzten industriak edo ekimenak lehenetsiz.

-Nafarroako kultur industriei laguntzeko politika eta ebaluazio irizpideak berritu, eguneratu eta demokratizatu egin behar dira, industria horiek Nafarroan garatzea lortzeko.

## -SORTZAILEEI LAGUNTZEKO POLITIKA

Nafar sortzaileak Nafarroako kulturaren zutabe nagusietako bat dira, hala nazioartean ospe handia dutenak nola arte sorkuntzaren munduan bidea urratzeko ahaleginak egiten ari direnak. Horregatik, beka politika eskuzabala behar dugu, independentea eta profesionala, nafar artista guztien ibilbidea, proiektuak eta prestakuntza jasoko dituen.



-Hartu beharreko neurriak

-Gaur egun sortzaileei ematen zaizkien laguntzak aztertu behar dira, haien helburua benetan betetzen den jakiteko, eta, batez ere, laguntza motaren bat inplementatu behar da gaur egun inolako laguntzarik jasotzen ez duten arte diziplinetarako.

-Nafar sortzaileentzako laguntzak dibertsifikatu behar dira, hasi berriei garrantzi berezia emanez. Zuzeneko laguntzak emateaz gain, bestelako neurriak ere hartu behar dira: onura fiskalak, alokairu merkeak, espazioen lagapena...

-Nafar sortzaileei laguntzeko politika eta ebaluazio irizpideak berritu, eguneratu eta demokratizatu egin behar dira, Nafarroako arte sorkuntzaren garapen erreala eta orekatua lortzeko.

### -KULTUR PRESTAKUNTZARAKO LAGUNTZAK

Aitortza, babesa eta laguntza material eta ekonomikoa eman behar zaie artisten, profesionalen nahiz herritar guztien kultur prestakuntza sustatzen duten eskola, ikastegi eta tailerrei, batez ere ibilbide luzea dutenei eta etorkizun oparoko proiektu integralak aurkezten dituztenei.

-Hartu beharreko neurriak

-Aitortza eta laguntzak hitzarmenen bidez artikulatu ahal dira, hala nola Nafarroako Antzerki Eskolarekin, GITE-IPESko Dokumentazio Zentroarekin eta Emakumeen Liburutegiarekin, Nafarroako Abesbatzen Federazioarekin...

-Administrazioari dagokionez, kudeatzaile guztiei (teknikariak, zinegotziak...) kultura garaikidearen arloko prestakuntza etengabea eta integrala emateko baliabideak inplementatu behar dira.

## 3.-Euskara, nafar kulturaren euskarria

### -EUSKARAZKO KULTURAREN SUSTAPENA

Mundu global honetan, euskara nafar kulturaren eta identitatearen elementu bereizgarria da eta, horregatik, lehenetsu helburua izan behar da Nafarroako kultur politiketan. UNESCOk berak adierazi duenez, Lingua navarrorum gizadiaren ondarea da. Gainera, inolako zalantzarik gabe, nafarren ondasunik preziatuenetako bat da eta, haien borondateari esker, gure ondasun hori berreskuratzea lortu da, hezkuntzaren eta kulturaren bidez nagusiki.

Horregatik, ezinbestekoa da euskarazko kultura maila eta arlo guztietan lehenestea: aitortza instituzioen aldetik; laguntza publikoak; euskarazko kultur ekimen publiko eta pribatuak; euskarako kultur jardueren sustapena, batez ere euskarak presentzia urria duen lekuetan...

-Neurri zehatzak

-Administrazioek babes eta laguntza publikoa eman behar diete euskarari eta euskarazko kulturari, jarrerren bidez nahiz kontzientziazio kanpainen bitartez.

-Euskarazko proiektuak balioetsi eta lehenetsi behar dira mota guztietako kultur laguntzetan.

-Administrazioek euskarazko kultur jarduerak programatu behar dituzte Nafarroa osoan.

## 4.-Kultur aniztasuna

Kultura indartsu eta aberats bateko kideak gara eta oso argi daukagu kultur politikak gure kultur enborearen inguruan antolatu behar direla. Hala ere, eta horrekin batera, gaur egun bestelako kultura, hizkuntza eta ohitura ugari ere baditugu gure lurraldean, eta guztiek gure kultur ondarea aberastu eta koloreztatzen dute. Horregatik, kultur politika guztiek Nafarroako kultur aniztasun baliotsu hori hartu behar dute kontuan, arlo eta maila guztietan. Esan dugun bezala, gure kultura izan behar da kultur politika guztien oinarria eta ardatza, baina aintzat hartu behar dira Nafarroan ditugun gainerako kulturak ere, elkarren arteko ezagutza eta aitortza sustatzeko eta pertsona nahiz herri gisa aberasten gaituztelako.

## 5.-Kultura parte-hartzailea

### -KULTURA PARTE-HARTZAILEA

Demokratizazioa da kulturak Nafarroan duen behar nagusietako bat. Izan ere, gaur egungo egoera oso kezagarria da: sarri askotan, instituzio batzuek areriotzat hartzen dituzte Nafarroako kultur bizitzan parte hartzen duten sektore gehienak, izan herritarrak, profesionalak, enpresaburuak edo kargudun publikoak.

Batzuetan, agintarien pentsamolde berekoak ez direlako gertatzen da hori; beste batzuetan, ezegonkortasuna ekartzea leporatzen dietelako. Horren aurrean, instituzioek kultur eragileekin hitz egin behar dute, haien iritziak, eskakizunak edo ideiak entzuteko. Komunikazio bideak ireki behar dira.

-Neurri zehatzak

-Kulturaren Kontseilu Parte-hartzaile bat sortu behar da Nafarroan. Kontseilu horrek kulturaren arlo eta sentsibilitate guztiak ordezkatu behar ditu eta Nafarroako Kultura Plan berri bat prestatu behar du.

-Sektoreko protagonista guztiak (administrazioa, enpresak, sortzaileak) bilduko dituzten arlokako mahaia sortu behar dira. Liburuaren mahaia (liburu-saltzaileak, liburuzainak, argitaletxeak); arte plastikoaren mahaia (artistak, ikastegiak, galeriak); musikaren mahaia (kontserbatorioak, musika aretoak, sustatzaileak); arte eszenikoaren mahaia, etab.

-Nafarroako kultur zentroen kudeaketa parte-hartzailea edo kogestioa sustatu behar da, kultur ekimenekin, auzo elkarteekin, sortzaileekin... Espazio publikoaren kudeaketa ezin da enpresa pribatuaren esku utzi, Iruñeko Civivox-ekin gertatzen den bezala.

### -AUTOGESTIOA BABESTU ETA BULTZATU

Nafarroako gizartea oso aberatsa da kultur dinamikei dagokienez eta mota askotako erakundeak sortu ditu arlo horretan: jai batzordeak, peñak, musika taldeak, kultur kolektiboak, antzerki taldeak, gaztetxeak... Herritar horiek guztiak funtsezkoak dira Nafarroako kultur ondarea mantentzeko, transmititzeko eta garatzeko. Horregatik, herritarrak ezin dira kulturaren kontsumitzaile hutsak izan instituzioentzat, orain gertatzen den bezala. Aitzitik, instituzioek kulturaren sortzaile gisa ikusi behar dituzte herritarrak eta, izaera hori aitortuz, kultur sorkuntza sustatu eta horretako laguntza eman behar dute.

-Hartu beharreko neurriak

-Laguntza publikoak emateko orduan, proiektu autogestionatuak lehenetsiko dira.

-Espazio autogestionatuak sustatzeko neurriak hartuko dira, hala nola talde artistikoei lokalak lagatzea eta entsegarako lokal publikoak sortzea.

-Nafarroako kultur zentro autogestionatuen sarea sortuko da, horrelako lokal guztiak biltzeko eta haien beharrei erantzuteko. Zehazki, sarearen helburuetako bat Iruñean Arteleku bat sortzea izango da, hiriko espazio bakar batean edo hainbat espaziotan (hutsik dauden lokal publikoak erabiliz), kultura garaikide eta alternatiboari, arte diziplina guztiei eta kultur kolektibo guztiei irekitako kultur zentro gisa.

## -KULTURA ASKEA BABESTU ETA BULTZATU

Kultura askea babestea kultur politiken lehentasunezko irizpidea izan behar da, horrek kultur eredu horizontalagoa, demokratikoagoa eta parte-hartzaileagoa bultzatzen duelako.

-Administrazioan eta hezkuntzan software librea eta kultura askea inplementatzeko programa bat garatuko da. Liburutegiak eta kultur etxeak ere sartuko dira programa horretan.

-Wi-fi irekia eta doakoa edo Interneterako sarbide librea eta doakoa kultur zentro eta espazio publiko guztietan.

-Laguntza jaso dezaketen kultur proiektuak baloratzeko irizpideetan kultura askea gehitzea (software librea, lizentziak, eduki libreak...).

## 6.-Nafarroako ondarea kontserbatu eta babestu

### -ONDARE MATERIALAREN KONTSERBAZIOA

Nafarroako ondare materiala oso oparoa eta kalitate handikoa da. Inolako zalantzarik gabe, herrialde askok horrelako ondare bat izan nahiko lukete. Horregatik, Nafarroako herri ondare historikoa zaharberritzeko eta babesteko politikak bultzatu behar dira, haren adierazpen guztiak kontuan hartuz eta irizpide profesional, independente eta publikoen arabera.

### -ONDARE IMMATERIALAREN KONTSERBAZIOA

Ondare immateriala gure kulturaren ondasun preziatuenetako bat da, haren genoma. UNESCOk berak adierazi duen bezala, ondare hori munduko aberastasun nagusietako bat da, eta, horrenbestez, funtsezkoa da kontserbatzea eta etorkizuneko belaunaldiei helaraztea. Ondare horri dagokionez ere, Nafarroa lurralde ezin oparoagoa da, eta babesteko nahiz belaunaldiz belaunaldi transmititzeko politikak abiarazi behar dira lehenbailehen. Une honetan, ondare materiala osatzen duten obra gehienak ez daude arriskuan; ondare immateriala edo "herriaren jakinduria" osatzen duten elementu garrantzitsu asko, ordea, arrisku larrian daude. Horregatik, funtsezkoa da ondare edo jakinduria hori guztia biltzea, urgentziarik handienarekin gainera.

-Hartu beharreko neurriak

-Lehenik eta behin, gure herrietako, hirietako eta landa eremuko arkitektura tradizionalaren errolda/mapa bat egin behar da. Ondare horren kontserbazio egoera aztertu, eta hondatzen ez jarraitzeko neurriak hartu behar dira.

-Kontzientziazio kanpaina bat egin behar da Nafarroako lurralde osoan, gure arkitektura ondarea balioesteko, zaintzeko eta kontserbatzeko. Horrekin batera, instituzioek aholkularitza eta laguntzak eman behar dituzte.

-Gure kultur ondare immateriala biltzera eta kontserbatzera bideratutako azterlanak eta ekimenak bultzatu eta babestuko dira (UPNA egiten ari dena, besteak beste).

# 17 KIROLA



## KIROLA

### IDEIA NAGUSIAK

- Jarduera fisikoa eta kirola gizaki guztien eskubidetzat hartzen dugu, pertsonaren garapen integrala lortzeko zein pertsonaren gizarteratze prozesua bideratzeko elementu oinarrikoena baita. Genero, arraza edo etnia, maila ekonomiko edo gaitasun fisiko, psikologiko eta errendimenduzkoen diskriminazioetatik baztertutako eskubidea da. Horregatik, jarduera fisikoa eta kirola hiritar ororen eskura egon behar da, aukera berdintasunak bermatuta.
- Jarduera fisikoa eta kirola kalitatezkoa izan behar da eremu eta maila guztietan: gizartean (aisialdian, behar bereziak dituztenengan, hirugarren adinean), hezkuntzan (derrigorrezko eskolatze aldian eta unibertsitatean), jarduera ez federatuan, federatuan eta errendimendu handikoan.
- Jarduera fisikoa eta kirola nazio mailako Euskal Herri kohesionatu, antolatuta eta garatua lortzeko tresna da; gure identitate eta ikurren bultzadaz baliatuaz, euskarari lehentasuna emanez, jarduera fisiko eta kirol eredu euskalduna sortuz, lehiaketa marko bat zehaztuz eta antolatuz eta herrialdeen arteko elkarlanerako sareak sortuz.

### ONARRI IDEOLOGIKOAK

#### GUZTIONTZAKO KIROLA:

Jarduera fisikoa eta kirola praktikatzea guztion eskubidea dela aintzat hartuta, hiritar orok praktikara eramateko aukera izan behar du, bai eta zilegizko baldintzetan egin ere. Berez, pertsonaren garapen integralerako ezinbesteko elementua da, bai eta gizarte osasuntsu, kohesionatu eta bizikidetzan oinarriturikoa lortzeko baliabidea ere, beharrezko bizi kalitatea ziurtatuko duena.

Bide honetan aurrera egin nahi izatekotan, jarduera fisikoa eta kirola;

- Gorputz garapen orekatu eta osasuntsura bideraturiko ohiturak barneratzeko tresna izango da. Zentzu honetan, eskolatze aldian zehar adin guztietarako jarduera fisikoak eta aukerak zabaltzearen eta hobetzearen alde egiten dugu apustu, bereziki gazteagoak direnengan kirol sustapena azpimarratuz, horretarako eskola ordutegi egokiak ziurtatuz.
- Prestakuntza etengabea eskainiko du, hezitzaileak eta maila guztietako kirol jardueren entrenatzaile eta begiraleak beharrezkoa duten hezkuntzaz hornitzeko.
- Gure nazio identitatea eta ikurrak bultzatuko ditu.
- Euskara gure hizkuntzaren ezagutza eta normalizazioa bultzatuko du.
- Gure euskal eredu propioa garatuko duten egitura ezberdinak zehaztu (federazioak, elkarteak...) eta lehiaketa marko propioa sortuko du.

Herrialde ezberdinen arteko estrategia eta kirol jarduera ezberdinak garatu eta elkarbanatuko ditu.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### EGOERAREN ANALISIA (AMIA)

- Hezkuntza arloan, aisialdian, emakumearen eremuan, hirugarren adinean, kirol federatuan, kirol ez federatuan, goi errendimenduan, gizarteratze arriskuan dauden taldeetan (etorkinak, fisikoki edo psikologikoki behar bereziak dituzten pertsonak) errealitatea zein den jakiteko jarduera fisikoaren eta kirolaren egoera aztertuko da.
- Diagnostiko edo ebaluazio bat egin non genero ikuspegia txertatuko den, gaur egun gure gizarteak dituen beharrak eta ahuleziak identifikatzeko.
- Azpiegitura, instalazio eta ordutegien erabilera nolakoa den ezagutzeko, ea herritar guztiek (emakumeak, aniztasun funtzionala duten herritarrak eta abar) erabiltzeko aukera berdinak dituzten neurtzeko.
- Nafar gobernuaren, udalen eta federazioen kudeaketa ekonomikoen ikuskaritza. Inbertsioak berrantolatu eta kontuak eskatu (Arena pabiloia, Osasuna).

### NAFARROAKO KIROL ETA JARDUERA FISIKOAREN KONTSEILUA

- Haren helburua proposamen zehatzak eztabaidatzea eta aukeratzea izanen da.
- Administrazioak Nafarroako Jarduera fisikoaren eta kirolaren plan estrategikoa sortuko du, eta kontseilua osatuko duten agente ezberdinek plana aurrera eramateko beharrezkoak diren ekintza zehatzak proposatuko dituzte.
- Antolakuntza: 45-50 ordezkari osatutako taldeak (administrazioa, kirol entitate publiko eta pribatuak, hezkuntza, gizarte eta ekonomia zentroak). Kontseiluan borondate propioz parte hartuko dute, egin beharreko lana aurrera eramateagatik konpentsazio ekonomikoen eskaintzak ukatuz.

### TRADIZIOZKO KIROL, JOKO ETA JOLASAK

- Herri kirolen, tradiziozko dantzen eta euskal pilotaren sustapena hezkuntzan, derrigorrezko eskolatzeko aldiko curriculumaren parte izanik eta hezkuntza proiektuen bitartez ikasturte osoan zehar landuz.
- Ikastetxe eta herrialdeen arteko topaketak burutu, lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan, unibertsitatean eta gizartean orokorrean.
- Euskal kirol joko eta jolasen zabalpena erraztu eta bultzatuko da ezarpen eskasa daukaten zonaldeetan. Jarduera hauen bermatzea eta garapena ziurtatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak ezarriko dira.
- Euskal kirol joko eta jolasetan eta modalitate guztietan genero berdintasuna bultzatuko da.
- Berrikuntza eta garapena: Euskal jarduera fisiko eta kirolezko hauen zabaltzean lagunduko duten elementu berritzaileak onartuko dira, betiere euren usadio eta ohituren esentzia galdu gabe.
- Tradizio kirolean nesken parte hartzea handitzeko programak abiatu eta beraien parte hartzea ikustarazi.
- Jolas eta joko mistoak bultzatu.

## DENONTZAKO JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

### JARDUERA FISIKOA, AISIALDIKO KIROLA ETA OSASUNA:

- Jarduera fisikorako eta hiritarren mugimendurako espazioak egokitu. (Oinezkoentzako, korrikalariarentzako, txirrindularientzako... espazio egokiak ezarritik).
- Jarduera fisikoa naturan egiteaz gozatzeko espazioak bermatu. Ibilbideak prestatu, egokitu, seinaleztatu.
- Gizarteari jarduera fisikoa eta kirola era moderatuan praktikatzeko dakartzan onurak erakusteko ekintzak diseinatzea eta aurrera eramatea.
- Familiako kide guztientzako jarduerak eskaini.
- Jarduera fisiko eta kirol ez lehiakorra azpimarratu: Kirolari batek ez dezala bere ibilbidea moztu kirol eskaintza ezagatik. (Gizarte osoari zabalduko kirol eskaintza egon behar du, maila zein adin guztietara bideratua).
- Nafarroako Osasun Planaren baitan, eta udalekin elkarlanean, jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapena bermatu.
- Osasun etxeak udalekin elkarlanean, egoera behartsuetan diren pertsonentzat (hirugarren adina, menpekoak, behar bereziak dituztenak) prebentziozko eta neurritzko jarduera fisiko osasuntsua ahalbidetuko duen estrategia sustatu.
- Lehen mailako arretako osasun etxetan figura berri bat ezartzea: jarduera fisiko eta osasun teknikaria.
- Segurtasunezko kirola: Kirolari, epaile, teknikari eta familiek lehen sorospenak burutzeko jakintza minimoa izatea.
- Prebentzio eta ohitura osasuntsuen jarduera hezitzaileak burutu; hitzaldi, ikastaroen bitartez. (jarduera fisikoa eta elikadura).

### JARDUERA FISIKOA ETA ESKOLA KIROLA:

- Eskola kirolaren helburu nagusia eta jarduera orok beteko dutena balioen transmisioa eta barneratzea izan da. Gizartean bizi garenez gero, gainerakoekin erlazionatzeko eta elkar bizitzeko ezinbestekoak diren balioak goraiatuz: elkarlana, errespetua, konstantzia, esfortzua, autonomia, diziplina, porrotak barneratzeko gaitasuna, ardura, erabakiak hartzeko gaitasuna..., besteak beste.
- Eskola kirolaren bitartez pertsona autonomo, kritiko eta sortzaileak garatuko dira, jarduera askotan haien irudimenari askatasuna emanez, jarduera berriak antolatzen garaian eta gainerakoekin lan egiteko garaian.
- Parekidetasuna eta lankidetzaren bultzatzeko sentsibilizazio kanpainak abiatu eskola eta kirola eremuetan.
- Kirol jarduera inklusiboak eskainiko dira.
- Heziketa fisikoko eskola orduak gehitu Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan.
- Ziurtatu eskola orduetan eta eskola orduetatik kanpo burutzen diren jarduerak hezitzaileak direla eta balio



eta ikuspuntu beretik enfokatuak daudela.

- Kirolanitzza praktikatzearen garrantzia, lehiatzearen presioa baztertuz, neska eta mutilak nahasiz, kultura aniztasuna sustatuz.
- Saillapenik gabeko topaketak egin, talde orekatuak sortuz eta familientzako portaera arautegi bat finkatuz.
- Eskoletako kirol instalazio publikoak hobetu.
- Espezializazio goiztiarra ekidin. 10 urtetik beherakoek ez dezatela euren denbora ariketa bakarra burutzera mugatu. Kirolanitzean aritzera animatu.
- Komunikazio eta koordinazio egokia kirol teknikari, begirale, hezitzaile eta familien artean (zein helburu, eduki eta metodologia aplikatuko diren argitzeko).
- Eskolaz kanpoko jardueretan gurasoen parte hartzea bultzatu. (Antolakuntza eta koordinazioa).
- Kirol eskaintza zabalagoa egin (kirol gutxituak barneratuz eta honekin batera kirol kultura zabala eskainiz eta inguruko nahiz urrutiko kirolean eragileak izanen diren ikasleak heziz). Haurren heziketa prozesua aberasten du: korfballa, sepaktakraw...
- Administrazio, federazio, klub, elkarte, ikastetxe eta guraso elkarten arteko hitzarmenak, heziketa fisikoko klaseen bitartez eta eskolaz kanpoko jardueren bitartez kirol modalitate ezberdinak txertatzeko (curriculumean sartu).
- Heziketa fisikoko irakasleei, begiraleei, hezitzaileei eta eskolaz kanpoko jardueren koordinatzaileei kirol modalitateen eta haien didaktikaren inguruko prestakuntza espezifikoa eskaintzea.

#### UNIBERTSITATEKO JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

- Kirol eskola espezifikoen bitartez, unibertsitateetan kirol modalitate ezberdinak barneratu, zentzu ludiko eta ez lehiakorrean.
- Unibertsitate propioan maila guztietarako lehiaketak eskaini eta bultzatu; barne txapelketak, unibertsitateen arteko txapelketak, probintzien artekoak...
- Euskal kirol joko eta jolasa eremu unibertsitariora zabaldu.

#### GIZARTERATZEKO JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

- Jarduera fisiko eta kirol egokitua
  - Kirol modalitate bakoitzerako, behar bereziak dituzten kirolariek arituko diren teknikarien hezkuntza espezifikoa eta egokia ziurtatu.
  - Kirol txapelketa guztietan beharrezkoak diren egokitzapenak egin, fisikoki nahiz psikologikoki behar bereziak dituzten kirolariek parte hartzeko aukera izan dezaten.
  - Behar bereziak dituzten kirolarien gizarteratze osoa eta kalitatezkoa lortzea ezin ziurtatzekotan,

Nafarroako Kirol Egokituen Federazioa mantenduko da.

- Emakumea, jarduera fisikoa eta kirola
  - Emakumezkoen parte hartze aktiboa handitu, baliabide material eta ekonomikoaren berdintasun osoa izanik.
  - Kanpaina ez sexistak eta genero berdintasunekoak burutu.
  - Emakumezkoen jarduera fisiko eta kirol txapelketen aldeko apustua egin, koordinatu eta bultzatu.
  - Bideratutako baliabide material eta ekonomikoak aurreikusitako helburuak betetzeko erabiliko direla bermatu.
  - Emakumezkoen jarduera fisikoa eta kirola ikustarazi kirol erreferente femeninoak ere sor daitezela.
  - Euskal kirol joko eta jolasetan emakumezkoen parte hartze aktiboa bultzatu.
- Gizarteratzeko eta kohesio sozialerako jarduera fisikoa eta kirola
  - Preso dauden pertsonentzako, psikologikoki osasun arazoak dituztenentzako, adikzio arazoak dituztenentzako, etorkinentzako eta sozialki baztertuak izateko arriskua duten pertsona guztientzako jarduera fisikoa gizarteratzeko bidetzat hartu.

#### HIRUGARREN ADINERAKO JARDUERA FISIKOAK

- Hirugarren adinekoentzako jarduera fisikoak indartu eta zabaldu, giza talde hauen goranzko hazkundea nabarmena den heinean.
- Osasun etxeak udalekin elkarlanean, hirugarren adinekoentzat prebentziozko eta neurrizko jarduera fisiko osasuntsua ahalbideratuko duen estrategia sustatu (Lehen Arretako taldean jarduera fisiko eta osasun teknikaria integratu).

#### JARDUERA FISIKOAK ETA KIROL EZ FEDERATUA, FEDERATUA, ERRENDIMENDU HANDIKOAK ETA ELITEKOAK

- Lehiaketa kirolaren eta aisialdiko kirolaren arteko jardute mailak bultzatu (erdi mailako jarduera fisiko eta kirola).
- Probintzien arteko elkarlana, Nafarroakoak baino maila altuagoko txapelketak sortzeko.
- Nafarroako eta EAEko txapelketen arteko koordinazioa, txapelketa batzuetan parte hartu nahi izateak ez dezala besteetan parte hartzeko aukera deuseztatu. (Egutegiaren koordinazioa).
- Maila baxuko lehiaketak sortu, antolakuntza federatiboen baitan edota beste edozein antolakunde publiko edo pribatuaren baitan (Administrazioa, klubak, gazte erakundeak, auzo elkarteak, GKEak eta kirol sustapenerako entitateak).
- Zenbait modalitatetan existitzen diren errendimendu handiko zentroak sendotzea eta hobetzea eta beste modalitate batzuetan horrelako zentroak sortzea, kirolarien mailak hala eskatzen badu. Hala ere, haien existentzia egoki justifikatuta egon behar da; Federazio bakoitzarekin bere kirol mailak benetan zentro horren

sorrera beharrezkoa duen baieztatu.

- Administrazioaren eta Federazioen arteko hitzarmenak sinatu errendimendu handiko zentroak finantzatzeko.
- Administrazioaren, federazioen eta fundazioen arteko hitzarmenak: Kirol fundazioek errendimendu handiko zentroekin kolaboratuko dute diru laguntzen bitartez.
- Probintzien arteko hitzarmenak eta trukeak sustatu.
- Goi mailako kirolari zaharren, epaileen eta maila altuko teknikarien integrazioa goi mailako zentroetan.
- Klub eta Federazio askoren antolakuntza desegokiak eta egoera ekonomiko larriak haien desagertzea ekarri dute. Gaur egungo klubek eta Federazioek bide zuzenetik joateko neurriak hartu beharko dituzte, bai eta ekonomikoki eramangarria izan daitekeen plan baten zehaztapena burutu ere:
  - Barne eta kanpo kontrol ekonomiko zehatza (barne eta kanpo kontu ikuskapenak).
  - Kirolarientzako mugatutako gastu ekonomiko zehatza ezarri (gehienezko soldata bat)
  - Kirolari guztiek DBHko titulazioa edo baliokidea izan beharko dute derrigorrez.
- Emakumeen klubei berdintasunezko finantziario publikoa eman.

## HEZIKETA

- Maila guztietan, kirol teknikari, epaile eta begiraleen oinarritzko prestakuntza sustatu, kostu ekonomikoen aldetik zein karga presentzialaren aldetik ere erraztasunak emanez.
- Hezkuntza departamentuarekin eta Federazioekin batera prestakuntza plan ofizial berriak aurrera eraman, kirol modalitate bakoitzeko helburu, eduki eta metodologiak bat eginez.
- Hezitzaileen heziketa; etengabeko prozesua eta eguneratua.
- Hezitzaileen eta pertsonal teknikoaren etengabeko formazioa hezkidetzan, parekidetasunean eta genero ikuspegia eguneroko lan jardueretan txertatzeko asmoz.
- Heziketa espezializatua: behar bereziekin arituko diren teknikarientzat, hirugarren adinekoekin eta haurrekin lan egingo duten pertsonentzat.
- Probintzia ezberdinen arteko elkarlana, herrialde bakoitzeko baliabideak komunean jarritz eta hezkuntza eremu ezberdinetan sinergiak aprobetxatuz.

## EKONOMIA

- Zerbitzu publikoetara bideratutako laguntza publikoak lehenetsi.
- Publikoki finantzatutako entitate guzti horiek hitzarmenen arabera zerbitzuak eskaini beharko dituzte, euren entitateko kide ez diren herritarrei beharrezko zerbitzuak eskainiz (formazioa, aisialdi jarduerak, beharpenak...).

- Euskal kirol joko eta jolasak burutu ahal izateko, ikastola eta ikastetxeak ekonomikoki lagundu.
- Diru iturri ekonomikoak berreskuratu kirol teknikariak, begiraleak, epaileak eta familiak formatzeko.
- Aurrekontuen genero inpaktua kontuan hartzea.
- Kirol eremuko langileentzako lan hitzarmen baten prestaketa eta erredakzioa.
- Kirolarentzako entitate zehatz bat sortu, Gizarte Segurantzako eta fiskalitateko baldintza berezien konpentsazio txikien ordainketa ahalbidetuko duena.
- Kirol ekimenen eragin eta ondorio ekonomikoen ikerketak eta txostenak egin, enpresa laguntzaileen arteko kirol-babesa finkatzeko.
- Elementu ezberdinen erosketa eta eskuratzea era bateratuan negoziatu: Kirol aseguruak, hornidurak, kirol materiala...
- Administrazioak, irabazi asmorik gabeko kirol eragileak zein federazioak babestea helburu izanik, egun dagoen lege eremuaren baitan, banan-banan burututako hitzarmenen arabera dagokien kirol babesa arautuko du, baina onuradunen bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jarri gabe.

#### AZPIEGITURAK ETA INSTALAZIOAK

- Udal kirol instalazioak hobetu eta erabilera publikoko espazioak eskaini.
  - Zerbitzuak, giza baliabideak, materiala eta instalazioak batu, mankomunitate eta udaletatik zerbitzu zabalagoa eskaintzeko.
  - Biztanle guztientzako sarbidea erraztu, espazio publiko zein pribatuetan (azkeneko hauetan, entitate pribatuekin egindako hitzarmen politikaren barnean).
  - Instalazioei dagokionez, oinarrizko kirolari, eskola kirolari eta udal kirolari erraztasun berezia.
  - Kirol instalazioen erabilera eraginkorra.
  - Ekonomikoki guztien eskura egotea.
  - Kirol instalazioetan kontziliaziorako tresnak abian jarri (ludotekak, gurasoek eta hurrek konpartitu ditzaketen jarduerak edo ordutegiak, eta abar)
  - Instalazio eta zerbitzuen eskaintza zabaldu.
  - Instalazio publiko eta pribatuen mapa bat egin, haien erabilera ahal bezain eraginkorra izan dadin.
  - Instalazioak zaintzeko eta mantentzeko plan bat egin, segurtasunezko kirol praktika eta etorkizuneko mantenua ziurtatuko dituena.
  - Kirol instalazioen kudeatzaile publiko zein pribatuen eta federazio zein klubaren arteko lankidetzak hitzarmenak sustatu, instalazioak dohainik edo prezio merkean uzteko, beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide materialekin kirol eskolak edo beste kirol jarduerak batzuk jartzearen truke.

## EUSKARA

- Euskara, ezagupenen transmisio bide. Jarduera fisiko eta kirol guztiak euskaraz eskaini, bai eta web orriak, barne eta kanpo komunikazio bideak, araudiak, kirol modalitate bakoitzeko hitz teknikoak...
- Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz eskaini, gure hizkuntzaren erabilera eskola orduetara mugatua egon ez dadin.
- Denon eskura egonen diren itzulpen zerbitzuak eskaini, federazioen eta klubren web orriak euskaraz irakurri eta antolatu daitezzen, bai eta berriak, araudiak, sailkapenak, aktak...
- Federazioen edota bestelako entitateen eskutik, hiztegi erraz eta sinpleak egin, modalitate bakoitzean erabiltzen diren hitz teknikoak jasoz. Horrela, kirolari, teknikari eta epaile guztiek –euskaldunak izan edo ez- hitz horiek ezagutzeko aukera izango dute.

## EUSKAL HERRIKO SELEKZIOAK

- Euskal Herriko selekzioaren aldeko apustua egin. Helburu nagusia kirol modalitate guztien ofizialtasuna lortzea eta nazioarteko txapelketetan lehiatzeko aukera izatea da.
- Administrazioaren eta Federazioen arteko akordioak sinatu, hala nahi duten kirolari nafarren deialdiak sustatzeko eta normalizatzeko inolako trabarik gabe.
- Deialdiak eta ekimenak koordinatu, Euskal Herriko eta Nafarroako selekzioen jarduerak egutegian bat egin ez dezaten eta bietan parte hartzeko aukera egon dadin.
- Euskal Herriko selekzioei babes publikoa ematea, helburu nagusia kirol modalitate guztien ofizialtasuna lortzea eta nazioarteko txapelketetan lehiatzeko aukera izatea delarik.

## KOMUNIKABIDEAK

- Komunikabide guztietan kirol guztien presentzia ziurtatu, izan punta puntako kirola edo gutxitua.
- Trataera orekatua generoari, jarduerari, kirolei eta hizkuntzari dagokienez.
- Gizartea kontzientziatzeko kanpainak antolatu, komunikabideekin koordinatuta (heziketa ez sexista, genero kontzientziazioa, ohitura osasuntsuak, sasoiaren egotearen onurak, azterketa medikoak...)
- Jarduera fisikoa era moderatuan egitearen onurak sustatu herritarren artean.
- Euskararen presentzia administrazioaren publizitate euskarrietan, kanpainetan eta komunikazioetan.



# 18 GAZTERIA



## GAZTERIA

### IDEIA NAGUSIAK

1. Gazteek nahi duten tokian bizitzeko aukera izan behar dute. Hori da EH Bilduren apustua eta horretarako baldintza egokiak bermatuko dizkie arlo guztietan (enplegua, etxebizitza, zerbitzuak, gizarte laguntzak, mugikortasun iraunkorra...) eta Nafarroako eskualde guztietan. Ildo horretan, lurralde oreka sustatu da eta "migrazio" behartuaren aurka borrokatuko da, gazteak Iruñerrira edo beste lurralde batzuetara joatera beharturik egon ez daitezen.

Gazteriaren **emantzipazioa eta ahalduntzea** ezinbesteko baldintza da gizarte justuago eta ekitatiboago bat eraikitzeko. Horretarako, banakako nahiz taldekako prozesuak bultzatu behar dira hezkuntza formalaren eta ez-formalaren bidez, aisia sortzailea, parte-hartzailea eta ez-konsumista izan dadin eta gazteak pertsona autonomo gisa gara daitezen eta honako balio hauek barnera ditzaten: espiritu kritikoa, beren herriarekiko eta kulturarekiko atxikimendua, berdintasunezko genero harremanak, aniztasunarekiko eta ingurunearekiko begirunea...

2. Gazteriak modu berezitan pairatzen ditu krisiaren eta, oro har, sistemaren ondorio latzak, **eskubide murrizketak eta prekaritatea modu berezian jasanez**. Sektore espezifikoak den heinean, beharrian espezifikoak ditu eta, ondorioz, modu berezitan erantzun behar zaie beharrian horiei, gazteen eskubideak bermatuz eta **Nafarroako Gobernuaren saila guztietan zehar-lerro gisa garatuz**.

3. Gazteek bizitza sozial, kultural eta politikoan parte hartzea ezinbestekoa da haien eskubideak lortzeko, haien beharrak betetzeko eta gizartea eraldatzen laguntzeko. **Gazteei zuzendutako politikak ezin dira ulertu haien parte-hartzerik gabe**. Guretzat, gazteria ez da erabakiak hartzeko prozesuetatik kanpo dagoen eta besterik gabe laguntza jaso behar duen sektore bat. Horregatik, gazteriaren arloko gure politika garatzeko orduan, parte-hartzea izango da EH Bilduren jardueraren zutabe nagusietako bat: gazteek beraiei eragiten dieten erabakietan parte hartu behar dute, eta EH Bilduk parte-hartze hori sustatuko du beti. Gazteok erabakietan parte hartu behar dugu, hala gazteriari zuzendutako politika zehatzetan nola politika orokorretan.

### OINARRI IDEOLOGIKOAK

#### SARRERA

EH Bilduk garatuko dituen gazte politiken helburu nagusia honako hau izango da: gazteak pertsona autonomoak izatea, bizitzarako prestatuak, solidarioak, askatzaileak eta bere herriarekin konprometitua.

Gazteria subjektu aktiboa izan behar da bere eskubide eta beharrianei dagokien guztian eta jendartea eraldatzeko prozesuan. Hortaz, eta gure helburua gizarte justuago eta ekitatiboago bat lortzea izanik, gazteriaren emantzipazioa eta ahalduntzea guztiz ezinbestekoa da.

EH Bilduren helburua gazteak gizartearen eta politikaren parte aktiboa izatea da eta, horrela, gazteen ikuspegitik gure gizarteko arlo ezberdinak behatu, arazoak eta aukerak aztertu eta alternatibak planteatu. EH Bilduk prozesu hori guztia ahalbidetzeko beharrezkoak diren mekanismoak jartzeko konpromisoa hartzen du, hau da, gazteek gizartearen eta politikan era normalizatu eta aktiboan parte har dezaten beharrezkoa den guztia egingo du.

Gazteen parte-hartzea funtsezko tresna izan behar da gazte politikak sortzeko eta garatzeko orduan. Parte



hartzeko bideak eta espazioak sortu behar ditugu, gazteen ahotsa entzun eta aintzat hartuko dela bermatzeko eta, horrenbestez, gazteriaren emantzipazio eta ahalduntze prozesua benetan eraginkorra izan dadin.

Gazteen beharrian eta arazo berezituak izaera integrala dute. Beraz, **gazte politika zehar-lerro gisa eta sarean garatu behar da**, eta hala egingo du EH Bilduk.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### BERDINTASUNA; POLITIKA FEMINISTA

1. Gure gazte politiken zehar-ardatza gazteak matxista ez den kultura batean heztea izango da. Horrekin batera, eta sentsibilizazio gisa, etengabe salatuko ditugu gaur egungo genero desberdintasunak. Adin horretan beste edozeinetan baino garrantzitsuagoa da heziketaren bidez balio zehatz batzuk sustatzea gazteengan, hala nola parekidetasuna, hezikidetzeta, aukera berdintasuna, begirunezko harremanak...

### PARTE-HARTZEA

2. Udaletxeak gazteei hurbildu behar zaizkio. Parte hartzeko bideak irekiko zaizkie kolektibo eta elkarteetan parte hartzen duten gazteei nahiz inongo bazkide ez direnei. Gure gazte politiken funtsezko printzipio gisa, beren proiektu propioak garatzeko espazioak, tresnak eta baliabideak emango zaizkie gazteei.

3. Parte hartzeko prozesuak abiatuko dira politika guztietan, haien irismena eta edukiak zehaztuz. Gainera, lehen esan dugun bezala, parte-hartzea zehar-ardatza izango da arlo guztietan.

4. Gazte elkarte guztiekin bilduko gara, beraien artean elkarlanean aritzeko protokolo bat ezarri eta elkarte berriak sortzen lagunduz.

5. Sare sozialetan daukagun presentziari dinamismoa emango zaio, komunikazio bide gisa eta gazteentzat interesgarria den informazioa zabaltzeko.

### EMANTZIPAZIORAKO NEURRIAK

#### GIZARTEAN ETA LAN MUNDUAN TXERTATZEA ETA TOKIKO GARAPENA

6. Nafarroako Gazteriaren Behatokiak Nafarroako eskualde guztietako prestakuntza, gizarte eta lan errealitatea aztertzea. Gero, azterketa horretan oinarrituta, gazteentzako enplegu eta prestakuntza planak egingo lirateke, gazteei enplegua lortzen laguntzeko.

7. Gazte ekintzaileentzako laguntzak, batez ere ekimen kooperatiboentzat.

8. Gazteen ekintzailletza kolektibo eta soziala sustatzeko programak sortzea, honako atal hauek kontuan izanik:

- Prestakuntza: ekonomia sozial eta solidarioarako eta kooperatibismoaren inguruko prestakuntzarako baliabideak eskaintzea.
- Proiektuak sortzeko eta garatzeko aholkularitza juridikoa, estrategikoa eta finantzariora.
- Ekonomia sozial eta solidarioan oinarritutako proiektu sareak sustatzeko egitasmoa.

- Enpresa mintegiak sortzea, proiektu horien eta haien eskaintza garatzeko gune gisa.

9. Nafarroatik kanpo lan egitera joan behar izan duten gazte guztiak itzultzeko neurriak.

10. Ikertzaile gazteentzako eta garapen teknologikoaren arloko ekimenetarako (I+G+B) laguntza espezifikoak.

11. Lehen sektorean ustiategi berriak irekitzeko bideak erraztea, iraunkortasuna eta ekoizpen ekologikoa irizpidetzat hartuz.

- Landa garapenerako programetan aurreikusitako laguntzez gain, laguntza tekniko eta juridikoaren arloko zerbitzuak garatzea. Zerbitzu horiek zubi lana egingo lukete, erretiroa hartzen dutenek gazteen esku utz ditzaten beren instalazioak eta jakintza.

12. Enplegu berdea eta turismo iraunkorra sortzeko laguntzak.

13. Tokiko garapen plan iraunkorrak bultzatzeaz arduratzen diren sailekiko lankidetzak, gazteei zuzendutako ekintza espezifikoak jaso ditzaten.

14. Erdi mailako eta goi mailako prestakuntza berezia, tokian tokiko ekoizpen beharrekin, teknologia berriekin eta I+G+Brekin estu lotua.

15. Hezkuntza sistema tradizionalera moldatzeko arazoak dituzten eta enplegura bideratutako prestakuntza zehatzagoa eskatzen duten pertsonekin lan egiten duen hezkuntza sarea bultzatzea eta finantzatzea: hasierako lanbide prestakuntzarako programak (PCPI), prestakuntza egokiturako programak (PCA), lantegi-eskolak.

16. Gazteentzako Berme Programaren kudeaketari dagokionez, kalitatezko prestakuntza eta lanpostu duinen eskaintza bermatzea gaur egun prestatzen ari ez diren eta enplegurik ez daukaten 16 urtetik 25 urtera bitarteko pertsonen.

17. Kontratazio publikoetan klausula sozialak txertatzea, kontratu publikoen ehuneko zehatz bat gazteek bete dezaten.

#### ETXEBIZITZA:

18. Alokairu soziala bultzatuko dugu, herri bakoitzean eskatzaile eta eskaintzaile poltsak sortuz eta bitartekari lana eginez etxebizitza hutsak gazteen eta bereziki emakumeen emantzipaziorako berrerabil daitezten.

19. Nafarroako Gobernuaren etxebizitza hutsen erabilera gurasoekin bizi diren eta baliabide faltagatik alokairu sozial edo normaleko etxebizitzarik eskuratu ezin duten gazteei emantzipatzen laguntzeko erabiliko litzateke.

20. Etxebizitza politikaren barruan, gazteen baliabide eta beharretara egokitutako politikak bultzatuko dira, etxebizitza eredu berriak sortuz.

21. Askotariko topaguneak sortzea: sorkuntzarako; sormena sustatzeko; ideiak trukatzeko; ekimen sozial, kultural eta ekonomikoak bultzatzeko eta sortzeko.

22. Etxebizitza eskubide subjektibotzat hartuz (hau da, etxebizitza exijitu ahal den eskubide bat dela onartuz), 18 urtetik gorako edozein pertsonak izango luke babes ofizialeko etxebizitzak alokairuan eskatzeko eskubidea. Etxebizitza poltsetan sartu ahal izateko ez litzateke beharrezkoa izango gutxieneko diru sarrera batzuk edukitzea.

## GIZARTE ZERBITZUAK

23. Gaur egun dauden gizarte laguntza guztiak aztertzea eta gazteen beharretara egokitzea.
24. Adingabeak sustatzeko eta babesteko dauden sare guztiak bultzatzea. Halakorik ez dagoen herri eta eskualdeetan sare berriak sortuko dira.

## MUGIKORTASUN IRAUNKORRA:

25. Mugikortasun iraunkorra sustatzeko hezkuntza programak bultzatzea.
  26. Gazteen beharretara egokitutako garraio publiko bat bultzatzea, adinaren eta diru sarreraren arabera. Landa eremutik egin beharreko garraioak kontuan hartuz, beren herrietatik kanpo bizi behar ez izateko.
- Lurraldeen arteko harremanak
27. Euskal Herri mailako mugikortasuna erraztea (hezkuntza, prestakuntza, enplegua, txartel bakarra).
  28. Erasmus programa bultzatzea eta Euskal Herriko euroeskualdea garatzeko aprobetxatzea.
  29. EHUren eta UPNAren arteko eta hezkuntzaren nahiz prestakuntzaren arloko erakundeen arteko lankidetzak hitzarmenak erraztea, Hego eta Ipar Euskal Herriko lurralde guztien artean.
  30. Gazteei zuzendutako plan berezi bat jarriko dugu abian, Euskal Herria gazteen artean ezagutarazteko asmoz. Helburu horrekin, honako baliabide hauek eskainiko ditugu:
    - Aterpeen eskaintza hobetzea eta haiei buruzko informazioa zabaltzea.
    - Aterpeetarako, kultur ondarea osatzen duten espazioetarako, aisialdiaren arloko jardueretarako, garraiorako eta beste gauza batzuetarako balioko duen bonu bat sortzea.
    - Gazteek erabiliko ahalko luketen aterpe sare bat sortzea, aterpeak "luxuzko hotelak" izan ez daitezen.
    - Aterpeetan prezio jasangarriak jartzea aisialdi taldeentzat, gaztetxeentzat, kolektiboentzat...
  31. Nafarroatik kanpo ikastera edo lan egitera joateko laguntzak (itzuli beharrekoak).
  32. Kontzientzia ekologikoa, ingurunearekiko nahiz ingurumenarekiko errespetua eta kontsumo arduratsua sustatzea gazte politikaren ardatz gisa.

## GARAPEN PERTSONAL ETA KOLEKTIBOA

### OSASUNA SUSTATZEA ETA OSASUNAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ARRISKUAK ETA KALTEAK PREBENITZEA

33. Osasunaren arloko programak (sexualitatea, kontsumoak, elikadura arazoak...) Gizarte Zerbitzuekin eta Osasungintza, Hezkuntza eta Gazteria departamentuekin koordinatzea.
34. Sexualitatearen eta sexu hezkuntzako programen arloan gazte kontsultak sortzea, gure sexualitatea bete-betean eta begirunez bizitzeko.

#### KULTURA ETA SORKUNTZA

35. Sorkuntza sustatzeko eta bultzatzeko baliabideak jarriko dira. Besteak beste, ideiak askatzeko eta bideratzeko baliabide ekonomikoak, azpiegiturak eta espazio komunak sortuko dira, kulturaren munduan gazte sortzaile eta ekoizleen SARE bat osatzeko asmoz.
36. Gaur egun dauden programak egokitu eta berrituko dira, eredu alternatibo propioak sustatuko dituzten mekanismoak abian jartzeko, kultura ekoizten duten gazte sortzaileen inplikazioa bultzatuz.
37. Gazteek kultur sorkuntzan eta ekoizpenean duten inplikazioari buruzko gogoetak ezagutaraziko ditugu, eta ekoizpen eredu berriei buruzko informazioa emango dugu, sentsibilizazio programa zehatzak sortuz.
38. Kulturaren jasotzaileak sortzaile edo ekoizle bihurtzeko bideak irekiko ditugu, gazteek aniztasun kulturala lantzeko iniziatiba har dezaten.
39. Sormenaren sustapenerako, ideien elkartrukatzeko eta ekimen sozialak, kulturalak, ekonomikoak eta abar bultzatzeko elkarguneak martxan jarriko ditugu.

#### KIROLA

40. Kirola aisialdiko jarduera osasungarri gisa sustatuko dugu. "Lehiarik gabeko" kirola sustatuko dugu gazteen artean, araututako lehiara bideratu gabe. Kirolerako "balio ez duen" pertsona bezala katalogatutako gazteak ez dira geratuko kirola aisialdiko jarduera osasungarri gisa egiteko aukerarik gabe.
41. Kirol Eskolekin elkarlanean arituko gara.

#### GIZARTE HARREMANAK ETA AISIARAKO HEZKUNTZA

42. Nafarroan diren kultura eta gutxiengo etniko guztien arteko harremanak landuko dira, elkar ezagutzeko eta errespetatzeko eta kultura-artekotasuna sustatuz.
43. Gazteek beren proiektuak era autonomoan garatu ahal izateko, autogestiorako guneen lagatzea bultzatuko dugu.
44. Gazteentzako lokal publikoak sortuko ditugu, hala nola Ludotekak eta Gaztelekuak, kogestioa eta elkarlana irizpidetzat hartuz. Lokal horiek haurrentzat eta nerabeentzat izango dira nagusiki, eta jarduerak adinaren eta arduaren arabera finkatuko dira. Hala ere, 18 urtetik gorakoentzako aretoak eta baliabideak ere izango dituzte, elkarlanean erabili beharrekoak.
45. Eskaintza publiko kogestionatua (gaztetxeak) eta eskaintza pribatu autogestionatua (etxabeak) elkarlanean aritzeko bideak ezarriko dira. Horrez gain, programa partekatutakoak sustatuko dira.

## INSTITUZIOAK EGITURATZEKO NEURRIAK

46. Sarean lan egiteko erraztasunak emango dizkiegu teknikariei. Haien esperientzia eta profesionaltasuna baliatu behar ditugu. Gazte politika hurbilak, Nafarroako eskualde guztien eta bertako gazteen beharren arabera.

47. Tokiko eta eskualdeko gazte planak egin behar dira.

48. Gazteen garapenerako eta emantzipaziorako neurriak sustatzeaz eta gazte politikak garatzeaz eta inplementatzeaz arduratuko den erakunde autonomo bat sortuko da (GazteOn). Erakunde hori Nafarroako Gobernuako departamentu guztiak koordinatzeaz arduratuko da, gazte politikak transbertsalak eta integralak izatea lortzeko.

49. Gazteriaren Behatokia bultzatu eta garatuko dugu. Gazteen errealitatearen azterketa kuantitatiboak eta kualitatiboak egingo ditu. Behatokiak ikerkuntza-ekintza parte-hartzailea lehenetsiko du, ikasteko funtsezko teknika gisa, eta gazteen parte-hartzea sustatuko du.

50. Gazte politiken inguruko aholkularitza emango zaie tokiko erakundeei eta gazteen arloko teknikariei. Era berean, prestakuntza emango zaie gazte politikez arduratzen diren pertsona guztiei, mintegi, tailer eta hitzaldi iraunkorren bidez.

51. Udal eta eskualdeetan, gazterian espezializaturiko teknikoek kontratazioa bultzatuko da.

52. Nafarroako gazteria-mahai teknikoak sortuko dira. Bertan, herrietako nahiz eskualdeetako gazte sailletako, gazteleketako, gaztetxeetako eta gazteen beste espazio batzuetako teknikariek eta arduradunek esperientziak, prestakuntza eta gogoetak partekatuko dituzte. Halaber, toki eta eskualde mailako gazte politika espezifikoko abiatuko dituzte Nafarroa osoan.

53. Gazteen parte-hartzerako mahaia sortuko da. Mahaia horren bidez, elkarrekin antolatuta dauden gazteek nahiz inongo bazkide ez direnek inplementatu beharreko gazte politiken lehentasunak definituko dituzte.

54. Gazteriari buruzko Foru Legea garatuko da, dekretuen eta finantziario egokiaren bidez. Izan ere, aurreko legegintzaldian aho batez onartu zen arren, oraindik ez da abian jarri.

55. 2016-2020rako Gazte Estrategia sortuko da. Gaur egun, Nafarroan Gazteria Plan bat dago, baina ez da adostu gazte politiken garapenean esku hartzen duten eragileekin, eta are gutxiago gazteekin eta haien kolektiboekin. EH Bilduk goitik behera aldatu nahi du plan hori. Tresna askoz eraginkorragoa izan behar da, hasiera-hasieratik eragile sozialekin eta teknikariek sortua eta adostua. Epe labur eta ertaineko lana egiteko gai izan behar da (malgutasuna eta egokitzapena), baina askoz ere ikuspegi luzeagoa izan behar du (horregatik sortuko da 2016-2020rako Gazte Estrategia).

56. Tokiko eta eskualdeko gazte planak sustatu eta finantzatu dira. Horretarako, gazteriaren arloan tokiko erakundeei ematen zitzaizkien dirulaguntzak berreskuratu behar dira, azken lau urteotan desagertu egin baitira.

57. Gazteentzako Informazio Zerbitzuen Sarea bultzatuko da, erakunde koordinatzaile gisa. Horren bidez, komunikazioaren eta informazioaren teknologiak erabiltzeko erraztasunak emango zaizkie gazteei, batez ere gizarte zailtasunak dituztenei.

58. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua birpentsatu eta behetik gora berreraiki behar da. Gazteen parte-hartzeari dagokionez malgutasuna izan behar da eta herrietan sustraituta egon behar da. Arlo horretako legedia aldatu behar da.



# 19 HELDUAK



## HELDUAK

### IDEIA NAGUSIAK

Helduek behar zehatzak dituen herri-sektorea osatzen dugu, osasun eta zaintza arazo zehatzekin eta horren gainean arreta jarri behar da.

Horregatik, pertsona guztiei bizi baldintza duinak, diru sarrera nahikoak eta oinarritzko eta kalitatezko zerbitzuak bermatu behar zaizkie.

Helduak jendartearen parte aktibo eta garrantzitsua garela argi izan behar dute eremu honetan instituzioetatik aplikatzen diren politikek, asistentzia ikuspegi sanitarioa gainditu ahal izateko.

### ONARRI IDEOLOGIKOAK

- Gaur egungo egoerak, UPNk aplikaturiko aurrezte politiken ondorioa dena, sektore apalenen bizi baldintzak larritu egin ditu; abagune horretan, adinduok osatzen dugun herri-sektorea indar bereziz kolpatua izaten ari da. Hala ere, jendartearen aurrean eremu honekiko dagoen ezagutza eza gero eta handiagoa da eta horri aurre egiteko azterketak egin eta ezagutzera ematea beharrezkoa da.

- Herri-sektore honen egoera larria estrukturala da, alegia, eremu orotan du isla, horregatik, pentsio publikoei eraso egitean, hauek lortzeko gero eta oztopo handiagoak jarriz eta haien etengabeko devaluazioaren ondorioz, adinduok eroste ahalmena etengabe galtzen ari gara; gure bizi-kalitatearen narriadura muga guztiak gainditzen ari da. Nafarroan ez dira gutxi "jan edo berogailua piztearen" artean aukeratu behar duten pentsiodunak; pentsioak "pribilegio" edota laguntza- pentsio bihurtu dira.

- Bestalde, adinduen sektoreak gero eta zailtasun handiagoak ditu osasunaren eremuan. Nafarroan erabakitzen diren aurrekontu publikoak, urtez-urte urriagoak dira osasun-zaintzaren eremuan. Egoera are larriagoa da kontuan hartzen badugu sektore hau, osasunari dagokionez, ahulena eta zaugarriena dela eta ondorioz, osasun arretaren behar handiena duena.

- Bestetik, egun aplikatzen diren politika publikoek gabezi handiak dituzte pertsonen autonomia galtzeari koherentziaz eta modu egokian erantzuteko, besteak beste, autonomia pertsonala galtzearen prebentzioa sustatu beharko luketen aurreratze politiketan hutsune nabarmenak daude; lan-osasunean, bakardadeari aurre egiteko politiketan, berezko zaintzan... menpekotasun egoerei ingurunera egokitzeko politikek, gabezi handiak dituzte (hirigintza, laguntza teknikoak, garraio egokitua...) eta laguntza politikak ez dira nahikoak (etxez-etxe laguntza...).

- Ildo honetan, bereziki kezagarria da menpekotasun egoeran dauden pertsonen eskubideen garapen eskasa eta desorekatua. Eta ezin ditugu aipatu gabe utzi, etxeetan, jendartean eta erakunde mailan ahultasun egoeran dauden adineko pertsonen ematen zaizken tratatu txarrak.

- Bestalde, adineko emakumeen parte hartze sozial aktiboa txikia da oraindik (elkarteetan, plataformetan...). Hori dela eta, parekidetasunean eta arduren partekatzean urratsak eman behar dira, emakumeen presentzia aktiboa bermatu ahal izateko.

- Horren guztiaren ondorioz, herri-sektore honi dagokionez, ezinbestekoa da eremu publikoaren eta ongizate



estatuaren defentsa. Erantzukizun publikotik erantzun behar zaio egoeraren larritasunari. Lanketa horretan, kultura aldaketan sakondu behar dugu, alor hau eremu asistentzial eta sanitario gisa gaindituz.

- Adinduak gizartearen parte aktibo izatea da helburua, bere erantzukizun eta ardura guztiak aintzat hartuz. Horretarako, subjektu aktiboa izan daitezen, lehenik eta behin bizi baldintza duinak eta kalitatezkoak izan behar dituzte; eta lortzeko, oinarritzko diru sarrerak eta beren ingurunean bizi eta tratatuak izateko duten eskubidea bermatzea ezinbestekoa da.

- Helduek gizartean duten papera sustatu behar dugu eta aurrera eramateko, zeharkako politika parte hartzaileen bidez egin behar da.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### HELDUENTZAKO BIZI BALDINTZA DUINAK BERMATZEA

1. Helduekin erlasionaturik dauden politiketan, instituzioen arteko koordinazio protokoloak bultzatuko ditugu.
2. Pentsio duinak babestuko ditugu. Publikotasunaren, ongizate estatuaren eta lorpen sozialen defentsa bultzatuko ditugu, helduek jasaten duten larritasun egoerari aurre egiteko tresna gisa. Adindu guztiei oinarritzko diru sarrerak bermatzeko konpromisoa hartzen dugu.
3. Helduen gaineko tratu txarren kontrako eta errespetuzko zaintza egokien aldeko kanpainak martxan jarriko ditugu.
4. Enpresen mozkinen gainetik, arreta lehenetsiko duen helduen asistentziarako eta zaintzarako sistema publikoa bultzatuko dugu.
5. Egoera eta behar ezberdinei egokitua eta integrazio soziala helburu duen asistentzia eta zaintza politika ezarriko dugu; zaintzapeko apartamentuak eta herrietako eguneko zentroen eskaintza handituz, etxez-etxeko laguntza eta elkarte sozialak bultzatuz, adinaren araberako taldeen elkarbizitza sustatuz...
6. Menpekotasunaren arreta hobetzeko plangintza landu, horretarako prestazio ekonomikoa bakarrik jasotzen duten pertsonen segimendua eginez eta laguntza emanez.
7. Helduen autonomia mantentzea kontuan hartuko da, euren behar eta egoerei aurre egiteko neurrien bidez, hirigintza planifikazioaren, oztopo arkitektonikoen eta mugikortasunaren eremuetan.
8. Beharrezko zerbitzuak landa eremuetara hurbiltzea eta eremu horietan garraio publiko sareak indartzea.

### HELDUEN PARTE HARTZE SOZIALA BERMATZEA

9. Zahartze aktiboa sustatzen dituzten politikak bultzatu. Politika horiek landu eta kudeatuko dira Nafarroako helduen elkarte guztiekin elkarlanean.
10. Helduen garapena eta auto-estimua helburu duten formazio ekimenak, ekimen kulturalak, eta aisialdirako ekimenak bultzatzea, eremuko elkarteekin elkarlanean.
11. Elkarreetan eta gizarte osoan emakume adinduen parte hartzea bultzatzeko, herri-sektore honi egokitutako berdintasun politikak aplikatuko ditugu; eginbeharren eta arduren banaketa esaterako.

12. Nafarroako jendarte eremu guztietan helduen parte hartzearen sustapena erregulatuko duen lege baten eraketa.
13. Nafarroako Helduen Kontseiluaren eraberritze eta demokratizatzea, herri-sektore horrengan eragina duten politiketan paper aktiboago eduki ahal izateko. Helburu honekin instituzio foralaz gain, herri-sektore honetako elkarte eta eragileen parte hartzea bilatuko da. Horretaz gain, boluntarioen elkarteak eta horietan helduen parte hartzea bultzatuko ditugu.
14. Pertsona boluntarioen elkarteak sustatuko dira, hala nola pertsona helduen parte hartzea.
15. Administrazio foralarekin zein udal administrazioekin egin beharreko erlazioetan dokumentu zein webgune ulergarriak sortuko ditugu.
16. Baliabideen gida egokiak sortu, jendearen eskura toki eta une egokietan egonik.
17. Behar dutenentzako tutoretza publikoa garatzen joango gara.
18. Belaunaldien arteko ezagutza eta elkartze politikak aurrera eramango ditugu, eskoletan programak bultzatuz eta gazteen eta helduen arteko erlazioa sustatuz.
19. Eremu ezberdinetan helduek egindako ekarpen soziala ezagutzera emango da; bilobak zainduz, seme-alabei ekonomikoki lagunduz, boluntario gisa lanak eginez, lankidetzaren bidez...

20  
KULTURA ETA  
JATORRI  
ANIZTASUNA



# KULTURA ETA JATORRI ANIZTASUNA

## IDEIA NAGUSIAK

1. Nafarroako kultur aniztasuna aintzat hartuz, EH Bilduren helburua izango da gure herria aniztasun horretatik ere eraikitzea herritar guztien artean, norberaren jatorria gorabehera.
2. EH Bildurentzat, Nafarroan eta, beraz, Euskal Herrian bizitzea erabaki duen pertsona oro da euskal herritarra, edonon jaioa dela ere ("Iruñean, Senegalen, Tuteran, Errumanian, Ekuadorren, Badajozen, Pakistanen, Fezen, Irunen... jaioa naiz eta euskal herritarra naiz") eta euskal herritar guztiok ditugu eskubide eta betebeharrak berberak.
3. Pertsona guztientzat eskubide guztiak eta aukera berdintasuna aldarrikatzen ditu EH Bilduk. Aldarri hori errealitate izan dadin behar besteko neurriak abian jartzeko konpromisoa hartua dugu, zurrumurru eta aurreiritzi faltsuak zabaltzen dituzten mezu interesatuak desmuntatzetik hasita.
4. Elkarbizitza da gakoa. Horretarako, elkar-ezagutza, elkar-ulertzea eta elkarrekiko aitortza ezinbestekoak dira. Gizarte kohesionatua lortzea da gure azken helburua.
5. Aniztasuna ikuspegi integral batetik ulertzen dugu, hau da, Nafarroako herritarren jatorri eta kultur aniztasun guztia barnebilduz (migranteak, euskal jatorriko pertsonak, beste jatorri batzuetakoak, Ijito Herria...) eta kolektibo eta komunitate bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuz.
6. Azken batean, EH Bilduk paradigma berri bat proposatzen du immigrazio politiketatik aniztasun politiketara pasatzeko. Aniztasun eta migrazio politikak ikuspegi propio, parte-hartzaile, transbertsal eta integratzaile batetik bultzatu eta kudeatu behar dira, Nafarroako herritar guztiak kontuan hartuz. Politika horien erreferentzia Euskal Herria izango da, politikaren nahiz kulturaren arloan nazio gutxitua dela abiapuntutzat hartuz.

## ONARRI IDEOLOGIKOAK

Nafarroa, Euskal Herri osoa bezala, anitza da kulturari eta bere herritarren jatorriari dagokionez. EH Bilduk horrela ulertzen du. Gure helburu nagusia, beraz, aniztasun horretatik ere gure herria eraikitzea da, euskal herritar guztien artean, edozein dela gure jatorria. Horrekin batera, jendarte eraldaketa ere sustatu nahi dugu, jendarte justuago eta solidarioago bat sortuz. Horregatik, aniztasun hori kudeatzeko orduan, mota guztietako desberdintasunei aurre egiteko lan egingo dugu.

Gaur egungo markoan ezinezkoa da Nafarroatik migrazio eta aniztasunari buruzko politika propiorik garatzea, eskumen hori estatuek soilik daukatelako. Gogoan izan behar dugu zer arautzen den benetan migrazio politiken eta atzeritarrei buruzko legeen bidez: nor eta zein baldintza eta eskubiderekin garen herri honetako herritarrak eta, beraz, baita nor ez den hemengo herritarra ere. Horregatik, gure ustez, Nafarroak bere herritartasun politika propioak erabakitzeko eskubidea izan behar du, pertsona guztien eskubideak bermatu ahal izateko eta biztanle guztiei zerbitzu publikoak erabiltzeko aukera ziurtatzeko. Eskubide hori erabili ahal izateko baldintzak sortzeko beharrezkoak diren urratsak egiten hasi behar dugu. Nafarroako instituzioei aniztasunaren eta migrazioen arloan politika propioak erabakitzeko eskumen burujabeak ematea proposatuko dugu, horrek soilik ahalbidetuko baitigu pertsona guztien eskubideak bermatzea.

Migrazioak eragiten dituzten arrazoiak askotarikoak dira: kulturalak, sozialak, politikoak eta kasu gehienetan ekonomikoak. Arrazoi horiek eragindako beharregatik, nafar asko munduan zehar barreiatu dira eta beste herri batzuetako pertsona ugari Nafarroan kokatu dira.

Sistema kapitalistak, bere eredu ekonomikoa aurrera ateratzeko, herrialde anitz pobretu ditu gutxi batzuk aberasteko eta, ondorioz, pobretutako herrialdeetako gizon-emakumeen bizi-baldintzak minimoen azpitik jarri. Horrek migratze-beharra eragin du eta behar hori baliatu du sistema kapitalistak, interesatu zaionean, jatorri desberdinetako langile klaseak elkarren kontra jartzeko. Zertarako? Injustizia horren errua bere sorburua den kapitalismoaren gain beharrean, langile-klasearen gain jartzeko; oro har, ahulenen gain.

Horrela, aspaldi honetan, krisi ekonomikoa baliatuz, inolako funtsik gabeko mezu interesatuak zabaldu dira kultura eta jatorri jakin batzuetako herritarren kontra. Enplegu duin bat izateko zailtasunak eta prestazio sozialen beharra areagotzen ari diren honetan, herritar ugariengan sarrera eta eragina duten mezuak ugaritzen ari dira ("lana kentzen digute", "bertokoei dagozkigun diru-laguntzak eramaten dituzte"...). Oinarri errealek gabeko zurrumurruak baino ez diren mezu horien eraginez, jende askok areriotzat, bere egoera kaskarraren erruduntzat eta lehiakide desleial eta arriskutsutzat hartzen ditu jatorri edota kultura jakin batzuetako herritarrak. Mezu horiek beldurra eragiten dute eta beldur horrek jarrera arrazistak eta xenofoboak azaleratzeko baldintzak sortu ditu. Horregatik, jarrera horien kontra eta arrazistak edota xenofoboak iruditzen zaizkigun lege eta neurri instituzional guztien kontra arituko gara.

Jatorri eta kultur aniztasunaren kudeaketa, beraz, gai konplexua da, eta nahitaez heldu beharrekoa gaur egungo garai multikultural honetan. Arduraz eta arretaz landu beharreko gaia da. Hori horrela izanik, eta Europatik zein estatuetatik inposatu dizkiguten migrazio lege eta araudi eskubide-urratzaileek bestelakorik badiote ere, EH Bildutik argi daukagu pertsona guztiok daukagula duintasunez bizitzeko eskubidea eta, edonon jaiok izanik ere, bizitza duin horren bila edonora joateko askatasun osoa. Hori dela eta, EH Bildurentzat, norberaren identitatea erabat errespetatuz, Nafarroan bizitzea erabaki duen pertsona oro Nafarroako herritarra da, edonon jaiok dela ere; eta guztioi bermatu behar zaizkigu eskubide, erantzukizun, betebeharrak eta aukera berberak, gure arraza, sexua, sinesmena, etnia, identitatea, sorlekua edo nazionalitatea edozein dela ere. Eta hori erakunde publikoen lana da. Gainera, aliantza esparruak sortu behar dira Nafarroan bizi garen pertsona guztion eskubide berdintasuna lortzeko. Azken batean, Nafarroaren eskubideak bertara iristen diren migranteen eskubideekin uztartu behar dira.

Nafarroan bizi diren eta lan egiten duten pertsona guztien eskubideak aldarrikatzen ditu EH Bilduk, ikuspegi propio batetik, estaturik gabeko nazio gisa eta Euskal Herria esparrutzat hartuz. Herritar guztien parte-hartze politikoa sustatu nahi dugu eta, hori bermatzeko, administrazio publikoak herritarrei erabat irekiak egon behar dira, bertatik kudeatuko diren baliabide eta zerbitzu publiko guztietara iristeko aukera erraztuz.

Asimilazio ereduaren aurrean, elkarbizitza da gakoa. Horretarako, elkar-ezagutza, elkar-ulertzea eta elkarrekiko aitortza ezinbestekoak dira. Elkar ezagutzea eta ulertzea ahalbidetuko diguten dinamikak eta jarduerak behar ditugu, dinamika komunitarioak eta instituzionalak, transbertsalak eta integralak, herritar guztien parte-hartzeari irekiak, instituzioen eta aniztasun hori osatzen dugun pertsona eta kolektibo guztion arteko elkarlanean oinarrituak:

- Beste herri eta kultura batzuetako pertsonen gure kultura ezagutzeko eta balioesteko aukera izan dezaten.
- Nafar jatorriko herritarrek Nafarroara iritsi diren pertsonen herriak eta kulturak ezagutzeko eta balioesteko aukera izan dezaten.
- Euskal herritarrei Ijito Herriaren errealitatea, kultura eta ezaugarriak ezagutarazteko, herri hori Euskal Herriaren parte baita aspalditik, eta, era berean, euskara eta euskal kultura ijitoei ezagutarazteko, ijitoen kultura ere euskal kulturaren parte baita.

Arlo horretan, transbertsalitatea izango da EH Bilduren jardueraren beste ardatz nagusi bat. Nafarroako Gobernuaren gainerako sailetatik bultzatzen eta abiarazten diren politikek eta jarduketek herritar guztien eskubide eta aukera berdintasuna bermatu behar dute, haien jatorria edozein dela ere, eta transbertsalitatea ezinbestekoa da horretarako.

EH Bildutik, arlo horretan aritzen diren subjektu guztien protagonismoa eta parte-hartze zuzena bultzatuko ditugu, ahalduntze guneak eta dinamikak sortuz. Arlo horretan aritzen diren eragile guztien nahiz herritar guztien parte-hartze sozial eta politikoa bermatu behar dugu. Hori izango da gure lanaren beste ildo estrategiko bat.

EH Bildutik, jatorri, kultura eta hizkuntzen aniztasuna aberastasun gisa ulertzen dugu, eta euskara eta euskal kultura Nafarroako herritar guztien arteko elkarbizitzarako eta elkar-ezagutzarako komunikazio eta kohesio tresna gisa.

- Hizkuntzari dagokionez, norberaren hizkuntza garatzeko bideak eskaintzearekin batera, euskara elkarbizitzarako komunikazio tresna gisa sustatuko dute administrazio publikoek, elkar-ezagutzarako eta kohesiorako bitarteko gisa.
- Kulturari dagokionez, norberaren identitate kulturala garatzeko bideak eskaintzearekin batera, nafar kulturaren elementu guztietara iristeko bitartekoak ziurtatu behar dizkiote erakunde publikoek Nafarroako herritar orori. Bestalde, kultur adierazpen ororen askatasuna bermatu beharra dago, kulturen arteko bizikidetzaren parte-hartze aktibo eta zuzenaren bidez lantzeari ekinez.

Kontuan izan behar dugu euskara hizkuntza gutxitua dela, oso presentzia urria duela Nafarroako eskualde askotan eta legeak ezarritako zonifikazioak haren normalizazioa eta garapena eragozten duela. Horregatik, euskara jakiteko eskubidea bermatu behar zaie herritar guztiei, horretarako aukera berdintasuna ziurtatuz eta euskara ikasteko beharrezkoak diren bitartekoak eskainiz. Hezkuntza arautuak ikasle euskaldun eleanitzak bermatu behar ditu hizkuntzen arloan. Ildo horretan, neurriak hartu behar dira beste jatorri batzuetako familietako ikasleak euskara ikastea bermatzen duten hezkuntza ereduetan matrikula daitezen. Horrela, D eredia ere Nafarroako kultur aniztasunaren isla izango da eta euskara kohesio sozialerako elementua izan ahalko da.

Gure ustez, eskolak ikasle guztien aukera berdintasuna sustatu behar du. Nafarroan, euskara ez jakitea segregazio faktorea izatera irits daiteke, aukerak murrizten baititu gizartearen, kulturaren nahiz lanaren arloan. Horregatik, eskolak euskararen nahiz beste hizkuntza batzuen ikaskuntza bermatu behar du, ikasle guztiek gizartearen nahiz lan merkatuan txertatzeko eta pertsona gisa garatzeko aukera berdinak izan ditzaten. Horrekin batera, jatorri guztietako hizkuntzek eta kulturek dagokien presentzia eta onarpena izan behar dute gure hezkuntza sisteman nahiz bizitza publiko edo komunitarioaren beste eremu batzuetan.

Zurrunmuru eta aurreiritzi faltsuak bazterrean uztea lehenasunezkoa dugu; horiek jendartearen eragiten dituzten beldurrak uxatzea ezinbestekoa da bazterkeriari, arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko. Zentzugabekeria horri aurre egiteko, egiazko informazioa da tresnarik eraginkorrena. Horrekin batera, jatorri/kultura desberdinak izatearen aldeak baino, pertsona gisa komunean ditugun elementuak (bizi-beharra, egoera laboral-ekonomiko-afektiboak...) ikusarazi behar ditugu.

EH Bilduren helburua mota guztietako marjinazio edo bazterketekin erabat bukatzea da. Horri dagokionez, gure konpromisoa oinarritzeko arlo guztietan herritar guztiei babesa bermatzea da, egoerarik larrienean daudenei lehenasuna emanez, haien jatorria edozein dela ere. Zehazki, gure azken helburua hau da: haren premia duten pertsona guztiek Gizarteratze Errenta jasotzea edo inolako baldintzarik gabe Nafarroako osasun sistema publikorako sarbidea izatea. Bide horretan, arreta berezia eskainiko diegu emakumeei, gazteei eta adinekoei, beraiek baitira prekaritatearen ondorioak erarik larrienean pairatzen dituztenak.

Erljio aniztasunari dagokionez, EH Bilduren ustez erljioa hautu pertsonal eta askea da, administrazio publikoek errespetatu eta bermatu beharrekoa. Hala ere, erljioak -bat bera ere- ezin dira politika publikoen baldintzatzaile izan. Horregatik, sinesmen askatasuna errespetatuz eta defendatuz, norberaren hautuaren garapena administrazio laikoaren bidez bermatuko da. Politika publikoek aukera berdintasuna bermatuko dute eta trataera berdina emango diete erljio guztiei.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### 1. NEURRI, EKIMEN ETA POLITIKA PUBLIKO GUZTIEK ELKARBIZITZA SUSTATU ETA ANIZTASUNA ERRESPETATUKO DUTELA BERMATZEA.

1.1 Arlo hori Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza Sailean kokatzea, aniztasunaren transbertsalitatea ziurtatzeko, eta aniztasun politikak diseinatu eta koordinatuko dituen zuzendaritza bat sortzea haren baitan.

1.2 Sailarteko koordinazio talde bat sortzea, sail edo departamentu guztietan aniztasunaren ikuspegia aintzat har dadin. Kultur jatorri aniztetako pertsonen parte-hartzea sustatzea.

1.3 Aniztasunari buruzko prestakuntza programa espezifikoak, instituzioetako pertsonalari zuzenduak, aniztasunaren balio eta printzipioetan hezteko. Prestakuntza hori beharrezkoa da herritarrekiko harremanetan inolako diskriminaziorik egon ez dadin

1.3 Udalei mota guztietako planak edo programak definitzeko baliabideak eta koordinazioa eskaintzea (harrera orokorra, hizkuntza harrera, elkarbizitza, elkar-ezagutza, parte-hartzea...). Helburuetako batzuk honako hauek izango dira: pertsona guztiei, jatorria gorabehera, zerbitzu publikoak erabiltzeko aukera bermatzea eta instituzioetatik nahiz arlo komunitario eta sozialetik elkarbizitza kudeatzea.

### 2. JATORRI ETA KULTUR ANIZTASUNA KOHESIO ELEMENTU BIHURTZEA. ELKARBIZITZA SUSTATZEA.

2.1 Gizartearen parte-hartzerako programa bat diseinatzea eta inplementatzea, maila ezberdinetan aniztasunaren eta elkarbizitzaren inguruko parte-hartze soziopolitikoak garatzeko.

2.2 Lankidetzarako eta elkartasunerako programak egokitzea, Nafarroan bizi diren beste jatorri batzuetako pertsonen herri eta herrialdeekiko lankidetzari lehentasuna emateko. Programa horietan, kontuan hartuko da hala jatorri zehatz batzuetako pertsonen kopurua nola batzuen jatorria herri gutxituak edo estaturik gabeko nazioak izatea.

2.3 Ikastetxeetan aniztasunari trataera egokia emango zaiela bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzea, ikastetxe bakoitzaren behar zehatzen arabera.

2.4 Matrikulazio prozesuak ordenatzea, honako helburu honekin: jatorriagatik eta beraien borondatearekin zerikusirik ez duten interesei erantzunez familia batzuk seme-alabak ikastetxe jakin batzuetan matrikulatzera bultzatzea edo bideratzea eragozteko.

### 3. ELKAR-EZAGUTZA, ELKAR-ULERTZEA ETA ELKARREKIKO AITORTZA SUSTATZEA.

3.1 Elkar ezagutzeko neurriak diseinatzea eta inplementatzea ("Ezagutzatik Aitortzara" izeneko programa), herritar guztiei begira eta honako helburu honekin: batetik, kanpotik datozenei edo bestelako jatorri bat dutenei

Nafarroa ezagutaraztea; bestetik, Nafarroako gainerako herritarrei beraien jatorrizko komunitate, herri eta nazioen errealitatea, hizkuntzak, kultura eta egoera politikoa ezagutaraztea.

3.2 Elkarbizitza sustatzeko programa propioak garatzea, elkar-ezagutzan eta elkarrekiko aitortzan oinarriturik, jarrera paternalistarik gabe eta xenofobiaren aurka borrokatzeko asmoz. Helburu nagusia kohesio sozialerako dinamikak eta elkargune komunitarioak sortzea izango da.

3.3 Elkar-ezagutza eta elkarrekiko aitortza landuko dituen programa espezifiko bat diseinatzea eta inplementatzea, hezkuntza komunitate formalari nahiz ez-formalari zuzendua. Programa horren barruan, sentsibilizazio eta prestakuntza dinamikak abiatuko ditugu ikastetxeetan eta zentro komunitarioetan, familia horien jatorrizko hizkuntzek (eta kulturek) gure hezkuntza sisteman dagokien lekua eta aitortza izan dezaten.

3.4 Nafarroan bizi diren beste jatorri batzuetako pertsonen herri eta herrialdeekiko senidetze, elkartruke eta lankidetzat programa bat sortzea.

3.5 Nafarroako aniztasunaren fenomenoak ikuspegi kualitatibo nahiz kuantitatibo batetik aztertu eta egoeraren segimendua egingo duen erakunde bat sortzea. Lan hori ikuspegi integral eta transbertsal batekin egingo da, Nafarroaren berezitasunak abiapuntutzat harturik. Urtero, Nafarroako aniztasunaren diagnostikoa egingo da.

3.6 Nafarroako aniztasunaren eta identitateen fenomenoari eta haren kudeaketari buruzko espazio intelektual eta akademiko bat sortzea, ikerkuntzarako, hausnarketarako eta zabalkunderako. Euskal Herria estaturik gabeko nazioa eta herri gutxitua dela hartuko du abiapuntutzat eta mundu zabaleko estaturik gabeko beste herri eta nazio batzuekin elkarlanean arituko da.

#### 4. NAFARROAN BIZI DIREN PERTSONA GUZTIEN ESKUBIDEAK DEFENDATZEA, IKUSPEGI PROPIO BATETIK, ESTATURIK GABEKO NAZIO GISA ETA EUSKAL HERRIA ESPARRUTZAT HARTUZ.

4.1 Foru administrazioaren politikak eta zerbitzuak Nafarroan bizi diren pertsona guztiei irekitzea, haien jatorria edo lege egoera kontuan hartu gabe eta arlo guztietan (gizarte zerbitzuak, hezkuntza, osasuna, kultura, enplegua, ekonomia...). Administrazioaren zerbitzuak eta baliabideak hainbat hizkuntzatan argitaratzea.

4.2 Osasunarekin, ekonomiarekin, enpleguarekin, gizarte arretarekin eta horrelakoekin zerikusia duten arloetako politikak norberaren jatorria gorabehera Nafarroako herritar guztiei zuzenduko zaizkiela bermatzeko neurriak hartzea (sarbide unibertsal eta doakoa osasun zerbitzuetara, gizarte zerbitzuetara, enplegura...), aukera berdintasuna ziurtatuz. Arreta berezia eskainiko zaie migrazio prozesuen ondorioz sortzen diren beharrei.

4.2 Aniztasuna eta Migrazioa kudeatzeko esparru burujabe baten beharra aldarrikatzea, maila politiko eta instituzionalean. Estatu-esparruek arlo hori kudeatzeko ezartzen dituzten mugak salatzea.

4.3 Arlo horretan, elkarlanerako sare instituzional bat sortzea Nafarroako instituzio guztien artean (gobernua, udalak, mankomunitateak...). Halaber, elkarlanerako esparruak ezarriko dira Euskal Herriko gainerako instituzioekin.

4.4 Jatorria gorabehera, Nafarroan bizi diren pertsona guztiei bozkatzeko, elkartzeko eta politikan parte hartzeko eskubidea bermatzeko erabili ahal diren tresna juridiko-politikoak buruzko azterlanak egitea.

4.5 Nafarroako herritarrek eskubide politiko eta zibilen urraketa larriak pairatzen dituztenean, instituzioek urraketak salatu eta herritarren aldeko jarrera proaktiboa hartuko dute. Halaber, araudiek nahiz migrazio legeek urratzen dituzten eskubideak erabiltzeko babesak bermatzeko zailak Nafarroako herritar guztiei.



4.6 Helduen euskalduntzeari dagokionez, euskara doan ikasteko aukera ematea Nafarroan bizi diren pertsona guztiei, haien jatorria edozein dela ere.

4.7 Nafarroan asiloa eskatzen duten pertsonen eskubideak babesteko inplementatu ahal diren tresna juridiko-politikoei buruzko azterlan bat egitea. Nafarroan asiloa daukaten pertsonen nahiz errefuxiatuei aholkularitza emateko bulego bat sortzea. Pertsona horien egoera nahiz haien jatorrizko herri eta herrialdeen errealitatea ezagutarazteko programa bat sortzea, betiere elkar-ezagutza, elkar-ulertzea eta elkarrekiko aitortza helburutzat harturik.

## 5. GURE HERRITAR GUZTIEN PARTE-HARTZE SOZIAL ETA POLITIKOA BERMATZEA.

5.1 Nafarroako eragile sozial, politiko eta instituzionalen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako gune misto bat sortzea, elkarren arteko laguntza, babesa eta aholkularitza bideratzeko eta aniztasun eta migrazio politikei buruzko erabakiak hartzeko esparru gisa.

5.2 Beste jatorri edo kultura batzuen inguruan antolatutako elkarteak sustatzea, beraiei zuzendutako laguntza programa espezifiko baten bidez.

5.3 Migrantez edo bertako ijitoz zein ijito ez diren pertsonen osatutako elkarteekin nahiz elkarte mistoekin harremanak ezartzea eta elkarlanerako oinarriak zehaztea. Elkarte guztien arteko lankidetzarako guneak sortzea.

## 6. ESKUBIDE ETA BETEBEHAR EDO ARDUREN ARLOKO BERDINTASUNA AUKERA BERDINTASUNAREKIN UZTARTZEA.

6.1 Osasunarekin, ekonomiarekin, enpleguarekin, gizarte arretarekin eta horrelakoekin zerikusia duten arloetako politikak norberaren jatorria gorabehera Nafarroako herritar guztiei zuzenduko zaizkiela bermatzeko neurriak hartzea: sarbide unibertsal eta doakoa osasun eta gizarte zerbitzuetara, eskubide eta aukera berdintasuna ziurtatuz.

6.2 Euskarazko irakaskuntzaren doakotasun unibertsala ziurtatzen ez den bitartean, egoera sozioekonomiko larrian dauden pertsonentzako laguntza programak inplementatuko dira, euskara ikasteko benetako aukera izan dezaten.

6.3 Matrikulazioa euskara ikastea bermatzen duten hezkuntza ereduetara bideratzeko programa orokorrak. Programa horien barruan, beste jatorri edo kultura batzuetako pertsonen zuzendutako lerro espezifiko bat txertatuko da.

6.4 Beste jatorri batzuetako emakumeei emakume guztientzako programa espezifikoetarako sarbide normalizatua bermatzeko neurriak.

6.5 Administrazioaren laiotasuna abiapuntutzat hartuz, Nafarroako herritarren erlijio adierazpen guztien aukera berdintasuna babesteko lege eta administrazio neurriak.

## 7. XENOFOTIAREN ETA ARRAZAKERIAREN KONTRA BORROKATZEA, BATEZ ERE INSTITUZIOEN LEGE ETA NEURRI ARRAZISTEN KONTRA. AURREIRITZI XENOFOTIEN KONTRAKO INFORMAZIO JARDUERAK.

7.1 Arrazakeria eta xenofobia aferei buruzko salaketak jasoko dituen bulego bat sortzea. Bulego horrek laguntza eta aholkularitza emango die biktimei.

7.2 Izaera arrazista edo xenofoboa duten lege eta administrazio neurriak salatzeko dinamika bat abian jartzea.

7.3 Gizartea sentsibilizatzeko kanpaina zabal bat abian jartzea, izaera arrazista edo xenofoboa duten jarrera individual edo kolektiboak desagerrarazteko.

7.4 Salaketaren arloan lan egiten duten elkarteei zuzendutako lankidetzeta eta laguntza programa bat sortzea.

7.5 Zurrumurru eta estereotipo arrazista edo xenofoboaren kontrako informazio kanpainak.

## 8. EUSKAL HERRIAREN ESKUBIDEAK BERTARA IRISTEN DIREN MIGRANTEEN ESKUBIDEekin UZTARTZEA.

8.1 Ikuspegi integral eta transbertsal batekin eta ez asistentzialismo hutsetik lan egingo duen harrera sare bat sortzea, hainbat jakintza adarrez osatutako aholkularitza zerbitzu batekin eta Nafarroara iristen diren edo orain dela gutxi heldu diren pertsona guztiei zuzendua. Sare horren bidez, gai guztiei buruzko orientazioa eta informazioa emango zaie.

8.2 Harrera sareak egiten duen lanaren osagarri gisa, lege aholkularitza eta laguntza soziokulturala emateko zerbitzu bat sortzea, Nafarroara iristen diren edo orain dela gutxi heldu diren migrante guztiei zuzendua, egoera administratibo irregularrean daudenak barne.

8.3 Harrera sareak egiten duen lanaren osagarri gisa, itzulpen zerbitzu bat sortzea. Zerbitzu horrek aintzat hartuko ditu bai migranteen jatorrizko hizkuntzak eta bai euskara bera. Horrela, euskaratik beste hizkuntzetarako eta alderantzizko itzulpenak bermatuko zaizkie harrera lana egiten duten pertsoneri.

8.4 Harrera gida bat argitaratzea, hainbat euskarri eta hizkuntzatan, Nafarroara bizitzera etortzen diren beste jatorri batzuetako edota kanpoko pertsona guztiei zuzendua. Gida horren bidez, gai guztiei buruzko orientazioa eta informazioa emango zaie: egoera politikoa, kultura, gizartea, lana, osasungintza, hezkuntza...

8.5 Hizkuntzaren arloko harrera programak, beste herri batzuetatik iristen diren pertsonen Nafarroako hizkuntzak ezagutzeko aukera izan dezaten.

8.6 Borondatezko itzulerarako laguntza programak, hala nahi duten pertsona guztiei eta bereziki egoera sozioekonomiko larrian daudenei zuzenduak, duintasunez itzultzeko aukera izan dezaten. Itzuli nahi duten pertsona guztien segurtasun fisikoa, materiala, legala eta juridikoa bermatuko da.

21

ANIZTASUN  
SEXUALA



## ANIZTASUN SEXUALA

### OINARRI IDEOLOGIKOAK

Gizon eta emakumeen bizitzan, sozializazio sexistak eragin handia du sexualitatearen eremuan. Txikitatik, oso era ezberdinean kontzeptualizatzen dira gorputza, desirak, plazera, bikotea, maitasuna, sentimenduak, sexu harremanak, afektuen adierazpena eta abar. Gainera, sexualitatea bizitzeko erak oso lotura estua du identitate maskulinoaren eta femeninoaren eraikuntzarekin.

Emakumeen sozializazio sexistari dagokionez, penalizazio sozialak betidanik mugatu izan du haien autonomia sexuala, gogor markatzen baititu beren gorputzaren jabe agertzen diren eta beren sexualitatea askatasunez adierazi eta garatzen duten emakumeak. Haien aniztasun erotikoa -hala desirak nola sexu praktikak- gizonen gozamenerako sexu objektu huts gisa aurkezten da oraindik.

Sexualitate maskulinoaren eredu soziala, berriz, hertsiki mugatzen da genitaleara, koitora eta heterosexualitatera eta, horrenbestez, ugalketara. Eredu horretatik aldentzen diren sexu adierazpen edo jolas erotiko guztiak behe-mailakotzat, aurretiazkotzat edo osatugabetzat jotzen dira kasurik onenean, eta patologikotzat kasurik txarrean. Are gehiago, genitalen parte-hartzerik gabeko jolas erotikoa, batez ere maskulinoak, ez dira sexu harremantzat jotzen. Matxismoak eta haren adierazle nagusietako bat den homofobiak "heteroarau maskulinoa" deritzona ezartzen dute, hau da, gizonen menderatutako sexu harremanak dira gizarteak onartzen dituen bakarrak. Identitate maskulino hori identitate femeninoari kontrajarrita eta hura baztertuz eraikitzen da, eta nagusiki gizonen artean zaintza eta afektu jarrerak eta trebetasunak garatzea eragozten du, haien irriks erotikoen orientazioa edozein dela ere. Homofobiak oso lotura estua du identitate maskulino horrekin. Oraindik ere nagusi den eredu baztertzailer horrek gizonen aniztasuna zikiratu eta beraien askatasun sexuala zigortzen du, baina, gainera, sexualitate femeninoaren desirari, gorputzasanari eta haragikoitasunari ere ezartzen zaie.

Portaerarik bortitzenak sexu harreman intimoen eremuan ematen dira, hala emakumeen kontra nola publikoki arau heterosexistatik aldentzen den pertsona ororen aurka.

Azken urteotan garrantzi handiko aurrerapenak lortu dira legediaren arloan, batez ere lesbiana, gay, bisexual eta transexualen kolektibo eta erakundeen borrokarri esker eta genero rolen esleipen sexistaren kontra eta rol horiek gizonen nahiz emakumeek betetzearen alde lan egiten duten mugimenduen bultzadari esker (transgeneroa, queer, emakume eta gizon transfeministak...). Hala eta guztiz ere, oraindik oso urrun gaude aniztasun eta askatasun sexuala balio positibotzat eta, beraz, desiragarritzat hartuko duen gizarte batean bizitzetik; Nafarroan eskubide sexualak ez daude bermatuta eta sarritan urratzen dira oraindik. Paradigma sexual hori (hau da, heteroaraua) aldatzen laguntzea da EH Bilduk datozen urteetarako hartzen duen konpromisoetako bat eta benetako erronka.

Askatasun sexualari dagokionez, hauxe da EH Bilduren helburu nagusia: aniztasun afektibo eta sexuala ikusaraztea eta errespetaraztea Nafarroan eta Euskal Herri osoan.

### 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKONEURRIZEHATZAK

Horretarako, beharrezkotzat jotzen dugu Aniztasun eta Askatasun Sexualaren Foru Lege bat egitea. Lege horren bidez, gizon eta emakumeen arteko nahiz gizonen arteko harremanetan bortxarik gabeko portaera ereduak sustatzeko beharrezkoak diren politika aktibo guztiak garatu eta aplikatuko dira. Lege hori ikuspegi feminista batetik egingo da eta berdintasunaz hausnartzen lagunduko duten eta ideal matxistak zalantzan jarriko dituzten

maskulinitasun eredu berriak sustatuko ditu.

## FORU LEGEAREN EDUKIAK

– Kontzientzia solidarioa sortzera bideratutako informazio eta sentsibilizazio ekintzak sustatuko ditu, jarrerak aldatzen laguntzeko eta lesbiana, gay, transexual eta transgeneroen aurkako aurreiritziak eta fobiak desagerrarazteko, eguneroko bizitzan pertsona horiek herritarren eskubide guztiak benetan erabiltzeko aukera izan dezaten.

– Sexu langileen babes laboral, sanitario, juridiko eta legala bermatuko du eta ahotsa emango die beraiei eta beraien aldarrikapenei.

– Administrazioetako kargudun publikoentzako informazioa eta prestakuntza sustatuko du, arlo publikoan aurreiritzirik gabeko jarrerak eta aniztasun sexualaren kontrakoak ez diren jokabideak sustatzeko. Era berean, zigortu egingo ditu karguaren erakuskeria eginez matxismoa, transfobia, lesbofobia eta homofobia sustatzen dituzten ekitaldi edo erakundeetan parte hartzen dutenak.

– Aniztasun eta Askatasun Sexualaren Behatokia sortuko du. Behatokiaren funtzio nagusia Aniztasun eta Askatasun Sexualaren Legea betearaztea izango da. Gainera, honako eginkizun hauek beteko ditu:

– harremanetarako eta komunikaziorako bide egonkor eta aratuak ezarriko ditu Nafarroako transexual, lesbiana eta homosexualen erakunde eta kolektiboekin nahiz genero rolen esleipen sexistaren kontra lan egiten duten mugimenduekin, haien interes eta beharrak ezagutzeko eta behar bezala babesteko eta administrazioarekin nahiz instituzio publikoekin jarduera estrategia bateratuak diseinatzeko.

– Nafarroako gizartean orientazio eta identitate sexualagatik ematen diren diskriminazio egoerei buruzko azterlanak eta ebaluazioak egingo ditu (espezifikoko kasuistikaren arabera: generoaren barneko indarkeria; eskolako jazarpen transfobikoa, lesbofobikoa, homofoboa eta bifobikoa; lan merkatuan sartzeko eta txertatzeko zailtasunak...). Halaber, egoera horiek zuzentzeko eta prebenitzeko neurriak eta esku-hartzeak proposatuko ditu, kasu bakoitzera egokituak.

– Behatokia aholku-emailea izango da administrazio guztientzat sexualitatearekin zerikusia duten legeak, arauak eta politikak egiteko orduan.

– aholkularitza juridikoa emango dio bere orientazio edo identitate sexualagatik eskubide urraketaren bat pairatzen ari dela salatzen duen edozein pertsonari.

## KOMUNIKABIDEAK

– Errealitate sexual gutxituak ikusarazteko kanpaina instituzional eta publizitario espezifikokoak sustatuko dira, errealitate horiek era positibo eta aberasgarrian ezagutarazteko asmoz. Tratu txarren kontrako kanpainei dagokienez, generoaren barneko indarkeria jaso eta ikusaraziko da.

– Komunikabideek LGTB+ (lesbianak, gayak, bisexualak, transexualak, transgeneroak...) kolektiboen errealitatearekin zerikusia duten albisteei eman behar dieten tratamenduari buruzko eskuliburu deontologiko bat egingo da, batez ere transexualei dagokienez. Era berean, heterosexista ez den publizitatea zabaltzeko gomendioa jasoko du eskuliburuak.

## HEZKUNTZA

- Aniztasun afektibo-sexualari eta familia aniztasunari buruzko prestakuntza emango zaie gaur egungo irakasleei nahiz etorkizunean hezkuntzaren arloan lan egingo duten profesionali.
- Aniztasun sexualari eta familia aniztasunari buruzko heziketa txertatuko da hezkuntza curriculumean, zehar lerro gisa maila guztietan, eta zuzenean -sexu hezkuntzarako programa espezifikoen bidez- derrigorrezko nahiz derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan beharrezkotzat jotzen den mailetan.
- Programek honako printzipio hauek sustatuko dituzte eremu afektibo-sexualean: errespetua, berdintasuna, askatasuna, plazera eta ardura. Era berean, berdintasuna errazten duten eta eredu matxistak zalantzan jartzen dituzten maskulinitasun eredu berriak sutatuko dituzte.
- Transfobia, lesbofobia, homofobia eta bifobia txertatuko dira eskolako jazarpenaren aurkako protokoloetan.
- Kalitatezko material didaktiko propioak sortuko dira ikasleentzat, irakasleentzat nahiz familientzat. Material horiek sexualitatearen, afektibitatearen nahiz familiaren arloko errealitate ezberdin guztiak jasoko dituzte, ikusarazteko eta era positiboan integratzeko asmoz.

## HERRITARREN ASKATASUNAK

- Epaileri, fiskalei eta polizia zuzendutako prestakuntza eta sentsibilizazio programak ezarriko dira, honako helburu hauekin: aniztasun eta askatasun sexualaren kontrako jarrerak eraginkortasunez zigortzea, era horretako eraso biktimak hobeto babestea eta pertsona horiek aurreiritzirik gabeko tratua jasotzea gai horretaz arduratzen den funtzionario talde multidisziplinarioaren aldetik.
- Tratu txarren biktimei laguntzeko protokolo integraletan txertatuko dira generoaren barneko indarkeria eta nortasun agirian emakume generoa erregistratuta ez daukaten emakume transexualek pairatzen duten indarkeria.
- Aholkularitza eman eta asilo politikoa nahiz dagozkien eskubideak lortzen lagunduko zaie beren orientazio edo identitate sexualagatik jazarritako pertsona guztiei, hala eskatzen badute eta beraien egoera administratiboa edozein dela ere.

## ARLO SOZIOEKONOMIKOA

- Erakunde sindikalekin batera, orientazio edo identitate sexualagatik lantokietan egon daitezkeen fobien kontra borrokatzeko eta horren inguruko sentsibilizazioa sortzeko har daitezkeen neurrien dekalogoia egingo da, egoera hori pairatzen duten pertsonen lanean txertatzen laguntzeko asmoz.
- Arreta berezia eskainiko zaio transexualitateari. Zehazki, enplegua sustatzeko politika espezifikoak eta ekintza positiboak aplikatuko dira, lan kontratazioan pertsona horiek pairatzen duten diskriminazio sistematikoa eragozteko.

## OSASUNA

- Transexualitatea despatologizatzearen aldeko adierazpen instituzional espezifiko bat onartuko da. Zehazki, DSM 1 eta CIE 2 eskuliburu hurrengo berrikuspenetan uestezko "nahasmendu" hori hortik kentzeko exijituko da, homosexualitatearekin egin den bezala.

– Patologizatzaileak ez diren eta aniztasuna nahiz askatasun indibiduala bermatzen dituzten ekintza protokoloak egingo dira, sistema publiko nahiz pribatuko profesionalentzako gida eta gomendio gisa.





22

LANKIDETZA



## LANKIDETZA

### IDEIA NAGUSIAK

Azken hamarkadetan muturreko pobreziaen aurkako borroka izan bada ere garapenerako lankidetzaren helburu unibertsal nagusia, hura murrizten joan den heinean (zifra orokorretan), pobrezia erlatiboa edo giza sektoreen arteko desoreka eta berdintasun-eza areagotzen joan dira. Horrek, ondorioz, oinarritzko eskubideen mailakako urratzea dakar eta aukera ezak sortzen dituen baztertze-sektore berriak ugaltzen ari dira. Bereziki eta behin eta berriro, emakumeak eta haurrek dira kaltetu nagusiak. Horrela izanik, lankidetzaren eta garapenaren aldeko apustu egin beharrean gaude, gure lankidetzaren ereduak ez dio soilik pobrezia egoerari aurre egin nahi; eraldaketa soziala, gizarte antolaketa justuagoa bat lortzeko "han eta hemen" eragingo duen eredu bultzatzea eskatzen du. Lankidetzaren elkartasuna alorrean konpromiso eta erantzukizun publikoa den heinean, giza garapena eta eraldaketa soziala uztartuko dituen eredu egokia topatu behar da, eremu honetan arlo desberdinetatik egiten duguna koherentziaz egin dezagun zehar letrortasun ahalik eta handiena emanaz.

Bakezko bizikidetzaren eta gizarte justiziaren mundu osoan sustatzeko tresnatzat jotzen dugu lankidetzaren, besteak beste hurrengo esparru hauetan sustatu beharrekoa: ingurumena, elikadura burujabetza, hizkuntza eta kultura gutxiagotuen defentsa, eta estaturik gabeko beste nazio batzuekiko zein egungo sistema kapitalistaren aurka borrokatzen ari diren herriekiko elkartasuna.

### OINARRI IDEOLOGIKOAK

1. Nortasun eraldatzailea duen garapenerako lankidetzaren politika publikoa sendotzea. Hau da, administrazioak berak hartzen duen politika hori planifikatzeko, kudeatzeko eta gauzatzeko erantzukizuna. Politika publikoa, gardentasunerako eta eraginkortasunerako bermeekin ezarria; tokiko elkartearen zuzeneko parte hartzearekin, eta tokian tokiko errealitatea eta harreman aurrekariak ere kontuan hartzen dituen politika publikoa.
2. Nazioarteko elkartasunean, gizarte-justiziaren globalizazioan, herritartasun unibertsalean eta erantzukizun partekatuan oinarritzen den lankidetzaren politika integrala bultzatzea.
3. Garapenerako lankidetzaren aldeko politikaren edozein arlotan, ekimenak biztanle subjektuengandik sortu behar dira. Harremanak horizontalak izan behar dira, eta lankidetzaren ez da pertsonen, herrien eta komunitateen garapen-prozesuen ordezkoa izan behar. Ildo horretan, pertsonen borondatea eta erabakitze gaitasuna errespetatu behar dira, haien baitira lankidetzaren aldeko ekimenen eta politiken erdigunea. Garapenerako bidelagunak gara, ez laguntzaileak ezta beraien prozesuaren jabe ere.
4. Bazterkeriaren kontzeptuaren nahiz garapenaren kontzeptuaren dimentsio aniztasunari jarraituz, lankidetzaren aldeko politikaren eginkizun bakarra ez da oinarritzko premiak asetzeko, garapen sozio-ekonomikoa eta kulturala bultzatzea baizik. Beraz, politika horren barruko ekimenak funtsezko alderdietara zuzenduta egongo dira: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, hizkuntzaren sustapena, giza eskubideak, gatazka konpontzeko elkarriketaren balorea, herri indigenen aldarrikapenak, politikan parte hartzea eta politikan eragina izatea, ekologiaren iraunkortasuna...
5. Elkartasun internazionalistarekin bateragarria den kooperazio jardueraren. Herrien arteko elkartasunaren arloan, tokiko eremua eta herritarren esperientzia eta ibilbidea aintzat hartzen dituen. Bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu estaturik gabeko herrialdeekin sareak eratzea, hala nola gurea bezala hizkuntz gutxitua duten herrialdeekin, edota gatazka

gainditzeko elkarrizketa prozesuak garatu dituzten herrialdeekin loturak sortuz eta bakea eta konponbide ereduak sustatuz.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

Alde askotariko harremanak sustatuko ditugu: Iparra-Hegoa, laguntzaile-onuradun, emaile-hartzaile... eta antzeko dikotomia ikuspegiak gaindituz, eragileen arteko akordio estrategikoak gauzatuko dituzten prozesu eta guneak hobetsiko ditugu. Ezinbestekotzat jotzen dugu erakundeen arteko koordinazioa ekintzen eraginkortasuna hobetzeko eta eskuragarri dauden baliabideen optimizazioa bermatzeko

Ez dira garapenerako lankidetzaren aldeko politikaren barruan sartuko enpresa-mozkinak edo merkataritza-abantailak, nazioarteko harremanen sustapena edo asistentzialismoarekin eta karitatearekin zerikusia duten helburuak dituzten ekimenak. Era berean, printzipio hori jarraiki, irabazi-asmorik gabeko erakundeak politika horren eragile gisa onartu behar dira, hau da, iparralde globaleko eta hegoalde globaleko erakunde publikoak eta gizarte-erakunde, antolakunde eta mugimenduak.

Proiektuen jasagarritasuna bermatzeko neurriak hartuko ditugu, behin kanpoko ekarpena amaituta, aurrera egiteko gai diren ekintzak bultzatu, garapen endogenoa sustatuz. Beste alde batetik, ez da nahikoa unean uneko laguntzak ematea; aitzitik, itun horizontalak eta epe luzeak bilatu behar dira, emakumeek eta gizonek era aktiboan parte hartu, beren gaitasunak sendotu, kontzientziatu, antolatu eta interes estrategikoak lortu ahal izateko, eta ez soilik dituzten premiak ase ahal izateko

Garantasuna lortzeko ezinbestekoa da sustatutako lankidetzaren politika ebaluatzearen eta hari kontuak eskatzearen aldeko ekintzak abiaraztea, eta ekintza horiek eragile nagusiei zein herritarrei jakinaraztea, haien berri izan dezaten eta haien inguruan eztabaidatzeko eta haien zilegitasuna erabakitzeko aukera izan dezaten.

Herritarren artean elkartasun-kultura sustatuko dugu, lankidetzarako garapenaren, garapenerako hezkuntzaren eta herritarren sentsibilizazioaren bidez. Herri eta sektore sozial ezberdinen arteko desoreka egiten duten arrazoiei buruzko kontzientzia kritikoa eraikitzea xede duen lankidetzaren politika bultzatuko dugu.

Estaturik gabeko nazioekiko elkartasuna zabalduko dugu. Besteak beste, Sahara, Palestina edo Kurdistanen alde hainbat udalek eta herri mugimenduek garatu harremana sakontzeko apustu sendoa eginez. Lankidetzaren era iraunkorren garatzea hobesten dugu. Izan ere, ez dugu une-unean elkartasun ekimenak babestea alboratzen. Helburu horiekin bat eginez sostengu dinamika iraunkor bat sustatzeko ekimenak bultzatuko ditu EH Bilduk hurrengo lan ardatz nagusitan:

Herri hauen aldeko ekimenak babestuko ditugu nazioarteko eremuan.

- Estatu hauen onarpenaren eta okupazioaren bukaeraren alde jardungo dugu eta preso politikoen egoera eta oro har oinarritzko eskubideen aldeko dinamika landuko ditugu. Herri hauek pairatzen duten giza-eskubideen bortxaketen salaketak iraunkorra behar du izan, lurralde okupatueto egoera azalaraziz.

- Apartheid politikaren kontrako BDZ-ren aldeko kanpaina (eta antzekorik sortuko balitz beste herrialdeetan), herri mugimenduetatik sortuta eta herri babesa duenari bidea eginez segitzea hobesten dugu.

Krisi ekonomikoak eragina izan du eremu honetan eta oro har lankidetzaren eremuak murrizketa handiak pairatu ditu, eta ildo horretan lankidetzaren politika gauzatzeko Zerbitzua baliabide nahikoz hornituko dugu. Legegintzaldian zehar progresiboki garapenerako laguntzarako bideratutako diru saila handituko dugu aurrekontuen %0,7a helburua izanik, beti ere Garapenerako lankidetzaren aritzeko esleitutako aurrekontuaren % 100 gauzatuz.



23

PARTE

HARTZEA ETA

GARDENTASUNA



# PARTE HARTZEA ETA GARDENTASUNA

## IDEIA NAGUSIAK

- 1- EH Bilduk demokrazia parte-hartzailearen aldeko apustua egiten du.
- 2- Parte-hartzea, kudeatzeko era eraginkorragoa izateaz gain, herritarrek ahalduzko eta gizartea eraldatzeko tresna ere bada.
- 3- EH Bilduk kudeaketa publikoaren gardentasunaren aldeko apustua egiten du.

## OINARRI IDEOLOGIKOAK

EH Bildu demokrazia parte-hartzailearekin konprometuta dago. Gure ikuspegitik, demokrazia ezin da mugatu herritarrei galdetzerara eta informazioa ematera. Gure apustua beste bat da: herritarrek ahalduzko dituzten prozesu parte-hartzaileak abiatzea (trebakuntza – jakitea), eguneroko bizitzako gaietan erabaki partekatuak hartzea eta hori modu antolatuan eta planifikatuan egitea.

Instituzioen demokratizazioan sakondu behar dugu; instituzioen ateak irekitzen jarraitu behar dugu. Herritarren parte-hartzea bultzatuko duten mekanismo eta egitura sendoak sortu behar dira.

EH Bilduk eraldaketarako tresna gisa ulertzen du parte-hartzea, herritarrek ahalduzko prozesu gisa. Herritarren parte-hartzea aktiboa, kalitatezkoa, erabakitzailea, eraikitzailea eta eraldatzailea izan behar da. Horretarako, instituzioek boterea partekatu behar dute.

Herritarren parte-hartzea ez da gauza berria gure herrian. Historian zehar, auzolanaren bidez antolatu gara, eta gaur egunera arte eutsi diogu antolabide horri. Gure gizarteak oso barneratuta dauka autoeraketaren bidez eta borondatez lan egiteko ohitura. Nafarroak mugimendu eta elkarte sare handia eta bizia izan du beti, eta gaur egun ere badu. Funtzionatzeko molde horiek indartu eta sustatu behar ditugu.

Instituzioetan egingo dugun lana guztiz gardena izango da. Informazio ulergarria emango dugu. Ahal den guztietan eztabaida kolektiboak egiteko eta erabakiak guztion artean hartzeko bideak eskainiko ditugu. Instituzioek egiten duten lana kontrolatzeko tresnak emango dizkiegu herritarrei.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### PARTE-HARTZEA

- 1- Herritarren Parte-hartzerako Saila sortuko dugu.

2- Herritarren Parte-hartzeari buruzko Nafarroako Legea egin eta parte-hartze prozesu guztietarako araudiak landuko ditugu. Araudi horietan zehaztuko da zein izango den prozesu bakoitzaren helburua (informatzea, kontsultatzea, eztabaidatzea edo erabakitzea), zeri buruz erabakiko den eta erabakia nola hartuko den.

3- Parte hartu ahal izateko, horretarako egitura, mekanismo eta baliabide egokiak egon behar dira. Horregatik, parte-hartzearen arloko teknikarien sare bat sortu behar da. Teknikari horiek parte hartzeko metodologia eta tekniketan trebatuta eta espezializatuta egongo dira eta prozesuen dinamismoa eta neutraltasuna bermatuko dituzte. Era berean, haien ardura izango da metodologia eta teknikarik egokienak erabiltzea betidanik parte hartzeko zailtasunik handienak izan dituzten pertsonak parte har dezaten (emakumeak, gazteak, gizarte zailtasunak dituzten pertsonak, immigranteak, hirugarren adinekoak...).

4- Halaber, Administrazio Publikoak parte-hartze programen finantziarioa bermatu behar du. Horretarako, egin beharreko deialdiak egingo ditu eta udaletan nahiz eskualdeetan parte-hartze programak garatzeko zenbatekoak eta baldintzak finkatuko ditu.

5- Parte hartzen jakiteko, trebakuntza ezinbestekoa da. Sarritan entzun dugu erabakiak ordezkari instituzionalek hartu behar dituztela beraiek direlako gai bakoitzaz gehien dakitenak eta guztien ongiar arduratzen direnak. Hala ere, prestakuntza egokia, informazio egokitua eta ulergarria eta teknika egokiak ziurtatuz gero, herritarrekin batera hartzen diren erabakiak teknikariek edo politikariek beren kabuz hartzen dituztenak baino askoz ere egokiagoak dira. Horretarako, Parte-hartze Eskola deszentralizatua sortuko dugu Nafarroako eskualde guztietan, pertsonak parte hartzeko gaitasun handiagoa izan dezaten eta parte-hartzearen kultura sustatzeko.

6- Hezkuntza maila guztietan arrera berezia eskainiko zaio gardentasun, parte-hartze eta zintzotasun balioak sustatzeari (Hezkuntza Arloak garatuko du hori).

7- Aurrekontu parte-hartzaileak oso tresna ahaltsua dira parte-hartzea eta gardentasuna bultzatzeko. EH Bilduren ikuspegitik, aurrekontu parte-hartzaileek honako baldintza hauek bete behar dituzte: lehen urrats gisa, aurrekontuei buruzko informazioa eta prestakuntza eman behar zaie herritarrei; aurrekontuak egiteko joko arauak finkatu behar dira herritarrekin batera; diagnostiko bateratuak egin eta proposamen guztien artean lehentasunak ezartzeko irizpideak zehaztu behar dira. Horrela, mundu guztiak izango du proposamenak aurkezteko aukera; gero, proposamenak eztabaidatuko dira, adostutako irizpideak aintzat hartuz; eta, azkenik, erabakiak hartuko dira.

- EH Bilduren ereduaren Porto Alegreko ereduaren ildotik doa, eta prozesu horiek gidatuko dituzten teknikari espezializatuak behar ditu.

- Prozesuaren segimendua egiteaz arduratuko den batzorde batek kontrolatuko ditu aurrekontuetan txertatzen diren programak. Adostutakoa aurreikusteko moduko desbideratzerik gabe betetzen dela gainbegiratuko du batzorde horrek.

- Prozesua urtero aztertu eta hobetuko da. Burututako prozesuaren azterketaren emaitzak eta egin beharreko aldaketak publikoak izango dira.

8- Herri Ekinaldi Legegileei, kontsultei eta erreferendumei buruzko araudia aztertuko da, herritarrei parte hartzeko bide gehiago eskaintzeko. Nafarroako araudia aldatuko da, herritarren parte-hartzerako prozedurak ezartzeko eta erregularizatzeko. Herri Ekinaldi Legegileak bultzatuko dira, demokrazia parte-hartzaileerako tresna gisa. Tramitera onartuak izan daitezten bete beharreko baldintzak aztertuko dira, erraztasunak emateko eta erreferendum bat egiteko aukerari lotzeko.

9- Azpiegitura handiei eta inbertsio ekonomiko handiei dagokienez, parte-hartze prozesuek herritarren iritzia jaso behar dute gutxienez, proiektuen aurkezpen publiko hutsa gaindituz. Ikerkuntza-ekintza parte-hartzaileak

izeneko teknika erabiltzea proposatzen dugu, hainbat fasetan:

- Beharraren aurrediagnostiko teknikoa.
- Herritarrentzako informazioa eta prestakuntza.
- Eztabaida.
- Adostu – Erabakiak hartu.
- Hartutako erabakien segimendua.
- Halaber, oinarritzko legeek ere prozedura hori bete beharko dute. Gainerako legeei dagokionez, parlamentuko ordezkarien %40k hala erabakitzen badute.

10- Instituzioak eta udaletako lan batzordeak ireki behar dira, parlamentuko eta udaletako eztabaidetan parte hartzeko aukera gehiago emanez.

- Bilera irekiak antolatuko dira, herritarrentzat egokiak diren orduetan eta ez ordezkarietara komeni zaien ordutegian.
- Instituzioen hizkera sinplifikatuko da, ulergarria izan dadin, teknizismoak alboratuz eta genero hizkeraren arloan irizpide argiak ezarriz. Horretarako, beharrezkoa den informazio guztia emango zaie Administrazio langileei.
- Informazioa garaiz emango da, herritarrekin behar bezala landu ahal izateko.
- AGENDA PUBLIKOA sortuko da web instituzional guztietan eta udaletako ohar-tauletan. Agendan honako informazio hau jasoko da: udal bilerak, gai zerrendak, bilera publikoak, erabakiak...
- Hainbat gairi buruzko taldeak sortuko dira (kirola, euskara, hirigintza...) eta informazioa helaraziko da (e-mail, WhatsApp, eskutitzak...). Talde horiekiko harreman etengabea ziurtatuko da, besteak beste ideiak eta proposamenak trukatzeko.
- Informazio panelak jarri edo bando sistemak aktibatuko dira herri eta hirietako hainbat lekutan, informazioa eta erabaki garrantzitsuak zuzenean zabaltzeko (herritar guztiek ez daukate bileretara joateko edo Internet erabiltzeko aukera).

## GARDENTASUNA

11- Herritarren parte-hartzearekin, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea berrikusi behar da, eta gardentasunaren arloko betekizunak eta irizpideak ezarri.

12- Fiskalizazio eta ikerketa organoak berrikusi eta bultzatuko dira, parlamentuak eta herritarrek mota guztietako informazioa eskuratzeko eta kontrol lana egiteko aukera izan dezaten. Fiskalizazio eta ikerketa organoak honakoak izango dira, besteak beste:

- 1- Arartekoa.
- 2- Nafarroako Kontuen Ganbera.



- 3- Helburu hirukoitzeko organismoa.
- 4- Parlamentua (governua kontrolatzeko organo gisa).
- 13- Gardentasunaren Ataria sortuko da.
- 14- Jakitera emango da gobernu ardurak dituzten kargudun publikoen ondasunen eta interesen aitorpena.
- 15- Buruzagitzak merezimenduen eta gaitasunen arabera esleituko dira.
- 16- Administrazio Publikoa erreformatuko da, haren funtzionamendua optimizatzeko. Horri dagokionez, zintzo jokatu behar dugu herritarrekin. Lehen fase batean, eta ondo azaldu beharko da hori, izendapen libreko kargu batzuk egon beharko dira (orain arte baino askoz gutxiago), ezinbestekoak direlako goitik beherako auditoria eta erreforma egin ahal izateko. Nolanahi ere, kargu horien kopurua murrizten joateko konpromisoa hartuko dugu, gardentasunez beti.
- 17- Administrazio Publikoaren egitura burokratiko eta hierarkikoa arrazionalizatuko da. Arinagoa izan behar da, hurbilagoa, irekiagoa eta guztiz gardena. Egituraz ari gara.
- 18- Kontratu, dirulaguntza eta kontzesio publikoei dagokienez gardentasun osoz jokatu behar da. Horretarako, espediente osoak publikoak izango dira.
- 19- Administrazio publikoek fundazioei, GKEei eta horrelakoei ematen dizkieten dirulaguntzen araudia aztertuko da. Hobeto kontrolatu behar da dirulaguntzak nola kudeatzen diren (soldatak, kontratazioak...) eta haien helburuak betetzen diren.
- 20- Askoz ere ikuskatzaile gehiago jarri behar dira, batez ere Ogasunean. Horrekin batera, eta inhabilitazioei dagokienez, haien lan baldintzak zehaztu behar dira, enpresa pribatura alde egitea ezinezkoa izan dadin.
- 21- Kargua utzi ondorengo ordainsarien sistema eta bateraezintasunen erregimena berrikusiko dira, ordainsari bikoitzak eta administrazioko goi-kargudunentzako nahiz kargudun politikoentzako pribilegio mota guztiak desagerrarazteko.



24

HERRITARREN  
ASKATASUNAK



# HERRITARREN ASKATASUNAK

## IDEIA NAGUSIAK

- Aitortutako askatasunen eta eskubideen defentsa eta askatasun maila berriak lortzeko borroka zailtasunez jositako zeregina izan da beti.
- Hala nazioartean nola estatu mailan, herritarren eskubideak eta askatasunak etengabe murrizten ari dira, baita gure eremuko kolektibitate txikienetan ere. Segurtasunaren eta egonkortasunaren izenean, eskuratutako askatasunak eta eskubideak murrizten ari dira.
- Nafarroari ez zaio aitortzen marko juridiko propio bat eratzeko eskubidea, hori da arazo nagusia. Espainiako legediaren ondorioz, Nafarroak ez du inolako ahalmenik herritarren eta eskubideen arloko legeak egiteko. Hala ere, badaude aukerak eta, era egokian kudeatzen badira, hobekuntza handiak lor daitezke arlo horretan.
- Nafarroako administrazio publikoak ez dauka herritarren eskubideak babesteko eta askatasun publikoak sustatzeko sistema propio eta eraginkor bat.

## ONARRI IDEOLOGIKOAK

- EH Bilduren helburua da giza eskubideak eta askatasun publikoak gailentzea Euskal Herrian nahiz mundu zabalean. Nazioarteko zuzenbidearen eremuan horri dagokionez egin eta promulgatu diren Adierazpen eta Konbentzio guztien birtualitatea adierazten dugu.
- EH Bilduren xedea gizarte aske bat eraikitzea da, demokratikoa, berdintasuneko, parekidea eta solidarioa. Gizarte horretan, herritarren parte-hartzea aktiboa, kalitatekoa, erabakigarria eta eraldatzailea izango da.
- EH Bilduk ikuspegi integral batetik ulertzen ditu Giza Eskubideak: eskubide guztiak –zibilak, politikoak, sozialak, kulturalak eta ingurumenaren arlokoak– pertsona guztien oinarritzko eskubideak dira eta, beraz, eskubide guztien erabateko errespetua exijitzeko lan egingo dugu.
- Honako hauek dira eskubide eta askatasunen arloan EH Bilduren jardura gidatuko duten printzipioak:
  - Nazioarteko zuzenbidearen eremuan horri dagokionez egin diren Adierazpenak eta Konbentzioak erabat onartzea.
  - Nafarroako pluraltasun ideologikoa erabat onartzea.
  - Herritarrak ahalduntzea. Demokrazia parte-hartzailea.
- Eskubide eta askatasunen arloko politikak honako irizpide hauek izango ditu oinarri: zatiezintasuna, interdependentzia eta unibertsaltasuna. Beste era batera esanda, eskubide guztiak pertsona guztientzat.
- EH Bilduk giza eskubide guztiak errespetatu, babestu, bermatu eta sustatuko ditu, eta hori bermatzeko beharrezkoak diren mekanismo guztiak sortuko ditu, giza eskubideak aldarrikapen programatiko hutsa izan ez daitezen.

- Herritarrak ahaldunduko dituen gizarte eredu parte-hartzaile bat bultzatuko dugu, berdintasunezko gizarte ekitatibo, solidario eta justuago bat eraikitzeko funtsezko ardatz gisa.

- Gure iragan hurbilenean, Madrilen egoitza duten hainbat estamentu judizialek legezketasunaren oinarritzko printzipioaren kontrako erabaki ugari hartu dituzte, interpretazio eta behar politiko zehatzen arabera. Gure herriak bidegabekeria ugari pairatu ditu ustezko justizia horren izenean, eta haietako asko indarrean daude oraindik. Hemen ez ditugu guztiak aipatuko, baina argi esan dezakegu Nafarroako herritarrek ez dutela justiziarik aurkitu Espainiako administrazioan. Sistema zaharkitu hau ez da gai erantzun hurbil, inpartzial, independente eta azkar bat emateko Nafarroako gizarteak egiten dituen justizia eskaerei.

- Nafarroak legeak egiteko ahalmen osoa eduki behar du arlo guztietan (zibila, penala, administratiboa, prozesala, laborala...). Horretarako, justizia administrazio propio bat behar du, autoktonoa, independentzia eta inpartzialtasuna oinarritzko printzipiotzat hartuko dituen eta segurtasun juridikoaren arabera jardungo duena. Epaile naturalaren printzipioari helduz (hau da, gertalekuko epailea aldarrikatuz), Botere Judizial propioa eskatzen dugu, Nafarroarako Botere Judiziala.

- EH Bilduk nafarrok gure estatus politikoa erabakitzeke eskubidea jasoko duen marko arautzaile bat lortzeko lan egingo du. Nafarroako gizarteak nahi duen autogobernu maila lortzen ez den bitartean, eskubide indibidual eta kolektiboen garapenerako araudi bat onartzea, aldatzea edota garatzea proposatzen du EH Bilduk, Espainiako eskumen markoak inposatutako arautze ahalmena oso mugatua den arren eta, beharrezkoa izanez gero, eskubideak eta askatasunak errespetatu daitezkeen desobedientzia zibila era ezberdinetan erabiltzeari uko egin gabe.

- Orokorrean, askatasuna kentzeak ondorio konponezinak izaten ditu egoera hori pairatzen duten pertsonentzat. Horregatik, balio humanitarioak lehenesten dituen gizarte batean, azken aukera gisa soilik erabili beharko litzateke. Gure ustez, ezinbestekoa da espetxe politika aldatzea eta presoek duintasuna errespetatuko duen eredu berri bat bultzatzea, beren komunitatera lehenbailehen itzul daitezkeen eta beren lan eta jardueren bidez gizarte justuago bat eraikitzen lagun dezaten. Espetxe zigorraren inguruko eztabaida irekia eta plurala egin behar da gizartearen, gai horri buruzko iritzirik garrantzitsu guztiei ahotza emanez. Eztabaida horren bidez, zigorrak betetzeko beste eredu bat ezarri behar da, espetxearen ordez beste sistema alternatibo batzuk lehenetsiz. Sistema horien helburua presoak ahalduntzea izango litzateke, hainbat arlotan (gizarte, hezkuntza, lanerako prestakuntza), komunitatearen inplikazio handiarekin. Gainera, erraztasunak eman behar dira zerbitzu publikoak eta espetxe sistemaren menpe dauden pertsonen laguntzeko, prestakuntza emateko eta harrera egiteko lan egiten duten kolektibo eta elkarteak espetxeetan sar daitezkeen, hori bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz.

- "Segurtasuna lortzeko asmoz giza eskubideak murrizten dituenak ez du ez bata ez bestea lortzen". Esakune hori geure eginez, herritarren segurtasuna herritarrentzako zerbitzu gisa ulertzen dugu, ezin da inola ere haien kontra erabili, prebentzioa lehenetsi behar da eta giza eskubideen arloko estandarrik zorrotzenak bete behar ditu beti.

- Konstituzioaren kontra giza eskubideak eteten dituen salbuespenezko legedia errotoz aldatu behar da. Inkomunikazioa eta tratu txarrak nahiz torturak ahalbidetzen dituen guztia deuseztatu beharra dago. Ustez delituren bat egin duten pertsonak atxilotzeko eta zaintzeko eskumenari dagokionez, nazioarteko estandar, gomendio eta protokolorik zorrotzenak bete behar dira, bereziki tratu txarrak eta torturak prebenitzeari buruzkoak.

- Filosofia gisa, Nafarroa eta Euskal Herri osoa armadarik gabeko lurraldea izatea nahi dugu. Armadari berezkoak zaizkion diziplina, hierarkia eta matxismo balioak erauzi behar dira. Eta ez dugu arma gasturik nahi.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### GIZA ESKUBIDEAK

- 1) Giza eskubideen behatokia sortzea, arartekoaren osagarri gisa eta berarekin elkarlanean jardungo lukeena.
- 2) Giza eskubideen arloko hezkuntza. Giza eskubideen urraketak ez dira sekula berriz gertatu behar. Horretarako, giza eskubideen arloko hezkuntza, trebakuntza eta informazio publikoa sustatu behar dira, Giza Eskubideen Nafarroako Plana eginez. Gainera, plan horrek diagnostikatu egingo du zein legedik edo jardunbidek eragin edo errazten dituzten giza eskubideen edo oinarritzko askatasunen urraketak. Giza eskubideen alde borrokatzen diren nazioarteko erakundeekiko eta bestelako eragileekiko elkarlana indartuko dugu. Zehazki, Bakerako Giza Eskubidearen kontzeptu holistiko eta integratzailea hedatzeko eta Nazio Batuen aurrean kodifikatzeko eskatzen dugu.

### JUSTIZIA

- 1) Justizia administrazio propio bat behar dugu, autoktonoa, independentzia eta inpartzialtasuna oinarritzko printzipiotzat hartuko dituen eta segurtasun juridikoaren arabera jardungo duena
- 2) Jurisdikzio-eskumen guztiak Nafarroako organo judizialen esku geratu behar dira.
- 3) Justizia Auzitegi Nagusia azken instantzia izan behar da eta jurisdikzio-ordena guztietako prozesu guztiak hori bukatu behar dira. Halaber, kasazio errekursoak ezagutzeko eskumena izan behar du. Lehendakaria eta fiskal nagusia Nafarroako botereek hautatuko dituzte.
- 4) Justiziaren erabilera libre eta doakoa eta tasa judizialen ezeztapena exijitzen ditugu.
- 5) Nafarroako Bulego Judiziala sortuko da, epaile eta auzitegien jurisdikzio-jarduerari laguntza eta babesa emateko eta administrazioen arteko elkarlana eta koordinazioa sustatzeko.
- 6) Epaileak, magistratuak, fiskalak eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak izendatzeko orduan, hizkuntza koofiziala jakitea eta Zuzenbide Propioa –Zuzenbide Zibil Forala eta Zuzenbide Autonomikoa– ezagutzea bete beharreko baldintza izango da, eta ez meritua.
- 7) Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak Nafarroako Gobernuak hautatu eta kudeatuko ditu, idazkari judizialak, kudeatzaileak, izapidegileak eta laguntzaile judizialak barne. Beraz, pertsonal transferituak Estatuko kidegoa izateari utziko dio.
- 8) Nafarroako Kontseilu Judiziala sortzea proposatzen dugu. Kontseilu horrek Nafarroako justiziaren gobernua kudeatzeko eskumen propioak izango lituzke.
- 9) Nafarrentzako arreta zerbitzua eraginkorra, azkarra eta kalitatezkoa izan behar da. Horretarako, tramitazioa eta exekuzioa hobetu, langileen prestakuntza indartu eta informazio bulegoen, familia epaitegien eta erregistro zibilen funtzionamendua hobetu behar da. Bereziki, atxilotuentzako laguntza zerbitzuak leheneratu eta indartu behar dira, eta presoentzako laguntza juridikoa erabat bermatu, doako lege laguntzarako eskubidea osatzeko eta babesteko.
- 10) Egituraketa judizialerako, lurralde mugapenak ezartzeko eta haien hiriburuak izendatzeko eskumen

esklusiboa eskatzen dugu. Halaber, ahalmen osoa izan behar dugu organo judizial berriak sortzeko, haien baitan sekzio berriak eratzeko eta epaitegi nahiz auzitegien lurralde banaketa erabakitzeko.

## ESPETXE POLITIKA

- 1) Gure ustez, gaur egungo espetxe sistema gizartearen porrot baten isla nabaria da. Presoak eskubideak dituzten pertsonak dira eta administrazioak eskubide horien erabilera bermatu behar du.
- 2) Dispersio politikari amaiera ematea exijitzen dugu. Preso guztiek beren gizarte eta familia ingurunearekin harreman normalizatua izateko eskubidea dute.
- 3) Preso gaixoen tratamendu egokia jasotzeko eskubidea dute. Haien gaixotasuna sendaezina bada edo espetxean egoteak larriagotzen badu, espetxetik berehala ateratzeko eskubidea dute.
- 4) Bitartean, eta behin-behineko neurri gisa, Europa iparraldeko espetxe ereduak gurera ekartzea proposatzen dugu. Izan ere, eredu horien ezaugarri nagusiak honako hauek dira: hiriguneetan kokatutako azpiegitura txikietan oinarritzen dira eta presoaren gizarte eta familia ingurunearekiko harreman hurbila errazten dute. Aitzitik, makro-espetxe berriak eraikitzeak iraganeko zigor eredueta lotzen gaitu eta inbertsio ekonomiko premiagabeak egitea dakar.
- 5) Zigorak betetzeko beste eredu bat ezarri behar da, espetxearen ordez beste sistema alternatibo batzuk lehenetsiz. Sistema horien helburua presoak ahalduz izango litzateke, hainbat arlotan (gizartea, hezkuntza, lanerako prestakuntza), komunitatearen inplikazio handiarekin.
- 6) Behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa murrizteko lan egingo dugu, gaur egun arau orokor gisa erabiltzen baita. "Astuntasun txikiagokotzat" jotzen diren delitu guztietan espetxe zigorra saihestea ahalbidetuko duten lege erreformak egitea proposatzen dugu. Horretarako, besteak beste, espetxearen ordez komunitatearen onurarako lanak ezar daitezke, baina auzolan gisa ulertuta, eta ez estigma gisa. Halaber, hirugarren graduan edo baldintzapeko askatasunean dauden pertsonen gaur egun aplikatzen zaien kontrol telematikoa zigorra espetxean ez betetzeko neurri gisa heda daiteke.
- 7) Erraztasunak eman behar dira zerbitzu publikoak eta espetxe sistemaren menpe dauden pertsonen laguntzeko, prestakuntza emateko eta harrera egiteko lan egiten duten kolektibo eta elkarteak espetxeetan sar daitezen, hori bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz.
- 8) Gizartean eta lanean berriz txertatzera bideratutako gizarteratze zentroak eta etxebizitza sareak sortzea bultzatuko dugu.
- 8) Adingabeentzako zentro itxiak administrazio publikoak kudeatuko ditu, adigabeen eskubideak bermatzeko.
- 10) Azaldu dugun guztiagatik, presoaren eskubideak eta duintasuna bermatuko dituen espetxe sistema propio bat antolatze eskumena eskatzen dugu.

## HERRITARREN SEGURTASUNA

- 1) Lehentasunez jotzen dugu polizia eredu egokitzeari. Polizia bere gizartearen ispilua izan behar da, baina, zoritxarrez, gaur egun ez da hala gertatzen. Gardentasun osoz eta giza eskubideen zerbitzura jardungo duen polizia eredu bat aldarrikatzen dugu.
- 2) Halaber, Nafarroako lurraldearen erabateko desmilitarizazioa nahi dugu. Ireki den eszenatoki politiko berrian,

ez dago inolako aitzakiarik Nafarroako herritarren beharren, nahien eta ikusmoldearen guztiz kontrakoak diren polizia indarrek gure lurraldean kantonaturik jarraitzeko. Horregatik, Espainiako Segurtasun Kidegoek eta Indarrek Nafarroatik alde egin dezatela eskatzen dugu.

3) Gure azken helburua lurralde osorako polizia bakar bat sortzea da, eskumen guztien jabe izango litzatekeena eta Estatuaren Segurtasun Kidego eta Indar guztiak ordezkatzeko litzatekeena. Poliziaren Etikari buruzko Europako Kodearen arabera, "herritarrek poliziarengan duten konfiantzak lotura estua du poliziak herritarrekin duen jarrera eta jokabidearekin eta, bereziki, giza duintasuna eta pertsonaren askatasunak eta oinarritzko eskubideak errespetatzearekin". Bestetik, Europako Kontseiluaren 690 ebazpenaren arabera (1979), poliziak "bere jardueraren eremu den kolektibitatearen babes moral eta material aktiboa jasotzeko eskubidea du". Gure helburua bi balio horiek uztartzea da.

4) Horretarako, polizia ereduari buruzko eztabaida irekia eta zabala egin behar da, zerbitzuaren kalitatea eta lege-erantzukizun handiak sakonki egokitzeko etengabe aldatzen ari den gizarte baten beharretara.

5) Poliziak gardentasun osoz jokatu behar du eta giza eskubideen defentsa bere lan profesionalaren berezko ezaugarria izan behar da. Horregatik, Foruzaingoaren erreforma sakona egin behar da, honako irizpide hauen arabera:

- Zerbitzu-polizia integrala, errepresioa erabiliko ez duena eta irizpide politizatuen arabera jardungo ez duena.
- Polizia zibila, militarizatu gabea. Gaur egungo egoeran indarkeria mota guztiak gainditu behar dira eta, beraz, poliziak indarra erabiltzeari uko egingo dio. Horretarako, jarrerak aldatu eta beharrezkoak diren protokoloak eta lanabes teknikoak ezarri behar dira.
- Polizia judiziala, une oro ikuskapen judizialaren menpe egongo dena.
- Hurbileko polizia, komunitateko gertaeretan txertatua eta inplikaturik, Nafarroako herritarren pluraltasun sozial, kultural eta politikoa eta hizkuntza aniztasuna errespetatuko dituena.

6) Foruzaingoaren Esku-hartze Bereziatarako Taldearen jarduerak arautzeko protokolo bat ezarriko da. Espresuki debekatuko da gomazko bolak jaurtitzeko erabilera.

7) Polizia agente guztiek identifikazio zenbakia eramango dute arropan, ondo ikusten den leku batean, haien identifikazioa bermatzeko. Betebehar hori betetzen ez bada, polizia taldearen burua izango da horren erantzulea.

8) Delinkuentzia: bere inguru hurbilean, Nafarroa delinkuentzia indizirik txikienetakoa duten eremuetako bat da. Horrek aukera ematen digu herritarren segurtasunaren arloan politika eraginkor bat garatzeko, prebentzioan oinarritua eta ez delituaren jazarpenean eta errepresioan. Horretarako, ezinbestekoa da portaera horiek eragiten dituzten arrazoi sozial eta ekonomikoen diagnostiko zorrotza egitea (premia egoerak, berdintasunik eza, deserrotzea, gizarte eta hezkuntza arloko babesgabatasuna...). Gizarte eta hezkuntza gaitasun onak dira delinkuentzia prebenitzeko politikarik onenak.

9) Delituen prebentziorako diagnostikoak eta neurriak lantzeaz arduratuko litzatekeen sektore arteko kontseilu bat sortzea proposatzen dugu. Gai horretan adituak diren profesionalek, ordezkari sozialek eta foru nahiz toki administrazioen ordezkariak osatuko lukete.

10) Bestetik, Foruzaingoaren eta udaltzaingoaren arteko lankidetzak optimizatu behar da, ekintzak koordinatzeko eta baliabideak optimizatzeko ez ezik, ezagutzak eta esperientziak trukatzeko ere. Zehazki, polizia-jardunbide egokien mapa bat egitea proposatzen dugu, zerbitzua hobetzeko oinarri gisa. Horrekin batera, jardunbide



desegokiak gainditzeko edo desagerrarazteko katalogo bat egin behar da.

11) Era berean, hondamendiak, istripuak, ezbeharrak edo gorabehera meteorologiko iragarriak nahiz ustekabeak gertatzen direnean larrialdiei aurre egiteko dauden baliabideen kudeaketa koordinatua, eraginkorra, berehalakoa eta nahikoa hobetu eta indartu beharko litzateke. Larrialdietarako planen arloko eskumen guztien arteko koordinazioa sustatzea proposatzen dugu.

## TORTURA, TRATU TXARRAK

1) Torturak eta tratu txarrak: atxilotze inkomunikatua lehenbailehen ezeztatzea exijitzen dugu. Ustez delituren bat egin duten pertsonak atxilotzeko eta zaintzeko eskumenari dagokionez, nazioarteko estandar, gomendio eta protokolorik zorrotzenak bete behar dira, bereziki tratu txarrak eta torturak prebenitzeari buruzkoak.

2) Eskuera hori bideratzen den bitartean, Nafarroako poliziak uko egin behar dio atxilotuak atxilotzeko eskumena erabiltzeari, kasu guztietan eta inolako salbuespenik gabe.

3) Foruzaingoaren eta Udaltzaingoaren egoitzetan atxilotuta dauden pertsonen egonaldia etengabe grabatuko da.

4) Ez deklaratzeko eskubideari heltzen dioten pertsonak epailearen esku utziko dira berehala.

5) Atxilotuen eskubideak betetzen direla bermatzeko, Giza Eskubideen Behatokiari atxikitako pertsonak polizia etxeetan sartu ahal izango dira, inolako traba edo mugarik gabe eta ezarritako protokoloen arabera.

## ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOAK

### INTIMITATERAKO ETA PRIBATUTASUNERAKO ESKUBIDEA.

1) Gaur egun, gero eta gehiago erabiltzen dira zaintzarako eta kontrol sozialerako teknologiak eta datu pertsonalak biltzeko eta erabiltzeko fitxategiak, eta hori pertsonaren bizitza pribatuaren kontrako eraso larria da. Horregatik, bideozaintza kamerak instalatzeko nahiz fitxategiak sortzeko mugak ezarri behar dira, araudi murriztaile baten bidez. Nolanahi ere, herritarrek fitxategi guztiak kontsultatu ahalko dituzte.

### HIRIETAKO ESPAZIO PUBLIKOAK, KALEAK ETA AZPIEGITURAK ASKATASUNEZ ERABILTZEKO ESKUBIDEA.

1) Espazio publikoen erabilera debekatu eta mugatzen duten ordenantza eta araudi guztiak indargabetu eta baliogabetu behar dira. Arbitrarioratasunarekin bukatu beharra dago, interes soziala interes pribatuaren gainetik lehenetsiz.

### IRITZI, ADIERAZPEN ETA MANIFESTAZIO ASKATASUNA.

1) Eskubide horiek mugatzen dituzten araudi guztiak indargabetu behar dira, eta adierazpen askatasuna nahiz prentsaurrekoetan, hitzaldietan edo ekitaldi publikoetan askatasunez parte hartzeko eskubidea bermatuko dituzten arauak ezarri behar dira haien ordez. Ideiak eta sentimenduak edozein bitartekoren bidez adierazteko askatasuna bermatu behar da, herritarrek bizitza politikoan parte hartzeko bide gisa ulertuta.

2) Manifestazio baketsuak egiteko trabak jartzeari utzi behar zaio.

3) Hezkuntza maila guztietan ahalegin bereziak egin behar dira beren eskubideak ezagutzen dituzten eta

besteenak errespetatzen dituzten herritar aske eta zibikoak hezteko.

#### ESKUBIDE POLITIKOAK

1) Herritarra eskubide eta betebeharren subjektua eta objektua da, eta administrazio publikoaren jarduna funtsezkoa da eskubide horiek sustatzeko, kudeatzeko eta babesteko.

2) Herritarrek, berez, bizitza publikoan esku hartzeko eta beren interesak modu zuzenean kudeatzeko eskubidea dute, ordezkariak hautatze hutsetik harago. Administrazio publikoek eta herritarren ordezkariak, beren aldetik, eskubide horren erabilera bermatu behar diete herritarrei.

Esku-hartze zuzenerako eskubideak honakoa eskatzen du:

- GARDENTASUNA, gai publikoak ezagutzeari dagokionez.
- HERRITARREN PARTE-HARTZEA, gai publikoen inguruko kudeaketan eta erabakietan parte hartzeko ahalmen gisa. Parte-hartzea aktiboa, kalitatezkoa, erabakigarria eta eraikitzailea izan behar da.
- Hautatutako ordezkariak errebokatzeko ahalmena, beren konpromiso etikoak, politikoak eta ordezkarietakoak betetzen ez badituzte.

Herritarren eskubideak kudeatzeari eta babesteari dagokionez, honako hauek dira Administrazio Publikoaren betebeharrak:

- eskubide indibidualak babestea.
- herritarren eskubideak erabiltzeko erraztasunak ematea.
- bere kudeaketari buruzko azalpenak ematea.
- bere kudeaketari ahalik eta gardentasunik handiena ematea.

#### ESKUBIDE EKONOMIKOAK, SOZIALAK ETA KULTURALAK

Eskubide horiek programa honetako beste atal batzuetan jorratu ditugu. Hala ere, guretzat giza eskubideak ere badira, administrazioak bermatu beharreko eskubide objektiboak. Horregatik aipatuko ditugu berriro hemen.

- Lanerako eta enplegua askatasunez aukeratzeko eskubidea
- Lan baldintza ekitatiboak eta egokiak izateko eskubidea
- Askatasun sindikala eta greba egiteko eskubidea
- Gizarte segurantzarako eskubidea
- Familiaren eta adingabeen babesa
- Bizi maila egokia edukitzeko eta bizi baldintzak etengabe hobetzeko eskubidea:
- Etxebizitza duina edukitzeko eskubidea

- Ura edukitzeko eskubidea
- Elikadura egokia edukitzeko eskubidea
- Ingurumenerako eskubidea
- Osasunerako eskubidea (gizarte laguntza, osasun laguntza, gizarte segurantzaren eta osasun estaldura unibertsala)
- Hezkuntzarako eskubidea
- Bizitza kulturean parte hartzeko eskubidea. Zientzia eta kultura babestea, garatzea eta hedatzea

#### KONTROLERAKO ETA ESKUBIDEAK BERMATZEKO MEKANISMOA

Giza Eskubideen Bulegoa sortuko da, Nafarroako Gobernuaren menpe.

-Bulego horren eginkizunak honako hauek izango dira:

- A. Herritarrek giza eskubideen urraketengatik egiten dituzten salaketak jasotzea. Horri dagokionez, eskubide zibil guztiak hartuko dira kontuan, zentzu zabalean: indibidualak, politikoak eta sozialak.
- B. Giza eskubideen egoeraren segimendua egitea. Erabakiak hartu behar dituztenentzat lagungarriak izan daitezkeen elementuak sortuko ditu, politika publikoak formulatzeko edota egokitzeko orduan informazio erreala eta egiaztagarria izan dezaten.
- C. Informazioa biltzea, herritarrek arartekoari aurkeztutako salaketen artean giza eskubideei dagozkienak aukeratuz eta salaketa bakoitzak arartekoaren bulegoan daraman tramitazioa gorabehera.
- D. Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari zuzendutako txostenak edo proposamenak idaztea.
- E. Bulegoak justizia auzitegien aurrean esku hartzeko ahalmena izango du, bere xedeak eta herritarren interesak defendatzeko.
- F. Bulegoak sarbide librea izango du Foruzaingoaren eta udaltzaingoaren egoitzetara eta Nafarroan kokatuta dauden barnaratze, zaintza eta zigor zentroetara (ezin izango du atxilotuekin hitz egin, baina, esaterako, grabazio kamerak denbora errealean ikusteko eskatu ahalko du).
- G. Administrazio publikoak Bulegoari laguntza ematera behartuta egongo dira. Laguntzarik eza organismo eskudunen aurrean salatuko da. Laguntza ematen ez dutenak zigortzeko erregimen bat arautuko da, eta epaitegietan haien kontrako salaketak ere jarri ahalko dira.



25

GATAZKAREN  
KONPONBIDEA



## GATAZKAREN KONPONBIDEA

### IDEIA NAGUSIAK

- EH Bilduk gatazka politikoaren arrazoiak eta ondorioak konpontzeko apustu irmoa egingo du.
- Nafarroa, bertako eragile politikoak, sindikalak, sozialak eta gizarte osoa izan behar dira protagonista gatazkaren konponbidean.
- Erabakitze eskubidea benetako bake eszenatoki bat eraikitzeko printzipio demokratikoa da. Nafarroak berak erabaki behar du bere eredu politiko-instituzionala, bere eredu soziala, bere administrazioa eta gainerako euskal lurraldeekiko harremana.
- Nafarroa bizitza politiko eta sozialaren eremu guztietan demokratizatzea urrats bat da gatazka konpontzeko eta bakea lortzeko egin behar den ibilbidean.
- Foro Sozialaren gomendioak gatazkaren ondorioak konpontzeko erreferentzia dira: ETaren armagabetzea, presoak, desmilitarizazioa, giza eskubideak eta memoria.
- Urte askotako gatazkan giza eskubideen urraketa ugari gertatu dira motibazio politikoengatik. Mota guztietako urraketen aitortza eta erreparazioa beharrezkoak dira.

### OINARRI IDEOLOGIKOAK

- Nafarroako gizartean hitz egiteko eta akordioetara iristeko prestasuna funtsezkoa da irtenbide global, justu eta iraunkor baterantzko bidean aurrera egiteko. EH Bildu prest dago herritarren parte-hartzea ahalbidetuko duten foro zabalak bultzatzeko eta haietan parte hartzeko. Hori ezinbesteko baldintza da bake eta normalizazio politikoko benetako eszenatoki baterantz aurrera egiteko.
- Gure iragan hurbilean, hala ETaren indarkeriak nola Espainiako eta Frantziako estatuen errepresio estrategiek eta gerra zikinak heriotza ugari eta zauri fisikoak nahiz psikikoak eragin dituzte pertsonengan. Zorionez, azken urteotako zenbait gertaera itxaropenez beteriko garai berri baterako oinarri sendoak direla antzeman dezakegu. Horra hor, besteak beste, Gernikako Akordioa, Aieteko Bake Konferentzia, ETaren jarduera armatuaren amaiera eta Foro Sozialaren gomendioak.
- Hala ere, Espainiako eta Frantziako gobernuen jarrera immobilista eragozpen larria da Nafarroan eta Euskal Herri osoan pertsona guztien eskubide guztiak erabat bermatuak izan daitezten. Azkenaldi honetan, Espainiako estatuak erabateko inboluzio bati ekin dio, aurrerapen oro eragozteko helburu nabariarekin eta etorkizunari begira ahal dituen oztopo guztiak jartzeko asmoz.
- EH Bilduren helburua da giza eskubideak eta askatasun publikoak gailentzea Nafarroan nahiz mundu zabalean. Nazioarteko zuzenbidearen eremuan horri dagokionez egin eta promulgatu diren Adierazpen eta Konbentzio guztien birtualitatea adierazten dugu.
- Foro Sozialaren gomendioak aintzat hartuz, EH Bilduk euskal preso eta iheslari politikoentzako irtenbide

integral baten aldeko apustua egiten du. Hori funtsezko elementua da bake prozesua sendotzeko eta bizikidetzaren egonkorra eta iraunkorra eraikitzeko.

- Berebiziko garrantzia du giza eskubideen urraketen biktima guztiak berdintasun printzipioaren arabera tratatzea. Nafarroan, orain arte, biktima batzuk soilik izan dira aitortuak. EH Bilduk bere esku dagoen guztia egingo du gertatu diren eskubide urraketa guztiak diagnostikatzeko eta giza eskubideen urraketen biktima guztiak aitortza, erreparazioa eta errehabilitazioa emateko. EH Bilduk aintzat hartzen du biktima guztien sufrimendua eta egia, aitortza eta erreparazioa exijitzen ditu biktima guztientzat.

- Eskubide indibidual eta kolektiboak errespetatuko dituen gizarte aske bateranzko bidean, gure iraganari buruzko egia ezagutzeko eskubidea ezinbesteko oinarria da. Justizia trantsizionaleko prozesu bat abiarazi behar da, arrazoi politikoengatik eragindako kalte indibidual eta kolektiboak aitortzeko eta konpontzeko.

- EH Bilduk bere prestasun osoa adierazten du indar politiko guztiarekin iraganari buruzko hausnarketa zintzoa eta itzulgingururik gabea egiteko. Hausnarketa horren bidez, bestelako etorkizun bat eraiki behar dugu guztien artean, pertsona guztien eskubide zibil eta politiko guztiak errespetatuak izango diren etorkizun bat, proiektu politiko guztiak inolako trabarik eta injerentziarik gabe defendatu eta gauzatu ahalko diren etorkizun bat.

- EH Bilduk bere esku dagoen guztia egingo du aurrerantzean giza eskubideen inolako urraketarik gerta ez dadin. Ildo horretan, gatazka politikoaren arrazoiak eta ondorioak konpontzeko apustu irmoa egingo du.

- Gure iragan hurbilenean, Madrilen egoitza duten hainbat estamentu judizialek legezketasunaren oinarritzko printzipioaren kontrako erabaki ugari hartu dituzte, interpretazio eta behar politiko zehatzen arabera. Gure herriak bidegabekeria ugari pairatu ditu ustezko justizia horren izenean, eta haietako asko indarrean daude oraindik. Hemen ez ditugu guztiak aipatuko, baina argi esan dezakegu Nafarroako herritarrek ez dutela justiziarik aurkitu Espainiako administrazioan. Sistema zaharkitu hau ez da gai erantzun hurbil, inpartzial, independente eta azkar bat emateko Nafarroako gizarteak egiten dituen justizia eskaerei.

- Nafarroak legeak egiteko ahalmen osoa eduki behar du arlo guztietan (zibila, penala, administratiboa, prozesala, laborala...). Horretarako, justizia administrazio propio bat behar du, autoktonoa, independentzia eta inpartzialtasuna oinarritzko printzipiotzat hartuko dituen eta segurtasun juridikoaren arabera jardungo duena. Epaile naturalaren printzipioari helduz (hau da, gertalekuko epailea aldarrikatuz), Botere Judizial propioa eskatzen dugu, Nafarroarako Botere Judiziala.

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### GATAZKAREN ARRAZOIAK. NAFARROA DEMOKRATIZATU

- 1) Instituzio guztietan erabakitzearen aldeko akordioak bultzatzea.
- 2) Erabakitzearen aldeko akordioak hartuz, Foru Erkidegoko instituzio guztietan gobernu akordioak erraztea.
- 3) Erabakitzearen aldeko dinamika sozialak babestea eta bultzatzea.
- 4) EH Bilduk Labriten aurkeztutako Nafarroak erabaki proposamen politikoaren sozializazioa eta gauzatzeko adostua.
- 5) EAEreko koordinazio eta elkarlan instituzionalerako organoak sortzea, arlo guztietan (ekonomia, kultura,

hizkuntza, industria, sustapena...).

6) Nafarroako estatus politikoa aldatzea, erabakitzeo eskubidea funtsezko elementutzat hartuz. Erabaki hori Nafarroako herritarrek hartuko dute, kontsulta baten bidez. Gobernuak herritarren esku jarri beharko ditu eztabaida sozialerako eta ondorengo kontsultarako beharrezkoak izango diren tresna legal eta operatiboak.

7) Gainerako euskal lurraldeekiko harreman ereduari buruzko kontsulta (EAE eta Ipar Euskal Herria).

## GATAZKAREN ONDORIOAK. PRESOK ETA IHESLARIAK

1) Presoen kontrako salbuespen neurriak eta giza eskubideen urraketak behin betiko buka daitezela exijitzea.

2) Dispersioarekin bukatzeo ekimenak.

3) Nafarroak espetxe politikako eskumena eskuratu behar du.

4) Gizatasun arrazoiengatik, preso gaixoek tratamendu egokia jasotzeo eskubidea dute. Haien gaixotasuna sendaezina bada edo espetxean egoteak larriagotzen badu, espetxetik berehala ateratzeko eskubidea dute.

5) Halaber, zigorra bete duten presoak kaleratu behar dira, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak agindu duen bezala, mendeku hutsa diren eta bake prozesua oztopatzeo beste helbururik ez duten lege-amarruak erabili gabe. Horri dagokionez, zeharo onartezinak iruditzen zaizkigu Madrilgo Gobernua zigorrak luzatzeko eta betikotzeo egiten ari den saiakerak eta erabiltzen dituen bideak, hala nola horretarako lege bereziak egitea eta atzeraeraginez eta arbitrariotasun osoz aplikatzeo, ingeniariatza juridikoa eginez eta Europako zuzentarau eta akordio guztiak urratuz.

6) Preso politikoak kaleratzeko eta iheslariak etxera itzultzeo prozesu bat bultzatuko dugu, Gernikako Akordioa eta Foro Sozialaren gomendioak oinarritzat hartuz.

## GATAZKAREN ONDORIOAK. ARMAGABETZEA ETA DESMILITARIZAZIOA

1) ETArein armen eta egitura militarren desegitearekin bukatuko den prozesu kontrolatu, ordenatu eta adostu bat bultzatzeo. Prozesu horrek nazioarteko erakunde erraztaile independenteen esku-hartzeo eta laguntza izan behar ditu, Estatuari eta haien instituzioei zein gizarte osoari egindakoaren segurtasuna emateko. Nafarroako instituzioek prozesu hori errazteko esku hartu behar dutela uste dugu.

2) Estatuaren segurtasun indar eta kidegoen kopurua eta eginkizuna birdimentsionatzeo, errealitatera egokitzeko.

3) Foruzaingoak ordena publikoaren arloko eskumen guztiak eskuratzeo.

4) Instituzioek nahiz gizarte zibilak segurtasun indar eta kidegoak kontrolatzeko benetako mekanismoak ezartzeo.

5) Estatuaren segurtasun indar eta kidegoek era mailakatuan alde egin dezatela eskatzeo.

## GATAZKAREN ONDORIOAK. BIKTIMAK ETA MEMORIA

1) Instituzioetatik egia, justizia eta adiskidetze prozesu zabal bat bultzatzeo, gizarte osoa barne hartuz. Gertatutakoari eta haren arrazoiei heltzeo eta biktima guztiei aitortzeo eta erreparazioa emateo.



- 2) Kolpe militarren eta errepresio frankistaren biktimak. Frankismoaren biktimek oraindik ez dute inolako erreparaziorik jaso. Elkarre memorialistak eta biktimen senideak egia eta justizia eskatzen ari dira oraindik. Nafarroako Parlamentuan Memoria Historikoaren Legea onartu zen arren, Nafarroako Gobernuak ez du ezertxo ere egin lege hori betetze aldera, eta zentimo bat ere ez du jarri frankismoak eraildako eta desagerrarazitako pertsonak bilatzeko. Lan hori bera ere herritarren elkarre egiten ari dira, beren kabuz eta inolako laguntzarik jaso gabe. Frankismoaren biktimen behin betiko errolda bat egitea proposatzen dugu, pairatu zituzten eskubide urraketak jasoz. Halaber, biktima horiei aitortza publikoa, erreparazioa eta ordain morala emateko biderik eraginkorrenak jorratu behar dira.
- 3) Egia argitzeko eta biktima guztiei aitortza eta erreparazioa emateko beharrezkoak diren lege-tresnak eta lan organoak sortzea.
- 4) Ikerkuntzarako eta Biktimen Akreditaziorako Batzorde bat eta Egiaren Batzordea sortzea bultzatuko dugu, gertatutako eskubide urraketan erantzukizunak zehazteko eta giza eskubideen urraketak pairatu dituzten pertsona guztiei erreparazioa emateko bideak proposatzeko.
- 5) EH Bilduk indar politiko guztien artean iraganari buruzko hausnarketa egitea proposatzen du. Indar politiko guztiek parte hartu beharko lukete horretarako sortuko diren foroetan. Iraganak ezin du irakurketa bakarra izan, baina kontakizun guztiek oinarri bera izan behar dute: autokritika egitea, norberaren erantzukizunak onartzea eta giza eskubideak errespetatzearen aldeko apustua egitea.



26  
*TOKIKO*  
*ADMINISTRAZIOA*



## TOKIKO ADMINISTRAZIOA

### IDEIA NAGUSIAK

Toki-administrazioari duen garrantzia eta eragina aitortzea ezinbestekoa dela uste du EH Bilduk, udalak herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak direla ulertuz, eta beraz, gure udalerrietako herritarren beharrei aurre egin eta zerbitzu publikoak bermatuz erantzuna eskaintzen duten tresna nagusienetarikoa.

Toki-administrazioaren antolaketa eta izaera ulertzeko oinarritzko printzipio honi kontrajarriz, eta nazioarteko finantza krisiaren ondorioak aitzakiatzat hartuta, Europa osoan uholde neoliberal ikaragarria nozitzen ari gara eta egoera honek, dudarik gabe, toki-entitateen funtzionamenduan eta antolakuntzan ondorio zuzenak eragin ditu, sektore publikoaren desegite politikak eta murrizketa sistematikoak sustatu eta inposatu dituztelarik.

Testuinguru honetan, alda ezina zirudien Espainiako Konstituzioa aldatu zuten, bankuen esku dagoen zor publikoaren ordainketa, legez, edozein gasturen aurrean lehenesteko. Hortaz, instituzio guztiek, Toki-entitateak barne, zor publikoaren ordainketa lehenetsi behar dute "Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Legeak" ezartzen duen moduan. Era berean, "Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legea" inposatu zuten, sektore publikoaren desegite prozesuan eta oinarritzko zerbitzu publikoen privatizazio politikan sakonduz.

Lege ekimen hauek ez dute alde on bakar bat, eta, besteak beste, udal-autonomiaren behin betiko inbasioari bidea ematen diote, kontu publikoen gaineko kontrol zorrotza eta gastu-murrizketa ezarriz. Azken finean, Nafarroako tokiko egituraketa instituzionalaren aurkako eraso zuzena ikusten ari gara eta ondorioz, berzentralizazio prozesu etengabe bat.

Nafarroako Gobernuak bultzatu dituen ekimenei dagokionez, Madrilgo Gobernuak hartutako erabaki guztienganako morrontzaren maila kezkarria erakutsi du (finantzazioa, tokiko maparen egituraketa...), Nafarroaren gaitasun araugilea behin eta berriz erasotu izan duten arren.

Egoera hau izanik, EH Bilduren lanaren abiapuntua gure lurraldean dagoen ohitura eta ibilbide munizipalistaren errespetuan kokatzen da, eta toki-administrazioaren baloreak sendotzen saiatuko da, udalak subsidiaritate printzipioren azken euskarri nagusiak diren heinean.

Halaber, errealitate munizipala -orokorrean toki-administrazioarena- indartzeko eta sendotzeko ekimenak sustatzea beharrezkoa izanen da, beraien autonomia bermatuz eta finantzazio justu bat proposatuz; eskuduntzen argizapenarekin eta berrantolaketa administratibo harmoniko batekin batera.

Herritarrak instituzioetatik aldentzea eta urruntzea eragiten duten gardentasun ezaren eta opakutasun politiken aurrean, toki-entitateen funtzionamenduan eta erabakietan herritarren parte hartzea sustatzeko toki-entitateak behar adina tresnekin eta baliabideekin hornitzeko proposamenak egin behar direla uste du EH Bilduk, udalak jendarteari irekiz.

Toki-entitateek erlazio sozio-laboralei dagokien arloan jokatzeko paperari dagokionez, EH Bildu ez da berdintasunean eta justizia sozialean oinarritutako erlazio laboralak erraztera soilik mugatuko, norabide horretan sakontzeko neurrien sustatzailea izanen delarik, besteak beste, udal kontratazioetan derrigorrezko klausula sozialak ahalbidetuz.

Gaur egun 6/1990 Foru Legeak eta 2/1995 Foru Legeak barnebiltzen dituzten eta indarrean dauden gai guzti hauek (antolaketa, arauak, finantzazioa...) abiapuntu bezala ulertu behar dira. Hau horrela izanik, konbentzitututa gaude arau hauek gaur egungo errealitatera egokitu behar direla, aurretik udalen finantzazioaren eta eskuduntzen errealitatearen azterketa sakon batetik abiatuta eta batez ere, herritarren beharrei erantzun egokia eskaintzeko praktikoak izan behar dutela aintzat hartuta.

Gauzak horrela, toki-entitateei eragiten dien legedien erreforma edo aldaketa estrukturalak kontsultatuak izateaz gain, toki-administrazioaren parte-hartzearekin eginen dira. Beraz, toki-entitateen egituraketari, eskuduntzei edota finantzaziorari eragiten dien aldaketetarako behar adinako esfortzua egin eta udalen eta kontzejuen parte-hartzea bermatzeko tresnak artikulatzea garrantzitsutzat jotzen dugu.

Ezin dugu ahaztu toki-entitateen autonomiaren eta boluntaritatearen errespetuak suposatzen duen balio saihestezina.

Ekimen hauek guztiak garatu ahal izateko, Foru Ogasunaren egoera aztertzea eta zehaztea beharrezkoa izanen da, baita egoera horrek EH Bilduk bultzatu nahi dituen politiketan izan lezakeen eragina.

Halaber, EH Bilduk Toki-entitateekin, hauen ondasunekin eta autonomiarekin edota beraien eskubideekin eta askatasunekin (ikurrak, inmatrikulazioak...) zerikusia duten beste esparru batzuetan ere lan eginen du. Lan hau, gainera, beste entitate batzuekin elkarlanean eginen du; NUKF, Udalbiltza...

## 2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO NEURRI ZEHATZAK

### UDAL FINANTZAZIOA

- Udal autonomia eta nahikotasun finantzarioa bermatzeko helburuarekin, toki-entitateen finantzazio egonkorra eta nahikoa bermatuko duen Udalen Finantzazio Legea onartzea beharrezkoa izanen da, Nafarroako Gobernuak zergen bidez jasotako sarrerren banaketan udalen parte-hartzea bermatzeko aukera aztertuz (zati proportzional bat zehaztuz). Horretarako, lehenik eta behin, ebaluazioa talde bat osatuko da toki-entitateen egoera aztertzeko eta legealdi berri honetan udal finantzazio sistema berria implementatu ahal izateko.

- Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen duen legea 2016ko amaiera bitarte indarrean egonen dela kontutan izanik, epe hau hainbat ekimen aztertuko diren denboraldi trantsitoriotzat hartuko da:

- A. Toki-entitateek zerbitzu publikoen kudeaketari behar bezala erantzun ahal izateko, 2016ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrean transferentzia arrunten funtsa handitzeko diru kontsignazioa egokitzea beharrezkoa izanen da.

- B. Udalek kapital transferentzien beherakada nabarmena jasan dutela eta 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Plana sine die luzatu zela kontutan izanik, EH Bilduk trantsizio izaera izanen duen Inbertsio Plan berri baten aldeko hautua eginen du (udal finantzazio lege berria zehaztu bitarte), oinarrizko azpiegiturretan gabeziak dituzten udalerrien beharrei erantzuteko.

- 2015-16 epealdirako Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen duen legea aldatzea, toki-entitateetako hautetsien ordainsariei dagozkien zigor-mekanismoak indargabetuz.

- Udaleko kideen ordainsariak zehazten duen oinarrizko taula eginen da.

## TOKI-ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA

- Nafarroako toki-administrazioaren atomizazioaren aurrean, foru lege berri baten bitartez toki-administrazioaren egituraketari dagokion antolamendu berri bat azterzea eta finkatzea beharrezkoa ikusten dugu. Honek, ordea, subsidiaritatearen, eskuduntzen argitzapenaren, nahikotasun finantzarioaren eta lurralde-elkartasunaren irizpideetan oinarritu beharko du eta toki-entitate guztien eta sektore lokalean lan egiten duten eragile guztien parte-hartzea eta inplikazioa bermatuz. Parte-hartze prozesu hau ahalbidetzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aurrekontu-saila egokituko da.
- Toki-administrazioaren egituraketaren eta antolaketaren barruan udalen eta kontzejuen eskuduntzak argitzea eta zehaztea beharrezkoa da. Toki-administrazioaren eskuduntzei buruzko azterketa egiteko talde interinstituzional baten osaketa bultzatuko da. Toki-entitateek eskaintzen dituzten eskuduntza propioen eta inpropioen azterketa eginen du talde honek eta eskuduntzen argitzapenaren proposamen berria landuko du.
- Zerbitzu publikoen pribatizazioa sustatu duten ekimenen aurrean, zerbitzu hauen kalitatea bermatzeko kudeaketa zuzenaren eta publikoaren berreskurapena bultzatzea.
- Herrialde mailako politiketako aspektu garrantzitsuetan eta erabakiak hartzerako garaian toki-entitateen parte-hartzea bermatzea beharrezkoa da: azpiegitura handiak, politika ekonomikoak... Toki-entitateen papera Nafarroako elementu egituratzaile bezala ere ulertu behar da.

## TOKI-ADMINISTRAZIOAREN MODERNIZAZIOA, PARTE-HARTZEA ETA ZERBITZU PUBLIKOEN KALITATEA

- EH Bilduk Toki-administrazioaren eta herritarrak zerbitzu publikoetara bide elektronikoz sartzeari buruzko 11/2007 Legearen modernizazioaren garapena ezinbestekoa ikusten du, Nafarroako Foru Komunitateko eta Udal Administrazioan herritarrei informazioa eta arreta emateko zerbitzuak eta Herritarren Txartela indartuz.
- Administrazio elektronikoa ezartzea, kudeaketa-gaitasun eta ahalmen ekonomiko urria duten entitateekin elkarlana sustatuz.
- Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzei buruzko 21/2005 Foru Legea aldatzea, zerbitzu publikoen kalitatea eta praktika onen sustapena garatzeko lidergoa Nafarroako Gobernuak hartuz.
- Toki-entitateek herritarren parte-hartzea sustatzeko politiketan sakontzeko legegintza-ekimenak garatzea beharrezkoa da. Horretarako, ekimenak, galdeketak eta erreferendumak..., organo administratiboen irekitzea (osoko bilkurak, batzordeak...), kontrol handiagoa bultzatuz kudeaketaren gardentasuna eta abar arautuko dituen "Herritarren Parte-hartzerako legea" beharrezkoa izanen da. Beraz, beharrezkoa izanen da Toki-entitateetan parte-hartze prozesuen derrigorrezko ezarpena eta prozesu hauek garatzeko behar adina mekanismo ahalbidetzea.
- Nafarroako Kontuen Ganberak urtero 5.000 biztanletik gorako edo 5 milioi euro baino gehiagoko aurrekontuak dituzten udalerrietan auditoriak egitea sustatuko dugu.
- Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea egokitzea beharrezkoa da, besteak beste, kontratu publikoen Baldintza Pleguetan klausula sozialak txertatzea ahalbidetzeko: ingurumena, euskara, genero ikuspegia...

## BESTELAKOAK

### IKURREN LEGEA

- Gaur egungo Ikurren Legea indargabetzea.
- Jendarteari irekitako Ikurren Lege berri bateri dagokion eztabaida ahalbidetzea.

### ONDAREAREN INMATRIKULAZIOAK

- Toki-entitateen (administrazio osoarena) ondarearen defentsa, gizarte osoaren ondasun komunal ukaezina izateagatik. Horretarako, baliabide teknikoak eta ekonomikoak bideratuko dira.